



**Azenari  
gaztearen  
oroitzapenak**

**Joseba  
Koldo  
Ortega**



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

JOSEBA KOLDO ORTEGA

# Azenari gaztearen oroitzapenak

# 1 - Alfa eta omega.

Albelda. Monasterio hartako gela batean Azenari Enekones baskoi zaharra bizi zen. 1059ko udazkeneko egun gozagarriek neguaren hurbila iragarri zutenetik idazteari ekin zion buru-belarri eta ez zen agertzen, ez anaien otoiz-kantatuak entzutera, ezta otorduetara ere. Besteek bake santuan zuten zuten. Monasterioetan ezohikoa zen egoera hura. Horrela jokatzeko arrazoiak anitzak ziren: zaharreria, han eta kanpoan eskuratua zuen entzute handia eta garrantzitsuena, azken aldian nahi zuena egiteko erakusten zuen burugogorra.

Eguna hasten zenetik ahalik eta gehien idazten saiatzen zen. Bazirudien heriotzaren abisua sentitzen zuela eta zerbaitek bere historia kontatzera bultzatzen zuela. Gorputz zaharrak edo begi nekatuek, askotan lana uztera behartzen zuten nahi baino gehiagotan. Baina, errekueratu bezain pronto ekiten zion lanari. Ezin zuen monasterioko ofizioetan denbora galdu.

Paper mordo batean idazten zuen. Musulmanek garatu zuten industria zen papergintza. Scriptorium-etan pergamino baino ez zuten erabiltzen. Hala ere, merkatari musulmanek zerbaite merkeago behar zuten beraien dokumentu eta kontuetarako. Papera, Ekialde Urrunean asmatua, aspaldian Valentzian, Mediterraneo hiriaren kanpoaldean lantzen zuten. Merkatari kristauak ere hasiak ziren trapuz eta landare desberdinez egindako papera erabiltzen.

Azenari, aparteko kasua zen monjeen artean. Bera denbora luzez bizi izan zen Korduban, Kalifen hiriburuan, eta paperetan idaztea eta beste ohitura batzuk ekarri zituen kristau lurraldeetara itzuli zenean. Are gehiago, monje bizitza eramatera behartu bazuten ere, bestelako bizitza izan zuten: bazuen emaztea, harengandik eta noble baten bizimodutik aparte bizitzera kondenatu zuten arte. Baina, hau guztia beste momentu batean kontaktzen ahal da.

Ez zekien norentzat idazten zuen, artean bizirik zeuden seme- alabarentzat, emaztearentzat, bilobentzat edo geratzen zitzaion kultura handiko lagun bakanentzat; edo... etorkizuneko auskalo norentzat.

Lehen orrian honela idatzi zuen:

“Ego, A. E. gratia Dei omnipotestis, qui me fecit sub habitum Sancti Benedicti vivere ...”

Euskaraz idazten zuen, garaian ezohikoa zena. Latinezko hizkiak erabiltzen zituen eta tarteka, erromantzez, latinez edo arabieraz idazten zituen glosak, hitz edo adierazpen batzuk argiak edo zalantzazkoak izaten ahal zirenean. Lehen hitzak idatzi ondoren, idaztearen arrazoia azaldu zuen. Gutxi ziren berak bizi izan zuena zekitenak. Bere ustez zerbaite garrantzitsua kontatu behar zien etorkizuneko irakurleei. Behinik behin honela idatzi zuen baskoieraz:

“Kristau lurralde desberdinetan bizi izan naiz. Herritar xeheak, errege, noble, monje eta zaldunak ezagutu ditut. Musulmanen artean ere hamaika urtez, beraien kultura, erlijio eta sozietateak ezagutu ditut. Umetan esklabo hartu nindutenetik, beraiekin ikasi, Afrika handian ibili eta gerlarien kapitain aritu nintzen, erabat libre lurralde hauetara itzuli arte.

Errege nafar batzuk ezagutu ditut: nire laguna izan zen Antso Gartzes Nagusia deitua, bere seme Gartzia Santxez Naiarakoa, azken honen seme malapartatua... Bestelako pertsonaia handiak ere ezagutu ditut: Gaztela eta Baskoniako nobleak eta herritarrak; baita musulmanen artean, Almanzor eta

bere semeak; Hisham, Sulaiman al-Mustain eta al-Mahdi kalifa omeyatarrak; Zawi ibn Ziri, eta Habus ibn Maksan sanhayarrak; ibn Hazm poeta eta politikari arabiarra eta ibn Nagrella judutarra haien artekoak ziren; bereak, judutarrak, mozarabeak eta arabiar jatorrikoak; gerlariak, jakintsuak eta agintariak. Herritar xeheen artean maisuak eta langileak, artisau eta artistak, maila sozial desberdinetako emakume interesgarriak eta merkatari eta bidaiariak izan ditut bidelagun.

Musulmanen artean urte batzuk pasa eta gero, berriro kristauen artean, Sancho Garcia, Gaztelako konde handia eta bere seme Garcia Sanchez ezagutu nituen. Eta uste dut kristau ala musulman izanda ere, badagoela zer ikasi besteengandik. Andaluziar, gaztelau edo baskoi, guztiekin gorabeherak izan ditut, baina baita harreman sakon, interesgarri eta estuak ere.

Baina has gaitezen hasieratik... ”

## 2 - Aurrekariak. Razzia bat musulmanen lurretan.

998. urteko abuztuaren 16a zen. Iruñeko ostatu batean lau lagun elkartu ziren amabirjinaren festa eguna ospatu eta gero. Aurreko eguneko elizkizunak bukatutakoan, Iruñean tabernak ez ezik kaleak ere festa-toki bihurtzen ziren. Goiza arte ibili ondoren, ostatuko gela batera joan ziren lotara. Hurrengo eguerdian altxatu eta gosari-bazkaria egin zuten. Ostatuaren beheko gela handi ilunean, txokoan, bi kandelek argitutako mahaian lau gazte nobleek bestondo handiaz gain, umore txarra erakutsi zuten. Azkeneko mokaduaren ondoren, hizketan hasi zen Gonzalo Santxez, Erregeren anaia txikia. Almanzorrek bakea inposatu zien errege eta konde kristauei eta beraien gerlariak ez zeuden pozik.

–Uda aurrera doa eta ez dugu ezer egin. Aurten ez dugu gerra-kanpainarik izan, eta ez dugu izanen ikusten denez. Ondasunik gabeko gazteok ez dugu sosik lortuko eta gure etxeetan alfer bizkarroitzat gauzkate. Ni nazkatuta nago. Zuek lagunok ez duzue ezer egiteko asmorik? Zu Semeno aspertuta zaude eta zuek Alfontso eta Joanes erran duzue ez duzuela batera egitekorik –Alfontso, Etxauriko jaunaren hirugarren semea zen, Joanes, bere lehengusua, Arazuriko tenentearen seme txikiena eta Semeno Uharteko jaunaren anaia txikia. Denak hogeit bat urtekoak, nobleziako bigarren semeak ziren. Ez zuten beren aurrekoengandik ondasunik jasoko, premuak hiltzen ez baziren. Beren etxeko gerlariak bezain pobreak izanda ere, nahi zutena egiten zuten, etxeko jaunaren semeak izaki. Nobleak zirenez beraien artean ez zuten hika herrikoi, zakar eta zatarra erabiltzen. Semenok erantzun zion printzeari.

–Arrazoi duzu Gonzalo. Aurten ere dirua eskatu behar diogu gure aitari edo senide ahaltsuren bati. Zerbait gehiago merezi dugu, ondasunetan eta lurretan zerbait jasoko bagenu behintzat, ez genuke eskalearena egin beharko. Nik gerra egingo nuke inori baimenik eskatu gabe. Gonzalo, Alfontso, Joanes, antola dezagun razzia bat Ebroko herri aberats batean. Deitu ahal diegu beste etxeetako bigarrenei eta gerlari on batzuei, eta herri batzuk hartu. Pikutara gure etxeok. Jaurerri batzuk irabaz ditzakegu... –Gonzaloren arreta lortu zuen, baina Alfontsoz zalantza adierazi zuen:

–Baina, Semeno, Erregek debekatu ditu erasoak. Bakean gaude musulmanekin. Gure lagunei armetara deitzen badiegu, jakinen da egiten ari garena eta debekatuko digute. Ez da posible erraten duzuna –Gonzalok ez zuen iritzi bera.

–Nire anaia Dardartiak ez du eskubiderik erasoak debekatzeko. Ez zuen kurian aurkeztu Amana eskatzea. Gainera, debekatu zutena gerra-kanpaina egitea izan zen. Guk lagun gutxi batzuekin, ezkutuan, arpilatze bat egiten ahal dugu –Joanesek bere zalantzak adierazi zituen erabat kontra jarri gabe eta Alfontsoz ez zuen garbi ikusten, baina pentsakor zegoen momentuz. Semenok berehala baieztatu zuen printzeak errandakoa eta ahalegindu zen asmo haiek zehazten.

–Gu laurok gerlari batzuekin nahikoak gara eraso azkar bat antolatzeko. Egun gutxi batzuetan Kalagorriko muga ingurura joan gaitezke ehizaldi baten aitzakian –Alfontsoz arazoak ikusten zituen eta horrela adierazi zien.

–Jaunok, horrela ikusiko dute daukagun asmoa. Kalagorri inguruak musulmanek dituzten lurrik aberatsenak eta zainduenak dira. Arriskua handiegia litzateke. Mugako kapitainek, bestalde, susmo txarrez hartuko lukete guk han ehiza egitea. –Semenok, dena pikutara joateko arriskuaren aurrean, proposamena gehiago fintzen eta gogoak berotzen saiatu zen orduan, printzea konbentzitzeko.

–Jaunok, printze hori, ez gaituzte errespetatzen eta ezer egiten ez badugu jauntxo alfer batzuk bezala ikusiko gaituzte. Gure etxeetan gerlari onak garela erakutsi behar dugu. Gure premuak bezain onak edo hobeak gara. Razzia azkar bat eginen dugu eta aberastuko gara. Egia da hobe prestatu behar dugula, horrexegatik denon artean zorrotzu behar dugu plana. Jauna, zuk erran duzun bezala, alfer bizkarroitzat hartzen gaituzte. Zerbait egin behar dugu –Gonzalok, besteei begiratu gabe, Semenori arrazoia eman zion.

–Ardoa eskatuko dugu eta razia behar bezala prestatuko dugu. Ea, has gaitezen gauza guztiak zehazten... –Erasoa poliki prestatzen hasi ziren.

Musulmanekin egiten zuten mugan, giroa ez zen oso lasaia. Erasorik espero ez bazuten ere, bai kristauen mugako herrietan bai besteetan gerlariak ez zeuden oso konforme. Erregek eta Almanzorrek sinatu zuten bakea. Hala ere, beraien gerlarien gogoak eta diru beharrak uda gehienetan gerra ez bazen, erasoetara eramaten zituen.

Mugako ingururik latzena, Ebro, Arga eta Aragoi hurbiltzen ziren lekua zen. Horregatik kokatzen ziren kilometro gutxitan tenentzia indartsu asko: Funes, Peralta edo Azkoién, Faltzes, Kaparroso eta urrunago Zarrakastelu. Bertako biztanleen bizitza oso gogorra zen, edozein momentutan musulmanen erasoa izaten ahal zelako. Jendea ere berezia zen. Musulmanek sarraskia egin ondoren, hondamendia uzten zuten erasotutako herrietan. Bizirik zirauten pertsonak preso hartzen zituzten eta berriro bizitza normala hasten zenerako urte batzuk pasatu behar ziren.

Inguru hartan biztanle gehienak agertu berriak ziren. Bestalde, asko ziren zaintza lanetan ari ziren soldaduak, mugaren defentsa zela-eta. Soldaduen arrimura joandakoak merkatari judutarrek, frankoak eta leku guztietako tabernariak ziren. Horietaz gain, lurra lantzen zutenak, lur berriaren premia zuten mozarabe eta baskoi libre batzuk ziren.

Herri haietako itxura eta egoera oso berdina zen. Harkaitz baten gainean dorretxe edo gaztelua eta inguratzen zuen harresiaren barnean txabolak eta animalien korta batzuk. Batzuetan ibai, erreka edo latsetatik hurbil ere artegiak, etxeren bat, errota eta baratzeak izaten ziren; urrunago zereal soroak. Herri txikietan, dorretxean gerlari batzuk eta biztanle arruntak ez ziren berrehun biztanletatik pasatuko. Arga eta Aragoi elkartzen ziren tokian lau tenentzien artean soldadu gehiago zegoen, ehun bat zaldun eta berrehun oinezko izaten ziren gutxienez eta batzuetan defentsak indartzeko soldadu gehiago bidaltzen zuten. Apez bakar bat bizi zen, ordea, Azkoiénean, herririk babestuenean.

Fortun Santxez, Faltzesko tenentea, Uharteko jaunaren anaia zen, enekotarren leinu nagusian bigarrena. Txikitako urteak pasata, gerlari trebea zenez gero, nahiz eta Eneko anaia premuarekin ongi konpondu eta honek gerlarien kapitain gelditzeko eskatu, nahiago izan zuen urrutian, gerra lurretan, mugetan, borrokatzera joan. Txikitatik ez zituen jasaten Semeno anaia txikienaren asmo eta azio txarrak. Horregatik, hogeitaz urterekin soldadu trebe egin, Erregeren zerbitzuan sartu zen; etxean, Uhartean, anaia-koinata, beren lau seme-alabak, Semeno eta Santxa arreba utziz. Oso denbora gutxian, azken hiru urteetan, bere ausardia, inteligentzia eta odol hotzgatik Faltzesko tenentzia eman zioten. Andre noble batekin ezkondu berrian bi seme-alaba izan zituen jarraian. Bere zaintza lanak aukera ematen zionean Iruñera eta Uhartera joaten zen urtero eguberrietan. Jaun Fortun dorretzeko saloian zegoen, menpeko bi soldadu-buruekin mahaian eserita, eguneko gorabeherak komentatzen eta ardo pote bat hartzen. Serioski ari ziren hizketan egun zailak baitziren. Eguneko berriak eskatu zizkion Bonusi.

Onkote izatearen fama zuelako deitzen zioten horrela; bestalde egin beharrekoak ongi egiten ere bazekien.

–Funesen eta muga izan ondoren, zer da muga-pasari buruz ikusi edo entzun duzuna?

–Gauza garbirik ez. Artzainek jende batzuen aztarnak erakutsi dizkigute Azagrako muga, begirale batzuen izan daitezkeenak. Aztarnen arabera bi edo hiru pertsona gazte, pauso luzeengatik diot, ibili egin dira ezkutuka gure aldera beha. Arraroagoa izan da gure begiraleek erran digutena. Dirudenez, gerlari asko mugitzen ari dira muga osoan. Arraroa dena da ezkutuan eta gaez ibili direla –Fortun pentsatzen gelditu zen momentu batez. Ezezko keinua egin zuen eta besteei adierazi zien pentsatzen zuena.

–Nik uste dut ez direla gehiegi fidatzen. Uste izanen dute, guk bezala, gerlariak diru gosez egonen direla. Nik beste tenenteei adieraziko diet nire ustea eta zuk, Bonus, jarraitu mugazaintzarekin –beste gizonari begira agindua eman eta galdetu behar zion zerbait.

–Koxme, zaindu gure soldatuen umorea eta galdetu inork erasoz zerbait dakien. Uste al duzu gure tenetzian zerbait gehiago egin dezakegula?

–Ez jauna. Ezin dugu gehiagorik egin. Dorrea zaintzeaz aparte ezin dugu hogeitazaldun eta beste hainbeste oinezkorekin gehiago egin. Errege eta Naiarako jaunari, gure gudarosteko buruari, gerlari gehiago ekartzeko eskatu beharko genieke –Fortunek, eskerrak eman ondoren agur erran zien.

Jaun Fortun Santxez-ek mezu pare bat idatzi eta bidali zien bere anaia Eneke eta Antso Fortuniones Naiarako jaunari, bere urruneko familiarra eta gerra-buruari, egoera adierazteko eta muga osoan neurriak hartzeko.

### 3 - Mugako hiri batean elkartu ziren noble borrokazaleak.

Lau lagunek, bost gerlari gehiago eta bost morroi ausart elkartu zituzten. Gonzalo printzeak hiru gerlari eta bi morroi eraman zituen; Alfontso eta Joanesek bi gerlari eta morroi bat konpartitzen zuten. Semenok ez zuen gerlaririk eramanen, bakarrik bi morroi konbentzitu zituen-eta. Aste bakar batean, ehizaldi baten aitzakian Baldorbatik pasa ondoren Aragoiko bailarara jaitsi ziren. Kaparrosoko ostaturik onenean, han bizpahiru baitziren, gela batean elkartu ziren gazte nobleak gerlariekin eta mugalari batekin. Azken honek mugako egoera nola zegoen kontatu zien.

–Jaunok, mugako herri guztietan bai alde honetan, baita musulmanenean ere, erasoan esperoan daude. Ni neu larri ibili naiz gaez pasatzen. Inguru honetan, baita bestaldean ere, Balterra, Milagro, Kadreita eta Kalagorrian, zaintzak inoiz baino zorrotzagoak dira –Gonzalok moztu zion orduan zorrozki.

–Abdul, erran nahi al duk ezin dela erasorik egin?

–Ez da hori, jauna. Inguru honetan ezinezkoa da talderik pasatzea. –Semenok moztu zion oso haserre, asmoak nola edo hala aurrera eramateko helburuarekin.

–Hemen ezin bada, beste nonbaitetik muga pasa eta joan gaitzke. Ez al dago pasabiderik muga osoan? –bukatu zuen mugalaria estutasunean jarriz.

–Bai, Zarrakaztelutik ez dago problemarik, baina...

–Orduan... –jarraitu zuen Semenok–. Handik Bardeatik Ebrora pasa gaitzke, bide ezagunetatik ibili gabe. Ez al dago herri eta lur aberatsik? –Gonzalori zuzenduta laguntza bilatu zuen.

–Jauna, seguru badela non arpilatu. Ez zaizu iruditzen?

–Bai. Abdul, erran ezak Bardeetatik nora joaten ahal garen –Abdulek posibilitateak adieraztera behartuta aurkitu zuen bere burua.

–Ebroko pasabide batetik ibili ahal gara eta gero, menditik Xalon bailarara jaitsi. Kalatayud inguruak oso aberatsak dira eta egunez ezkutuan, bi egunetan han izan gaitzke –Alfontso zalantza bat zuen eta galdetu zuen.

–Han zaingo musulmanak izanen dira. Ez al ditugu gerlariak gure gainean izanen? –Abdulek diru premia handia zuen eta ezin zuen aukera galdu. Berehala erantzun zion.

–Ni handik nator eta haien jauntxoaren arteko arazoez daude kezkatuta. Ez dute kristauen erasorik espero –Alfontso konbentzitututa gelditu zen eta Gonzalo ere bai. Honek besteen adostasuna ziurtatu nahi zuen.

–Orduan plana eginda dago. Uxueko mendizerran ehizatzaera goazela erran eta aipatutako bidetik Xalonera joanen gara. Ados al zaudete jaunak? –Beste jauntxoek eta gelariek baieztatu zuten zalantzak uxatu nahian.

Gaua herrian pasa ondoren, goiza baino lehen abiatu ziren Aragoi bailaratik gora Uxueko mendizerrara joateko itxura eginez. Mendiz Zarrakaztelu ondora heldu zirenean ezkutatu ziren, gauean Aragoi ibaia pasa eta Bardeetan barrena hegoaldera jotzeko. Ebro pasata, eguna ezkutuan izan ondoren, hurrengo gauean Xalon bailararen ondoko mendiko bideak jarraitu zituzten arazorik gabe. Kontu handiz ibili ziren aztarnarik ez uzteko. Morroiek ez zuten janaririk prestatzen, ezta surik egiten ere eta janaria hotz hartzen zuten. Azkeneko egunean ongi deskantsatu eta erasorako prestatu ziren. Herri handi baten ondoan ziren, Kalatorao izenekoa. Azken begirada botatzetik itzuli zenean, Abdulekan erran zien herria zainduta zegoela. Handik hurbil almunia oso aberats bat zegoen, jauregi bat azken batean, zaingo eskasa omen zuena. Almunia, Kalatayud-eko caid-aren anaiarena zen, inguruko gizonik aberatsena. Denek ahaztu zuten herriak konkistatzearen kontua, milaka dinarretako kutxak imajinatu zituzten, eta emakume ederrak ere bai. Ilundu aurretik, hestebeteak, gazta eta ogia jaten ari zirela, erasoaz mintzatu ziren. Gonzalok azkeneko aginduak eman zituen:

–Semenorekin joanen naiz iparraldetik, haizearen kontra, almunia handi hori arpilatzeraz. bost gerlari eta lau morroi izanen gara. Zuek Joanes eta Alfontso, lau gerlariok, morroia eta gidariarekin zain egonen zarete badaezpada gure bizkarrak zaintzeko. Arazorik gabe etxea hartzea lortzen badugu..., dugunean..., deitu eginen dizuegu ondasunak eramateko. Kontua da morroiok zer eginen duzuen. Zuek zein arma hartuko duzue, Mentzio? –galdetu zion konfiantzazko etxeko morroiari.

–Jauna, guk ez dugu ezpata eta lantzarekin esperientzia handirik, baina arkulari onak gara eta zakurrak akabatzen ahal ditugu. Denok ibili gara ehizan eta trebeak gara. Labanak ere badaramatzagu badaezpada. –Beste morroiek ere buruarekin baieztatu zuten Mentziok errandakoa.

Bost ordu beranduago berriro mugarantz atzera buelta egin zutenean gauza larriak ziren gertatu. Bi gerlari, gidaria eta morroi bat hilik suertatu ziren erasoan. Erasoaren hasieran zaintzaileak ezustean harrapatuta, zakurrak hil eta inork ez zien trabarik egin. Hango morroiak eta etxeko armagizonak gela batean eta haur-emakumeak beste batean itxita utzi ondoren, saloian etxeko jauna eta hurbilekoei ondasunak galdekatu zieten. Azkar lortu zuten informazioa, bitxiak, luxuzko zenbait gauza baliotsu eta urre eta zilar kopuru polita. Gaua izan arte gelditzeko asmoa zuten. Bitartean neskameei janaria prestatzeko eta ardoa ekartzeko eskatu zieten. Ardoa edan ondoren Semenok, Gonzalok eta bi gerlarik, emakume batzuk bortxatu omen zituzten eta gertatu zen iskanbilarekin etxeko jauna eta bere bi gizon oldartu ziren, borrokatu, eta kristauak hiltzea lortu baino lehen, bi gerlariak, gidaria eta morroia hil zituzten. Gainera, etxeko morroi batzuek ihes egitea lortu zuten. Kristauek hartu zuten mendekua izugarria eta doilorra izan zen.

Kalatorao ondoko almuniatik atera zirenean, emakume gazte eder batzuk eta ondasunak mando on batzuen gainean jarri eta azkar bizian eman zioten ihesari gerlari musulmanak agertu baino lehen. Beren arrastoa ezabatuz, baso eta mendietan ezkutatzera joan ziren. Babestokian elkarri leporatu zioten almunian gertatutakoaren errua. Semenok, bereziki Alfontso eta Joanesi zaintza falta leporatu zien eta hauek honi haragikeria eta lizunkeria. Bi lehengusuek ez zuten gustura ikusi sexu grina eta mendekatzeko musulman batzuei egindako bortizkeria. Gaututa, mendiz mendi Ebro aldera jo zuten zeharkako eta ezkutuko bideak hartuz. Bazekiten musulmanek gerlariak bidaliko zituztela haiek harrapatzeraz. Gidaria hilik zegoenez, joaneko bidea jarraitu arren, ez zituzten bideak ongi ezagutzen. Hiru egun kostatu zitzaizen Ebrora hurbiltzea. Mendekatzaileak atzetik zituztela nabaritu zuten azken egunean eta horregatik jarraitu zuten egun argiz. Arratsaldean, mendi batetik urrunean hogeitatu gerlari-saldoa segika ikusi zuten.

Kristauek gero eta hurbilago zituzten etsaiak. Gainera, morroiek, gatibu hartutako emakumezkoek, eta arpilatutakoaren zamak atzeratu egiten zuten ibilia. Beraien zaldiak eta mandoak nekutzen ari ziren eta musulmanek ordeztako zaldi freskoak zituzten. Ebrora iristeko, artean legoa bat, bost kilometro falta zirela, mendixka-ate batetik pasatzean, Semenok pentsatu zuen modu hartan jarraituz gero harrapatuko zituztela. Erremedio bakarra haietako gerlari batzuk sakrifikatzea izanen zen. Astirik gabe, Semenok Uharteko morroiei agindu egin zien ondoko pasabideko bi aldeetan sasietan ezkutatzeko eta atzetik zituzten moroak hurbiltzean, geziak jaurtitzeko. Animatu ere egin zituen beren ausardia eta gerlari sena erakusteko.

–Erakuts ezazue arkulari onak zaretela. Ibaiaren bestaldean zuen zain egonen gara.

Espero zitekeena gertatu zen, nahiz eta iheslariek ez ikusi. Morroiek gerlariak geldiaraztea lortu zuten ordu erdi batez. Azkenean inguratu eta hil zituzten. Ordurako, iluntzen ari zuelarik, kristauek Ebro zeharkatu zuten eta ezkutatzeko lortu zuten. Joanesek galdetu zion Semenori egindakoaz.

–Zergatik bidali dituzu hiltzera? Denon artean gelditu ahal genituen.

–Bai eta haiek gelditzeko, gutako batzuk hil? Morroi horiek arkulari onak zirela erakutsi nahi ziguten eta egin dute –hiru gazte nobleak isilean geratu ziren eta beste gerlari eta morroiak harrituta zeuden.

Lau nobleek, hiru soldaduek eta gelditzen ziren bi morroiek, atsedena hartu ondoren itzuli ziren Bardeetan zehar. Gau argitsuari esker goizean berriro ziren Zarrakastelu aurrean. Mugako herriak eta tenentziak saihesteko beharrezko gauzak eta jakiak morroiek eta zaldun batek erosi zituzten. Tafallara heldu zirenean, nahiz eta eraso sekretupean gordetzeko erran, herrian zabaldu zen eraso batean neska ederrak esklabo hartu eta ondasun handiak lortu zituztela. Lau gazte nobleek, Tafallatik atera ondoren ondasunak banatu eta bakoitza bere aldetik joanen zela erabaki zuten.

Alferrik izan zen. Iruñean eta Baskoniako leku guztietan laster zabaldu zen berria: Gonzalo printzeak, Semenok, Alfontsoak eta Joanesek, aristokraziako kume eta bigarren semeek Kalatayud inguruan erasotu eta Kaid-aren anaia garaituta, altxor izugarria eta printzesa batzuk lortu zituztela. Semeno Iruñerriko herri txiki batean ezkutatu zen momentuz, baina berehala, Uharteko Eneko Santxezek mezu bat bidali zion eta haren bidez Errege aurrean ostiral goizean lagunekin batera aurkeztu behar zuela adierazi zion. Uhartean agertu zenean anaiak harrera hotza egin eta gero, isilik entzuteko aginduta, hizketan hasi zitzaion saloian:

–Erregeren aginduei muzin eginez harrokeriaz eta diru gosez etxalde aberats bat suntsitu, biztanleak lotsagabeki erail eta emakumeak bortxatu dituzue. Eraso doilor eta lotsagarriaren berri bidali digu Kalatayud-eko jaunak. Zuen buruak eskatu dizkigu gobernadoreak eta ez gaude hori egiteko prest, zuek merezi ez duzuen arren. Auskalo zer ondorio izanen dugun aurrerantzean, zuek salbatzeagatik.

Kurian, erresumako handiki guztien aurrean, antzeko erretolika entzun zuten lau gazteek. Hasteko harrapatutako guztia eta esklaboak utzi behar izan zituzten itzuli ahal izateko. Denbora batez preso izan zituzten eta gero muga zerbitzuetan ibili ziren soldadu soil postuetan. Udazken hartan

erantzun gisa musulmanek Leza aldean egin zuten eraso azkar bat eta berehala itzuli ziren ordea emanda.

999ko neguan, otsailean, Uhartera itzuli zen Semeno. Ez zuen zigorra orduko bete, baina lortu zuen Funesko jaunak familiarekin egoteko baimena ematea. Uhartera heldu zenean bere anaia kanpoan zen. Negu guztietan bezala, elurte handiak izan ondoren, jaun Enekok herrietatik itzulia egiten zuen. Neguaren gogorrean etxerik pobreenetan janaria falta izaten zen. Hori zela eta lehenengo elurte handia pasa zenean, morroi eta gerlari batzuen laguntzaz gurdi batzuetan janaria, arropa eta tresna batzuk garraiatzen zituzten eta herriz herri ibiltzen ziren herritarrik baztertuenak laguntzeko. Jaun Eneko, ibilaldi hartan Aranguren eta Egues haranetatik pasatuko zen, mendialdean artean elur gehiegi baitzegoen hara joateko.

Bertako jauna falta zela aprobeztatuz, Semeno jauntxoarena egiten hasi zen. Ez zuen deusetan laguntzen, izatekotan traba egiten zuen morroi eta langileen eginkizunetan sudurra sartuz, baina agintzea gustatzen zitzaion eta bere nagusitasuna eta besteen menpekotasuna agerian utzi nahi zituen. Bakarrik beste jaunak eta apezak errespetatzen zituen. Uxue andrea hogeita hamabi urteko emakume mehe eta ederra zen. Ile horail eta aurpegi borobil politean begi handi marroiek maitasuna adierazten zuten. Momentu hartan, ordea, haserre zegoen eta koinatuari sarkina izatea leporatu zion.

–Semenok, ez duzu bat ere laguntzen eta morroiak aztoratzen dituzu. Utz izeaiezu beren lana egiten. Osabari ere ezin diozu bere lana erakutsi.

–Hara, uste nuen ez nintzela zure begietarako existitzen.

–Zoritxarrez zure presentzia nabari da. Lotsatu behar zenuke egin dituzun bortxaketengatik.

–Ba! Islamita batzuk besterik ez ziren, deabruzale hutsak. Baina, ez didazu erantzun. Duela sei urte ez nauzula kontuan hartzen, ez didazula hitz egiten. Nik maite zaitut eta aspalditik ez zara hurbiltzen. Lagunak baino gehiago ginen garai batean.

–Nola erraten ahal duzu hori? –ia ezin zuen hitz egin–. Ezustean harrapatu ninduzun, indarrez bortxatu ere. Antso txikia hil berria zen, Belaskita ere oso gaixorik zegoen eta ni lur jota nengoen. Anaia baten kontsolamendua behar nuenean..., ez nuen zure eraso espero. Eneko maite nuen eta oraindik maite dut. Ez nuen ezer erran Enekok hilko zintuelako eta familiaren makula galanta izanen zelako.

–Ez jarri horrela. Zerbait inportantea daukagu biok komunean.

–Ezta pentsatu ere. Xemeño ez da zurea. Uxue belaskotarra naizen bezala zin dagizut –irmo, negar egiteari eutsiz, bueltatu zen eta sukaldera zuzendu zen. Artean entzun zion Semenori erantzuna:

–Zure hitzak ez du balio. Odolak besterik ez du balio.

Arratsaldean, neskame nagusia, neska baten laguntzaz, eskailerak igotzen ari zen, arropa garbia logelako armairuetan uzteko. Orduantxe, Xemeñok, eskaileretatik behera lasterka zetorrela, pasadan eta nahi gabe, emakumea bultzatu zuenean saskia eta arropak lurrera bota zituen. Emakumeak, haserre, errieta egin zion mutikoari.

–Deabru halakoa! Begira nondik zoazen. –Mutikoa negarrari eman zion, ez zela erruduna erranez. Uxue anderea agertu zen iskanbila entzutean.

–Iñaxi, zer gertatu da hemen?

–Anderea, mutiko honek, korrika jaisten ari zelarik, arropa-saskia bota digu. –Umea negarrez ari zen eta Uxuek umearen negarrak garbituta, neskameari bota zion haserre.

–Egin badu, nahi gabe izan da. Hartu arropa eta zikin baldin badago eraman berriro garbitzera. Umea ez da deabrua zuk erran diozun bezala. Sentibera eta gozoa da –haurra laztanduz eraman zuen saloira. Iñaxik, hala ere, ezin izan zuen isildu eta ahopez gehiegi mimatzen zuela eskapatu zitzaion. Uxue andreak pentsatu zuen agian neskameak arrazoi zuela.

## 4 - Garazi belar-sendagilea.

Uxue andrea, Martina andrearekin, bere lagun minarekin, hizketan zegoen hurrengo egunean. Gertatutakoa, erraten ahal zena gutxienez, kontatu zion lagunari aholku eske. Martinak ongi ezagutzen zuen bere lagunaren koinatua, eta ahalik eta urrutien izateko aholkatu zion. Ez zuen aipatu, baina iruditzen zitzaion Xemeño gehiegi mimatzen zuela. Dena den, Uxueren aurpegi zurbila ikusita bere osasunaz galdetu zion.

–Uxue, aurpegi txarra duzu. Zerbait gertatzen al zaizu?

–Tripako minak nago. Garazi belar-sendagileak edabe bat prestatu dit eta hobeki sentitzen naiz. Ez kezkatu.

–Ba, azken urteetan tristeago ikusten zaitut. Gehiago atera beharko zenuke lagunei bisitak egitera. Etxe honetan lana eta lana besterik ez duzu egiten.

–Arrazoi duzu. Antso eta gero Belaskita hil zirenean, lur jota geratu nintzen. Agian, Xemeño gehiegi mimatu dut. Eneka, hamahiru urteko neska da eta urruti dago nigandik. Azenari, aldiz, maitekorra da, baina beti lagunekin edo Enekorekin ibiltzen da gizonen eginkizunetan interesatuta.

Azenari zazpi urteko mutil lirain eta altua zen. Nahiz eta artean aurpegi borobila izan, aitaren antza eta baraila indartsua izanen zuela nabari zitzaion. Ile gaztinkara, lisoa eta luze samar haren tximen atzetik sudur luze samarra eta begi nabar argiak ageri ziren eta ontasuna adierazten zutenak. Ahoak irribarrea eta hortz zuri berdinak erakusten zituen, eroritako baten hutsa izan ezik. Izaeraz, aldiz, oso mugitua zela, txintxoia eta zuzena. Azenari Otsoaren laguna zen, kapitainaren semea. Xorri, Antso, Txori eta Potxo morroien semeak ere lagunak ziren, baina ez hainbeste. Lagunekin elur batailak antolatuz zituzten aurreko egunetan, elurte handia izan zenean.

Otsaileko egun batean zakurrekin jolasean ari zen Azenari. Goizean, on Afranio apezak mezarako latinezko izkribua irakurtzeko eta oroitzeko erran zion. Latina ulertu arren, ez zitzaion ariketa hura bat ere gustatzen eta zakurrak agertu zirenean ezin eutsiz pergaminoa aldean utzi eta jolas-borroka librean hasi ziren. Beltzi mastin txikiagoa eta jostalaria zen eta burutxo, izenaren kontrara, buru eta gorputz handikoa, lasaiagoa eta zaharragoa. mutila eta bi zakurrak zorutik ari ziren bueltaka borroka-jolasean, on Afranio apeza agertu eta kristorenak bota zizkion, gixajoari latinezko izkribuaren ikasketa burutu ez zuelako. Zigor bezala beste izkribu luzeago bat irakurriarazi zion. Azenarik laster ikasi zuen idazten eta irakurtzen eta osaba Antsok erakutsitako zenbaketa ere arazorik gabe ikasi zuen. Hala ere, latinezko testu haiek, historia sakratuaz edo santuen bizitzaz ari zirenean, gehienetan interesgarriak baziren ere, Jainkoaren izaeraz eta teologiaz ari zirenean, berriz, aspergarriak egiten zitzaizkion.

Handik egun batzuetara, lanak bukatutakoan, bazkaria baino lehen, Otsoarekin ezkutatzera jolasten hasi ziren. Otsoa eskaileraren azpian gorde zen, Azenarik saloiaren atarira ematen zuten eskaileretan eserita eta begiak itxita ehunera arte kontatzen zuen bitartean. Bukatutakoan, bat-batean altxatu eta lasterka saloian sartzean osaba Semenorekin egin zuen estropezu. Osabak, haserre, ileetatik tiraka honela bota zion:

–Mutiko madarikatua! Leku guztietan habil algaraka eta estorbu eginez. Begira ezak nondik hoan.

–Hi izanen haiz madarikatua. Utzi bakean. Mina egiten didak.

–Nola ausartzen haiz hika hire nagusi bati egiten?

–Etxeko premua naizelako eta zakarra haizelako. –Hori entzutean, ileetatik tiraka kanpora eraman zuen haurra. Korta batera eraman eta bota zuen barnera atea itxiz. Inguruko zerbitzarien harriduraren aurrean, bota zuen egindakoaren arrazoia.

–Nire kontra jo du arrazoirik gabe eta madarikatu nau. Pizti honek animalien artean izatea merezi du. –Barnetik, gezurra zela oihukatzen zuen Azenarik negarrez. Zalapartarekin etxeko morroi, soldadu eta neskame gehiago agertu ziren, baita andre Uxue ere. Honek, itxuratik atera, negar malkoak zapi batez kendu, musu bat eman eta eraman zuen etxe barnera bere gelara.

Andre Uxuek ez zuen onartu Semenoren jarrera eta joateko eskatu zion. Honek ez zion ezer erantzun eta jaun Enekoren falta aprobetxatuz, jarraitu zuen bere jarrera harroaz etxeko kontuetan sudurra sartzen, nagusia izango balitz bezala. Orduan ere mintzatu zen apezarekin, Azenarirekin gogorrago jokatzeko. Hurrengo egunean, etxeko jauna agertu baino lehen joan zen Semeno.

Uda hasieran baskoiak gerrarako prestatu ziren, Almanzorrek esklabo musulmanak askatzeko aitzakiaz kanpaina eginen zuelako. Aurreko udaberriaren hasieran, musulmanen enbaxadorea zen al-Bakri kadi edo jueza agertu zen Iruñean Errege aurrean esklabo musulman guztien askatasuna eskatzeko. Baskonian esklabo musulmanik ez zegoela erran zioten eta berak eliza batean hogeitau urte lehenago esklabo hartutako bat aurkitu zuenean, haserre, alde egin zuen Kordobara. Erran gabe doa Almanzorrek udan agertuko zela lautadak suntsitzera. Erresuma osotik mugako tenentzietara bidali zituzten gerlariak, erasoan esperoan. Uda hasieran musulmanen armada batek Errioxa txikitu zuen eta Baskoien zaldun eta oinezko gehienak Naiara defendatzen ari ziren.

Najerilla eta Lezako bailaretan borroka gogorrak izan ziren. Ez ziren bi armadak aurrez aurre jarri. Denak ziren eraso eta kontraerasoak. Lezan kristauak galtzaile suertatzen ari zirenean Lizarraldeko zaldun batzuk agertu eta musulmanak ihesari eman zioten. Gero, Arnedo inguruko mendialdean kristauak garaitu zuten beste partida bat eta Arnedo bera inguratu zuten ondoren. Musulmanek Kalagorritik bi armada bidali zituzten, bat Leza eta Arnedora eta beste bat Azagra eta Azkoienera. Hilabete batez mugimenduak izan ziren, baina borroka handirik ez. Baskoiek gazteluak, dorreak eta herrien harresiak defendatu zituzten eta musulmanek gehiago izaki, landak hartu zituzten Errioxa eta Aragoi bailara bitartean. Abuzturako musulmanek esklabo batzuk hartu ondoren Medinacelirako bidea hartu zuten.

Abuztu bukaeran, Zaragoza eta Oskatik bidalita, bi mila bat gerlari Aragoiko Unkastilloko inguruak arpilatzen sartu zirenean, hurbileko gazteluetatik ehun zaldun baskoi bildu ziren borrokarako prest. Latza izan zen herriaren aurreko borroka. Kristauak garesti saldu zuten bizia, baina azkenean neka eginda gelditu ziren. Zaldun zaurituek gazteluan babesa bilatu behar izan zuten. Gazteluko beste gerlariekin batera ahal izan zutena egin zuten bi egunetan. Lehenengo egunean musulmanek gaztelua inguratutakoan, katapultekin harriak bota zituzten, gaztelua erdi desegina eta hildako eta zauritu asko utziz. Bigarrenegun harresiak eskailerekin eraso zituzten behin eta berriro, borroka odoltsuak sortuz. Defendatzaile guztiak akabatu zituzten. Gerlari bat bera ere ez zen bizirik atera. Handik aurrera Unkastilloko ehun zaldunen borroka izendatu zuten hura oinezkoak ahaztuta.

## 5 - Udako kanpainaren ondorioak.

Uda hartako kanpainaren ondorioak ikaragarriak izan ziren. Gonzalo printzea eta Joanes ehunka hildakoen artean ziren. Milaka ziren zaurituak eta esklabo hartutako herritarrak. Musulmanekiko gorrotoa ikaragarri handitu zen bai gerlarien artean, baita herri xehean ere. Bazirudien batzuek ahaztu zutela eraso haiek neurri handi batean jauntxo batzuen ondasun eta fama goseagatik gertatu zela, Unkastilloko errepresioa haiengatik gertatu zela. Nolabait ere, jaun Enekok ez zion azioa anaiari barkatu, baina bizibiderik ez zuenez, ezin zuen anaia etxetik bota. Ez zuen berarekin harremanik; dena den, Semenok nahi zuena egiten jarraitu zuen. Udazkenean ehizaldiak egiten eta menpekoak zirikatzen ibili zen.

Azenari beti Otsoarekin ibiltzen zen. Bi lagunak, Xorri, Antso, Txori eta Potxorekin jolasten pasatzen zituzten arratsaldeak. Egun haietan aukera zutenean herritik landa ibiltzen ziren, animalia kaltegarriak ehizatzen. Arkuak eta geziak erabiliz azeriak ziren haien helburu askotan. Batzuetan Esteribarretik jotzen zuten iparraldera; beste batzuetan Egues eta Arangunera jotzen zuten eta azken aldian Arga errekatik behera Iruñera hurbiltzen ziren. Egun batean Magdalena deituriko baratzeetan ari zirenean osaba Semeno ikusi zuten herritar batzuekin bide ondoko taberna batean. Azenarik isiltzeko eta ezkutuan hurbiltzeko erran zien. Han zirela, entzun zioten Semenori besteak nola zirikatzen zituen.

–Moroen lurrak oso aberatsak dira. Ausartak izanez gero, jopu on bat antolatu eta arpilatze ederra eginen genuke. Badakizue nik egina dudala eta izugarrizko dirutza lortzen ahal da. –Herritarrak, nekazari, abeltzain eta morroiak ziren eta beraren menpekoak ez zirenez, barre egin zioten, jauntxoak aberasteko eta hiltzeko prest egongo ziren gixajoak beste leku batean bilatzeko erranez. Semeno bakarrik zegoelako, bestela hantxe akatuko zituen barre egin ziotenak. Armatuta egonda ere, labanak zituzten hamar bat herritarren kontra ezin zuela ikusita, alde egin zuen Iruñea aldera. Mutilak kontu handiz tabernatik urrutiratu eta herrira itzuli ziren. Inoren beldurrik gabe hitz egin ahal zutenean, Xorrik hari buruz entzun zuena komentatu zien besteei.

–Herrian erraten zuten Semenok etxe pobreetako semeei horrelako eskaintzak egin zizkiela. Itzuli zenean, ordea, zabaldu zen morroiak utzi zituela, atzetik zituzten moroak arku eta geziz geldiarazteko, eta bera libratu ahal izateko –Antsok eta Potxok ere baieztatu zuten Xorrik errandakoa.

Hurrengo hilabeteetan andre Uxue gaixorik egon zen. Gaizki sentitzen zen askotan. Tripako minak ez zion ezer egiten uzten eta ohean gelditu behar zuen. Iñaxik etxeko martxa eramaten zuen eta zaintzen zuen andrea. Garazik, belar-sendagilea, gaixotasuna sendatzen ahaleginak egin arren, handik gutxira garbi zekien sendagaitza zela. Karramarroaren gaitza zen. Egin ahal zuena egiten zuen, mina apaltzeko botikak emanaz. Ez zion gaixotasunaren berri eman, andre Uxueren aurpegian bazekiela irakurri zuelako. Gainera, andereak senarra eta familiakoak ez larritzeko eskaera egin zion belar-sendagileari.

## 6 - Uharteko jaun Enekoren egitekoak.

Jaun Eneko etxeko kontuez arduratzen zen egunero. Gero, kanpoko eskaerak hartzen zituen kontuan, askotan auziak entzun eta erabaki behar zituen. Ahal zuen bezain laster gerlarien praktikak zuzentzen zituen. Noizean behin bere mendeko herri eta jabetzetan bisitak egiten zituen eta ehiza zen bere zaletasunik handiena. Egun hartan errate baterako etxeko eta kanpoko auzi pare bat zuzendu ondoren, Azenarirekin ezpata praktikak egin zituen. Goiz samar zenez mokadu bat hartuta, Azenari eta bi gerlarirekin zaldiz itzulia egin zuen Egueseko herri batera egunean eginkizun batzuk betetzeko. Trostan abiatu eta pausoka jarri zirenean semeari hasi zitzaion hizketan.

–Azenari, hire betebeharra herritarrak zaintzea izanen duk.

–Osabak ez du horrela jokutzen ba! Nik entzun dut herritarrak arpilaketarako deitzen. Ez dio inoiz herritar bati laguntzarik ematen.

–Azenari, isildu itzak zurrumurruak, are gehiago senide bati buruzkoak.

–Ez dut hortik barna egin. Baina zuri nire belarriekin entzun dudana eta ikusi dudana erraten dizut.

–Ongi duk, baina ez zabaldu hortik. Gure aita zenak, Jaun Antso Enekones, ongi eta garbi erakutsi zizkiguan herriarekiko maitasuna eta Baskoniarako zerbitzua. Horrek eskatzen ziguk semenotarren menpe bada ere, erresuma defendatzea eta gure menpeko herritarrei laguntzea.

Arratsaldeetan On Afranio apeza erlijioaz mintzatzen zitzaion Azenariri. Kristau onaren betebeharrak eta jokaeraz ari zelarik, etengabe, bekatariak infernura joanen zirela erraten hasi zen sermoian izan balitz bezala. Gero eta sutsuago munduaren akabera berehala izanen zela bota zuen mutilaren harridurarako. Jokaera zorrotzeko apeza zen, emakume, gazte eta umeekin bereziki. Aurreko apeza, Eulogio hil zenean apezpikuak apez gazte hura bidali zuen Uharteko herrira eta dorretxean aritzera. Urte betean ez zuen jaunaren eta andrearen konfiantza, baina bazekien onarena egiten, sinesmen handikoa agertuz handikien aurrean; menpekoen aurrean, aldiz, gogor eta bihotz-gabe jokutzen zuen.

–1000. urtean gaude eta idazki sakratuetan agertzen den bezala, jainkoaren aingeruek munduaren akabera iragarriko dute aurten. Ez dugu denbora galdu behar mundu honetako pentsamenduetan. Gure arima garbitu eta gorputza zigortu behar dugu. Ez genuke besterik egin behar. –Azenarik ezin izan zuen eutsi eta galdetu zion.

–Ez al gara 1038. urtean sartu? –apezak aurpegi desatsegina jarri zuen.

–Era hispanikoaren 1038. urtean gara, bai, baina era kristauaren 1000.ean. Ofizialki, Zesarren garaitik kontaktzen da, kristauontzat, ordea, Kristo jaio zenetiko 1000.ean gaude. Liebanako Beatok Apokalipsiaren komentarioetan agertzen duen bezala: Jainkoak abisuak eta izurriak bidaliko ditu munduaren akabera iragartzeko eta segituan biziak eta hildakoak juzgatuta, onak sarituko ditu zeruan berarekin eramanez eta gaiztoak izugarriko zigorrekin infernura bidaliz. Urtea bukatu baino lehen

gertatuko da dena, eta zuk horrela jarraituz gero, kristau bizitza ona izan ezean, infernura joanen zara erremediorik gabe.

Ordura arte mutilak apez gogor eta errezualetzat hartzen bazuen ere, handik aurrera obsesiboa iruditu zitzaion, adinagatik oso kontziente ez bazen ere. Beldurra sartuarazi nahi zion apezak? Kezka handia zuenez amarengana jo zuen apezak errandakoa kontatzera. Ama ohean zegoen, etzanda baino gehieago eserita, Iñaxi eta Garazi belar-sendagilearekin zegoen. Egin beharreko zaintzak bukatuta, Uxue andreak bere seme nagusiaren aurpegi serioa ikusita galdetu egin zion.

–Zer duzu mutiko? Zergatik zaude hain serio?

–Amatxo, on Afraniok dio munduaren akabera datorrela eta Jainkoak juzkatuko gaituela. Erran dit ez naizela ona eta infernura joanen naizela zuzen-zuzenean.

–Ez da izanen! Zu ez zara gaiztoa, maitea. Berak erran nahi dizuna da ona izan behar duzula. Ez kezkatu. Hitz egin behar dut apez horrekin. –Garazik ezin izan zuen isildu.

–Apez horiek, besteei beldurra sartzen eta dirua eskatzen beti. Mutiko inuzente bati horrelakoak botatzea ere! Zaude lasai mutiko. Zu ona zara. Duela 38 urte aritu ziren munduaren akabera zetorrela erraten eta zabaltzen. Bekatua gora eta bekatua behera, infernuko sutan bukatuko ginela zabaldu zuten, jende sinesbera sufriaraziz. Nahikoa sufrimendua dugu mundu honetan, apezek oraindik gehiago sufriarazteko.

Amak semea besarkatu eta lasaitu zuen, apezaren jarrerari garrantzia kenduz eta bera ona zenez, ez kezkatzeko erranez.

## 7 - Noblezia eta erregea.

1000. urteko martxoan Gartzia Santxez Dardartia deituriko erregea hil zen biriketako infekzio handi baten ondorioz. Antso printzea adinez nagusia ez zenez, erregeordetza antolatu behar izan zuten. Hileta-elizkizunetara errege-familia zabala, goi mailako kleroa, nobleak eta gerlari-buruak elkartu ziren. Hurrengo egunetan gorte osoa bilduko zen Baskoniako aginpidea segurtatzeko. Kurian, zendutako erregearen alarguntsa eta ama buru izanen ziren. Haiek laguntzeko apezpikuak, jauregiko nobleak eta buru militarrek. Hurrengo eguneko bilera nagusi hura prestatzeko, arratsaldean elkartu ziren.

Mahai baten inguruan bilduta zegoen Erregeordetza: bi erregina-alarguntsak Urraka Fernandez, Abarkaren alarguntsa eta Fernan Gonzalezen alaba; Jimena, Garzia Santxez Dardartiaren emaztea izandakoa; Jimeno, Iruñeko apezpikua; Garzia Naiarako apezpikua; Johan Oriolez botilaria; Antso Fortuniones, salako maestrea; Lope Iñiguez maior equorum-a eta Naiarako Jauna Fortunio Santxez alfereza edo buru militarra. Erregeren heriotzaren ondorioz gobernuaren inguruan zalantzak sortzen ziren eta botere-hutsunean gerta zitezkeen arazoei aurre egiteko elkartu ziren. Jimenok hartu zuen hitza lehenengoa, adinez eta gobernuaren inguruan esperientziadunena baitzen.

–Ene erreginok, jaunok, Antso printzea adinez nagusia ez den bitartean garbi eta zalantzarik gabea izan behar da erregeordetza. Erreginek eta hirurok, tutore zuzenak bezala, Erregetzaren ardura hartuko dugu, zuen laguntzarekin. –Fortunio Santxez-ek ez zuen hain erraz ikusten eta adierazi zuen.

–Barkatu. Errespetu osoz gogoratu behar dizuet bai herriak baita nobleek ere esku indartsu bat ikusi behar dutela. Guk guztiok lagunduko dizuegu, nik lehenengoa. Hala eta guztiz ere, zuek hirurokin administratzaile batek eta gerlari-buruok agertu behar dugu, printzearen ondoan. Salako mayordomoa den Jaun Antso Fortuniones ene semeak eta biok ederki bete ditzakegu funtzio horiek. Gainera, leinuko nagusiko buruek zin egin behar digute leialtasunez, koroa eta erregeordetza babestu eta obedituko dutela. –Denek keinuz eta ahoz adierazi zuten adostasuna, gustatu ala ez. Urrakak laburtu zuen bi erreginon iritzia.

–Ongi da jaun Fortunio. Baina printzearen ondoan erreginok agertuko gara, eserlekuaren atzean on Jimeno eta zuek bi aldeetan. Hurbil egonen zarete zuek beste guztiok eta konfiantzazko jaun eta apezak, gure erresumako leialenak.

Uharteko Semeno Santxezek pentsatu zuen erregetza berri bere leinura itzultzeko garaia zela. Enekok onartzen zuen estatus quo-a. Nola erran eta konbentzitu zuen? Iluntzean, afaldu ondoren lasai eta aldarte onean zegoela ikusi zuenean hitz egitea erabaki zuen.

–Anaia, hitz egin behar dugu erresumaren egoeraz. –Jaun Enekok errezeloz begiratu zion bere anaia txikiari. Azpijokoan ari zela pentsatu zuen.

–Ez dut ikusten arazorik hitz egin behar izateko.

–Bai, bada! Printzea mukizu bat da eta behar du gizon boteretsu eta ospe handikoa bere ondoan. Erregeordetza indartsua behar dugu.

–Eta nor da gizon hori? Zu agian?

–Ez. Zu zara ospe handikoa, Leinuetan bururik indartsuena eta errespetu gehien sortzen duena. Zuk baino ez duzu ematen ahal behar den segurtasuna.

–Ezta pentsatu ere. Guk erreginoi lagunduko diegu. Gure ahaideek, Naiarako jaun Fortunio alfereza, armada-burua, nahikoa da segurtasuna mantentzeko. Zuk ez diozu printzeari lagundu nahi. Entzun: ez ditugu gure erresumako indarrak banatuko. Ez dut berriro eztabaidatu nahi auzi honetaz. – Semeno ez zegoen ados.

–Iparraldeko leinu eta herriak alde dituzu. Erronkaritik Bizkaiaraino, Ipuzkoa, Iparraldea eta baita Gaskoniako lurralde asko ere. Eneko Fortunionesi egin ziotena gertatuko zaio printze mukizu honi. Leinu indartsuena gurea da... –Eneko Santxez-ek garbi zuen auzia eta haserre hitz egin zuen.

–Bai eta Aragoi, Tafallaldea, Deierri, Araba eta Errioxako leinu eta tenentziek, hegoalde osoko gerlariekin borrokan hasi beharko genuke. Gerra litzateke gure artean eta hori ez dut inola ere bultzatuko.

–Gure ahaideak, jaun Fortun, alfereza eta bere semea Antso salako maisua konbentzitzuz gero, Nahiara eta mugako soldaduak alde izanen ditugu. Egina genuke. Haiek ere Eneko Aritzaren ondorengoak dira...

–Aski da. Ez dut baskoi bakar baten odola isuriko. Ximenotarren ondorengo zuzena adin txikikoa bada ere, hegoaldeko leinuak atzean dituzte. Zuk ez duzu guzti hau Baskoniagatik egiten, boterea lortzeko baizik. Zu Errege izanen bazina, gure herria suntsituko zenuke, kanpoko etsairik gabe. Zoaz nire bistatik. Ez zaitut aurrean ikusi nahi. –Semenok zer eginik ez zuela ikusita joan zen haserre eta marmarka. Horretan geratu ziren Semenoren azpijokoak.

## 8 - Uharteko bizimodua.

Saloian iluntasuna nagusitu zenean, jaunak kandelak pizteko agindu zuen. Gonbidatuak mahaiaren ingurura hurbildu ziren. Udaberriaren bukaera zen. Solstiziorako bi asteetara, egunak luzatzen ari zirenean, berandu afaltzen zuten. Eguneroko lanak bukatutakoan morroi eta jaunek atsedean eta garbiketa azkar baten ondoren, otordu eta mintza-solasekin bukatzen zuten eguna.

Egun hartan, garaiko barazki freskoak hartuta, hilabete gutxiko txerri eder bat zuten bigarreneko. Morroiek burdinatik ateratako puska erreak plateretara pasatu eta afaltiarren artean banatu behar zituzten, ogia eta ardoa erruz lagundurik. Mahaiaren erdian, ohorezko tokian Uharteko jaun Eneko zegoen; bere ezker aldean etxeokak, Semeno; Eneka, Azenari eta Semeño seme-alabak inudearekin; Gartzia gudalburua eta Antso Belasko, salako maestrea, jaurerriko administratzailea eta etxeok andrearen anaia zena. Eskuinean, bisitan etorritako Legineko hiru zaldun, apezka eta haren laguntzailea eseri ziren. Burutzan, jaunaren ondoan, Uxue anderearen lekua hutsik, gaixorik baitzegoen.

Uharteko dorretxea Iruñeko lautadaren ipar-ekialdean zegoen. Esteribar haranaren sarreran herria eta dorrea kokatzen ziren, Arga errearen ondoan Orreagarako bidean. Uharteko jaunak bere dorretxetik Esteribar, Uharteko herria eta inguruko beste lur batzuetan agintzen zuen. Bera zen inguru zabal batean jueza eta bailara batzuetan agintari eta kapitaina. Baskoniako handikien artean garrantzitsuenetakoa.

Urte hartan, 1000. urtean, gerra giroan bizi ziren. Aurreko urtean Almanzorrek eraso zuen erresumako hegoaldea esklabo musulmanak askatzeko aitzakian eta beste razzia bat espero zuten uda hartan. Jaun Eneko eta bere gonbidatuak afari-ondoan egoeraz mintzatzen hasi ziren. Tentsio handiko giroa susmaturik, Azenari han geratu zen txokoa belarriak erne, haurrideak eta inudea aldendu eta oheratzera joan zirenean.

–Kezkatuta gaude jauna –erran zuen Legineko Antso kapitainak.

–Erregea hil zenetik gure luraren defentsari eta gerlariei ez zaie behar bezalako kasurik egiten. Berorrek badaki Almanzorren eraso dagoeneko prestaketetan dagoela eta erreginek eta apezpikuek ez dutela ezer egin.

–Gure gotzainek Jaungoikoaren hitza zabaldu eta aginduak betearazten dituzte –erantsi zuen apezak–. Jainkoak lagun, onik aterako gara egoera larri honetatik... –Jaun Enekok moztu behar izan zion erretolika.

–Ez eztabaidatu jaunak. Biok arrazoi duzue neurri batean. Errege Kontseiluak beharrezko zaintzak egiten ditu. Egia da, hala ere, gure defentsak prestatu eta erasoaren kontrako neurriak hartu behar ditugula.

–Jainkoak lagun, idolatrak ez dira gure lurretan sartuko –gaineratu zuen apezak.

–Al-Bakri, kadi eta enbaxadoreak esklabo musulmanak askatzeko agindu zigunetik bi eraso jaso ditugu eta udan beste bat espero behar dugu, Semeno, berorren anaiari esker gainera –erran zuen Leginekoak. Semenok ezin izan zuen jasan eta ez zen isilik geratu.

–Herejeen kontra gerra egitea ez da bekatu. Guk Jainkoaren alde borrokatu egin dugu.

–Et, et, et... –moztu zuen Antso kapitainak–. Almanzor, musulmanak esklabo hartzeagatik guri begira zegoenean, lau jauntxo gazte lapurretan ibiltzea ez da Jainkoaren alde egitea, haren haserrea baskoi guztien kontra erakartzea baizik – Semenok ahots dardartiz zerbait gaineratu zuen.

–Unkasteluko borrokan hil zituzten ehun zaldunak mendekatu behar genituen...

–Zuek lau jauntxook Calatayud inguruetan arpilatu, gobernadorearen anaia hil eta esklaboak hartzearen ondorioa izan zen Unkastelukoa... –bota zuen Antsok–, eta ez aldrebes. Hobe isiltzen bahaiz!

–Aski da! –erran zuen jaun Enekok mahaiaren gainean kolpe bat emanez–. Isildu hadi Semeno. Antsok arrazoi dik hiri leporatutako guztietan. Gainera, Kontseiluari gudarostea deitzeko beharraz konbentzitu behar diogu. Lasai jaunak, bihar Iruñera joanen naiz. Han mintzatuko naiz gure mobilizazioaz eta zaudete ziur Kontseiluan hitz egingo dudala. –Afaria bukatutzat emanda, lotarako prestatzen hasi ziren. Momentu hartan etxeko jauna, Antso salako maestrearekin, eta zerbitzari buruarekin eginbehar batzuetaz aritu zen. Horrela, Uharteko jauna kanpainarako neurriak hartzen hasi zen.

Azenari bere jarlekutik denari begira zegoen. Bere aita menpekoekin biltzen zen bitartean, beste bi talde egiten ari zirela ikusi zuen. Legineko zaldunak Gartziarekin elkartu ziren gudarien gorabeheraz hitz egiteko eta osaba Semeno, artean haserre eta Antso kapitainari gaizki begira, apeza eta akolitoarekin hasi zen ahopeka. Azenarik oroitu zituen osabari buruzko esamesak. Hiru urte lehenago, bere hiru lagunekin eta beste hamar bat gerlari eta morroirekin arma, zamari eta janaria lortu eta ehizatzerako joateko aitzakian Bardea aldera abiatu ziren. Handik aste batera, hainbat artelan, urre eta esklabo hartutako zenbait emakumerekin agertu ziren, Kalatayud-en musulmanak garaitu zituztela erranez. Egun gutxi batzuen buruan bestelako berriak entzun ziren. Alkaidearen anaiaren almunia edo nekazal etxaldea eta inguruak sarraskitu zituzten gudari gutxi batzuek, ezustean harrapatu ondoren. Gainera, gizonak larriki eta lotsagabeki torturatu, emakumeak bortxatu eta utzi zuten guztia suntsitu zitela leporatu zien gobernadorearen bozeramaleak.

Oroitzapen haietan zegoelarik, Semeno bere ilobaren begiradaz ohartu zen eta inor konturatu gabe mutilaren ileetatik tiraka, saloitik atera eta bortizki bultzatuz etxeko umeen logelara bota zuen. Azenari saiatu zen txintik ez ateratzen, ez baitzuen nahi minagatik sortutako malkoak inork ikusterik. Beren logelan negar isilean aritu zen Azenari, lotan ziren senide eta inudeak ez esnatzeko. Handik gutxira ohartu gabe loak hartu zuen, ametsetan osabaren begirada gaizto eta amorrus beteak mehatxatzen zuen bitartean.

Hurrengo egunean Iruñera abiatu ziren, jauna, Azenari semea eta Gartzia kapitaina, zaldun batzuk lagundurik. Egunsentia baino lehen morroi batek esnatu zuen mutila, jaunak deitzen ziola erranez. Mutilak aita agurtu zuenean, honek burua laztandu ondoren, irribarrez, erran zion bi egunetarako Iruñera joango zirela, azkar garbitu, amarekin despeditu eta arropa garbia janzteko. Handik gutxira zaldi banatan abiatu ziren. Jaun Eneko eta semea, atzeko zaldunengandik urrutiratuta zeuden. Aita, gortean kontuan izateko aholkuak ematen hasi zitzaion semeari.

–Gortean, ezustekoen aurrean lasai itxurak egin behar dituk eta ez egin, ez oihu, negar, ezta algararik ere. –Azenariren harridura aurpegiaz oharturik jarraitu zuen–. Erranen diat zergatik. Gortean, batzuetan, asmo txarrik ez badute ere, dibertitzeko besteen emozioak erabiltzen ditiztek. Gure familia

inportanteenetakoa duk eta besteek zirikatatu egingen diate. Horretarako arrazoia duk Eneko Aritzaren ondorengoak garela; baina, Fortun Gartzes haren bilobaren ondoren gure leinua baztertu zitean eta ordutik Antso Gartzes semenotarraren beste errege-familia zagok boterean. Guri, gure lagunek enekotar edo aritzar deitzen zigutek; etsaiek, ordea, fortundar, errege hura zoritzarrekoa izan baitzen. –Azenarik oroitu zituen inguruko herritarren errespetu tratamenduak, baita beste familia nobleetako haur handiago batzuen mesprezuzko tratatuak eta amak kontatua:

–Ez egin kasurik bekaizkeriaz jotako jauntxoak baino ez dira horiek. Gure familia, alboratutako beste errege-familia da eta baztertzeko jarrera erakutsi behar digute, besteen aurrean oraingo errege-familiari men egiten diotela erakusteko. –Amak dena kontatzen zion, modu errazean, baina heldu bati erraten zaion bezala. Horregatik zortzi urtekoa izan arren, ezagutzen zuten heldu guztiek maila berean hitz egiten zioten aspaldian, gauza asko ulertzen zuela ikusirik.

Uhartetik Iruñerako legoako bidea poliki egiten hasi ziren, asko baitziren azokara inguruko herrixketatik beren asto, mando eta gurdietan nekazal eta artisautza produktuak eramaten zituztenak. Zaldien gainean aurreratu egiten zituzten oinezkoen taldeak. Herritarrek zein ziren ezagututa, agurtu egiten zituzten. Zuhaitzek kimu eta lore goiztiarrak erakusten zituzten Argaren bide zaharretik. Arrerako gurutzean, Ultzama erreka pasatu ondoren, iparraldera desbideratu ziren baselizako apezak, jaun Eneko ondotik pasatuko zela jakin gabe, mezulari bat bidali baitzion handik agertzeko erreguarekin. Denbora asko pasa gabe, baseliza txiki eta ilunera sartu ziren. Apeza inguruko etxe batean izango zen. Jauna, han zegoelako abisua bidali ondoren, apezaren zain geratu ziren. Bakarrik zeudela aprobetxatuz, jarraitu egin zuen azalpenekin.

–Baskoien lurralde honetan hamabi leinu nagusi zaudek. Haietako bat gurea zuan Iruñetik iparraldeko lurraldeak menperatu eta mugak zaintzen genitien. Horregatik baskoi guztiak gidatuz, Karlo Handiaren armadako frankoak garaitu genituenean, gure herritarrek errege izendatu zioten Eneko. Halere, kasitarrekin genitien ahaidetasun harremanek eta herritarrek sentitzen zuten musulmanen kontrako jarrerak leku txarrean utzi zitean, haren biloba zen Fortun Gartzes. Fortun, Kordoban atxilotuta zegoan bitartean, Antso Gartzes Zangotzako semenotarrak borroka batzuk irabazi zitien eta Asturiaseko erregearekin harremanak eta akordioak lortu zitien. Fortun hil zenean bizirik zegoan bere seme nagusia, Eneko, adin gutxikoa zuan eta orduantxe Antso Gartzes errege izendatu zitean. Eneko Fortuniones, nire aitona Eneko Fortunionesen aitona zuan. Gure leinuko beste adar batek, Azenar Fortunionesen ondorengoak, gortean agintzen ditek, Fortunio Santxez Naiarako jauna adinekoa bada ere, gudaroste burua, alfereza duk, erregearen eskuin eskua eta bere seme Antso Fortuniones maestresala duk. Ehun urte pasa dituk eta gugandik lehengusu txikiak urrunduta badira ere, indar handia diagu enekotarrok.

Aitak ateraino begiratu zuen, Gartzia erraten ari zitzaizolako apeza sakramentu bat ematen ari zela eta berehalaxe heldu zela. Baiezko keinua eginez jarraitu zuen kontatzen:

–Gortean Antso printze semenotarra ezagutuko duk hire adinekoa da-eta. Baita Fortun Santxez, maestresalaren seme nagusia, gure lehengusu txikia, printzearen esne-anaia ere baduk. Hire aurpegiagatik ikusten duk ulertzen duala. Lasai, bi egun hauetan gehienetan arrebak Santxa eta Belasko scriptore jaunaren etxean izanen gaituk lo egiteko. Guztiz gure konfiantzazkoak dituk. Badakik hire izeba-osabak direla bi aldeetatik. Baina kontuz ibil hadi errege-familia eta handikiekin. –Semea baiezko keinua egiten ari zela, apeza arnasestuka sartu eta hasi zen erraten hiltzear zegoen bati azken olioak

eman zizkiola. Handik gutxira arnasa berreskuratuta, bere laneko gorabeheraz aritu zitzaion Eneko jaunari. Azenari Baseliza ondoan eraikitzen ari zen harrizko zubira hurbildu zen eta langile batek kanpotar bati emandako azalpenak entzun zizkion. Zubi hura bukatzean pasako ziren Pirinio bestaldetik etortzen ziren erromesak.

Handik gutxira, Iruñea ondoko paisaia erreparatu gabe ibili zen Azenari. Bueltaka zerabiltzan buruan azken egunetako gorabeherak eta bereziki aitak kontatu berri ziona. Ez zituen nabaritu hosto berri distiratsu berriak ezta pikondoek zabaltzen zuten usain umela. Pixkana-pixkana zaldi urrats-hotsen laguntzaz hurbildu ziren hiriburura.

Iruñeko iparraldeko ataritik sartuta, Errege jauregira abiatu ziren. Jauregiko patioan zaldiak morroiei utzita eta garbiketa arin bat egin ondoren, saloi nagusira zuzendu ziren zerbitzari baten atzetik. Gela handiaren beste aldean zurezko plataforma ganean, besaulki handietan bi erregina-alarguntsak zeuden: Urraka Fernandez, Abarkaren alarguntsa eta Fernan Gonzalezen alaba zena eta Jimena, Garzia Santxez Dardartiaren emaztea izandakoa. Haien ondoan, ezker aldean, Jimeno, Iruñeko apezpikua eta Garzia Naiarako apezpikua aulki txiki banatan eserita ikusten ziren; Eskuinean, zutik, Garzia Belazquez Kantzilerria, Antso Fortuniones salako maestra, Johan Oriolez botilaria eta Lope Iñiguez maior equorum-a hizketan ari ziren. Zerbitzariak etorri berrien izenak ozenki ahoskatu zituen salakoen arreta erakarriz.

Jaun Enekok eta Azenarik, belauna lurrean erreberentzia egin zieten erreginei eta haien baimena eta agurrekin, jauna honela mintzatu zitzaion:

–Gure erreginok, jaunok, erran behar dizuedana azaltzen hasi baino lehen, zilegi bekit ene seme nagusia aurkeztea. Hau duzue Azenari gure etxeko premua, oinordekoa, txikia adinez baina dituen zortzi urteetarako oso heldua, gure ardurak eta nekeak ikasteko ekarri dudana.

Azenarik ere agurtu zituen bildutakoak bi erreginei gur bana eskainiz. Urraka erreginak erantzun zien denon partez:

–Uharte, Esteribar, Erro eta Egueseko Jaun Eneko, gure ahaide, erresumako pare eta fortundarren leinuaren buru, ongi etorri gure kontseilura, baita Azenari zure seme prestua ere. Bidali diguzun premia bilera eskaera dela eta pasa gaitezen gaira. Adieraz ezazu zein den premia handiko hori.

–Ene Erreginok, jaunok, ongi dakizue Almanzorrek hilabete gutxi barru razzia handi bat egingo duela. Nik mobilizazioaren premia ohartu behar duzue. Eta nire iritzi eta aholkua kontuan hartu nahi baduzue, nik Sancho Garcia Gaztelako kondearen deiari kasu egingo nioke, ahal bada borroka-tokia gure lurraldean ez izateko. Gaztelara mugitzeko, zaldunentzako deiak lehenbailehen hasi beharko genituzke...

–Oraingo aski da, Jaun Eneko –adierazi zuen Oriolez–. Hori guztia erabakita du Kontseilu honek. Gure alferrezak, Naiarako Jauna Fortunio Santxez, jaun guztion bilera deitu du hurrengo asterako, igandean meza nagusiaren ondoren hemen egiteko. Bi aste barru ekaina bukaerarako gure lurralde zainduta eta gudaroste handi bat Gaztelan izateko moduan egonen gara. Hemen zaudelarik, has gaitezen prestaketak egiten...

–Ongi da jaunok –moztu zuen erregina Urrakak–; baina, mutil hau aspertuko da gobernuko auziekin. Furtuniones, eraman ezazu mutila gailetak eta basokada bat esne hartzera. Aurkeztu iezazkiozu zure Fortun, bere lehengusu txiki eta gure Antso, haiek ezagut ditzan. Adinekoak dira eta gustura jolastuko dira.

Horrela, salako maisuak, gogoz kontra, ahaide txiki haren aurkezle eta morroiaren papera egiten zuela sentitu zuen. Erresumako laugarren agintariak ohoreak egin behar zizkion bere leinuko buruaren seme nagusiari, mukizu bati. Jaun Antso Fortunionesek morroi bati agindu zion mutila sukaldera eramateko eta hamarretakoa bukatzen zuenean berarengana atarira bidaltzeko. Sukaldean mokadu bat hartuta, jauregiaren zalditegi ondoko kortara eraman zuten Azenari. Han, moxal arabiar eder bat laztantzen ari ziren bi mutil. Antso Fortunionesek, izenak aipatuz aurkezpen azkarrak egin zituen eta alde egin zuen. Elkarri begira zeudela printzea hasi zen hiketan mintzatzen.

–Fortun, agian ez duk jakinen Uharteko Azenari hau ere beste fortundar bat dela hi bezala. Azenari, Fortun hire lehengusu txikia duk eta hirurok Eneko lehen erregearen ondorengoak gaituk. Beraz, izan gaitezen lagun. Hau, oparitu didaten zaldikoa duk, Haize dik izena. Gustatzen al zaik? Karrera bat egin behar diagu egun batean.

Hiru mutilak zaldi-mutil baten laguntzaz zaldia hezten aritu ziren. Txandaka, soka batetik bueltak eginarazten zizkieten, gelditzeko, abiatzeko, buelta egiteko, moteltzeko eta arintzeko aginduak Antsok ematen zituen bezala. Handik ordu batera zaldia nekatu eta haiek ere aspertu zirenean, hiritik ateratzea pentsatu zuten eta beroak jota, errekarra joatea bururatu zitzairen. Salako maisuari abisua utzirik, soldadu batzuen zaintzapean harresiko mendebaldeko ataritik errota berriaren ondoko bainutokira joan ziren bustitzera. Han, elkarri ura botatzen aritu ziren hasieran, eta igerialdi luze bat egin ondoren, erreka ertzean etzan ziren lehortzeko. Bat-batean Fortun zuzendu zitzaion Azenariri:

–Barka iezaiok aitari Azenari. Berak gaizki eramaten dik zuek leinuko buruak izatea. Aita salako maisua duk, jauregiko posturik altuena eta aitonak Naiarako tenentzia dik, erresumako garrantzitsuena, eta gudalburua izaki, ez ditek zuen lehentasuna ongi onartzen. Zuen aurreko Eneko Fortuniones, anaia nagusia zuan; eta gurea, Aznar Fortuniones anaia txikia. –Azenarik pentsatu zuen egun hartan hirugarrenez entzuten zuela familiaren historia. Fortunez jarraitu zuen kontatzen.

–Orain, bakarrik gure bi adar eta familiak gelditzen dituk Eneko Aritza eta Fortun Gartzes erregeen ondorengo zuzenak. Badituk gurekin ahaidetutako leinuak eta familiak, enekotar odola dutenak, Antso printzeak bezala –Azenariren arreta zuela ikusiz harira jo zuen.

–Nik uste diat ez garela etsai, ez garela arerio, familia garrantzitsu bateko kideak eta ahaideak baizik. Familia bakarraren ohorea defendatuko diagu. Gainera gu biok gaituk bi adarretan seme nagusiak eta oinordekoak. Hori bai, Eneko, Antso, Azenar eta Fortun izenak familian errepikatzen dituk eta nahasgarria duk Fortun Santxez aipatzea, bizirik eta hildakoen artean asko gaituk-eta, beste familiakoak kontatu gabe. Niri Fortun Santxez, Naiarakoaren biloba deitzen zidatek, errate baterako.

Denbora guztian Antso Gartzes, hitzik erran gabe, lasai eta serio begiratzen ari zitzaion Azenariri. Azken hau zer erran jakin gabe gelditu zen. Ez zen berritsua, baina horretaz landa konfiantzarik gabe ez zuen gehiegi hitz egiten. Gainera, aitak kontatutakoagatik hobe zuen momentuz

hankarik ez sartzea. Baiezko isila eman zion irribarrea azalerazten zuen bitartean. Horretan zeudela zaindari batek bazkaltzera joan behar zutela gogorarazi zion Antso printzeari eta hau, altxatzeko keinua egin ondoren, janzten hasi zen isilik. Ezer erran gabe zihoala, ataritik sartu baino lehen, inork inguruan ez zuela entzunen ikusi eta Antso printzeak besteei bota zien berak leinuko guztiekin kontatzen zuela, Eneko Aritzaren ondorengo guztion artean Baskonia handia egingo zutela.

Iruñera sartuta, Azenarik jauregian bazkalduko zuelako berria eman zioten jaun Enekorri, mandatari baten bidez. Bazkaria saloi handian egin zuten hiru ahaide gaztetxoak. Otordu hartan ez zeuden erreginak ezta Errege Kontseiluko inor. Beraz, mahai burutza hutsik zegoela, hurbil jarri ziren hainbat ahaide eta konbidaturekin. Broma artean gustura hartu zituzten barazki erregosi batzuk oilasko puskekin. Bukatu ondoren kuluxka azkar bat bota zuten zalditegiaren gaineko belarretan.

Arratsaldean, bi txalupatan ibili ziren. Batean bi gerlari eta bestean hiru mutilak zihoazelarik, errekatik behera abiatu ziren. Txandaka arraunak hartu zituzten, zeinek indartsuago egiten zuen ikusteko eta soldaduak atzean uzteko; baina zortzi urteko mutikoak ez ziren arerio txandakatzen ziren bi gizon indartsuen kontra. Eskuak babaz beteta, barre algarak bota zituzten egindako umekeriaz konturatuta. Atsedean hartzeko txalupak erreka bazter batean igota, herrixka bateko mutil batzuen aurka harrika aritu ziren nor baino ausartago eta nahiz eta herrixkakoak gehiago izan, haietako batzuk handiagoak, besteak korrika herriratzea lortu zuten hiru aldetatik ekintza bateratuko estrategia hartu zutenean. Azenari gustura sentitu zen Antsoren bultzada lagunkoiekin eta Fortuneren algarekin. Konturatu orduko buelta egiten ari ziren. Kostata eta eskuak odoletan aritu ziren berriro txandaka arraunei eragiten. Errota-berrira heldu orduko beranduegi zen eta nekatuegi zeuden beste borroka baterako. Jauregira iritsi zirenean saloian eseri ziren hurrengo egunerako planak egiteko.

–Bihar goizean Gillerekin ehiza egitera joaten ahal gaituk –erran zuen Antsok– eta arratsaldean artzainekin borrokan eginen diagu –Azenarik ez zuen inoiz izena entzun eta galdetu egin zuen.

–Nor erran duzue? Nor da Gille? –Fortunek azaldu zion.

–Antso Gillermo, guk Gille deitzen zioagu, Gillermo Antso Gaskoniako dukearen semea duk, gure adinekoa eta ehiztari bikaina, ikusiko duk zein ongi pasatuko dugun... Antsoren osaba-lehengusua ere baduk eta gauean etortzekoa duk. –Hurrengo egunerako ehiza antolatzen ari zirela, jaun Eneko agertu zen eta agurtu ondoren, semeari deitu zion osaba Belasko eta izeba Santxarenera abiatzeko. Elkar agurtuz, egunsentirako gelditu ziren.

Aita-semeak isilik ibili ziren bakoitza bere baitako kontuetan. Etxeko atarira heldu eta atean jo ondoren, jaun Enekok, semearengana bueltatuta, eguneko kontuei buruz galdetzeko tenorea aprobetxatu zuen.

–Zer moduz ibili haiz printze eta lehengusu txikiarekin? Ongi ikusi haut haiekin solasean – Azenarik baiezko keinu eginez erantzun zion:

–Aita, zaldiko ikaragarriarekin ibili gara eta arratsaldean errekan arraunean. Baina bihar egun osoan ehizan aritzeko asmoa dugu eta etzi ezpataka aritu nahi dugu. Aita, mesedez, geratzen ahal gara etzi arte? –Aitak irribarre eginez eta ireki zieten atetik pasatuta erantzun zion ordura arte egonen zirela, baina arratsalde hartan Uhartera bueltatu beharko zutela.

Izeba Santxak eta osaba Belaskok besarkatu zituzten aita-semeak. Bi familiak bi aldeetatik zeuden elkartuta. Izebak musukatu eta laztandu egin zuen Azenari aspaldian ikusi ez zuelako. Bere kutuna zen, sei urte lehenago Antso eta Belaskita ilobak gaixotasun batek eraman zituenean, bi urteko haur txikiari maitasun gehiago eman ziolako. Maite zituen Eneka eta gero jaiotako Xemeño, baina Azenari bere kutuna zen. Berehala sartu ziren saloian eta garbituak egin ondoren afaria ekartzeko eskatu zuen etxeko andreak. Esertzen ari zirenean inudeak besotan urte eskaseko haur bat eta bi aldeetan lau-bost bat urteko bi neska-mutiko ekarri zituen, denak amaren antza handia zutenak, enekotarren begi nabar argiak zituztenak. Musu bana emanda, jolas eta laudorio arinak egin zizkieten. Haurrak gustura zeuden, baina nekatuta lotan gelditzen ari zirela ikusita, aitaren aginduz jarraian eraman zituzten ohera. Belaskok irribarrez aipatu zuen belaskotarrak baziren, enekotarrak ere bazirela, enekotarren burugogor eta setati fama adieraziz, jaun Enekoren baiezkotarra irria jasotzen zuen bitartean. Belasko Migelez, nobleziakoa zen, Larraungo belaskotarren leinukoa. Afaldu bitartean familiako kontuak eta gerra prestaketak aipatu zituzten. Belasko, errege jauregiko scriptor-ea, idazkaria zen, armadako intendentziaz ere arduratzen zen eta hurrengo egunetako eginbeharrak komentatu zituzten. Azenari hurrengo eguneko ehizan pentsatzen ari zen lotan gelditu zenean.

Azenari esnatu zutenean ez zuen oroitzen nola joan zen haurren gelara. Artean, gaututa bazegoen ere, kontu handiz eskaileretatik jaitsi eta Pontzio morroiaren laguntzaz kandela baten argitan ehizarako azkon bat, gezi batzuk eta arku txiki on bat bilatu zituzten. Erran zioten bezala bestelako gauzak eta janaria jauregitik eramanen zituzten. Arineketan abiatu ziren bera eta Pontzio, izebak agindu bezala. Pontzio hogeit hamar urteko gazte alai, langile eta leiala zen.

Errege-jauregiaren atari barnean, Ramiro arma-maisuak azkeneko aginduak ematen zituen bitartean, bi morroik zakur talde bat prestatzen eta bi mando zamatzen ari ziren. Antso, Fortun eta Gille lau pottoka hurbiltzen ari ziren. Azenari beste morroi batekin zetorrela ikusita, beste mando bat ekartzeko agindu zuten. Beste mutilek Gille eta Azenari aurkeztu ondoren, laurek, hiria oinez zeharkatu zuten eta hegoaldeko harresien ataritik atera ziren. Zaldietara igo eta trosta txikian abiatu ziren, Ramiro, morroiak eta soldadu pare bat atzean utzirik. Antso eta Fortun parean zihoazen eta Azenari eta Gille, formalki eta konfiantzarik gabe hasi ziren hizketa formalean:

–Zu zara orduan Uharteko jaunaren seme nagusia. Ni ez naiz Gaskoniako Gillermo Antso dukearen lehen semea, baina anaia nagusia hil zenean ni jaiotzean haren eta aitonaren izenez batailatuta ninduten eta orain neu naiz oinordekoa. Antso Gillermo naiz, baina entzun duzunez Gille deitzen didate.

–Ni Azenari Enekones naiz eta neu ere ez nintzen jaio lehenengoa. Gure anaia Antso hil zenean ni gelditu nintzen seme nagusi, baina anaia txikiago bat eta arreba dauzkat.

–Ongi iruditzen zaizu hika egitea? –Azenariren baiezkotarra keinua ikustean, irribarrez, jarraitu zuen—. Atzean geratu gaituk, trosta biziagoa behar diagu. Morroiak eta soldatuak ez dituk galduko.

Azenarientzat lehenengo ehizaldi handia zen hura eta harrituta zegoen. Antso zortzi urteko mutikoa baino ez bazen ere, handia zen, agintzen ere bazekien eta urte batzuk gehiago zituela zirudien. Beste mutilak ere, Azenari barne, mutil indartsuak eta azkarrak ziren. Laurak altuak ziren eta guztiek familia nobleetan hazitako kumeen aginpide eta ausardia erakusten zuten. Nahi zutena egiteko ohitura eta oniritzia zuten morroi eta nekazari-kumeekin konparatuz. Azenari ibilia zen aitaren ehiza ekintzetan dorretxearen inguruko soro eta basoetan, azeri, untxi eta erbien gehiegikeriek eskatzen zutenean edo

behin aztooreekin usapalak harrapatzen; baina sekula ez hainbeste prestaketarekin eta are gutxiago mutikoak agintari.

Hegoaldeko bidetik bi legoara Erreniaga mendiaren magal basatian, soroak bukatzen zirenetik hurbil, erreka baten ondoan, mandoak eta zamak ongi utzita bi taldetan banatu ziren. Ipar-haizeak jotzen zuenez, morroiak, zakurrak eta soldaduak itzuli handi bat eginez haizearen alde eta mendian behera egiten zuten animaliak besteengana uxatzeko, aldi berean oihuka eta zarata eginez. Lau mutilak eta arma-maisua isilik eta ezkutatuta, soilunean beraien lekuetara hurbilduko ziren untxi saldoen zain. Azenarik Gillerekin adar batzuk egokitu zituen ikusezin izateko eta geziak eta arkua prestatu zituen. Handik gutxira, zaunkak ozenago entzun zituzten eta Gillek ahopeka eta keinuka untxien etorrera adierazita, arkuaren soka sartu zuen geziaren koskan eta prestatu zen arnasa sakonki hartuz. Seinaleekin bi mutilek burua altxatu, helburuak begiztatu, geziak zuzendu, tenkatu eta jaurti zituzten. Segidan beste txanda batzuetan bota zituzten geziak, untxi saldoak etorri ahala.

Luze gabe joan ziren untxiak errematatzerara. Tiro askok jo zuten animalia baten, baina beti ez zuten geldiaraztea lortzen, batzuk arinki zaurituta eta beste batzuk oso-osorik eskapatu ziren. Lerroka jarri zituztenean eta geziak markengatik, denek bizpahiru untxi akabatu zituztela egiaztatu zuten. Handik gutxira morroiek ehizakiak hartuta kanpalekura joan ziren animaliak garbitzera. Elkar zoriondu ondoren geziak erreka baten garbituta, ehiza kanta zahar bat ahoratu zuten txantxa eta barre-algara zaratsutsuak eginez. Eguerdian ehizaki-puska batzuk sutan erretzen ziren bitartean gazta eta ogiarekin hasi ziren bazkaltzen ur freskoaz lagundurik. Antso, bazkaldu ondoren basa marrubiak hartuz eta kobazulo miragarri batera joan zirela erran zien Ramiroren disgusturako. Honek bere iritzia azaldu zuen.

—Jauna, kobazulo hori ez da oso segurua. Zorua irristakorra da eta hezur bat edo burua hautsi ahal duzue konturatzeko. Barkatu baina arriskutsua da. —Antso errespetua adieraziz zuketan erantzun zion bere zaintzaileari.

—Lasai Ramiro, kontu handiz eta soka batetik lotuta sartuko gara. Gainera metro batzuk baino ez dira izanen, kobaren distirak eta zutabeak ikusiko ditugu eta gehiago sartu gabe osorik itzuliren gara.

Arma-maisuak baiezkoa eman zuen eta haragi goxoa jateari ekin zioten, norbera eta besteen punteria eta trebetasunak goraipatzen aritu ziren bitartean. Erran bezala arratsaldean fruitu gorri mordoak bildu zituzten saski batzuetan eta kobazulo zoragarria bisitatu zuten. Konturatzeko, ordu gutxi falta ziren gautzeko eta Iruñean sartu zirenean iluntze gorri-nabar ederra ikusi ahal izan zuten. Etxeratu baino lehen Azenarik eta lagun berriek hurrengo bilera adostu zuten. Bazekiten Donibane bezperan Kuria eta lehenengo armada bilerak izanen zirela. Agurren artean banandu ziren hurrengo eguna arte. Goizean harresi ondoan ezpataka ibiliko ziren.

Azenari izebaren etxera heldu zenean, afaltzeko prest ziren ahaideak eta aita. Saski bat bete basa-marrubi goxo eta bi untxiak morroiak erretiratu ondoren, ehizaldiaz galdetu zioten Azenariri. Garaiko jaki goxoak afaltzen zituzten bitartean, kanpainako ildoak komentatzen jarraitu zuten mahaikideek, mutilaren arreta bereganatuz.

—Kezkatuta nago gotzainekin —lerratu zen Belasko—. Gehiegi agindu nahi dutela iruditzen zait. Gauza bat da erreginen zuzendaritza espirituala izatea eta Elizaren boterea mantendu nahi izatea; beste bat da aitonen semeak eta auzi militarretan agindu nahi izatea. Harrigarria da, ez dakiten eta interesa ez zaien gauzetan nola erran nahi duten azkeneko hitza.

–Zerorrek erran duzu –erantzun zuen Enekok–. Beren iritzia eta eragina jarri nahi dute handiki eta leinuen gainean, baina ez dute erraz izanen. Aginte zibil eta militarretan ez dute benetako eraginik. Kezkatzen nauena itsukeria da. Ez dute ikusten bi astetan ez ditugula gudari guztiak elkartuko? Gure gudari gehienak beharrezkoak dira gari, garagar eta olo uztak biltzeko eta ez dira uztail bukaera arte bilduko armadarekin. Erran diet behin eta berriro gotzainei, baina ez dute aditzen, haiek ez dira eta mundu honetakoak. Gure bailaretako zaldunak baino ez ditugu mugiaraziko hamabi egun hauetan, hogeita hamar bat besterik ez; etxean lagundu ondoren beste hirurehun bat oinezko eta beste ehun bat zaldun gazte bidaliko ditugu Gartzia kapitainarekin. Zuk dakizunez, neronek, geratuko diren beste ehun bat gerlarirekin eta zahar-mutil aunitzekin badaezpadako defentsa antolatu behar dut. Semeno... –orduan konturatu zen Azenari han zegoela adi eta arretaz hari begira–. Eta zu Azenari, hoa ohera, bihar goiz mugituko gaituk eta eguerdian mokadu bat hartuta itzuliko gaituk Uhartera. Aspaldian utzi dituk ikasketak alde batera, beste mutil horiek bezala, Kuriaren bilera dela-eta hire heziketa baztertu diagu, bihar jauregiko eguerdiko mezan espero haut. –Azenari aitaren errieta entzun nahi ez zuenez gero, musu bana eman eta gabona opatuz, laster mugitu zen.

Biharamunean, gosari legea eginda harresietara joan ziren mutilak. Egun euritsua zen. Zirimiriak ez zuen atertzen eta hala ere, mutilek arma-maisuaren laguntzaz babes eta erasoak entseiatu zituzten. Nekagarria izan zen ezkutuak eta ezpatak erabiltzea, nahiz eta txikiagoak izan, astunak izateagatik. Ezpatak berun zatiekin benetakoak bezain pisutsuak ziren eta kolpez kolpe minduta zituzten besoak. Ramirok binaka jarri zituen eta egin beharrekoa erakutsi ondoren behin eta berriro errepikarazten zien, arnasa eta ahal guztiak akitu arte. Orduan ardiatarako estalpe batean eseri ziren lasto gainean atsedean hartzeko eta ur freskoa edateko. Fortun izan zen mintzatzen lehenengoa. Seriotasunaren seinale zuketan egin zuen.

–Arratsaldetik aurrera berriro ikasi beharko ditugu latinak eta erretolikak. Zenbakiak ez zaizkit hain aspergarriak iruditzen, baina latinak eta errezoak apez eta fraideentzat dira, ez aitonen semeentzat. Ongi idaztea ere zaila da –bota zuen tristura amaiezina erakutsiz.

–Ez da hainbesterako –gaineratu zuen Gillek–. Ez dugu eskribauek bezainbeste idatzi behar. Izkribuak eta bestelako latinak ulertu eta irakurriz gero, aski eta sobra dugu.

–Txarrena duk Jimeno gotzainaren usaina jasatea –bota zuen Antsok besteen barre eta algara sortuz–. Hori ez duk garbitu jaio zenetik. Berak erraten dik garbizalekeria moro eta emakumeentzat dela. Hik Azenari zer ikasi behar duk?

–Nik zuek bezala etxean behar berezirik ez bada, Gartzia kapitainarekin edo gure aitarekin armak erabiltzen ikasi behar dut edo bestela inguruko bailaretan ehiza edo ibilaldiak egiten ditut aitarekin. Arratsalde gehienetan, ordea, gure etxeko apezarekin latinak irakurtzen eta otoitzean pasatzen dut. Kontuak ere ikasi ditut gure maiordomoarekin. Gaur, arratsaldean, etxera itzuliko gara eta bihartik aurrera betiko gauzak eginen ditut.

–Donibane bezperan etorri behar duk jaun Enekorekin –erran zion printzeak–. Festa handia eginen diagu eta hurrengo egunetan Kuria eta gerlari bilera ospatzen den bitartean, zalditan eta borrokan ibiliko gaituk. Agindu ezak etorriko haizela –bota zuen irribarretsu, lastotik altxatu bitartean. Denek gauza bera egin zuten.

–Hitz ematen dizut ahaleginduko naizela. –Denak abiatu ziren jauregira elkarri bultzada lagunkoiak emanez.

## 9 - Gerrarako prestaketak.

Goizaldean hasi ziren Uharteko dorretxean denak mugitzen. Lan handia zuten, zeren eta egun gutxitan udako kanpaina prestatu behar baitzuten, elikagaiak, armak, gurdiak eta animaliak ere bai. Lehen lehenik mezulariak bidali zituzten inguruko bailaretara gerlariei deia zabaltzeko. Jaun Enekoren menpeko lurrak ziren. Lehenengo deian bailara haietako zaldunak eta beharrezko horniketak mugiaraziko zituzten eta aldi berean, oinezkoen bilera azkartu zuten. Egun hartan, Azenarik lagundu zion eskribauari mezuak kopiatzen. Ez zen lan makala denek egiten zutena, justu urtarorik lanpetuenean beste mila gauzatan ibili behar zuten: armak erabiltzeko prest utzi, kopuru handitan behar zituzten azkon eta geziak bildu; janaria garraiatzeko animaliak aukeratu, animalientzako bazka, gizonentzako zerealak eta kontserba-janaria pilatu. Hamaika eginkizun ziren. Gartzia kapitainak gidatuko zuen gudarostea, baina hamabost egun beranduago berriro inguruko bailaretako beste hirurehun oinezko gidatu beharko zituen. Dena den, momentuan, dorretxetik hamabost zaldun eta ezkutari eta morroi batzuk bidali behar zituzten. Dena den, guztientzat bi gurdi janari eta armaz beteta, hogeita bost pertsona bizpahiru hilabetetan mantentzeko adina, bidean janaria lortzea zaila baitzen.

Konturatzeko Donibane bezpera zen hurrengo eguna. Goiz hartan abiatuko ziren. Aurreko egunean prestatutako gurdietan hornigaiak zamatuta zituzten. Zaldunak eta morroiak agurtzen ari ziren emazte eta ahaideak. Laster, Uharteko jaunaren eta familiaren atzetik abiatu ziren Iruñera. Ordu batzuk pasata, Iruñeko harresien ondoko zelai zabal batean dendak eta animalientzako itxitura batzuk antolatu zituzten. Berehala, kanpamentuak dendaz osaturiko bigarren hiri baten itxura hartu zuen. Uhartearrak iparraldeko lagunekin elkartu ziren. Denek prest egon behar zuten ordu eskas batean kanpatzeko edo behar izanez gero dena jasotzeko.

Uharteko jaunaren familia ia osoa sartu zen Iruñera, gaixo izateagatik andre Uxue izan ezik. Jaun Eneko eta familiak, Kurian hartuko zuten parte. Leinu-buruek bilerak egingen zituzten Errege-kontseiluarekin. Jaun Eneko agintarien bileran ari zen bitartean, familiako beste guztiek bizitza soziala egiten zuten, beste handikien familiakoekin bisitak eta otorduak eginez. Hala eta guztiz ere, eguna beti meza batekin hasten zuten gorte osoa elkartuz. Hiru egunetan luzatuko ziren bilera haiek armada osatu bitartean.

Haurrak eta gazteak ere jolasean ibiltzen ziren. Azenari bere adinekoekin ibili zen. Mutilak egur zamauak biltzen aritu ziren Donibane bezperako arratsalde hartan. Egur meta handiak antolatu zituzten hiri eta kanpamentuen arteko zelai batean. Kontu handiz aukeratu zuten lekua. Janari postuek eta artistek ere inguru hartan aurkitu zuten non kokatu.

Bitartean, ordu batzuk geratzen zitzaizkien urteko egunik luzeenean, ilundu eta suak piztu arte. Azenarik eta bere lagun nobleek berehala aurkitu zuten norekin lehiatu. Artzai edo artisau-kumeekin borroka bilatzera joan zirenean, burges batzuekin egin zuten topo. Gozoki eta bizkotxo postu ikusgarri batean zerbait erosi nahi izan zutenean, beste mutil batzuek hartu zieten aurrea eta burla baino jarrera harroa erakutsi zutenean, haiekiko interesa piztu zitzaien. Garbi zegoen denek ezagutu zituztela bai printzea eta baita normalean harekin ibiltzen zirenen taldeko batzuk ere bai. Beste mutilak, bertakoak behintzat burges franko eta gaskoiak ziren, Piarres, Armagnak deitutakoa eta bost mutil ezezagun. Zazpi mutiletatik, bost mutil adinetan nagusiagoak ziren, hamar-hamabi urtekoak nonbait; beraiek, aldiz, bost izateaz gain adinetan ez zuten bederatzi urte. Haien taldea, printzeak, Gillermok, Fortunek, Azenarik eta Gontzalek, Errioxako jaun baten semea, osatzen zuten. Gillek ezagutzen zituen Armagnak eta beste mutil bat, bera bezala gaskoiak zirelako. Bera zen baketan banatzeko saiatu zen bakarra:

–Mesedez, eros itzazue zuen gozokiak eta utzi lekua, salgaiak ongi ikusi ahal izateko.

–Hara, gu agintzen ari haiz. Hi ez haiz Gaskoniako dukea, oraingoz ez behintzat. –Piarres zen erantzun zuena.

–Modu onean eskatu dizuet. Zer nahi duzue, jipoi eder bat jaso?

–Beti bortizkeria erabiltzeko prest –bota zuen ezezagun batek.

–Tira, kendu erditik behingoz. Zoazte hemendik –gaineratu zuen Antsok.

–Ezetz bi taldeok harrapatzera jokatu kolperik eta armarik erabili gabe –erran zuen Armagnakek.

–Gozokiak jan ondoren, jokatuko dugu armada zelaian, hala nahi izanez gero –baieztatu zuen printzeak.

–Zergatik ez auzoen arteko zelaian? –burgeskumeek, maltzurkerian, beren auzo ezagutzan eta adinean oinarritu nahi zuten lehia. Karrika estuetatik ezkutatuko ziren, ustez saihebidak erabiliz banan-banan harrapatuko zituztela.

–Ongi zagok, ordu erdi bat barru zelai horretan izanen gaituk.

Mutilak gozokiak erosi eta enbor batzuen gainean eseri ziren. Antsok burgesek egin nahi zutena susmatuta, zer egin azaldu ziren lagunei. Ez ziren tranpan eroriko, beren baldintzak jarrita ere. Azkar joan ziren hiri bestaldeko zelaira, bidean bi lagun ezagun beraiekin eramanez. Han zeuden burgesak beraien auzoaren sarrerako bi kale hurbiletan banatuta. Etorri berriak heldu zirenean, jauntxo deitu zieten eta bi kale haien barnean ezkutatu ziren, besteak atzetik sartuko zirelakoan, banan banan harrapatzeko asmoz.

“Jauntxo”-ek bi kaleen sarrera ondoan jarri ziren. Bi kaleak hurbil zirenez, bi karriken sarrera aldeetan zain gelditu ziren lasai. Ordu erdia pasa zenean, lehenengo burgesa edo beraiek erraten zuten bezala “diruzale”-a agertu zen, zer gertatzen zen besteei erran ahal izateko. Lau mutilek hura harrapatu, ahoa zapi batez itxi eta sokaz lotu zuten. Berdin egin zuten handik gutxira beste kaletik elkarrekin agertu ziren beste birekin. “Jauntxo”-en taldeko mutil txikiak soka batetik zaintzen zituen bitartean, beste bi hirukoteak prest ziren kale banatan jarritz. Bitartean beste ordu erdi bat pasa zen beste bi mutil harrapatzeko eta azkeneko biak errenditzeko. Iluntzean bi taldeetakoak bakeak egin ondoren, lagunak zerbait afaltzera joan ziren jauregiko sukaldera.

Gaututakoan, gustura aritu ziren su altuak saltatzen. Hasieran suak altuegiak ziren inor saltatzen saiatzeko. Su guztien artean handiena zelai erdian zegoen. Garaiera eta indarra galtzen hasi zenean mutil gazte lirain ausartenak izan ziren saltatzen lehenengoak. Hogeit bat urteko gerlariak ziren guztiak, herri bakoitzeko onenak, eta norberaren herrikoek animatzen zituzten. Bi mutil nabarmendu ziren eta saltatzen zuten luzera markatzen hasi ziren beren herriko lagunak. Bat Baztangoa zen Luze izenekoa eta bestea Mikael, Goñi haranekoa. Mikaelek gehiago saltatu zuela zirudien, baina hurrengo bi saltoetan nekatuegi zegoen eta askoz salto laburragoak lortu zituen. Luzek, aldiz, hurrengo saltoetan mantendu zuen lortutakoa eta garaitzat hartu zuten erresistentzia hobea izategatik. Gero, lehiatu

gabe hasi ziren beste mutilak saltatzen. Suaren alde batean zabalera txikiago batetik hamar bat urtekoek saltzen zuten. Gure lau lagunek, jauregiko beste lagun batzuekin batera, lerroan jarri eta behin eta berriro saltatu zuten su sendatzailea. Garaiko jendeak uste izaten zuen Donibane bezperako suak gaixotasunak sendatzen zituela eta su handiago edo txikiago izan ala ez, ahal zuenak saltatzen zuen bat; haur, emakume edo adineko pertsona izanda ere. Ohean ziren gaixoei ere txingar bat pasatzen zieten edo ikatz puskak gordetzen ziren urtean zehar sortzen ziren gaixotasunen sendagai bezala. Suaren festa handi hura gainbehera joan zen handik ordu batzuetara. Jendea etxeratzen hasi zen. Mutilak neka-neka eginda eseri zirenean, gazterik sasoikoenak geratu ziren festarekin jarraitzeko. Lagunek ez zuten eguna berehala bukatu nahi. Logaleak jota ziren baina ahalegindu ziren luzatzen. Hurrengo egunean armadaren desfilea ikusiko zuten eta zelaian ospatuko zuten bazkari handi batekin. Bi egun pasatu ondoren, normaltasunera bueltatuko ziren. Gaueko hirurak aldera, logaleak jota, goizerako gelditu eta etxeratu ziren.

Udako lehen egunean armadaren agur-desfile ahaztezina ospatu zuten. Armada hura ez zen armada osoa, haren zalduneria baizik: oinezkoak biltzeak beste aste pare bat emanen zuen. Erreginak eta agintarien tribunatik pasatzen lehenengoak errege-etxe zaldunak izan ziren. Errege-zaingoko berrogei bat gerlari ibili ziren beren kapitainaren atzetik. Gero, Uhartekoaren menpeko hogeita hamar zaldunak binaka eta harro pasa ziren eta atzetik beste bailara eta herrietakoak. Zaldun guztiek oihal koloretsuak, distiratzen zuten armak eta zaldiak eraman zituzten, pauso dotorean pasatu ere. Bazirudien gerlariak beren jantzi ikusgarriez gain, zaldi gainean beren jarreraren bidez ausardia erakutsi nahi zutela. Desfilea bukatu zenean, zaldunak jaitsi ziren zaldietatik, morroien esku utzi eta familian eta herrikoekin pasa zuten eguna. Handik egun batzuetara Naiaran elkartuko ziren gerlariak eta han maniobrak eginen zituzten, armada osoa Gaztelara egun gutxitan abiatu arte.

## 10 - Errotik Gaztelara.

Erro herria Erroibar haranaren hegoaldean zegoen. Handik galtzada zaharra pasatzen zen iparralde-Ibañetatik mendatea pasa, Argaren haranean zehar Iruñera eta Donejakue bidean ibiltzeko. Etxe multzo txikian hogeit hamar familia bizi ziren. Denek, baratzea, labore-soro batzuk eta belardiak zituzten. Behi eta zaldi gutxi batzuk eta bereziki artaldeak ziren ondasunik handienak. Etxe guztietan oiloak, zerriak, mandoak eta astoak zituzten, batzuek idi pareta ere bai. Gehienak askeak ziren, nahiz eta familia batzuk behartsuagoak izan eta aurrera egiteko besteentzat lan egin behar izaten zuten. Herriko auziak bertako etxeko nagusiek konpontzen zituzten eta kasuaren arabera ordezkari batzuk edo bakar bat bidali egiten zituzten haraneko biltzarretara edo erresuma osokoetara. Goietxeak ziren besteen gaintik zerbait nabarmentzen zirenak. Diferentzia bakarra, azken belaunaldietan besteen buru eta gidari izatearen ohitura besterik ez zen. Herrikoen zerga bakarrenetakoak apezka eta elizatzkoa mantentzea eta Uharteko jaunari eta erregeari hogeiren bana ematea zen. Osotara zergetan hamarrena baino askoz gehiago ez zen, defendatzeko laguntza emateaz gain. Herritarren artean artisau espezializatu batzuk zeuden: errementaria, zurgina, oihalgilea eta uhalgilea; gainera, bi emakume emagin-osagileak ziren. Bestela, negu partean edozein etxetan artilezko jantzi batzuk, xaboa eta ogia egin eta mila gauza txiki konpondu edo ordezkatzeko zituzten.

Uztailaren hasiera zen. Arrano, hala deitzen zioten herrian, azken egunetan bezala, familiako galsoroetara joan zen, anaiak, arreba, osaba-izebak eta aitarekin batera. Uzta handia biltzen ari ziren eta nahikoa aurreratuta zuten lana, guztien lan geldiezinari esker. Egun osoan aritu ondoren, etxera bidean Arrano lagun batzuekin topatuta hizketan hasi zelarik, aitak deitu zion. Arrano urduritu zen, halako seriotasuna nabaritu baitzion aitari.

—Arrano, bihar goizean ez haiz lanera joanen. Etxeko bigarren semea haiz eta arma deirari erantzun behar diok gure familiaren partez. Hamazazpi urte dituk eta jada trebea baino trebeagoa haiz armak erabiltzen. Hire osaba nahikoa zaharra duk gure familiako gerlaria izateko eta orain hi izanen haiz etxeko gerra-gizona. Bihar goizean herriko beste gazte eta gizon batzuekin abiatuko haiz Uhartera. Dena prestatuta zagok. Arrats honetan agurtu itzak nahi dituanak eta hoa ene benedikapen eta guztion maitasunarekin. Espero diat onik bueltatzea gurera, baina edozeinen gaintik portatu ongi eta... kontuz ibili seme. —Arranok ez zuen espero bera etxeko gerlaria izatea.

Beste herrietan bezala udako egun luze haietan, aitonak aitonekin, gizon helduak beren berdinekin; neskak, neskatoak, denak berdinekin beren kideekin elkartzen ziren, etxekoandreak eta beren laguntzaileak izan ezik. Beraiek sukaldeetan afariak prestatzen ari baitziren, egunean zehar izanak ziren batekin edo bestearekin; baina, sukaldekoa emakume helduen betebeharra izaten zen. Mutilak, herri ondoko iturri ondoan jartzen ziren enbor batzuen gainean nesken zain. Hauek, ur garraioaren aitzakian mutilekin egoten ziren. Arrano heldu zenean lagunek zoriondu zuten.

—Elkarrekin joanen gaituk Gaztelara. Mailu eta biok ere hirekin ibiliko gaituk.

—Narru... Ez nian espero ni neu gerlaria joatea eta orain hi ere izanen haiz. Mailu bazen etxeko gerlaria, baina hi...

—Gure anaia zaharra zuan gerlaria, baina zauritu zutenetik ni ninduan joatekoa.

Lagunak, joanen zirenak eta geldituko zirenak, txantxetan aritu ziren, norberaren gerlari ahalmenak aipatuz. Neskak ordura arte gaitik kanpo, sartu ziren solasean gerlari berriez trufa eginez. Arranok aparte hartu zuen Nahia, bere neskalaguna. Harremana formaldu zutenetik zuka egiten zioten elkarri, errespetuaren seinale.

–Nahia, bihar goizean goiz abiatuko naiz gerlara. Joanen gara aparte lasaiago hitz egiteko?

–Nahi baduk, bai. –Besteen algarak ezustean harrapatu zituen biak. “Nahiak nahi dik... Nahiak nahi dik” oihukatzen baitzioten Arranori, neskek eta mutilek. Lotsatuta, zuhaitz batzuen artera baztertu ziren leku lasaiago batera, baina besteen bistatik ezkutatu gabe... Han, maitasuna betiko hitz eman, hitz goxoak eta itxaropenak adierazi, laztanak egin eta musuak eman zizkioten elkarri, beren lagunak agur zaratatsuagoak egiten zituzten bitartean.

Gau hartan despedida asko izan ziren. Zaharrenak, helduak eta haurrak garaiz oheratu ziren nekatuta, hurrengo egunerako prestatu eta atseden hartzeko. Gazteak, ordea, taldeka edo binaka luzaro aritu ziren. Arranok Nahia utzi zuenean kamainan etzan zen, ilusioetatik beldurretara pentsamenduak aldatuz. Osorik Nahiaren ondora itzuliko ahal zen! Azkenean, nahi gabe loak hartu zuen. Bi ordu eskas egin ondoren esnatu zuten senideek. Arranok zerbait ahoratu ondoren, ezpata, arkuak, bestelako armak eta zakuto bat hartu, denak agurtu eta bere lagunekin eta beste gizon helduagoekin batera, Goietzeko Gartz-en agindupean abiatu zen Iruñea bidera. Zaldi indartsu batek gurdi txiki batean denontzako janaria, arropa batzuk, bi denda eta armak garraiatuko zituen. Mintxo mutikoa, beraren eta beste hamar lagunak guzuz arduratuko zen. Beraien morroi ibiliko zen.

Isilik egin zituzten lehenengo hiru orduak, legoak ahalik eta azkarren ibiltzeko. Hasieran mendi portua igo zuten. Gero, menditik jaitsi ziren abiada handian eta ez zuten atsedenik hartu Arga errekarara heldu arte. Esteribarren ziren eta Zubiri deitzen zuten etxe multzoaren ondoan eseri ziren atseden hartzeko. Han elkartu ziren beste gerlari batzuekin eta bertakoek eztabaidatu zuten haraneko besteekin hantxe zubi ikusgarria egiten zuten ala ez. Egia erran, zurezko zubi kaskarra ikusita, oso zaila zen imajinatzea zubi ikusgarririk. Edonola ere, herriari Zubiri izena jartzea bitxi samarra zen. Erroibartarrek eta esteribartarrek elkar agurtu ondoren, bideari ekin zioten binaka edo hirunaka abiadura onean, handik aurrera erreka ondotik bide on hura jarraituz. Lau legoa gehiago egin zituzten zerbait bazkaldu arte. Egun argiz baratze batzuk zeharkatzean helmugatik hurbil zeudela jakin zuten. Zubia gurutzatuta, dorre bat eta erreka artetik pasatzen zen bidea. Hantxe kontrolatzen ziren bidaiariak eta salerosketarako produktuak. Dorrearen jarraian Uharte herribilduaren harresia zegoen eta gorago gaztelu baten dorre altuagoa ikusten zen harkaitzaren gainean. Harresiak inguratuz eta etxaldea bukatuta, Oianalzinera joateko erran zieten bertakoek mendiaren magala seinalatuz. Uharte ondoko belardian ehun bat gerlari eta hogeit hamar morroi elkartu ziren. Nekatuta zeuden eta kanpadendak antolatu, aska batzuetan garbitu eta zelaian taldeka afaldu zuten. Suaren inguruan zeuden hizketan, hotzik egin ez arren, kanpalekuaren erdian mugimendua eta dei bat entzun zutenean. Gerlari guztiek etorritako jauntxo baten hitzak entzun zituzten.

–Mendialdeko gerlariok, arrats on, nire ondoan dagoena jaun Eneko Santxez Uharteko jauna eta enekotar leinuko burua da. –Denek agurtu zuten diosala eginez eta burua makurtuz–. Ni, Antso, salako maisua naiz eta tresnaren bat falta bazaizue niregana jotzen ahal duzue. Hemen geldituko zarete

egun batez mendialdeko eta ekialdeko beste gerlarien zain. Etzi, Gartzia kapitainaren agindupean –erran zuen beste aldean gerlari garai bat seinalatuz–, Iruñea ondotik pasako zarete Ultzama, Bidasoa, Larraun eta Arakil aldeko gerlariekin batera hiru egunetan Naiarara iristeko. Atsedean hartu ezazue. Bihar goizean elkartuko zarete hamarrekoak eta ehunekoak osatuz. Orain Jaun Enekok agurtuko zaituzte. Bihar arte –jaun Eneko aurreratu zen eta agurtu ondoren honela adierazi zien:

–Baskoniako gerlariok, ongi etorri gure herrira. Antsok erran bezala, bihar antolatuko zarete hamarnako taldetan, armada bat gara eta berdintsu armatuko zarete. Antsok dioenez, zerbait falta bazaizue edo arazoren bat baduzue zuen artean, konponduta utzi behar dugu. Agian armaren bat aldatuko dizuegu itzultzean berriro eskuratuko duzuen. Gartzia kapitainak eta Antsok beren laguntzaileekin konponduko dizkizute arazoak. Nire gogoz kontra –eten laburra egin zuen–, ez naiz zuekin abiatuko, gure herrien zaintza bermatu behar baitut. Orain gabon guztioi, ongi lo egin eta bihar arte –denek batera erantzun zioten eta gerlari buruak hurbildu zitzaizkion hitz batzuk gurutzatzeko.

Arrano, Narru eta Mailu beste erroibartar gazte batzuekin elkartu ziren: Mezkiriz, Lizoain, Biskarret, Auritz eta Ausperriko hogeit hamar mutilekin, eta beste hainbeste aezkoatarrekin. Gazteen arteko helduenek kontaktu zizkieten antolaketa hartako gorabehera batzuk. Talde txikietan Baskoien istorioak eta biziraupen ikasgaiak kontatzen amaitu zuten eguna, orduko Almanzor eta musulmanen armada neurri batean gogora ekarri gabe. Azenari eta Otsoa hurbildu ziren gaztez osatutako talde batera. Gazteak harropuzkeriez beteriko ateraldiak botatzen ari ziren. Arranok, zortzi urteko mutil haiek ikusita, bera eta Narru aurkeztu ondoren, nor ziren galdetu ziren.

–Ni Azenari naiz, Uharteko jaun Enekoren seme nagusia eta hau Otsoa, Gartzia kapitainaren semea. Guk nahi genuke zuekin gerrara joan, ezinezkoa da, ordea. –Arranori grazia egin zioten bi mutilen jarrera.

–Garaia helduko zaizue. Zuek ikasi armekin. Urte gutxitan gu bezala joan beharko duzue.

–Prestatzen ari gara. –Narruk mutilen gogoia ikusita isildu zuen berak sentitzen zuen beldurra.

–Borroka hau irabaziko dugu. Zuek urte gutxi barru etorriko zarete gurekin eta lagunduko diguzue musulmanen kontra. –Mutilak denbora luzez egon ziren gazteen istorioak entzuten.

Hurrengo goizean, taldekatzen, armak eta hornitegiak ikuskatzen eta arazoak konpontzen aritu ziren. Arratsaldean, agertu ziren beste gerlariekin berdinekin egin zuten. Uztailaren 14an, goizean goiz abiatu ziren. Aurreko egunean ikasi eta banatu zituzten egin beharreko lanak ordu erdi batean dena jasotzeko. Agintariak soberan ziren gauzak baztertu zituzten eta falta zirenak aldatu zizkieten, bereziki armak. Jaun Enekoren atzetik Argaren ondoko bidea jarraitu zuten. Lehenik, Ultzama, Baztan aldeko eta iparraldeko jendea elkartu zen beraiekin. Eneko Santxez Uharteko jauna agertu zenean, oihuka goraiatu zuten Eneko Aritza, bere ondorengoa eta Baskonia. Jaunak Antso Gartzes ximenotarra gogorarazi zien. Arakil, Larraun eta ipar-mendebaldeko gerlariekin batuta, enekotarren menpekoek zortziehun bat oinezko bildu zituzten. Iruñea ondotik pasatzean ekialdetik etorritakoekin bat, armada handia eta antolatua osatzen zuten, mila lauhun bat oinezko gerlari. Bi taldetan antolatu zuten Naiararako martxa, denak batera bideko herriak ez itozteko. Arrano zebilen taldean enekotarren leinupekoak ziren, Gartzia kapitainaren agindupean. Hurrengo egunean Lizarra ondoan egin zuten gaua. Ibilaldia oso gogorra izan zen Erreniaga mendatea eta Gares herri ondoko mendiak gurutzatu ondoren.

Ibilbidea ongi antolatuta zegoen, egunero ibiltari asko pasatzen baitzen Donejakuerako bidea zela-eta, joan-etorrian. Errotik ere batzuk pasatzen ziren, baina Garesetik aurrera ibilbide nagusian ziren. Gares eta Lizarrako jendeak lagundu zien ordainduta behar zituzten gauza eta zerbitzuak emanez. Ebro ibairaino heldu ziren hurrengo egunean. Igandea izaki, hilak 15, meza nagusi ikusgarria antolatu zuten armada ia osorako, han hegoaldeko Erriberako gerlariekin elkartu baitziren. Beste egun batean Naiararaino heldu zirenean egun osoan hartu zuten atsedean. Biharamunean, 18an, ibilbide laburra egin zuten. Herramelluri eta Otsanduri ondoan baskoien armada osoa elkartu zen. Orduan, Araba, Ipuzkoa, Bizkai eta Errioxako gerlariekin batera bi mila seihun bat oinezko eta hirurehun zalduneko armada osatu zuten. Gaztela agindupeko lurrak ziren, baina ez zitzairen oso arrotza egin, bertakoak euskal jatorrikoak baitziren. Hilak 19tik 22ra armadak mugimenduak praktikatu eta armetan ariketa desberdinak egin behar izan zituen. Fortun Santxezek, baskoien gerra-buruak, armadaren ongizatea eta prestutasuna ikuskatu behar zuen.

Arrano, Narru eta Mailu gustura zeuden. Beren herriko gizon nagusiekin konpontzen ziren, haiek baino eginkizun gehiago zuten, baina ongi hartu zituzten. Mintxori laguntza eman behar zioten gauzak jasotzean, egurra biltzen eta otorduen prestaketetan. Gartze, nagusi ona zen, atsegina eta arma kontuetan behar bezala gidatu, lagundu eta beharrezko azalpenak ematen zizkiena. Inguruan beste erroibartar, aezkoatar, artzear eta esteribartarrak zeuden. Denden artean kale batzuk utzi zituzten eta garbitasun neurri zorrotzak gordetzeko agindu zieten. Letrinak, erreka behera baina ez ziren urruti. Kanpalekuan biltzeko tokiak, agintari eta zaldunen zonaldeak, dendetatik aparte suak egiteko tokiak eta kanpoko hesiak antolatu zituzten. Modu berean kanpatu behar zuten geldituko ziren leku guztietan. Aurreko egunean, arma desberdinetan beraien trebezia ikuskatu zieten. Beraiek arkulari eta mendi gerlari bezala gelditu ziren. Ez zen harritzeko erroibartarrak ehiztari eta artzain lanetan arituak baitziren.

## 11 - Ezkarai.

Ezkarai herria, Glera edo Oja haranean zegoen. Oja garaiko herriak euskal jendez osaturik zeuden. Haranaren beheko aldean Santurde eta Santurdejo herrietatik iparraldera biztanleek jatorri euskalduna bazuten ere, gehienak erdaldunduak ziren eta bakarrik zaharrenak eta aparte bizi ziren familia batzuk erabiltzen zuten euskara. Dena den, gehienek zerbait ulertzen zuten euskaldun petoekin izandako harremanen arabera. Ebrotik hurbil egonda ere herri batzuetan euskal familia asko bizi ziren Araba eta Bizkaia aldetik aurreko bi mendeetan agertutakoen ondorengoak nonbait. Berdin gertatzen zen Gaztelako Goi-Arlanzon, Oka, Tiron eta Bureba osoan.

Errioxar gehienak baskoien lurralde eta mugen barnean bizi ziren. Ekialdeko haranetan, Iruñearen menpeko lurretan, Najerilla, Iregua, Leza eta Zidakos haranetan egoera berdina izaten zen, haranen goialdean euskaldunak bizi ziren eta Ebro aldean, erdaldunduak gehienak. Gaztela haran harekin mugatzen zen, baita Zirueña herriarekin. Baskoiek, hurbil zegoen Naiara zuten azken garaian ia hiriburu nagusia. Handik gidatzen zuten musulmanen kontrako borroka eta Gaztelaren aurreko diplomazia.

Herritarrek, bitartean, bizitza arrunta egiten zuten urte garaiani eta bizitzaren beharrei begira. Ezkaraiko biztanleek bazekiten Naiaran baskoien zalduneria bildu zela. Lanak ahalik eta lasterren aurreratzen ari ziren musulmanen etorrera prestatzeko. Azkeneko laboreen uzta biltzen ari ziren gerlariak joango ziren armadarekin batzeko eta besteek mendietara erretiratzeko prest egon behar zuten.

Balz, hogeita lau urteko gaztea zen. Herriko ehiztaririk eta arkularirik onenetakoa zen. Etxeko lanetan aritzeaz gain, aspaldian irabazia zuen arrastoak jarraitzeko trebe izatearen fama. Otxoak eta hartzak ehizatzeke bera jartzen zuten agintari. Etxeko seme txikiena izaki, ehizan laguntzen hasi zitzaion osaba bati eta ederki moldatzen zen ordu luzeetan mendian gora eta behera ibiltzeko edo harrigarriena, mugitu gabe ordu eta orduetan egoteko. Sena ikaragarria zuen animalien asmoak igartzeko eta ikusmena ezin hobea. Ez zitzaion animaliak hiltzea gustatzen eta behin baino gehiagotan utzi zuen orein bat eskapatzen. Baina herrian ehizaldi handia antolatzen zutenean bera bidaltzen zuten begirale eta aholkuak eskatzen zizkieten, nahiz eta antolaketa osoaren buru, adineko eta ospe handiko beste bat izan. Gerra garaian gaztea bidaltzen zuten etsaiak zelatatzeri eta ederki ezagutzen zituen Errioxa eta Gaztelako mendiak. Herriko gudari-buruak eskatu zion Medinaceli inguruan musulman armada zelatatzeke eta handik nondik agertuko ziren abisua pasa zezan. Balzek Eki lehengusuarekin joateko eskatu zuenean ez zioten baimenik eman, lagunegiak baitziren eginbehar hura ongi betetzeko. Uztaila bukaera hurbil zelarik, oinezko gerlari baskoiek haranaren behetik pasa zirenean bailara hartakoak ere arma deiari erantzunez beraiekin elkartuko ziren. Eki, Ezkaraiko beste gerlariarekin Oja jaitsi eta Tiron erreka ondoko Kuzkurrita eta Otsanduri artean kanpatu zuten beste errioxarrekin. Iparraldean Kuzkurritatik hurbil kanpatu zuten Bizkai eta Araba aldekoek, hegoaldeago Tiron errekatik gora, Otsanduri ondoan errioxarrek eta Erramelluri aldera Iruñaldekoek eta ipuzkoarrek. Kanpaleku luzea eta estua zen, errekatik hirurogei bat metrora, paraleloan eta egurrezko hesi batez inguratua.

Gau hartan bigarren zaintza tokatu zitzaion Arranori. Gauerdia pasatu eta artean ia ordu pare bat falta zitzaion hirugarren erreleborako. Aspertuta eta nekatuta, etzateko gogoia zuen; ez zuen egin, ordea. Bazekien eginez gero, lotan gelditu eta harrapatuko zutela. Begira zegoen lau metroko enborrezko hesitik. Erreka aldeko aldapa zaintzen ari zen, baina leku txarra zen nekatuta egoteko. Gorputza hesiaren gainean jarri zuen. Hesi hartatik erreka bazterrerraino begiztatu zuen. Ezin zen eseri. Jarreraz aldatu eta bestaldera begiratzean ehun bat metrora itzal bat nabaritu zuen hesira hurbiltzen

ari zena. Zer egin ez zekiela, ezin zuen azkona edo gezi bat bota. Zaintzaile talde mugikorra ez zen hurbil eta ez zuen larrialdi deia egin nahi, beraien kanpamentuko gazte bihurri bat izanzen zelakoan. Baina, badaezpada gelditu behar zuen madarikatua. Hesi barnetik lurrera jaitsi zen eskaileratik eta sarkina agertuko zen aldera joan zen lasterrean. Ez zuen inor sumatu... Bat-batean atzetik harrapatu zuten eta labana nabaritu zuen lepoan.

–Nor haiz eta nongoa? Erantzun ezak azkar!

–Arrano, Erroko arkularia. Zer arraio nahi... ?

–Zu isilik egotea nahi diat. Ez larritu. Zuetako bat naiz-eta –erantzun zuen, labana erretiratuz eta Arranori buelta emateko keinua eginez–. Balz nauk ni. Ezkaraikoa. Zelatari bat nauk eta gure zaintzak egiaztatzeke esan zidatek.

–Balz? Zer izen duk hori?

–Zuek Baltz edo Beltz deituko zenidakete. Gure herriko hizkeran Balz. Orain, Arrano, buelta hadi hesira eta segi zaintzan. Errioxa garaikoak non dituk? Ba al dakik?

–Hor nonbait, bostehun metro beherago topatuko dituk...

–Ondo zagok, ikusi arte.

Balzek nagusiei emandako berrien arabera musulmanak Medinacelitik hurbil zeuden. Ziur asko lau egunen buruan abiatuko ziren Medinacelitik iparraldera. Baskoiek egun pare bat gehiago eman zuten armada praktikak egiten. Zaintzak eta kanpalekuaren funtzionamendua hobetu ziren. Goizak, armadaren mugimenduak eta praktikak egiten pasatzen zituzten. Otsanduritik hurbil zen kanpamentu luze hartatik atera ondoren iparralde eta mendebaldera jotzen zuten Treviana eta Fonzaetxe aldera. Mendialdeko errioxarrak eta nafarrak taldekatzearen arabera arkuekin tirokatze ariketak egin ondoren, mendixka inguruan mugimenduak, ezkutaketak eta eraso azkarrak praktikatzen zituzten. Ezpata eta ezkutu txikiarekin ere lantzen zuten trebetasuna. Arratsaldeetan armak eta behar zituzten gauzak konpontzen eta erabiltzeko moduan jartzen zituzten. Hiru lagun erroibartarrek, Arranok, Narruk eta Mailuk, ezkaraitarrak ezagutu zituzten. Arratsalde haietan lanak bukatuta elkarrekin pasatzen zituzten atsedenaldiak errekan arrantzan edo inguru haietako ardoa edaten. Hilaren 25ean asteazkenean Mailu izan ezik beste lau gazteak bidali zituzten armada aurretik ibili beharreko lekuak alde aurretik jorratzeko eta miatzeko. Buruzagi batzuek esploratzeko talde aproposa osatzen ahal zutela pentsatu zuten. Mailu ez zuten onartu, bera gazte handikote, astun eta lasterketarako motela zelako. Lagunarengatik penatuta egonda ere, gustura elkartu ziren Arrano eta Narru; Balz eta Eki.

## 12 - Peñacervera.

Lagunek, arinki armatu eta zamaturik, lau zaldi arinetan ibili behar izan zuten aurrera eta aldeetara armadaren bidean leku guztiak miatzen, kanpaleku ona eta janaria non aurki zitekeen egiaztatzeko. Balz zen haien buru, askotan egina baitzuen lan hura. Lehen egunean, ordea, ez zuten mendietan edo inoren erasoren beldur ibili behar eta zuzenean Burgos ondoan kanpatzeko leku aproposa seinalatu behar zieten beren armadako kideei.

Tiron errekatik gora, bide ona jarraitu zuten Belorado eta Oka herrietaraino. Armadari sei ordu kostatuko zitzaiona beraiek bi ordu eskasetan egin zuten, tarteka trosta lasaian eta tarteka pausotan ibiliz. Bidea binaka egin zuten. Aurretik Balz eta Eki ibiltzen ziren eta atzetik Arrano eta Narru. Erroko mutilek ezagutzen zituzten zaldi mota haiek, ordura arte esploratzaile lanik eginak ez bazituzten ere. Arrano ere gustura ibili zen bere zaldiaren gainean. Ximista, izen hori jarri baitzion berak, gaztea, arina, indartsu eta gogorra zen beste hiru zaldiak bezalaxe, mendiko zaldien eta lautadetako odol nahasikoa nonbait. Momentu batean, pausoka ibiltzen ari zirenean zaldiez mintzatu ziren lagunak.

–Argi zagok gustura habilela hi ere zaldi horrekin, Arrano.

–Bai, hagitz gustura. Ximistak kasu egiten zidak, baina zoragarriena duk zein agudo joaten den trosta azkarrean –Ekik hura entzun zuelarik, atzera bueltatu eta zaldiez zerbait azaldu nahi zien.

–Arrazoi duzue. Naiarako jaunaren aginduz aspaldian hazten eta hezten ari dituk zaldi hauek. Gure mendiko behorrak zaldi arabiarreekin nahasi ditiztek. Leku malkartsu eta zailtan ibiltzeko, betikoak bezain onak izateaz gainera lautadetan abiada onean ibiltzen dituk. Erresistenteak badituk.

–Zelatatzeko eta miaketarako zaldirik onenak dituk. Orain mutilok goazen Okara lehenbailehen iristeko –gaineratu zuen Balzek, bere zaldia trosta azkarrera animatuz.

Okara heldu zirelarik, ur-aska batean hautsa kendu, aurpegia eta eskuak garbitu eta zaldiei edaten eman zieten. Arkume usain goxo batek erakarrita, ostatu batean sartu ziren. Zaldiak ostatu ondoko estalkian lotu ondoren, mutil bat bidali zuten gaztelura tenenteari elkarrizketa eskatzera. Herria aspaldiko defentsa-lekua zen. Gaztelu gotor haren azpian harresiz inguratutako etxe multzo zahar bat zegoen, Oka mendien ipar-ekialdean eta izen bereko harana babestuz. Bidaiari gutxi batzuk ikusi zituzten eta bertakoak euskaldunak ziren. Tenentearen erantzunaren zain ostatuko leiho bakarraren ondoko mahaian eseri zirenean, ostalariak entsalada fresko pixka bat eta arkume erreka eskaini zien ardo beltz eta ogi goxoa lagun. Ur freskoa ere eskatu zuten. Bazkari goiztiarra ekarri bitartean, Arranok eta Narruk lur haietaz galdetu zioten Balzi. Honek ardo pixka bat edan eta gustura erantzun zien.

–Konturatu nauk harritu zaretela hemen euskaldunak aurkitzeagatik. Haran hau eta mendialde guzti hauetakoak, Errioxako mendialdekoak bezala, euskaldunez populatuta dago. Hurrengo haran eta inguruko biztanleria ere, Burgos ondokoa izanda ere, Baskoniako jendea bezalakoa duk. Gaztela menpeko lurrak izan arren, baskoiak dituk. Hemendik iparraldera Oka errekatik behera gehiago entzuten duk erromantzea. Bureba, Oja, Tiron eta Najerilla beheko herrietan, Ebro aldean, bakarrik gehien-gehienak baskoiak direnean mantentzen dituk aspaldiko ohiturak. Guk ere erromantzez egiten bazekiagu. Baina gu mendi aldekoak gaituk, herri txiki eta apartatuetan bizi garenak. Hor hegoaldean dauden mendiak Arandio mendiak dituk, gure herri ondotik, Ezkaraitik hona heltzen direnak.

Mendizerrari Demanda deitzen ziotek Gaztelakoek, ez zekiat zergatik. –Narruk, ordea, bestelako jakin-mina zuen eta galdetu zion musulmanei buruz. Arranok ere bazuen etsaiei buruz jakiteko gogoia eta arretaz entzun zion.

–Benetan musulmanak direnak Al-andalusetik, Penintsulako hegoaldeetik zetozek, Valentia, Tulaitula, Badajoz, Korduba eta Isbila lurretatik. Arabiarrak gutxi dituk. Han hispanoak dituk gehienak, musulman edo batzuk kristau mozarabeak. Berbere eta judutar batzuk ere bizi dituk. Mugetatik hurbil, berriz, mozarabeak topatuko dituzue, musulmanek bakarrik gazteluak dizkiate mugak zaintzeko. Oska, Tuter, Kalagorria eta Soria dituk al-Andalusek Baskoniarekin mugatuz dituen hiri eta gotorleku hurbilenak eta Medinaceli eta Toledo, Gaztelarekin dituen gotorlekuak. Baina lur horietan dauden gehienak mozarabeak dituk eta Arandio hegoaldeko mendialdearen magalean, gure aldean bezala, euskaldunak zeudek –momentu hartan entsalada eta arkume erreko azpila jarri zieten mahai erdian. Haiek labana atera zuten eta ogiaren gainean jarri zituzten haragi puskak. Solasa bukatu zen. Gogoz eta gustura jan zuten ardoarekin lagunduta. Bukatzen ari zirela tenentearen mezua eman zieten. Nahi zutenean joaten ahal ziren. Bazkaria ordaindu eta gazteluan sartu ziren. Dorrearen ondoan jaunari kontatu zioten baskoien armada arratsean agertuko zela eta prest izateko herria. Mandatua egin ondoren Okako mendietan sartu ziren.

Portuan ari zirela geldialdi bat egin zuten. Balzek erakutsi zien nola bilatu behar zituzten etsaien begiraleak. Ez zen benetako bilaketa, baina besteek ikasi behar zuten egiten. Denak ehiztari onak ziren eta ez zitzairen kostatu ehiza mota berrira ulertzea. Ez zituzten bilatzen talde handiak ezkutatzeko lekuak, begirale bakanak ezkutatzekoak baizik. Harraparien ehiza bezalakoa zen, ehiztariak ehizatzea. Zoruan ezer nabaritzen ez zenean, leku harritsueta behintzat, landare eta zuhaixketan aztarna mimiñoak bilatu behar zituzten. Balzek azken eguneko harraparien arrastoak bilatzeko erran zien besteei. Laurak lau haizetara banatu ziren mendi-bortutik bostehun metro inguruan. Handik ordu erdira itzuli osoa eginda, bueltatu ziren beraien aurkikuntzak seinatzera. Otso baten aztarnak aurkitu zituzten. Eki berehala hasi zen aurkikuntza aldarrikatzen.

–Otso baten arrastoa ikusi diat muino horretan. Ez duk taldean ibili eta ez dik ehizarik lortu – Balzek baietz egin zuen eta besteei zer aurkitu zuten galdetu zien–. Hik, Narru, ezer gehiago nabaritu al duk? Eta hik Arrano? –Narruk ezetz egin zuen eta bazirudien Arranok ez zuela ezer esango. Bat-batean ia haserre bota zuen:

–Hau leku txarra duk ehizarako. Otsoa hor gainean ibili zuan gauerdian, animalien begi-bistan, uluka edo beste otsoen bila, ziur asko. Mendate hau ez duk aproposa ehiza zelatzeko. Basoaren hasieran bidexka txar bat zagok. Animalia handi batzuk, ahuntza eta orein batzuk pasa dituk goizaldean hortik iparraldeko errekarara joateko. Atzetik hartz gazte bat joan zaiek eta otso zahar bat, agian lehen aipatu duguna haren atzetik, harrapakina aprobeatzeko asmoz. Azeria eta erbinude bikote bat ibili dituk goizean han-hemenka animalia txikien zuloetan bilatzen. Erbinudeek harkaitz horien atzean untxi bat harrapatu diate... Uste diat. Baina, hontza batek kendu ziek edo saiatu duk kentzen, erdizka janda zutenean. Dena den, hau ez duk leku ona animalia handiak behatzeko, han iparraldeko muinoan haritz txiki eta arte zuhaitz haien artean, ordea, baietz uste diat. Bestela, gaur bidaiari batzuk pasa dituk, batzuek mandoak eta gurdi bat zitiztean eta beste batzuek zaldiak. Bi edo hiru gizon egon zituan atzo edo herenegun zenbait ordutan bidearen ezker aldean hegoaldeko basoan bidea zelatzen. Uste diat lapurrak zirela baina ez ziaten ezer egin. –Balzek ez zuen horrenbeste zehaztasun.

–Harrigarria! Arranok arrazoi dik. Hau ez duk leku ona ehiza handia egiteko. Baina inportanteena duk, ez dela gelditu lehen harrapariaren arrastoa aurkitu duenean. Posibilitate guztiak

aztertu behar dituk beti. Ederto asmatu duk Arrano. Mutilok ikas ezazue dena ongi miatzen berak egin duen bezala. Hortaz aparte... Burgosetik hegoaldean hasiko gaituk inguruak miatzen eta badaezpada esan behar diat taldea bitan banatu behar izanez gero, hi Arrano, Narrurekin ibiliko haizela eta egunero goizetik leku bat aipatuko diagu, banatuz gero arratsean elkartzeko.

Basoetan zehar Oka mendiak gurutzatu zituztenean, Arteaga deitutako inguruan Juarros eskualdean sartu ziren. Bertako erreka nagusia Arlanzon zen. Bidetik errones batzuk aurreratu zituzten. Zalduendo eta Ibaias izeneko herriak pasatuta, jarraitu egin zuten kanpalekua aurkitu arte. Herri haietan euskaldun jendea bizi zen eta onartuak izanen ziren baskoiak handik pasatzean. Armadakoek Medel edo Villavascones izeneko herriaren ondoan egingo zuten geldialdia. Hurrengo egunean, 26an, Burgosetik pasa gabe, Gaztelako armadari aurrea hartuz hegoaldera joko zuten.

Medelen bertako jauntxo batekin elkartu ziren eta haren gidaritzapean Baskoien kanpalekurako toki ikuskatu zuten. Han zirenean, Burgosetik etorritako baskoi eta gaztelau handiki batzuekin topo egin zuten Naiarako jaun Fortunen bi kapitainekin: Bela Oriolez eta Joaniz deitutakoa. Gaztelako kondearen menpeko jauntxo haiekin zeuden armaden elkarlana gauzatzeko. Hurrengo eguneko gauean Baskoniako armada iritsiko zen eta Gaztela eta Leongo armadekin batu ondoren, hegoaldera jarraituko zuten; hala ere, laukoteak Arlantza bidetik ikuskatu behar zituen borrokarako toki aproposak eta inguruko jauntxoekin harremanak izateko agiria eman zioten Balzi. Arratsalde hartan bertan urrutiratu ziren hego-ekialdera. Presaka ibili ziren gautu baino lehen Ausinesera heltzeko. Ordu batean lau legoa baino gehiago egin behar zituzten. Egun osoko nekeak ahaztu eta bideari ekin zioten berriro. Zaldiek ez zuten arazorik izan jarraitzeko. Lau lagunek gelditu gabe jarraitu zuten Ausineseraino. Hango jaunaren gazteluan aurkeztu ziren eta lekua egin zieten gerlarien artean afaldu eta lo egiteko. Animalien zaintza segurtatu ondoren, askan garbitu eta dorrearen saloian sartu ziren. Txoko batean mahai baxu bat eta hormaren kontra banku batzuk zeuden. Han ziren dorreko gerlariak, zortzi bat. Haien artean eltze handi batzuetatik estofatua ahoratu ahal izan zuten koilarak erabiliz. Gosetuta zeudenez gogoz jan zituzten aurreko neguan kontserbaturiko zerriki puska txikiak eta barazkiak, ura eta ogi dexenterekin lagunduta. Bete zirenean, dorreko gizonak ziurtatu zieten hegoaldeko jauntxo guztiek oharturik zeuden musulmanen hurbiltasunaz eta begiraleak jarriak zituzten, kanpoko gerlari eta ikuskatzailerik trebeenak ere ez pasatzeko. Jaunak deitu zien bakarka hitz egiteko. Berehala beraien aferaz aritu zitzairen:

–Bihar, Larako tenente jauna ezagutuko duzue. Gure jaun kondearen familiakoa da eta bere konfiantzazkoa. Ez apuratu, zuen lana ez da bat ere arriskutsua izango. Zuek, Lara, Arlantza eta Silosko kapitainen aginduak betez gero, erraztuko duzue zuen betebeharra. Emaiozue Larakoari armaden berri, berak esango die gero gure agintariei orduko zein diren musulmanen mugimenduak. Orain morroi honek eramango zaituzte ukuilu ondoko belartegira lo egin dezazuen. Goizean berak abisatu eta zaldiak prest utziko dizkizue. Bi gudarik lagunduko dizuete. Lan ona egin.

Horrela, besterik gabe, bertako gerlariekin lasai hitz egiteko aukerarik eman gabe eraman zituzten lotarako. Ez zekiten zergatik zuten halako mesfidantza edo kezka. Balzek ez zuen inoren laguntza behar lur haiek zeharkatzeko. Beraiek ez ziren gaztelarrak izango, baina ez ziren etsaiak. 26an, goizean goiz abiatu ziren Lara haranean barna. Bi gidarien laguntzaz herriak pasatu zituzten gelditu gabe eta Larako gazteluan izan ziren eguerdirako. Han, gaztelu inguruan gerlari gehiago ikusi zuten eta mugimendu asko. Larako jaunak hartu zituen behin garbitu eta sukaldean zerbait bazkaldu ondoren. Jaun Gonzalok kontatu zien nola zegoen egoera, lehor tratatu ere, arrotzei egiten zaien bezala.

–Jakín behar duzue Almanzor bihar helduko dela Cluniara eta beraz hiru bat egun ditugula borroka izan baino lehen. Gure armadak gaur atera dira Burgos ingurutik eta bi egunetan Lerma pasatuko dute. Guretzako borroka-leku ona bilatu eta aurkitu behar duzue zuek. Badakizue zer leku mota bilatzen dugun. Hori da zuen lana. Nire gerlarien laguntzaz eginen dituzue mugimendu guztiak. Behin borroka-toki aproposa aurkituta, zuen eginkizuna beterik izanen duzue eta zuen armadarekin elkartuko zarete. Orain zoazte Arlantza eta Silosera. Han Ferdinandoren aginduak beteko dituzue. Delmo Tellez zuekin ibiliko da hemendik aurrera.

Beste zaldia bezala, Ximista, deskantsatuta, prest zegoen bideari ekiteko. Arranok azenario bat eman zion eta buruan gora eta beheara laztandu zuen. Zakutoa beteta atera ziren dorretxe aurreko zelaira. Delmo hogeitau urteko gazte alai zen. Irria ezpainetan zuela igo zen zaldira, hegoaldeko bidera atera eta berari jarraitzeko keinua egin zien. Bazirudien zerbait interesgarria erakutsi nahi zela. Gazteak trosta bizian joan ziren atzetik. Legoa batzuk egin zituzten jarraian. Arlantza erreka ondotik ari ziren pasatzen San Pedro monasterioaren sarreran. Atsedean hartu zutenean, zaldiei ura ematera joan zirenean, Delmok euskara trakets batean ulertzen zela ohartarazi zien. Bera ingurukoa zen, Ura herrikoa. Orduan erdaldundutako ingurua bazen ere, bera aitonarekin urte luzez ibilitakoa zen. Politik ziren puntu erdiko leiho haiek eta pintura biziez margotutako kapitelak, laborantza eta Liburu Santuko pasajeak. Zoritxarrez jarraitu behar zuten. Covarrubiasen agertuta, tenenteak jarraitzeko esan zien eta beste bi zaldunek ireki zieten bidea. Delmo bere familia agurtu gabe pasa zen Ura herritik. Arratsaldea zen eta beste ordu batean Silosera heldu ziren. Bide luzea eta neketsua egin zuten Ausinesetik Silosera. Jaun Ferdinandoren aginduz leku on bat utzi zieten lotarako. Garbiketa eta afari-merendua egin ondoren, tenentearen aurrera eramane zituzten. Honek ongi etorri atsegina egin zien. Baieztatu ziren hurrengo egunean Almanzor eta musulmanak Clunian izanen zirela. Goizean, hiru esploratzaileen laguntzaz leku bat bilatu behar zuten. Kristau armada txikia zen eta musulmanek gutxienez armada bikoitza zuten. Hori zela eta, inguratuak ez izateko, bizkarrak eta aldeak mendiek zainduta, justu mila pausuko zabalerako bailara aurkitu behar zuten, aldapan beheara erasotzeko modukoa eta musulman guztiak parte hartzeko zailduko zuena. Zalduneria astunarekin desegin eta izutu behar zituzten musulman saldoak eta gero oinezko eta arkulariekin ihesari eman ez zirenak txikituko zituzten. Garrantzitsua zen berberean zalduneria arinarentzat leku zabala ez izatea. Aldeetan bereziki oztopoz beteriko lekua behar zuten. Ia aukeratuta zuten lekua. Cervera mendien hegoaldean aurreikusten zuten izan zitekeela. Halere, bailararik edo mendiarte aproposena aukeratu behar zuten. Mutilek lan erraza aurreikusi zuten. Hala ere, Balzek kezka bat adierazi zuen.

–Mila esker jauna gure lana errazteagatik, baina miazte taldeak bidaltzen badituzte harrapatu ahal gaituzte. Zaintzako taldeak behar ditugu.

–Lasai gazte. Begirale batzuk bidali ditugu musulmanak kontrolatzeko. Nik neuk, gerlari batzuekin zainduko zaituztet eta baita lagundu ere borroka-toki aproposa bilatzen. Zuek informazioa pasatzea duzue eginkizun nagusi.

Horrela, lasaiago, gazteak lotara joan ziren hurrengo egunean goizean goiz jaikitzeko. Hilak 27an argitu orduko, Siloseko gelariak aurretik joanda, Cervera mendiak zeharkatu eta hegoaldeko lurrik ikuskatu zituzten menditearen ondoko gailur batetik. Tenenteak zaingoa bidali zuen aurretik eta Delmok inguruko ehiztari batekin bikotea osatuta, banatu zuten jorratzeko eremua. Goiza miazten pasa

ondoren lekuri proposena hantxe bertan aurkitu zuten Cervera mendatearen magalean. Azkenean Espinosa herriaren mendiartearen aukeratu zuten, txarrean mendi-bidetik Silos, Arlantza eta Lara bidean ihesbidea zutelako. Ferdinando tenentea ere ados zegoen. Hantxe egin zuten lagun berriek eguerdiko otordua. Delmo han geratuko zen, tenentea eta gaztelarekin, baskoiak agurtzen. Lau lagunak Ferdinandoren mandatari batekin, Lerma bidera abiatu ziren, armada topatu arte. Peñacerveratik lau legoara zeuden. Armaden aurrealdean hiru taldeen agintariengana eraman zituzten esploratzaileek. Garcia Gomez, Leongo kondea, Sancho Garcia, Gaztelakoa eta Fortun Santxez, Naiarako tenentea eta baskoen gudarburua, elkarrekin gudarien aitzinean ibiltzen ziren guardien zaintzapean. Garcia Gomez, mozkotea eta zabala zen, indartsua eta oso serioa. Altua eta indartsua zen Sancho Garciak modu atseginak eta dotoreak erakusten zituen. Bera zen armada osoaren buruzagia. Oso argia zen eta bere herriarentzat askatasuna lortu nahi zuen. Fortun Santxez zaharra zen, ia hirurogei urte zituen eta baskoien alferreza izan zen azken hogei urteetan. Balzek informea eman zien, Ferdinando tenentearen mandatariak baieztatu zuena. Orduan Balzek, jaun Ferdinandok idatzitako pergamino lakratu txiki bat eman zion Gaztelako kondeari. Honek irakurri zuenean Fortun Santxezi eta Garcia Gomezi baiezeko keinua egin zien eta esploratzaileei eskerrak emanez, baimena eman zien taldekideekin elkartzeko.

28an, larunbatean, berandu heldu zen armada kristaua Peñacerverara. Han, mendiaren kontra hiru kanpamentu montatu zituzten, Leongoa, Gaztelakoa eta Baskoniakoa jarraian kanpatuz eta borrokarako tokiak aurreikusiz. Atzetik, Cervera mendikatea eta portutik Arlantzara erretiratzeko bidea zegoen; galduz gero, ihesa babesteko toki aproposa. Gaztelako kondearen kanpadenda handia malda erdian zen, borroka-tokia begiztatzeko eta agintzeko lekuri proposena baitzen. 29an, biharamunean, musulmanak ere beraien aurrean kanpatu ziren hurbil. Borroka, hurrengo goizean eginen zuten. Igandea izaki, meza nagusia ospatu zuten agintarien denda aurreko kanpan. Borroka 1000. urteko uztailaren 30ean gertatuko zen. Peñacerverako bileran mendebaldetik ekialdera Leon, Gaztela eta Baskoniako armadek osotara 8.600 oinezko eta 1100 zaldun elkartu zituzten. Kanpalekuan beste 3000 morroi eta zaldi-zain mugitzen ziren, lekua zaintzeko. Kanpalekuaren mendialdean, beste zaldiak zituzten eta hurbil, baina bortuaren aldera, idiak eta mandoak garraioak eramateko prest izanzen zituztenak eta ehunka zekor, ardi eta zerri zituzten bilduta, Silos bidean. Gurdi aunitz zituzten, janari eta fardelak eramateko. Bestalde, Almanzorrek, mertzenario berbereak jarri zituen ezker aldean; erdialde zabalago batean 7000 boluntario yihadista eta 500 zaldun; eta eskuin aldean, ekialdean, Kordobako kora edo probintzietako soldaduak. Osotara, 18.400 bat gerlari bildu zituzten, baina haiekin beste 10.000 pertsona eta kontaezineko animalia, gurdi, jangai eta fardeleria.

## 13 - Peñacervera ondoren.

Abuztuaren hasiera zen, egun iluna ordura arte. Nekazariak aspaldi ari ziren lanean. Zaldunak aurreko egunean helmuga gertu zuenez, ez zen Iruñean ezertarako gelditu. Hirira iristeko legoa bat falta zenean, bide ondoko ostatu batean pasa zuen gaua. Goizean bazekien ordu batean Uhartan egongo zela eta lasaitasunez begiratzen zien igartzen zituen forma eta leku ezagunei, mendi tontor hura, herrixka, bideko errebuelta, soro, belardi eta zuhaiztiak oro. Gelditu egin zuen zaldiaren martxa. Nekatuta zegoen animalia hainbeste egunetan geratu gabe ibili ondoren. Aurrera egin beharrean eskuineko bidea erreka aldera. Zalditik irristatu eta animalia edaten utzita, batzuk erreka ondoko sasien atzetik zain zituela nabaritu zuen. Gerlari senak aurrean zituenak etsaiak zirela erraten zion. Etxearen ondoan hori gertatzea espero ez bazuen ere, kontu handiz ezpata ateratzen hasi zen. Disimuluz zaldi gainera zihoalarik, ezustean, ahots batek oihukatu zion atzetik.

–Geldi hor. Nor haiz hi eta zer egiten duk hemendik? –Aginduak ume batenak zirela konturatu zen, baita hiru gezik apuntatzen zutela ere. Ezpata lurrean utzita, atzeko ahotsari kasu eginez poliki bueltatu zen.

–Eta hi, nor haiz hi hori galdetzeko?

–Hemengo jaunaren semea eta hire hiltzailea erantzuten ez baduk!

–Lur hauetan ez al zegok gizonik?

–Erantzun galdetutakoa; bestela, akabo hire bizia.

–Mandataria nauk. Mezu bat dakarkiot Uharteko jaunari.

–Gezurria, hemen ez duk gizon armaturik sartzen gure zaingoko laguntzarik gabe.

–Hori egia duk. Baina ni ezagutzen nauzue. Ez al duk horrela Azenari?

–Neure izena duk bai. Nor haiz hi, ordea?

–Hire osaba Fortun –Fortun Santxez zen, Uharteko jaunaren anaia eta Faltzeseko tenentea, bere iloba, familia eta jaioterria aspaldian ikusten ez zituena.

–Osaba!! –oihu ikaragarria botaz, gainera zortzi urteko mutila joan zitzaion besoak zabalik.

–Zoazte etxera mutilok, ni osabarekin nihoak. –Osaba-ilobak zaldian igota, herrira eta dorretxera zuzendu ziren. Handik zaldun pare bat zetorren. Azenarik laguna zela erranda, herrian sartu ziren eta gero dorretxean.

Etxeko jauna ez zegoen ez etxean ezta herrian ere, mendialdeko bailaretan baizik. Atarian osaba Antso zegoen, salako maestra eta administratzailea zena. Jaun Fortunentzat koinataren anaia zena, nahiz eta denek osaba deitu, besarkatu eta haren anaiaren berri eman zion. Salako maisuak zaldia zaltokira eramateko aginduta, etxe atarira hurbildu ziren. Eserleku papera egiten zuen enbor handira

hurbildu ziren. Jaun Antsoren galdera isilari ezezko etsitua itzuli zion. Arropa kendu eta garbiketak egiten zituen artean derrigorrezko informazioa eman zien koinatu-ilobari:

–Ia garaitzea lortu genuenean Almanzorren mugimendu ulergaitz batzuk izan ziren eta ihesari eman zioten hainbat handikik. Ziztu bizian beraien menpeko soldaduek iparraldera jo zuten nagusien atzetik. Horrek frontea desegin zuen. Eskerrak moroak akituta zeudela eta ez zutela eraso, beste guztiok erremediorik gabe erretiratu ginenean. Armada deseginda zegoen eta guztiak nor bere aldetik etxera bidean ziren, kanpamentua abandonatuta. Ordutik, orain dela bost egun, gelditu gabe ibili naiz. Aurrea hartu diet gure gerlariari. Gutxi dira hil direnak eta zaurituak nekez agertuko dira hurrengo egunetan. Ni lehenbailehen defentsak prestatzeko abisua ematera etorri naiz. Nire gerlariak Faltzesera eta hegoaldera bidali ditut abisuak ematera...

–Eta Semenori, zure anaiari zerbait gertatu al zaio?

–Ez, nik dakidala. Ikusi nuen Burgosera ihes egiten. Bailara hauetako gerlariak ere, Gartzia kapitainaren agindupean ikusi nituen erretiratzea babesten. Kapitain ona da Gartzia.

–Bai, badakit. Goazen hamaiketako on bat hartzera, leher eginda egonen zara-eta. Antton, zoaz jaun Eneko abisatzera. Laguntzailea lasterka atera zen, zaldi bat hartu eta bere jaunari azken berriak ematera.

Guztiak eguerdiko otordua egiten hasi zirenean azalpenak ematen jarraitu zuen Uharteko Fortun Santxezek, Faltzesko tenentea.

–Gure agintarien artean ia guztiak osorik erretiratu dira. Baskoiok ongi egin dugu borroka. Gure alferezak, Fortun Santxez Naiarako jauna, gerlari gehienak eraman ditu Naiarara, mugetatik hurbil. Leongo gerlariak okerrago geratu dira eta on Sancho Garcia Gaztelako kondea Burgosen babestu da berrien zain. Duela bost egun gertatu zen borroka eta orduko berriak ditut. Musulmanak ez zeuden oso ongi eta egunak pasatuko dira mugitzeko. Gure akatsa izuagatik ihes egin eta armada banatu izana da. Kondeak ziur asko kontrolatuko ditu musulmanak, bai baitaki ez direla oso seguru sentituko. Guk ere aurrez ezin badugu ere, jarraitu, eraso azkarrak egin, herritarrak bidetik erretiratu eta gazteluetan babestuta, lortu egingo dugu ekaitza gainditzea. –Jaun Fortunez bidaiaren gorabeherak kontatu zizkion osabari eta etxekoei.

Arratsean jaun Eneko heldu zen Antton eta bi zaldunekin. Laster batean bere anaiarekin elkartu eta premiazko informazioa jaso zuen. Jaun Fortunez ez zekien Uhartearren artean zenbat hildako izan zen; bai ordea itxura zenez zauritu batzuk kenduta gehienak onik bazeudela. Kapitainaren mezua denak ongi samar zeudelakoa zen. Afaldu ondoren bakarrik geratu zirenean, lasaiago, xehetasunak eskatu zizkion Uharteko jaunak anaiari. Normalean, gazteagoak zirenean, konfiantza solasaldietan hika egiten bazuten ere, urteak pasata, biak tenenteak eta jaunak izaki, zuka aritu ziren, elkarrekiko errespetuaren seinale:

–Fortun Santxez Naiarakoak agindu zuzenik eta zehatzik eman al zizun guretzat? –Jaun Enekok bazekien ordukotz orokorrean tenenteek ez zutela Almanzorren gudaroste osoaren kontra jo behar,

defendatu baizik eta herritarrak borroketatik urrun eraman behar zituztela; berarentzat bestelako agindu edo gomendioa espero zuen, edonola ere.

–Arrazoi duzu gu biontzako agindu zehatzak eman ditu. Defentsan egoteaz gainera, zaingo sistema bat mantendu behar dugu, zuk Iruñerria eta nik Aragoi ibaiko mugan Faltzes inguruan. Berak dituen soldaduekin, ikusiko du Nairatik kontra edo erasorik egiten ahal duen eta guk berdintsu egin behar dugu. Etsaiak zaintzapean izanen ditugu eta gerlari talde bat izan behar dugu prest kontraerasorako. Ehunka zaldun behar ditugu gutako bakoitzak horretarako. Ongi informatuta izanen gaitu eta berdintsu egin behar dugu guk.

–Ongi da. Ulertzen ez dudana da zergatik ez zen armada osoa berriro elkartu Almanzorren aurka? Ez al duzu erran ia ez genuela hildakorik izan, Almanzorrek gerlari asko galdu zituela eta ia garaile atera zinetela?

–Bai. Baina uste dut gertatutakoak polikiago azaldu behar dizkizudala. Almanzor Cluniatik zetorren iparrerantz. Guk egun batzuk lehenagotik bagenekien Gaztelara zihoala eta horregatik Sancho Garcia hiri burutik, Cervera deituriko mendilerroko hegoaldean, guretzako leku on batean, haren zain geratu ginen. Musulmanek gertu kanpatu zuten eta uztailaren 30ean, astelehen goizean, parez pare jarri ziren bi armadak: Musulmanak gehiago ziren, erdian boluntario yihadistak zeuden eta bi aldeetan zaldun andaluziar armada profesionala eta bereber mertzenarioen elitea. Mendiek estuarazi zituen gerlariak. Gure armada ere hirutan zegoen banatuta eta gutxiago izanda, hobeki geunden mugitzeko. Nafarrok zalduneria astunarekin Koretako andaluziarren kontra jo genuen aldapan behera eta ez genien beren indar guztiez mugitzen uzten. Behin eta berriz lantxadun eta arkulariekin eraso ondoren, garaituta zeuden eta haien preso hartzen hasi ginen. Bestetik, gaztelarrek musulmanen erdialdean boluntario musulmanei sarraski ikaragarria egin zieten. Garaipena lortzen ari ginen. Gure eta gaztelarren erasoek musulmanen zentro eta eskuinaldeak desegin zituzten. Leondarrek, aldiz, berebereen kontra jo ondoren, Almanzorrek errefortzuak bidali zituen bere bi semeen agindupean. Abd al-Malik-ek eta Abd al-Raman Sanchuelok, leondarren buruzagia zen Garcia Gomez kondea eta bere zaldun batzuk akabatu zituzten. Gelditu ziren kapitainek erretiratzeko agindu zieten beren soldaduei. Leondarrak ihesari emateko prest ziren –Fortunek pixka batean gelditu zen zurrut txiki bat egiteko, ahoa lehor.

–Orduantxe Almanzorrek beste tropa batzuk mugitu zituen eta gaztelarren erretiratzea lortu zuen. Guk geroago jakin genuen ez zirela gerlariak; kanpamentua lekuz aldatzen eta Almanzorren babesak antolatzen ari ziren guardiak eta morroiak baizik. Baina gure armada, orduko, barreatuta zegoen eta bereziki leondarrak beren lurraldera ihesean ziren. Gaztelako Sancho Garcia ongi antolatu zuen Burgoserako erretiratzea, animaliak eta gurdiak eramanez. Guri eskatu zigun gure mugetara joateko eta zain egoteko. Momentu hartan ezinezkoa zen Almanzorri aurre egitea, gu lehen baino askoz gutxiago ginen musulmanen armada ia osoaren kontra. Lortu ez dugun garaipenaren ondoren, milaka esklabo musulman egin izan bagenu eta gainontzekoek ikaraturik hanka egin izan balute, atzetik zirikatuko genituen, baina haien hildako eta zaurituak kenduta, artean 12.000 bat gerlari zituzten borrokan jarraitzeko eta leondarrak alde eginda, zaurituak kenduta gu ez ginen 5.000 baino gehiago. Horrelako informazioak izan genituen Sancho kondearen dendan. Kondeak erresistentziara deitu zigun. Nik neuk entzun nion eta ordukotz gure alferrezek, Nairako Fortun, entzun dituzun aginduak eman ondoren, hona bidali ninduen. Zure kapitaina eta gerlariak, momentuz, haren agindupean gelditu ziren. Gizon gutxirekin antolatu beharko duzu defentsa.

–Eta uste al duzu Almanzor erretiratuko dela?

–Ez, inola ez. Nire ustez Burgos ingurua eta Ebro lautadako erribera osoan sarraskiak antolatuko ditu, baina inon lurra nagusitu gabe. Baliteke gainera Iruñerrian sartzea. Hala ere, hildako eta zauritu asko izan zituen. Bere tropek ez dute oso moral altua eta nagusia dela erakutsita, hilabete batean erretiratuko da, min pixka bat egin ondoren. Zuk nola antolatuko duzu bailara hauetako defentsa?

–Agindu diguten bezala, behin musulmanak inguruan daudela jakin ondoren, dorre batzuetan erresistentzia antolatuko dugu, herritarrak eta ondasunak bailara babestuetara bidaliko ditugu eta zalduneria arineko armada txiki batekin oztopatuko ditugu, min gehiegirik egin ez dezaten. Gure bailaretan oraindik gerlari asko ditugu, gehienak zahar samarrak edo gazteegiak, baina gotorlekuak babestuta uzteko adina, bai. –Horrela antolatu ziren baskoien defentsak. Abuztuaren erdian Kordobako armada agertu zen Errioxan, Gaztela arpilatu ondoren. Herri batzuk suntsitu zituzten, baina ez zuten inongo gotorlekurik inguratu. Hilaren 28an Iruñerrian agertu eta hiriburuaren aurrean kanpatu egin zuten.

Azenari zalapartarekin esnatu zenean gau beltza zen. Hasieran ez zekien non zegoen ere, baina ahotsak ezagutu ahala jabetzen hasi zen. Mutila salto batean altxatu, soinekoa jantzi, atorra handi samar bat gerrikoarekin estutu eta eskaileretatik behera jaitsi zen. Ezezagun bat oihukatzen hasi zen, mairuak Iruñeko atarietan zeudela erranez. Gizona aztoratuta zebilen aurrera eta atzera. Eskuak gora eta behera azkar eta asko mugitzen zituen, Iruñerrian zabaltzen ari zirela adierazi nahian. Jaun Eneko ezkutariaren laguntzaz ezpata eta koraza jantzita, aginduak ematen ari zen, sukaldean gosari azkar bat prestatzeko, arma gizonak elkartzeko eta begirale pare bat bilatzeko aginduz. Eskerrak aurreko egunetatik musulmanen berri zuten! Denbora gutxian zaldun taldeak inguruak zaintzera abiatu ziren eta jendea iparraldeko bideetara mugitzeko prest zegoenean, jaunak Azenariri deitu eta beraien behor taldea goiko larreetara lagunekin eta morroi baten laguntzaz eramateko eskatu zion. Beste animalia eta abere asko aspaldi gorde zituzten mendi aldeko lurraldeetan, zerriak, behiak, ardiak eta ahuntzak kasu. Etxeko untxi eta oiloak ezkutatu zituzten aurreko egunetan, baina jaun Enekoren hazkuntzarako behor eta moxal, zaldiko eta ar batzuk, artean dorrearen ondoko itxitura batean zituzten. Iruñerriko beste herrietan bezala, Uharteko biztanleak, gehienak heldu, gazte eta sasoiko haurrak, mendira abiatu ziren. Ama eta ume txikiak, edadetu batzuekin iparraldeko herrietan ziren salbu ordurako. Orduan, helduek, neska eta mutilek inguruko mendietan itxoingo zuten arriskua pasa arte. Herriko hesian eta dorrean gerlari zahar eta gazte batzuk zaintzaz arduratu ziren. Ezpata, lantza eta ezkutuaz aparte, harriak, arkuak eta geziak prest zituzten. Eneko jaunak herri ondoko begiratokietan gizon batzuk utzita, zalduneriaren biltokira abiatu zen. Gerra deia zabaldua, inguruko zaldunak eta oinezko batzuk beren lagunak zaldietan igota, Belotsoko aldapan elkartuko ziren ahal bazen musulmanak oztopatzeko. Orduko, bazekiten Almanzorrek hegoaldeko harresi eta ataritik hurbil kanpatu zuela.

Azenarik zakutoan janaria eta ur-zahatoa hartuta, Beltz zakurra, Irri, bere zaldi gaztearen gainera igo eta ondoko etxera joan zen bere lagun Otsoa eta Joanes haren anaiaren bila. Haiek ere zaldietan igo ziren eta eskatutako lana egin zuten morroi baten laguntzaz. Behor talde ederra zuten. Ez zen zaila izan hamezortzi behor, hamasei moxal eta zaldiko, baita lau ar ipar-ekialdean zeuden belardietara eramatea. Hazitarako zaldi haiek Uharteko jaunak behar zituen gerra eta ehizarako, baita baten bat salmentarako ere bai. Zaldi-hezitzaile batek egiten zuen lan etxe hartan. Azenarik askotan laguntzen zion moxalen heziketan. Azken urtean kapitainarekin armetan trebatzeaz aparte, lan hartan ere aritzen zen momentu batzuetan. Egun argia zen abiatu zirenean eta eguerdian ongi gordetako eremura heldu ziren. Zaldiak behar bezala utzirik, txabolan antolatu zituzten kamainak eta eguteran eseri ziren mokadu bat hartzeko. Otsoak udazkenerako planak kontatu nahi zizkion Azenariri: ehizaldi ederrak egitea espero zuten.

Musulmanak ez ziren Iruñea hegoaldeko harresietatik mugitu. Janari freskoak baino ez zituzten bilatzen inguruko baratzeetan. Bazirudien ez zutela borroka txikienarik ere sortu nahi. Enbaxada bat

bidali zuten errendizioa eskatzeko. Errege Kontseiluari men egite formala eskatu eta lortu ondoren, hego-mendebaldera jo zuten Kordoba, etxerantz. Hura, garaile zireneko itxurak egitea baino ez zen. Haiek ziren penintsulan nagusiak eta indartsuenak, dudarik gabe, baina orduan hortzak erakutsita ez zuten askoz gehiago eginen. Irailaren hasieran, hala ere, musulmanek Burgos indarrez hartu zutela zabaldu zen. Ez zen hainbesterako izan. Hiriaren inguruak sarraskitu zituzten eta hiria su-bolez bonbardatu ondoren beren lurraldetara itzuli ziren.

## 14 - Ekaitzaren ondoren... heriotza.

Uda bukaeran eta udazkenean berreraiki zituzten suntsitutako herrixkak. Enekotarren menpeko lur, herri eta dorreak onik atera ziren. Udazken luze eta emankorra izan zuten. Uzta onak jaso zituzten, bereziki fruituetan. Hala ere, negua heldu zen bat-batean. Abenduan hotza, izotza eta elurra izan zituzten eta eguberriak etxeko beroan ospatu zituzten. Urtarrilean elur gehiagorekin jarraitu zuten eta arazoak izan zituzten animaliei janaria eta ura emateko. Orduantxe otsoak agertu ziren.

Uhartek harresia baino gehiago, egur-hesi altu bat zuen herria babesteko. Dorretxe inguruko eraikinek barne harresi bat ixten zuten eta handik metro batzuetara herria osatzen zuten berrogei bat etxek eta animalien artegi, zerritegi eta bestelako eskortek bigarren hesia zuten, enborrez egina. Ez zen eraso handia jasateko modukoa, baina abereak eta pertsonak babesten zituen pizti eta lapur taldeengandik. Baina elurra pilatu zenean, leku batzuetan bi-hiru metroko altuera hartuta, oso erraza izan zen handik barnera saltatzea. Otsoen beldur, elurra kentzen eta ur beroa botatzen hasi ziren elurrak hesi ondotik zubi edo pasabiderik ez egiteko. Edozein momentutan bat-bateko elurte handia egiten ahal zuen eta otsoek hesia gainditzeko ahal zuten. Urtarrilaren bukaeran Azenarik otsoen aztarnak eta saiakerak nabaritu zituen artegien ondoko hesiaren inguruan. Baimena eskatu zion aitari bere lagun eta herriko gazteekin gauetan otsoen zain egoteko, eta baita asmatu ere. Gau batean elurtea ari zuelarik, otsoak helburua lortzen saiatu zirenean mutilek geziz josi zituzten batzuk eta otsoak desagertu ziren.

Martxoan, euri zaparradak izan zituzten eta mutilek eta gizon gazteek ehizaldiak antolatu zituzten animalia mehar batzuk harrapatzeko. Negu gogorra izan zuten eta orduantxe Azenariren familian zoritxarra agertu zen andre Uxue hil zenean, hilabeteetako gaixotasun mingarri haren ondorioz. Hiletetara handikiak agertu ziren. Edonola ere, herritarrek adierazi zuten dolurik sakonen eta benetakoena. Denak tristatu ziren dorretxean eta inguruan, baina etxeko nagusia ez zen berbera eta Azenari oso bakarrik sentitzen zen. Ia udaberriean, eguraldiak hobekuntza izan zuen. Martxoaren 21ean amaren urtebetetzea ospatzen zuten. Normalean amak bazkari berezi bat antolatzen zuen, ezohiko postre bat eta beti oparixoren bat ematen zieten haurrei, jostailuren bat gehienetan. Urte hartan, halere, Eneka arreba zerbait ospatzen saiatu arren, guztien makalaldiagatik ez zen ongi atera. Mingarriagoa egin zitzaion Azenariri, amaren faltaz gain aitaren tristeziagatik.

Zoritxarreko egunak.

Oso goiz, dorretxeko ate batetik zortzi bat urteko mutil bat atera zen uhaletatik zaldi bat zeramala. Zaldian igo eta kanpoko harresiko atetzarretik ekialderako bidea hartu zuen. Iluntasunak ez zuen gari-soro, mahasti eta belardiak ikusterik uzten. Kilometro batzuk egin ondoren mendira zuzendu zen eta goiko zelaietara ailegatuta zaldia zuhaitz batean soka luzeaz lotuta utzi zuen. Goiko larreetara heldu zen mutila. Azenari zen, Eneko bailarako jaunaren seme nagusia. Goizean goiz jaikita, gosari gisa haragi keztatu puska bat ogiarekin eta trago luze bat esne sabeleratu ondoren, mendi aldera jo zuen ardi bila. Mendi lepoan, sortaldetik argi gorritzat sumatzean, hari begira geratu zen. Segundo azkar batzuetan eguzki aldeko zerua urdin ilunetik argira pasatu zela ikusi ahal izan zuen. Gorritzat laranjatik horira aldatu zen mendi hegia eta aurrean zuen harana argiz betetzen joan zen. Lainoa beste leku batera deitua izan balitz bezala, instant batean desagertu zen eta ez gau ez eguna izanik, argitu bitartean han egotea erabaki zuen. Ihintzak bustitako belar gainean etzan zen, ikusten ziren izarrei begira. Arnasa hartu zuen sakonki.

Berehala, ordea, gogoa ilundu zitzaion apezak emandako ikasgaia gogoratuz. Erlijiosoari buruan sartu zitzaion mundu guztiak eta bereziki Azenarik penitentzia egin behar zuela. Baskoien erresuman, penintsulako besteetan bezala, Era Bisigotikoaren arabera kontaktzen zuten denbora. Modu horretan 1038. urtean ziren. On Afraniok, ordea, irakurria zuen frankoen eta italiarren lurraldeetan, Kristo Ondoko 1000 edo 1001. urtean zirela Kristoren jaiotzetik kontatuta, eta apezaren erranetan orduantxe zabaltzen ari zen Apokalipsiaren berehalako etorreraren berria. Penintsulan, garaien bukaera eta Jaungoikoaren epaiketaren momentua hogeita hemezortzi urte lehenago emana zen, Apokalipsiaren komentarioak eta Beatoen mezuak modan jarri eta zabaldu zirenean. Monasterioen indartze handia gertatu zen orduan eta jendartean ere eguneroko kontua zen penitentzia eta Apokalipsiaren aipamena. On Afraniok eskolak emateaz aparte, latinezko irakurketa eta idazketarekin, otoiitz eta penitentzia fisikoak eskatzen zizkion Azenariri. Ama oso gaixo izan zenetik, amaren babesik gabe geratu zen mutila eta apezak penitentzia eta zorrotasun gehiago eskatzen zion. Azenarik ez zituen jasaten ez apeza ezta erlijioa praktikatzeko haren modua. Nahiago zituen beste gaiak jorratzen zituzten liburuak eta bereziki armetan eta herri kudeaketan trebatu, Gartzia kapitain eta osaba zaharrarekin.

Minutu batzuk beranduxeago igoerak emandako berotasuna galduta, haize hotza nabaritu zuen. Altxatu eta basoak uzten zuen soilunera begiratuz, egun argitan ardiak zeuden lekua ikusi ahal izan zuen. Begi zorrotz haiek ez zuten problemarik izan etxeko ardiak ezagutzeko. Korrika batean abiatu zen mendian behera. Errekastoan garbiketa azkar bat egin eta eskukada bat ur edanda, momentu batean abereekin zen. Beti bezala Zikina eta Urduria falta zirela ikusita, haraneko beste mendiaren magalerantz jo zuen altura handiagoren beharreen. Maldetatik larre txiki batean nabaritu zituen. Artalde osoa bildurik, leku egokian utzi zituen eta oilagorraren arrastoak bilatzen hasi zen. Bazekien inguru hartan aurkituko zuela animalia. Harri kozkor batzuk hartu eta haiek botatzeko habaila-larrua prestatuta, aztarna bati jarraitu zion. Poliki ibilita, habiaren sarreratik gertu ezkutatu eta haren zain geratu zen. Handik denbora gutxira, habiara zetorrela sumatu eta gorputz-jarrera egokia hartuta erne jarri zen. Harria botatzeko prest zegoelarik, deiadar bat entzun zuen. Oilagorrek hanka egin zuen. Oihukatzen zutena bere izena zela konturatzean, etsitu eta erantzun zuen. Zetorrena etxeko morroi txikia zen. Ondoratu zenean berri lazgarri bat entzun behar izan zuen.

–Azenari, zure aita erori egin da.

–Zer diok? Nola gertatu duk hori?

Bera, jaunaren seme nagusia izateagatik zukako trataera ematen zioten aspaldian. Morroiak nahasirik kontatu ahal zionez, aita herritik atera berria zenean, zaldiak suge bat ikusi eta bota omen zuen jaun Eneko. Ezkutariak, zaldia eskuratu, ahal zuten moduan zaldian igo eta etxera eraman zuten. Bere aitak buruz jo omen zuen harri baten kontra eta une hartan ohantzean zegoen zorabiatuta edo konortea galduta.

Arnasestuka sartu zen etxera eta eskailerak igo zituen harrapaladan logelan sartzeko. Aita bere ohatzean zen. Neskameak zerbait beroa eman zion aitari. Hurbildu zenean, gezurra iruditu zitzaion aitak zeukan itxura txarra. Ezker belarriaren gainean dena izugarri hanpatuta zegoen. Bat-batean, gorritu eta zahartutako aurpegia ia ezezaguna zitzaion. Okerrera izan zen aitak ez zuela ezagutzen konturatzea. Begiak sabaira zuzenduak zituen geldotasun beldurgarri batean. Mekanikoki hartzen zuen lñaxi neskameak ematen zion edabea. Azenarik ezin izan zuen hura jasan eta negarrez hasi behar zuela pentsatuz sukaldera alde egin zuen. Arratsaldean, lñaxik behartuta, zerbait ahoratu zuen mutilak. Azenari, Jantsuri eta Gartxoti etxeko bi morroi, belarretan laguntzera joan zen. Mutu aritu ziren lanean, hirurak kezkatuta zeuden. Iluntzean biltegiko sabaian pilatutako belarren gainean etzan zen,

Otsoa agertu arte. Beltza zakurrarekin erreka aldera abiatu zirenean, Otsoa lehenengo hitzak erratera ausartu zen.

–Ez ibili horrela, ez duk horrenbesterako motel. Hire aitarena kolpe handia duk bai, baina bihar edo etzirako onez egonen duk. Egun guztian ibili nauk zizetan eta itzultzean belarrak egiten ikusi haudanean, antzeman diat ez hengoela ezta agurtzeko ere. Etzak hilda balego bezala hartu.

–Hala ematen dik. Ez naik ezagutu ere egin ikustera joan naizenean. Uste diat kolpe handia baino gehiago duela. Mundua erori zaidak. Atta galduko diat... –orduan, Semeño agertu zen agudo afaltzera joateko erranez.

–Zer moduz zagok aita? Konortea berreskuratu al dik?

–Ez zekiat ba! Uste diat ezetz, Iñaxi haren ondoan zagok eta afari nazkagarria hartu behar diagu. Zer nazka!

–Hiri inporta zaian bakarra afaltzea duk ezta? Hoa hemendik!

–Kaikua! Atta ongi jarriko duk –anaia txikiak hanka egindakoan, Otsoak bota zion:

–Ez portatu hain zakarki, berak ez dik errurik eta.

–Ez dakik nola dabilen azken bolada honetan. Guztion mimoak dizkik baita arrebarenak ere. Hemen egongo balitz sikiera, attaz aparte gehien maite dudana arreba duk.

–Baina zer kontu dituk horiek, hau maitatu, hura ez maitatu...

–Begira, ongi konpontzen nauk guztiokin, osaba Semeno eta Semeñorekin izan ezik, baina hik badakik. Atta sendatzen ez baduk, ikusiko duk nola jarriko diren nire kontra.

Handik gutxira Azenari afaltzera agertu zen. Aita berdin zegoela egiaztatuta, oso gutxi ahoratu zuen. Makal gerlari zaharra ahalegindu zen egoera arintzen: berehalaxe arituko zirela aita eta bera arku eta geziekin ehiza egiten, ezpataz eta lantzaz jaun Enekok parekorik ez zuela, bera ezkutaria zelarik aitak egindakoak... Alferrik izan zen dena, edo okerrago, zeren horrek guztiak berari aitaren egoera larriaz gehiago gogorarazi baitzion eta iruditu zitzaion dena bukatuko zela. Afaldu ondoren berriro erretiratu zen. Iñaxik aita zaintzen jarraitu zuen. Etxetik ez urrun, harresitik kanpo zuhaitz batzuen artean zegoen harri zuriaren ondoan eseri zen Azenari zuhaitz baten kontra. Pentsamendu beltzak baztertu ahal izan zituen, biharamun goizean goiz zer egingo zuen pentsatzen ari zenean, Garazi agertu zen. Bera zen herriko guztiak belarrez sendatzen zituena; azti fama zuen gainera. Emakumeak oilar bat utzi zuen lurrean eta hiru kandela piztu zituen harriaren alde lauean. Azenarik ikusi zuenetik, emakume zaharrak ez zuen soinurik txikiena ere egin eta bere egitekoak bukatuta, mutilak begi bizi-bizi haiek barneraino sartzen zitzaizkiola sentitu zuen. Iltzatuta gelditu zen ezin mugituz. Gero, emakumea irribarrez eta hitz xamurrez mintzatu zitzaion, laztan batzuk egiten zizkion bitartean.

–Ez kezkatu nagusi txikia, bizitza luze eta zoriontsua izango duzu-eta. Sona handiko zalduna izango zara, aita bazain inportantea, eta borroketan ez duzu parerik izango. Munduko gauza asko ezagutuko duzu...

–Eta aitari zer gertatuko zaio? –bota zion bukatzen utzi gabe.

–Edabe eta ukendu batzuk eman dizkiot. Ikusiko dugu onik izanen duen eta biharko errekueratzen den. Zuen aitak leku txarrean hartu du kolpea. On-ona izan da guztiokin eta zoriontsu bizi izan da. Andre Uxuerekin, zure ama zenarekin elkartu nahi du. Berak ere zure aita behar du. Ba al dakizu, asko maite zaituela zure amak?

–Nola dakizu hori? Hildakoekin mintzatzen al zara?

–Gure mutiko, hilak ez daude hilda, ez jendeak uste duen bezala behintzat. Askotan gure inguruan ibiltzen dira eta maite dituztenei laguntzen diete. Zure amak lagunduko dizu aurrera egiten. Entzun ezazu gauerdian suaren garrek erraten dutena. Eraman amaren gauza preziaturen bat eta suari ezpal batzuk bota ondoren hiru aldiz pasatu gauza hori suaren gainetik. Berarekin asko gogoratzen bazara mintzatuko zaizu. Ez izan beldurrik –hau erran eta masailetik laztan bat egin zion. Andre zaharraren zimur artean, begien distira izugarria zen. Galdetzera zihoala, emakumea bueltatu eta poliki-poliki urrutiratu zen.

Oheratzeko zegoenean, osaba Antso eta arreba agertu ziren etxean. Goizean, ezkutari bat joan zen izebarenera abisua ematera. Aitaren inguruan zeuden etxeko guztiak, hari begira. Isiltasunaren erdian, Semenoren begirada zorrotza topatu zuen. Sukaldera pasatu zirenean osaba zuzendu zitzaion.

–Azenari, zergatik utzi duk aita bakarrik, zelaietara joateko?

–Ardiak zaintzera joan behar nuen eta...

–Lan horiek morroien kontuak dituk. Hire lehenengo betebeharra, aitaren aginduetara egotea duk.

–Aitak bazekien...

–Aitak bazekien –errepikatu zuen burla eta imitazio ahotsez–. Hire betebeharra aitaren ondoan egotea zuan. Luze mintzatu behar diagu. Hik ez duk ideiarik...

–Niri bota behar al didak errua? –moztu zion Azenarik.

–Manera horiek ez dituk hire nagusi bati hitz egiteko modukoak. Hoa ohatzera –bota zion oihuka etxeoak eta morroiak izutuz.

–Osaba ez da nire intenzioa izan. Nik erantzun...

–Alde egiteko erran diat –bota zion zakarki, bere onetik aterata.

Azenarik eskaileretan gora egiten zuen bitartean, Eneka egoera leuntzen ahalegindu zen. Alferrik. Gainera, Semeñok "Azenarik du errua" behin eta berriz errepikatzen zuen.

Mutilak ohatzearen gainean bota zuen bere burua. Eutsi ezinez, negarrari eman zion denbora luzez, tartean, atta, atta, xuxurlatuz. Buelta emanda, aitaren aurpegi hanpatu eta gorritua asmatzen

zuen sabai ilunean. Azkenean ez zituen etzekoen zaratak entzun. Orduan gogoratu zuen Garazik errandakoa, gauerdian amarekin mintzatzen ahal zela. Kanpo aldean begiratu ahal izateko, leihoa ireki eta kanpora begiratu zuen. Ohartu zen gauerdia gertu zegoela. Ilargiak ia bide erdia ibilia zuen.

Agudo, baina ia soinurik atera gabe sartu zen josteko gelara. Bere gauzen artean zer hartu ez zekiela, amak erabiltzen zuen zilarrezko orraziaz oroitu zen. Ate ondoko kutxa ireki eta dena nahasiz azkenean aurkitu zuen. Usaindu zuenean orrazterakoan amaren ile distiratsu eta luzeaz oroitu zen. Amak, ileak garbitzerakoan mentaz eta beste belarrez eginiko ukendu bat botatzen zuen eta ondoren egiten zuen garbiketak ez zuen usain sarkor hura erabat kentzen. Kutxa itxi eta bere gelara bideratu zen gauerdia zela-eta. Ez zen ongi oroitzen egin beharrekoaz eta leku lasai baten premia izateak bere gelara eraman zuen. Momentuz han gelditu zen errito hura sukaldeko su gainean egin behar zuela oroitu zuen arte. Antsiaz egin zuen korri beheko solairuraino, behin edo bitan estropezu eginez.

Errautsa erretiratu eta ikazbiziaren gainean ezpal dezente bota zuenean putz egin zuen sua piztearren. Kostata hasieran, su bizi-bizia lortu zuen eta egur puska txikiak kontu handiz antolatu ondoren, ekin zion amaren orrazia gaintik pasatzeari. Garrek altura eta indarra hartua zutenez, beldurrez pasatu zuen eskua. Alferrik. Ez zen ezer berezirik sumatzen. Amari pizten zioten kandelaz oroitu zen. Tximista baino azkarrago hartu eta piztu zuen. Amari deika hasi zitzaion eta deus ez zuela lortuko pentsatuz berriz negarrez hasi zenean bat-batean suak altura gehiago hartu zuen. Bizia putz bat zela entzuna zuen nonbait. Su hari zuzendu zitzaion.

–Ama, hemen zaude? –Sua biziagotu zen pixka batean.

–Ez eraman aita guregandik. –Sua aldeetara mugitu zen. Amarekin zuzeneko solasean aritu balitz bezala jokatu zuen—. Oraindik behar dugu. Nik behar dut. –Irudipen edo benetan amaren ahots maitea entzuten ari zela iruditu zitzaion.

–Ez penatu, baina bere ordua heldu da, seme.

–Bera gabe, etxe hau infernu bihurtuko da.

–Ez dago erremediorik laztana. Nik ezin dut ezer egin.

–Ama, zer egin behar dut?

–Deus berezirik ez, seme. Eutsi. Bizi behar duzu. Jarraitu.

–Osabak nire kontra joko du. Nola defendatuko naiz? Nola jarraituko dugu etxe honetakoak?

–Lasai zaitez bihotza..., zure osaba horrek ez du etsiko zu etxe honetatik bota arte. Ez borrokatu, hobe biziko zara bere bistatik urrun. Gurean jarraitzen saiatzen bazara zure bizia arriskuan izanen da. Etorkizuna hemendik urrun bete behar duzu.

–Baina ama, ni naiz oinordekoa, etxe hau zuzendu behar duena, gure familiaren ohorea zaindu behar duena.

–Asko sentitzen dut ene seme, baina ez duzu zer eginik. Zure osaba horrek uste du Semeño bere semea dela eta etxeaz jabetuko da berarentzat eta ustezko bere semearentzat.

–Nola diozu hori? Zuk.....

–Ez gaizki pentsatu. Bortxatu ninduen. Ez nuen deus erran aita ez mintzeko eta arazo handiagorik ez sortzeko. Garbi utzi nion berriro saiatuz gero, dena kontatuko nuela. Uste du Semeño bere semea dela. Ez da horrela baina berarentzat nahi du etxe, jaurerri eta leinuaren burutza. Kasu egiten ez badiozu eta joateko eragozpenak jartzen badituzu, hilko zaitu. Seguru izan seme –Azenari pentsakor gelditu zen.

–Orduan...

–Orduan, pentsatu hemendik landa biziko zarela. Aitak eta biok lagunduko dizugu. Ospe eta zoriona izango duzu hemendik alde eginez gero.

–Ama, behar zaitut. Nola solastu behar dut zurekin?

–Orain bezala, nire orrazia eta aitaren labana txikia erabili horretarako. Aio seme. Ez tristatu gugatik. Bizi zaitetz maitea. –Sua ezertan gelditzen ari zen.

–Ama... Ama... –erantzunik ez.

Hurrengo egunean dorretxea jendez bete zen. Eguerdirako, atarian eta etxearen aurreko plazan, soldadu, apez, fraide eta noble batzuk elkartu ziren. Haran haietako lagunak, agindupekoak, baita arerioak ere, noble, fraide eta apezak gehienak, berrogei bat pertsonaia azaldu ziren han. Dorretxearen patioa, zerbitzu desberdinetarako zazpi bat eraikinek inguratzen zuten babesa funtzioa betetz. Dorretxeko beheko solairuan, ukuilu handia zegoen, sarrera albo batean zuena. Saloi handiaren bidean, lehen pisuko atarira heltzeko egurrezko eskailera bat igo behar zuten, nahi bazuten kendu ahal zutena. Bigarren pisuan etxeko eta gonbidatuentzako logelak ziren eta ganbara azken pisuan, nahiz eta handik dorreak beste pisu bat egin, inguruak zaintzeko leihoak zituena. Dorretxearen ondoan, su arriskuagatik aparte, sukaldea eta janari biltegiak zeuden. Zalditegia, bestelako animalia batzuen babestokiak, janari biltegiak, tresnen gordelekuak, lastategia eta nola ez, soldadu, morroi eta beraien familien bizitokiak ere baziren patioaren inguruan.

Egun hartan, nabaria zen etxekoen lan isila, kanpokoan gero eta zalaparta handiarekin konparatuz. Jauntxoak eta apez-fraideak, kanpoko egurrezko eskaileretatik etxean sartuta, lurraren mailatik hiru metro altuagoan, atari barnean bankuetan zeuden esekita binaka edo hirunaka hizketan. Orduan, neskameek eskaini zizkieten freskagarri eta jakiak hartuta, ozenki ari ziren eguneroko gaiez, hara eramandako jaunaren egoera ahaztuta. Atariko egurrezko eskaileretan ezkutari bat edo beste zegoen jarririk jauntxoan deirako prest eta plazan, etorritakoen morroi eta soldadu batzuk, gehienak hormen kontra jarriak; beste batzuek, ateen aurrean edo patioaren sarrera-atarietan enbarazu egiten zieten lanean ari zirenei.

Arratsaldean okerrera egin zuen jaun Enekoren osasunak. Iruñeko osagilerik hoberena ekarri zuten goizean goiz eta honek esperantzarik ez izateko erran zien. Azenarik nola edo hala pasatu zuen eguna, gonbidatuen galderak erantzuten, hainbat eginkizun betetzen, morroiei etxe inguruan eta gehienetan bertan, laguntzen. Egin zituen bi atsedenetan, berrien zain egon zen atari aurreko eskailera zabalean eserita. Egun osoan ez zuen ezer askorik ahoratu, ogi gogor puska bat izan ezik. Osaba Semenok hartu zituen bisitariak eta agintzen zuen etxeko jauna balitz bezala. Azenari harengandik ahalik eta urrunen ibili zen. Mutilak ezin zuen jasan eta are gutxiago bistan izan. Behin edo bitan

nabaritu zion disimuluzko begirada. Ederki ezagutzen zituen berarenganako gorroto ezkutua edo besteekiko mesprezu eta gaiztakeria. Ez zekien zer, baina ez zuen ezer onik espero harengandik.

Iluntzean hil zen jaun Eneko. Zenduaren gelatik negar-zotinak entzun ziren. Neskame bat agertu zen aieneka eta bisitari guztiak igo ziren lehen pisura, gehienak pasabidean geldituz eta batzuk gelan sartuz. Han, ordura arteko jauna zetzan eta haren ondoan on Afranio, alaba, bi semeak, Semeno, osaba Antso, Iñaxi neskamea eta Kosme morroien burua. Denak hasi ziren otoitzean. Bukatu zutenean musu bana eman zioten lotan zirudien jaun Enekorri eta atera ziren kanpoan zirenei lekua utziz. Azenarik begirada iheskorra nabaritu zion osaba Semenori. Honek, ordea, disimulatu eta penatuarena egiten jarraitu zuen. Ongi bai ongi baitzekien mutilak osabak aitarekiko bekaizkeria eta gorrotoa disimuluan eramaten zuela, hark berarekin zituen sentimenduak zirelako. Barnean arriskuaren sentsazioa gaineratu zitzaion penari. Gelatik ez zituen bost pauso egin, osabak isiltasunaren gainetik dei trumoitsua egin zionean.

–Azenari, hator hona.

–Zer nahi duk? –buelatu eta esaldia ozenegi atera zitzaion Azenariri. Berdintasunezko tratuak gogor eta mesprezuzkoa zirudien.

–Nola erantzuten diok hire nagusi bati, hire erruz aita hil denean? –hasi zen oihukatzen.

–Horrexegatik! Zergatik botatzen didak errua istripua izan denean?

–Lotsagabe halakoa!! Aita utzi huen bakarrik! Eska ezak barkamena oraintxe bertan edo...

–Putakumea! Hi ere ez hintzen haren ondoan erori zenean. Ezkutaria eta morroi batekin zebilen eta aita osasuntsu zegoan erori baino lehen!

–Seme hiltzailea, hoa hire gelara eta zain ezak behar duan zigorra –bota zuen ozen oihukatuz.

Azenarik bultzada bat eman zion eta gelara joan beharrean eskailerak jaitsi zituen arrapaladan. Ataritik ez zen kanpora joan. Txokoko eskailera txikia hartu eta sotoetara jaitsi zen belar eta zaku batzuen gainera negarrari emateko. Bitartean entzuten zituen osaba gaiztoaren hitz pozoitsuak.

–Deabru gorria! Jainkoari barkamena eskatzen pasatu behar huke bizitza.

Azenari bere min eta amorruekin geratu zen, osaba malapartatu hark zer erran nahi zuen pentsatzen. Semenok lortu zuen mutila gaizki gelditzea, baina berak ezin zuen leporatutakoa erantzun gabe utzi. Osaba Fortun etxean izan balitz ez zen amets gaizto hura gertatuko. Abisua bidali ziotenetik ia bi egun pasa ziren. Berehala agertuko ahal zen erregutu zuen. Momentu hartan konturatu zen ez ziola egun osoan Jainkoari otoitz egin eta fraide ibiltari batek erran zion bezala, Aita Gurea egin zuen bihotzez eta maitasunez. Ziur asko konturatu gabe aitak egindako bekatu txikiak jainkoari barkatzeko eskatzeko eta amaren ondora eramateko eskatu zion, hunkituta, doluz beteta.

–Aita, ama, maite zaituztet. Ez gintuzuen hain agudo utzi behar, baina zuek bezalakorik ez du inoiz izan seme batek. Atta, amatxo... –nekatuta, negar eta murmurio hartan poliki-poliki loak hartu zuen.

Nola gertatu zen inork jakin gabe, egunsentian etxe ondoko korta txikiko animalia asko hilik agertu ziren eta Azenariri bota zioten errua. Lekuko baten arabera, osaba Semenoren ezkutaria, gauerdian Azenarik amorruez beterik aizkoraz edo hil omen zituen. Azenari zalaparta harekin esnatu zenean, patiora atera eta zoritzarreko egoera topatu zuen. Salaketak zur eta lur utzi zuen hasieran. Gero, etxeke langile eta soldadu marmartien artean, osaba Antsoaren sorpresa eta ezkutariaren begirada maltzurra nabaritu zituen atarian agertu berriaren Semenori zuzenduta. Ez zen gauza izan burua hotz eta lasai bere burua defendatzeko. Gezurtia deituz eta salto batean osabaren kontra joz erantzun zuen. Hala ere, zortzi urteko mutiko batek gutxi egiten ahal zuen gizon heldu eta indartsu baten aurka. Osabak zartako galanta eman zion eta eskuetatik hartuta soldadu bati animalia basatiak gordetzeko itxituren sartzeko agindu zion. Semenok inguruko morroiak eta soldaduak, baita osaba maestrea ere beldurtuz lortu zuen Azenariren alde inor ere ez ateratzea. Denek zekiten, edo susmatu egiten zuten behintzat, gezur hutsa zela, baina Azenari artean ez zen gizona eta Semeno edozein gauza egiteko gai zen.

Mutilak ezin izan zuen bat ere egin. Ezintasunez, aurreko batean basurde-kumeek zikindutakoa baztertuta, lasto garbiaren gainetik begiratzen zuen etxearen aurrean gertatzen ari zena. Aurreko egunean bildutako handikiak etxetik bertatik eta kanpotik agertzen hasi ziren. Berari begiratu azkar egiten zioten gauean gertatutakoaren ipuina entzuten zutenean eta berehala sartzen ziren etxe barnera beste handiki batzuekin elkartzera eta arratsaldeko hileta eta elizkizunaren zain. Morroi batek, ezkutuan, jateko eta edateko zerbait eraman zion. Goiz erdian, Otsoa agertu zen. Bere aita, Gartzia kapitaina, artean Erriberan, Faltzesen zela eta ez zutela espero kontatu zion. Azenarik herrian erraten zutenaz galdetu zion.

–Denek zekitek hik ez duala ezta ja ere egin; hire osaba horrek dena asmatu duela. Aski ongi ezagutzen haute horrelako gauzak ez sinesteko. Nik neuk ere horrelaxe erran zieat, baina ez ditiztek askorik behar. Semenoren ibilerak eta bizitza guztiko gaiztakeriak ez ditiztek ahandzi. Lasai hadi, hurrengo orduetan ez baduk, bihar edo etzi, gure aitarekin hire osaba Fortun etorriko duk eta askatuko hau. Izan ziur –Azenarik ez zuen hain garbi. Ezagun zituen deabru beltz haren gezur eta tranpak eta bazekien edozein gauza egiteko gai zela. Etorri berriak ziren osaba Belasko eta izeba Santxari esker Azenari dorretzeko haurren logelara sartu zuten, zigortuta baina ez basapiztia bat bezala, handiki guztien aurrean animalia bat bezala tratatuta.

Eguerdian, inguruko eta Iruñeko agintari, erlijioso eta bestelako handikiak elkartu ziren dorretxean. Hileta-elizkizun handiak ospatu zituzten. Azenari aske utzi zuten parte hartzeko. Gero, eliza ondoko hilerrian gorpua lurperatu ondoren, denak dorretxearen atari aurreko plazan elkartu ziren, Azenari berriro bere gelan itxita utziz. Jendetza, noble eta herritarrak, asko ziren eta eguraldi ona ari zuela aprobetxatuz, mahaiak jarri zituzten patioan “U” itxurako bat osatuz. Semeno, apezpikua, Iruñeko Antso Fortuniones Erret-jauregiko salako maestrea zena eta bestalde, familia hurbilekoak, izeba Santxa eta Belasko, Semeño eta Eneka, mahaiburuan jarri ziren. Ospakizun zaratatsu hark gehiago haserrarazi zuen Azenari, bere gelatik pena eta injustizia jasan ezinik. Arratsaldean, Semeno agertu zitzaion gelara erdi-mozkortuta jaun Enekoren heriotzaren errua leporatuz. Azenari eutsi ezinik gainera oldartu zitzaion. Orduantxe agertu ziren familiako guztiak eta apezpikua. Gizonak Azenari gelditzen eta lasaitzen ahalegindu ziren, Semenok lepora eskuak eramanez antzerkia borobiltzen zuen bitartean:

–Basapiztia halakoa! Erotu haiz! Jainkoaren laguntzaz sendatuko ahal zara! Apezpiku jauna, ez al dago lekurik Donemiliagan edo, mutil gaizto bat onera onbideratzeko eta jainkoaren barkamena eskatzeko? –Apezpikuaren baietzaren aurrean planarekin jarraitu zuen osaba malapartatuak—. Hala bada, apezpiku jaunak erran duen bezala, Donemiliagan berriro mutil kristau on bat izateko egonaldi

bat egin dezala –denen erantzun falta aprobetxatuz, mutila berriro utzi zuten itxita. Azenari, ezgauza, edozeren gaintik lur jota utzi zuten hitzok eta besteen defentsa faltak. Gizon gaizto hark ederki maneatzen zituen egoerak eta pertsonak. Bat-batean, momentuz bazen ere, enekotarren buruzagitza eskuratuko zuen Semeno Santxezek, itzala egiten ahal zion oinordekoa baztertuz eta Semeño, beste iloba, kontrolatuz. Fortun Santxezek, anaietan zaharragoa izanda ere, Faltzesen eta mugaren zaintzan zuen lehentasuna, mezuek adierazten zutenez.

## 15 - Donemiliaga.

Biharamunean, gerlari eta morroi baten laguntzaz abiatu zen Azenari Donemiliagara. Berari, morroiari bezala asto bat utzi zioten bidea egiteko. Dorretetik abiatu behar zuenean, bakarrik izeba Santxa eta Eneka joan ziren agurtzera. Osaba Belaskok premiazko arazo batengatik joan behar izan zuen Iruñera, baina inondik ere ez ziren agertu osaba Semeno eta izen bereko anaia, etxean egonda ere. Izeba, gurutze-domina bat emateko aitzakian diru-poltsatxo bat sartu zion besapean. Hura eta arropaz aparte, amaren orrazia eta aitaren labana txikia baino ez zituen eramaten. Musu bana eman ondoren asto gainera igo eta zaldunaren atzetik urrutiratu zen Uhartetik bolada luze baterako behintzat.

2001eko udaberri hartan, behartuta, Azenari Donemiliagara sartuko zuten fraidegai, monasterio famatu baina urrun batean. Apirilaren lehena zen Uharteko familiaren dorretxea utzi zuenean. Hurrengo egunean bederatzi urte beteko zituen bakardaderik sakonenean. Euria ari zuen Zirauki ondoko santutegiaren inguruetara heldu zirenean. Uhartetik atera zirenetik, Azenari bere baitan ibili zen legoa eta legoatan. Ez zen ohartu ere egin Iruñea ondotik pasatzean. Bere urtebetetze eguna izanen zela ere ahantzi zitzaion. Leku ezagunak zitzaizkionez ez zien kasurik egin; Lizarrara heltzean, ordea, inguruko desberdintasunek arreta erakarri zioten. Ordura arteko herriak, ezagutzen zituenak bezalakoak ziren. Lizarran etxe berri asko eraikitzen ikusi zuen, jende bitxia modu berezian jantzita topatu zuen eta hizkuntza anitz entzun zituen. Gaua pasatuko zuten ostatuan afaltzean, mutil atsegin baten ondoan jartzea egokitu zitzaion, kasualitatez gaua bertan egin behar izan zuena. Arnaldo edo Ortzi, berak nahiago zuen izena, hamasei urtekoa, Amekoako herri batekoa zen eta askotan bere familiako edo herriko beste batzuen animaliak eramaten zituen Lizarrara. Arkume batzuk saldu gabe gelditu ziren eroslea gauean edo hurrengo egunean agertuko baitzen eta bera gelditu zen hurrengo goizean animaliak saltzeko. Ortzi baskoi gazte arrunta izanen zen tratuan ibili ez balitz. Ezagutzen zituen frankoak eta gaskoiak, bertako erromantzedunak eta hain arraro mintzatzen ziren judutarrak. Bere izen bikoitzaren arrazoia ere kontatu zion:

–Nire lana frankoei abereak saltzea duk eta izen txatxu horrekin hobeki hartzen naitek. Beraiek dituk ostatu gehienetako nagusiak eta artisauak ere bai. Hemen baskoiek erromantzez egin behar diate besteekin. Frankoak edo gaskoi asko egia erranda, duela urte asko bizi dituk hemen, baina ez diate euskaraz egiten. Bakarrik gaskoi euskaldunak aritzen dituk euskaraz. Gaskoi asko, hala ere, aspaldian erdaldundu zituan beren herrietan, Tolosa eta Bordele inguruetan.

–Baina, txano arraroa duten horiek, judutarrak, zergatik dituk hain desberdinak? Nire herritik, Uhartetik pasatzen direnean ez diate hain arropa arraroa eramaten.

–Hori duk, bidaiatzean, judutarrak direla ezkutatzea praktikoagoa eta seguruagoa delako.

–Baina, hemen...

–Hemen lasai eta seguruago bizi direnez beraien erlijio desberdintasuna adierazi behar diate. Kristauak ez direnez, judutarren seinaleak eraman behar ditiote... Baina, erradak: hi nora hoa hire herritik urrun?

–Fraide sartu nahi naitek eta Donemiliagan izatera behartu naitek.

–Zergaitik behartu haute?

–Nire gurasoak hil dituk bata bestearen segidan eta osaba batek, ni premua izateagatik erditik kendu nahi naik. Azenari nauk, Uharteko jaun Enekoren seme nagusia... ninduan...

–Hi... Zu al zara aritzarren leinuko oinordekoa?

–Baninduan bai. Baina ez egin zuka, mesedez.

–Nahi... duan bezala –Berehala, beraien bizitzaz aritu ziren biak, goiko pisuko logela handira lotara joan ziren arte.

Azenarirekin bidaiatzen zutenak gutxi mintzatzen ziren berarekin. Uhartetik atera bezain laster, morroi eta gerlaria haren atzetik jarri ziren noizbehinka hitz aspertuak eginez. Bitartean Azenari Lizarra ondoko herri txikiak, euskal jendez populatuak pasatu ondoren, handiagoak aurkitu zituen Ebro ibaiaren inguruan. Handiak, harresiz inguratuta eta etxe gehienak beheko parteetan buztinezko adreiluz eginak. Jendea ere baskoia izaki, erromanizatu samarra zen. Umeek euskal hizkeraz beteriko erromantzea erabiltzen zuten, nahasian. Edonola ere, herri guztiak ez, harrigarriki Ebro ondo-ondoan Kodes aldean inguru menditsuago eta baskoiagoa topatu zitekeen. Handik aurrera, Naiara bitartean berriro topatu zituen herri handietako jende erdalduna. Naiara, Iruñea baino txikiagoa bazen ere, aberastasunak eta hiri garrantzitsuetako gauzak topatu zituzten: dendak eta artisau tailerrak; eliza handiak, plaza eta azokak; eta bereziki gaztelu eta kuartel handiak.

Ez zen harritzeko Naiararen garrantzia. Azken garaietan arrazoi militarrengatik Erregeordetzaren udako ohiko egoitza zen, noizean behin Iruñera mugitzen baziren ere. Han, jende nahaste handia nabari zen Lizarran bezala, leku desberdinetako baskoi asko, haietako gehienak gerlariak, batzuk hegoaldeko mendialdekoak. Gaskoiak, Errioxako lautadako biztanle erromantzedunak, eta gainera musulman eta mozarabe batzuk ere ikusi zituen. Dena den, itxuraz ez ziren baskoiengandik oso desberdinak, hizkera erromantzedunak ziren, haien diferentziarik nabarmena beraien jantzi koloretsuagoak eta buruko zapiak ziren. Dena den, leku batetik bestera gerlari talde gehiago ibiltzen ziren zaintza lanetan eta inguruko gaztelu eta dorreetan gerlari gehiago ziren. Hango bertako gerlariak aparte, Naiara inguruan Kalagorriri begira Baskoniako armada gehiena biltzen zen udaldietan.

Baina bitxiena Errioxako paisaia zen. Mutilak sentitzen zuen pena ahaztu gabe ere, udaberriaren edertasuna, usain berrien indarra eta naturaren berritzearen aurrean ezin zen itsu eta apal geratu. Nahi gabe ere, txundituta, udaberrian natura hura bizitzaz eta maitasunaz mintzatzen zen; animaliek, txoriek nabarmen, poztasuna adierazten zuten. Naiara inguruko lautadetan ez ziren ikusten mendialdeko baso trinkoak edo mendi altuak, urrunean zirriborro urdin batzuk baizik. Baina mahasti lerrokatu, galsoro berdetu eta baratze aberats haien artean, erreka ondoko makalek marrazten zituzten lerro luzeak. Harrigarriena euri ondoko zeru garbi eta argitsua zen. Horretaz gainera, lur arre eta marroiak, landareen berdeak, loreen koloreak, mitxoleta gorriak, eta konposizioak nabarmentzen ziren. Paisaia nabarra zen. Lur emankorraren gainean berde paleta kontrastatu eta garbia nabaritzen zen eta usain umelak heriotzaz eta biziaz hitz egiten zion Azenariri.

Najerilla erreka utzi eta Kardenas errekatik hego-mendebaldera mugitu ziren. Badaran eta Berzeo herriak pasatu zituzten. Bertakoek gehienetan erromantzez eginen zuten ziur asko, baina bidaiarien itxurari erreparatuta euskaraz agurtzen zieten. Paisaia antzekoa zen, baina bailara estutzen ari zen pixkana eta urrunean mendiek inguratzen zuten. Berzeotik legoa erdi batera herrikka baten inguruan, fraide batzuk ikusi zituzten nekazarien artean lanean edo animalien laguntzaz garraio egiten

zutenak. Agurtu eta monasterioaz galdetu zietenean ez ulertuarena egin zuten. Poliki eta ahoskatuz beren erromantzerik dotoreenean galdera errepikatu zutenean erdi latinez erdi erromantzez mendebaldeko bidea erakutsi zieten hurbil zegoela gaineratuz.

Santutegia ez zegoen hain hurbil, ez behintzat haiek bezala hain nekatuta zeuden batzuentzat. Beheko bailaratik urrun ez bazegoen ere, aldapa eta bide bihurria jarraitu behar izan zuten. Pinuen artetik igo ziren bidetik. Aitaren batean ez, arrosario batzuk erreztzeko denboran zelai txiki batera heldu ziren. Azenarik Donemiliagaren famagatik, monasterio handiagoa espero zuen. Hala ere, harrituta zegoen kanpotik ikusten zuen edertasun orekatuagatik. Eskuinean, iparraldean, mendi pareta baten kontra, baseliza ederra zegoen. Fraide eta morroiak harat-honat ari ziren eguneroko eginkizunetan, haiei kasurik egin gabe. Astoak eta zaldia kanpoan lotu zituzten eta sartu ziren.

Santutegia harri argi landuz egindako eliza zen. Ekialdetik sartu ziren baselizaren ondoko korridore estalian. Ezkerretara zortzi arkudun leiho handiek gainerako eraikinak eta erdiko patioa erakusten zuten. Korridorea, ekialdetik mendebaldera luzatua, pasealeku estalia, klaustro bezala erabiltzen zuten. Erdian, atari are ederrago batetik elizan sartzen ahal zen. Barruratu zirenean lekuak beste mundu batean sartu zirela zirudien. Ilunagoa izanda ere, ekialdetik sartzen zen argitasuna. Aldarea, gurutze handia eta imajina koloretsuak nabarmenduak gelditzen ziren, kandela erraldoiek ere arreta erakarriz. Mendebalderantz elizaren luzera markatuz, zutabe lerro jarraiak bitan banatzen zuen eliza. Eta zer nolako arku ikusi zituzten! Ferra eder handiek espazio magikoa eratzen zuten. Mendien sartuta koba batzuk zeuden. Haietako bitan kapera itxian hilobi landuak ikusten ziren. Azkeneko kaperan, kandela handi pilen bidez inon baino argitsuago, ederki zizelkaturiko hilobi eta kolore biziz margoturiko egurrezko irudiaren aurrean gizon bat zegoen belauniko otoitz egiten. Orduantxe altxatzen ari zen eta bueltatu behar zuen. Beste fraideek bezala soineko beltzezko kapusaia eramateagatik, edozein izan zitekeen. Nolabait ere, beraien aldera biratu zelarik, egin zien irribarreak eta burusoilaren distirak nolabaiteko santutasuna ematen zioten. Haiengana hurbildu zen besoak zabaldua.

–Egun on Jainkoak. Ongi etorri Donemiliagaren santutegi honetara –agurtu zituen latinez, erromantzez jarraitzeko–. Ni Benedictus priorea naiz. Etor zaitezte nirekin garbiketa egitera, santuaren aurrean otoitz egin baino lehen –korridorera atera ziren. Fraide gazte pare batek ura eta eskuoihalak eskaini zizkieten. Garbiketak eginda, gerlariak diru-zorroa eta eskutitz bat eman zizkion prioreari. Gizona, eskutitza ireki, irakurri eta berriro zuzendu zitzaien.

–Azenari, gure artera bizitzera heldu zarenez, ongi etorri berriro. Arratsaldean bazkaldu ondoren hitz egingo dugu. Joan zaitez orain fraidegai hauekin. Zuek, errezatu eta bazkaldu ondoren joaten ahal zarete –gerlariak eta morroiak eskuan muin eman ondoren elizan sartu ziren eta esan bezala eginen zuten, arratsaldean Uharterako bidea hartuz.

Azenari bi fraideekin joan zen. Zelaiaren aurrean, mendebaldean, gehiena buztinez eta egurrezko enbor txikiz egina, fraideen bizitokia topatu ahal zen. Beheko harrizko solairuan jantokia zegoen eta eskailera batetik logela txiki batzuk eta bi logela handi zeuden, bata fraide helduentzat eta bestea fraidegaientzat. Laukiaren ezker aldean sukaldia, ukuiluak eta biltegi batzuk zeuden. Handik hurbil, eraikin txikiagoen artetik, baratze batzuk ikusten ziren eta urrunean haran izugarri ederra. Donemiliaga bailara osoa zen eta bitxi horren harribitxia baseliza-monasterioa. Azenarik janaria sukaldetik jantokira eramaten lagundu zien. Orduantxe, Sextak jo zuen eta besteekin batera otoitz egitera sartu zen elizan. Bukatutakoan, isilean bazkaldu zuten urdai puska handi bat eta ogia urarekin, batek irakurtzen zien bitartean. Eguerdiko otordu arina hartuta, priorearengana eraman zuten mutila.

Priorea scriptoriumean zegoen, hegoaldean harrizko eraikin batean ziren ukuilua eta scriptoriuma haren gainean. Kanpoko eskailera batetik igoarazi zuten. Idazgela ez zen handiegia baina ongi egoten ahal ziren hamar bat fraide mahaietan lan egiten. Armairuetan ehunka liburu ikusten ziren. Airean usain kilikagarria nabari zen, pergamino zaharren hautsak sortzen zuena. Leihoetatik, alabastroari esker, argi iragaziak nahiko argitasun ematen zuen, mahai gaineko pergaminoen irudiak margo biziz jantziz.

Priorea alabastro fin-finez estalitako leiho baten ondoko mahai batean zegoen, liburu koloretsu bat irakurtzen. Hurbiltzean begirada altxatu zuen liburutik, irribarre zerutiarra eskainiz eta ondora gehiago hurbiltzeko keinua eginez. Latinez zuzendu zitzaion mutilari, poliki.

–Azenari, eskutitzean adierazten da hemen egon behar duzula onbideratzeko. Ez erantzun. Ez duzu zeure burua zuritu behar. Ez duzu gaizto izateko itxurarik. Zure osabak hona bidali zaitu eta onartu behar duzu. Hemen bizitza gogorra izanen duzu, otoitz eta lanen artean, baina Jainkoak lagun, gela honetan aurkituko duzu santifikazio eta ezagutzaren bidea. Izangaiekin biziko zara –Azenariren keinua ulertuz, jarraitu zuen.

–Lasai, badakit latin hau justu ulertzen duzula. Ikasiko duzu ederki. Atsedean momentuetan erromantzez edo baskoieraz egiten duzu mutilekin, edo nekazariekin lanetan. Orain atsedena duzu, paseatu eta pentsa ezazu hausnartu behar duzula zure bizitzaz. Beste momentu batean mintzatuko gara. Orain zoaz bakean.

Azenari, ontasun begirada eta hitz haien laguntzaz lasaiago geratu zen. Inguruko liburu-gela miragarriari begirada bota ondoren patiora jaitsi zen. Prioreak errandakoaz hausnartzen geratu zen hego-ekialdeko paisaiari begira. Han herria eta monasterioko lurrak zeuden, mendien artean isolatuta. Eta halaxe sentitzen zen, isolatuta. Bere herri, ahaide, lagun, eta maite zituen animalia eta gauzetatik urrun, bakarrik sentitu zen, aita eta amarik gabe. Osabaren maltzurkeria ere gogoratu zuen. Bazekien hark zerbait egiten ziola eta beraren kontra joko zuela. Hala ere, probokazioei ezin eutsiz tranpan erori zen. Besteen aurrean iraindu zuen eta eraso egin zion, kanporaketa gauzatu. Bere buruaren erruz zegoen Donemiliagan eta era berean bazekien han libro zela osaba malapartatuarengandik. Ez zuen beste osaben laguntza espero. Ziur asko haiek ere Donemiliagan seguruago zegoela uste izanen zuten.

Horrela zegoela, bi mutil hurbildu zitzaizkion. Bata bera baino zaharragoa, hamabi bat urtekoa, lodia eta zikin samarra, harroputza eta mespretxuzko keinua erakusten zuena; bestea, txikiagoa eta mehea, irribarretsu agertu zen. Lodiak erromantzez lehor esan zion beraiekin joateko. Ukuiluan sartu ziren eta simaurra kentzeko eta garbitzeko agindu zion mutil lodiak, berak lana zuzentzen zuen bitartean. Gurdi txiki batean bota behar zituen gorotza eta lasto zikina mutil txikiaren laguntzaz. Gurdia bete zutenean, bi hagetatik hartu eta lodiak simaurtegia erakutsi zien besteei. Gurdia eraman zutenerako lodia desagertu zen, lanarekin jarraitzeko esan ondoren. Txikiak orduan galdetu zion izena. Azenarik ez zion ongi ulertu eta bestea konturatu zen ez zuela erromantze hura ongi ulertzen. mutilak pixka bat kostata esan zion euskaraz, bera Blasko Bernardez zela, zortzi urte zituela, eta lodiaren izena Muño, hari ez egiteko euskaraz. Azenarik bere izen eta jatorriak adierazi zizkion poliki-poliki bestearen aurpegiagatik bere familiaren berri zuela ikusiz. Azenarik, ahal bazuten euskaraz mintzatzea eskatu zion. Mutilak hiketan ongi jakinen ez zuela konturatuta, zuketan zuzendu zitzaion.

–Erromantze hau zailtasunez ulertzen dut eta eskertuko dizut euskaraz egitea –gauzak argi utzi nahi izan zituen–. Ez du garrantzirik enekotarra izateak. Ez dut horretaz hitz egiteko gogorik. Mesedez, konta iezadazu denbora izanez gero hemengo bizitzaren berri. Baina hasteko, esadazu mesedez gaur zer egin behar dugun.

–Gaur simaurra garbituko dugu, gero Remiro fraidegaien maisuak esango digu zer gehiago egingo dugun. Goizetan maisuak eskolak ematen dizkigu: latinak, otoitz desberdinak eta Done Benitoren kapituluak eta arauak ikasgarazteko. Gogorrena da Maitin, Laude eta Primetan esna egotea. Ez digute janari askorik ematen baina goserik ez dugu pasatuko. Baina..., lanean jarraitu behar dugu, bestela Muñok joko gaitu. Lasai, dena azalduko dizut. Lagun onak izango gara.

Simaurretan jarraitu zuten. Bat-batean, kanpai hotsa entzun zen eta bi mutilak ukuiluaren sarreran jarri ziren elizari begira errezatzen. Nona ordua zen, arratsaldeko hirurak aldera, eta bakarrik lanik gabeko fraideak sartzen ziren elizan. Besteek, lanean zirenak alegia, zeuden lekuan bertatik otoitz isila egiten zuten, eliza barnean hiru salmo errezatzen ziren bitartean. Haiek, lanera itzuli zirenean, Muñorekin topatu ziren, atarian bertan. Honek lanera itzultzeko oihuak bota zizkien, jarraian goitegian belarren artera ezkutatzeke.

Beste hiru orduz jarraitu zuten lanean, atsedean eskasetan bi hitz eta ur trago bat egiten zuten bitartean. Lan asko egin zuten, dena txukun eta lasto berriez estalita utzirik. Bezperetako deiarekin batera tresnak utzi, azkar garbitu eta elizara sartu ziren komunitate osoarekin batera. Artean, egun argitan apirilean zirelako, elizaren harriak urrezkoak izan balira bezala mundu magiko bateko imajina eta doinuak zirela ematen zuen. Leku guztietatik agerturiko monjeek elizako postuak bete zituzten. Berrogei bat fraide nagusi eta hamar izangai ziren. Hiru gazteenak atze-atzean ziren, beste zazpi gazteen atzetik. Zerien izerdi usainagatik ezagun zen lan neketsuetan ibiliak zirela. Batzuek begiratu irribarretsu edo maltzurra bota zioten berriari. Ofizioa hasi zen: “Deus, in adiutorium meum intende. Domine ad adiuandum me festina. Gloria Patri, et Filio, et Spiritui Sancto. Sicut erat in principio, et nunc et semper, et in saecula saeculorum. Amen. Alleluia”. Gero, Himno bat, salmo batzuk, berriro “Gloria Patri...”, Bibliaren irakurketa bat, Magnificat-a, Aita Gurea eta azken otoitza. Lehenengo aldia zenez, ez zitzaion oso luzea egin. Kantuek sorginduta zuten mutila. Bizitza aktiboa maite zuen mutilak ez zuen uste fraideak eta latinak jasanen zituenik eta hala ere, gustukoa izan zitzaion otoitzaldi hura. Gogogabeturik egonda ere, otoitzek eta bereziki abestiek jasangarria egiten zioten sentitzen zuen pena.

Elizatik atera zirenean ilunduta zegoen. Atsedean momentu hartan, Blasko hurbildu zitzaion eta esan zion bazituela berarendako beste jantzi aproposago batzuk. Arratsaldean eman behar zizkieten, baina Muñok ez zuen mesede hori egiteko gogorik izan. Fraidegaien logelara joan ziren eta atorra beltz zabal bat, belaunetaraino heltzen zena, latza baino latzagoa zenez, lihozko barne arroparen gainean jantzi zuen. Eskerrak barneko arropa gehiago zuela, bera ez baitzen pobreak bezala arropa latzetera eginga. Oinetako handi batzuk, fraideen soinekoa eta hura lotzeko soka bat eman zizkion. Ordura arte jantzita eraman zituen jantziak morroiak utzitako batean sartu zituen eta ohatilaren buruan utzi zituen. Goitik behera beltzez jantzita ikusi zuen bere burua, fraideek jantzen zuten bezala ia, escapularium edo kutun baten faltan.

Segidan, joan ziren ukuilura To txakurra ikustera. Bera zen beste bi mastinekin batera monasterioa gauetan zaintzen zuena. Egun hartan fraide batek eraman zuen herrira egin beharretara. Zakur handi, gazte eta alaia zen To, horizta kolorekoa. Gustura hartu zituen Azenariren laztanak. Ezin zuten sokatik askatu ezta ingurura eraman. Blaskok jartzeko agindu zion bi aldiz eta hirugarrenean lortu ez zuenean tristatu zen. Azenarik hezur puska kendu zion Blaskori, zakurrari erakutsi, eskuarekin irmo baina goxo lurrera etzanarazi zion animalari hiru aldiz, etzan hitza ahoskatuz eta hezurra begi aurrean lurrera eramanez. Laugarrenean ahots ozen eta lasaia erabiliz “etzan” erran eta hezurarekin beheerako keinua egin zuenean zakurra eseri zen. Berriro egin zuenean, hezurra eman eta laztandu zuen ongi egin zuela erranez. Blaskok ere laztandu zuen gustura, aurrerantzean nola egin behar zuen konturatuta. Jolasean aritu ziren puska batean elizakoa ez zen beste kanpai hots apalagoa entzun arte. Afaltzeko

ordua zen. Denak jarri ziren beren lekuetan isilik eta priorearen otoitzarekin bat Jainkoari eskerrak eman zizkioten. Gero, fraide baten irakurketa entzun artean, isilean, morroi batek barazki zopa banatu zien katiluetan eta beste batek ogi bana eman zien. Ura edalontzietan zeukaten eta nahi zuenak hartu ahal izan zuen beste katilukada erdi bat barazki. Ez zuten haragirik hartu, baina ez ziren gose izan. Patiora atera ziren paseatzera. Handik gutxira Konpletak izan ziren, berriro “Deus, in adiutorium meum intende. Domine ad adiuandum me festina. Gloria Patri, et Filio et...”. Ofizioak jarraitu zuen, amaigabe. Noizbait bukatuko zen.

Logale zen. Loaldi ederra egitea espero zuenean, Blaskok berri txarrak eman zizkion. Gauean, gosaria baino lehen hiru aldiz altxatuko ziren otoitzetara, “Maitin, Laude eta Prima” otoitzaldietan. Isilik joan ziren oheratzera. Zaharrenek ez zieten gazteei hizketan utzi, ezta Azenariri ongi etorri egiten. Berehala loak hartu zuen mutila; baina bultzaka esnatu zutenean, hamar minutu ere ez zirela pasatu iruditu zitzaion, bi ordu pasa zirenean. Gau erdia zen. Begiak ezin irekiz jarraitu zituen beste fraideak eskaileratik behera, patioa zeharkatu eta elizako bere lekura heltzeko. Han, Maitinak ospatu zituzten. Luze baino luzeago egin zitzaion otoitzaldia. Automatikoki ibili zen berriro Laudeak jotzean. Zutik egon behar zuenez ez zen lotan gelditu, erdi lotan bai. Salmoek oihartzun egiten zuten elizaren kupula eta sabai borobilduan eta lo kantak balira bezala beste mundu batera eramaten zuten Azenari. Fraideen kantuak are gehiago sorgintzen zuen. Automatikoki itzuli zen logelara eta etzan baino lehen zen lotan. Prima-ra berdin joan eta ibili zen. Goizeko haize freskoak esnatu zuen baina ez zion lotarako gogoa erabat uxatu. Bost ordu eskas baino ez zuen egin, gutxiegi ohitura zuen zortzi orduen aldean. Ondoko komuna luzean egin beharrekoak egin eta aska batean egin zituzten garbiketak. Bukatzean gosari beroa zuten esperoan: katilukada handi bat behi-esne, ogia eta urdaia. Gogoz eta gustura gosalduta zuten.

Handik aurrera Azenariri gogorra egin zitzaion ordutegi eta gaueko ofizioetara ohitzea. Are gogorragoa izan zen fraidegaien maisuaren irakaspenak jarraitzea. Gosaritik ordu erdira scriptorium ondoko eta ukuluaren gaineko gela txiki batean ziren ikasle guztiak maisuaren zain. Gela argitsua zen leiho estu baina anitzei esker. Udaberri egun argitsu hartan kontraleihoak irekita zeuzkaten. Mahai gainetan idazteko edo kontuak egiteko argizarizko oholak eta ziriak zituzten. Hiru mahai luze zeuden. Fraidegai gazteak lehenengo mahaiaren eseri ziren. Zaharrenek burla egin zioten Azenariri. Sartu zenean, maisuak isilarazi zituen eta idazki batzuk kopiatzen jarraitzeko esan zien zaharrei. Berriaren etorrera aprobetxatuz ordenaren arauak errezitatu eta errepikarazi zien gazteenei. Horrela aritu ziren mutilak asper-asper eginda. Gero, gazteei testu batzuk kopiatzeko agindu zien eta batuketa eta kenketa batzuk jarri zizkien zaharrenei. Azenarik ia ez zuen azkar eta gaizki errezitatutako latin hura ulertzen. Errazago egin zitzaion idaztea antzeko ariketak eginak baitzituen etxeko apezaren aginduz. Konturatu gabe lotan gelditzen ari zen. Muñok ostiko batez esnatu zuen. Bukatzeko, berriro San Benitoren arauak adierazteko eskatu zien maisuak. Arauen 5. atala men egiteari buruzkoa zen eta maisuak behin eta berriz errepikarazi zien bati, beste bati edo guztiei batera. Memoriaz ikasi behar zuten eta Azenariri esan zion hurrengo egunean berak errepikatu beharko zuela. Orduantxe Terziara deitu zuten eta denak eserlekutik altxatu eta ekialdera begira otoitz egin zuten, maisuaren esanak errepikatuz. Otoitzaldi labur hura bukatutakoan monjeek jarraitu behar zuten aurretik egiten zutenarekin. Fraidegaiek beste hiru orduz jarraitu zuten ikasten, idazten eta kontuak egiten. Ikasketak egitea ere lan egiteko beste modu bat zen. “Ora et labora” zen denek errepikatzen zuten leloa. Lana ere otoitz modu bat bezalakoa zen. Bizitzan bekatuengatik sufritu, penatu eta zigorra bete egin behar zuten.

Goiz luzearen ondoren Sextara deitu zitetenean, ikasgela utzi, elizan fraide nagusiekin batera errezatu eta bazkaltzera joan ziren. Otordu arina egiten zuten eguerdian. Atsedenean ondoren, gehienek binaka edo talde txikietan bildu eta gauza arruntez mintzatzen ziren: nola sentitzen ziren, esamesak, osasun kontuak eta berri txikiak ziren gairik arruntenak. Azenari eta Blasko jantokiaren ondoan gelditu ziren hormaren kontra jarrita. Muño jantokiko txoko batean lo-kuluxka egitera ezkutatu

zen. Arauek debekatzen zuten lo-kuluxka gazte eta osasuntsu egonez gero. Mutilek isildu zuten arau haustea eta amesten hasi ziren. Leku zoragarriak asmatu zituzten, mendirik altuenak, landa eta lurrik aberatsenak, baita hondartza bat ere bai, inoiz ikusi gabea bazuten ere. Beranduago, maiordomoak, erratza, ur-ontzi eta zapi batzuekin jantokia garbitzeko esan zien. Muño agertu zen lan itxurak egiten eta bukatu zutenean komuna berrirako txabola egiten laguntzen airtu ziren. Egurrak eta harriak pilatzen aritu ziren. Egun pare baterako lana zuten.

Azenariri bizimodu hura oso gogorra egiten zitzaion. Gauean ez zuen aski lo egiten, goizean logale zen eta aspergarriak zitzaizkion maisuaren eskolak. Arratsaldeetan lan gogorra egiten zuen eta atsedenetan ezin zuen lasterka edo lo egin. Janaria gutxienekoa zen, baina txikitatik ohitura zuen behin betebeharrak eginda, nahi zuena egiten, edo ia; han, ordea, ez. Lagun bakarra zuen eta ezin zuen ezer atsegirik egin. Ezin zuen korri egin. Ezin zuen barre edo are gutxiago algararik egin. Irria bera ere gaizki ikusten zen. Otoitza eta elizan kantua izaten zituzten atsegin bakarrenetakoak. Kantuak lasaitu egiten zituen. Latinak ikastea aspergarria izanda ere, ez zitzaion gehiegi kostatzen Azenariri. Hala ere, okerren-okerrena arau bukaezin haiek errepikatzea eta betetzea zen. Arauak entzun eta bete; eta ez betetzeagatik edo mintzatzegatik askotan zigorra jasotzea besterik ez zuen espero Azenarik. Maisuaren eskoletan lotan gelditzeagatik edo batzuetan despistatzeagatik atsedenaldirik gabe uzten zuten.

Bederatzi urterekin jakin-mina zuen mutilak, dena den abentura eta mugimendu gehiago behar zuten: zalditan ibiltzea eta borrokarako praktikak faltan sentitzen zituen. Egunak eta egunak pasa zituen horrela. Momentu desberdinetan priorearen begirada erreparatu zuen berarengan. Ez zuen inolako tratu berezirik izan, ez bazen pare bat alditan noble ezagun baten etorrerarekin, berari zerbitzatzea tokatzen zitzaionean.

Hala ere, maiatza hasi eta egunak luzatzen ari zirenean monasterioko martxa aldatu egin zen nabarmen. Eskolak ez ziren udaldian goiz osoan luzatzen, arratsaldeko azken orduan baizik. Fraideek eta fraidegaiek kanpoko eginkizunak egin behar zituzten. Zaharregiak ez ziren fraideek nekazarien lanak zuzentzen zituzten edo monasteriorako ondasunak kudeatu eta zergak jasotzen zituzten. Fraidegaiek lan gogorrenak bete behar zituzten. Azenari eta Blaskori, gazteenei, bederatzi urte eskasekoak izateagatik betebeharrak arina tokatu zitzaion. Monasteriotik urrun, goi larretan zegoen etxola batean, ardiak zaindu behar zituzten. Goiko artegian, Liberto, adineko artzain batek lan egiten zuen gauetan ardiak zaintzen eta egunez gaztak egiten. Bi mutilek egunero legoa bat egin behar zuten ardiak jetzi eta zaintzeko eta arratsaldero gazta onduak monasterioko biltegira eramateko. Gustura egiten zuten lan hura. Mando bat utzi zieten gainera. Mando gazte, handi eta arin bat zen Bandi deitu zutena. Goizeko otoitza egin ondoren garbiketak egin, gosaria presaka hartu, eta egun osorako janaria zakutoan, Bandi gainean hasten zuten eguna. Azenari gainera, ibilia zen lan hartan. Hirurehun bat ardi gobernatzeko To zakurra eramaten zuten. Bizitza aldatu zitzaion Azenariri. Inoren agindurik gabe, nahi zutena egiten ahal zuten ardiak zainduz gero. Bandi trosta bizian jartzen zuten eta haga luze batekin txorimalo baten kontra jotzen zuten. Azenarik, eskuz egin ondoren, ezpata eta azkonak erabiltzen erakatsi zion Blaskori. Ehizatu ere egiten zuten tranpa eta arkua erabiliz. Mendiko goi-larreetan lagunak eta ez hain lagunak egin zituzten. Beste mutilak bi taldetan banatzen ziren, Cardenasko euskaldunak, monasterioaren menpekoak eta Pazuengokoak. Pazuengokoek erromantzea erabiltzen zuten maiz, gehienek baskoiera ulertzen bazuten ere. Uda eta udazkenean zenbait alditan, mutilak txandaka talde jokoan ibili ziren. Udazkenean lagunak batak bestearen sekretu eta asmo inkontzienteak ere asmatzen zituen. Behin honela esan zion Blaskok lagunari, konfiantza osoz azken aldia erabiltzen zuten hiketan:

–Azenari, hi ez haiz fraide izateko jai. Lehen edo beranduago joanen haiz monasteriotik.

–Bai, ez zaidak otoitzez betetako bizitza gustatzen, baina ez diat asmatzen nola lortuko dudan!  
Hi etorriko al hintzateke nirekin?

–Ez zekiat nola, baina noizbait zaldun baten bizitza eramanen duk. Nik, ordea, ez nauk  
armetarako oso trebea eta badakik scriptorium-eko lana gustatzen zaidala.

Horrelako solasak izaten zituzten. Bitartean ardiak zaintzea zen beren ardura eta noizean behin  
beste mutilekin egiten zituzten jolasak eta denbora-pasak. Baina gustura egiten zutena, bi lagunak  
elkarrekin hizketan egotea zen edo mando-zakurrarekin dibertitzea. Muño gutxitan topatzen zuten,  
gaueko otoitzak egiten edo logeletara joan-etorrian ez bazen. Muñori, fraide maiordomoari laguntzea  
egokitu zitzaion eta egun osoa mandatuak egiten pasatzen zuen monasterioan edo inguruetan.

Donemiliagako bizimodua berriro aldatu zen negua heldu zenean. Goiz luze aspergarriak  
ematen zituzten arauak eta otoitzak ikasten. Noizean behin, txandaka, sriptoriumean laguntzen zuten  
pergaminoak prestatzen edo testu errazak tinta beltzez idazten. Azenarik eta Blaskok, artean gazteak  
izanda ere, beste batzuek baino garbiago eta hobeki egiten zuten lan hura. Fraide eskribauak, prioreaz  
gain lau ziren, haietako bi marrazkilari eta margolari onak. Denek miresten zituzten Joakinek egindako  
fantasiatzko animaliak, deabru eta pertsonaiak; Arnolfok, aldiz, paisaia ederrak egiten zituen.  
Scriptorium hartan Azenarik libururik miragarriena ikusi ahal izan zuen. Beato deitzen zuten eta idaz-  
gaiak Done Joanesen Apokalipsiaren Komentarioak ziren. Pergaminozko orri haietan irudi  
miragarrietan, aingeruak, deabruak, bekatariak, santuak eta birjinak agertzen ziren. Jainko  
ahalguztiduna zeruetan agertzen zen munduaren akabera zuzentzen. Liburuen artean ere baziren  
Codex batzuk. Liburu haietan latinezko idazkien ondoan, bazterretan, zalantzazko hitz edo  
adierazpenen ondoan latinez eta batzuetan erromantzez edo baskoieraz idazleek azaltzen zuten  
esanahia. Negua luzatu ahala, nolabait, monasterioko bizimodua gero eta astunago egin zitzaion  
Azenariri. Done Benitoren arauak une guztietan ziren agerian: zer eta noiz jan ahal zituzten hainbat jaki  
edo noiz egin barau; noiz eta nola egin behar zuten otoitz; nagusiei zor zitzaizkien ohoreak eta haiei  
men egin beharra; aginduak betetzeko beharra; isiltasuna gordetzeko agindua; gutxi jatea eta gutxiago  
lo egitea... Ezerengatik, huskeriengatik izaten ziren zigorrak. Azenariri jasanezina zitzaion ia dena.  
Blaskorekin zuen harremana, lan fisiko gogor gutxi batzuk eta scriptoriuma izan ezik, gainerakoa lan  
aspergarria eta otoitz egitea zen. Lana eta otoitza. “Ora et labora”... Dena errepikakorra eta aspergarria  
izan ez balitz, jasanen zuen. Oraoraora et laboraoraora.

Garai hartan faltan sentitzen zituen aita eta ama. Eskerrak haiekin “hitz eginez” lasaitzen zela  
pixka batean. Etxekoak oroitzen zituen: izeba Santxa, Eneka, Belasko, Fortun eta osaba Antso; Semeno  
eta Semeño osaba-anaiak ez. Lagunak ere askotan zituen gogoan, Otsoa bereziki bere adiskidetasun  
alaiarekin, baina baita Gille, Fortun eta Antso printzea. Eskerrak Blasko ondoan zuela. Hurrengo  
urteetan askotan gertatuko zitzaion maite zituen pertsonen oroitzea, baina inoiz negu hartan bezala.  
Udaberriaren hasieran, baina artean eguraldi txarra zutenean, Azenarik dena mekanikoki egiten zuen.  
Benedictus prioreak egoeraz jabetuta, ahal zuenean Azenariri deitzen zion scriptoriumean gehien  
gustatzen zitzaion eginkizunean berari laguntzeko edo Blaskorekin batera herrira bidaltzen zuen  
mandatuetara, bere arimarako aringarri. Dena den, espero zitekeena gertatu zen. Azenari gaixotu egin  
zen. Sukarrak eta hotzeriak hartu zuten eta loak ere bai. Amets gaiztoetan munduaren akabera zela  
erraten zuen. Eta orduantxe, abisurik izan gabe okerrena gertatu zen. Almanzor agertu zen  
Donemiliagako santutegian bertan, dena sutara emateko.

## 16 - Al-Andalus. Kordobara bidean.

Azenari esnatu zenean, hasieran ezin izan zituen begiak ireki. Arrosaren usaina etorri zitzaion gogora lehendabizi, intsentsuarena gero, eta arkume errearena azkenik. Gose zela konturatu zen. Burua altxatu nahi izan zuen eta min sakon batek gerarazi zuen. Begiak ireki zituen. Oihal zati koloretsuak ikustean denda batean zegoela egiaztatu ahal izan zuen. Hamar-hamabi bat pauso luzeko zabalera zuen dendak eta baziren alfonbrak, bordatuak, luxuzko kutxak, mahaitxoak eta kuxin piloa ere bai. Hamar bat emakume gazte eta beste hainbeste haur txiki ziren. Esklabo ziren, Almanzorren arpilaketan hartutakoak. Bera ere esklabo bat zen... Konturatu gabe konortea galdu zuen.

Berriro esnatu zenean ez zuen oroitu non eta nor zen. Buruko minak ez zion argi pentsatzen uzten. Eskua mugitu zuenean kopetatik zapi bustia erori zitzaion eta konturatu zen bere egoeraz. Gaixorik zegoen. Bizpahiru egunez sukarrak eta minak jota ibilia zen kamaina hartan. Orduantxe gogoratu zuen, gaixoaldiaren hasieran Donemiliagako fraidegaien logelan zegoenean, Almanzor, musulmanen buruzagia, lurralde osoa arpilatzen ari zela. Amets batean bezala oroitu zituen monasterioan bertan borroka eta gerra hotsak, erre usaina eta baita moro batek bere zaldira zaku bat bezala bota zuela. Trosta luze-mingarria jasan ondoren, kanpadenda handi batean sartu eta beste gazte, emakume eta ume pilen artera bota zutela ere oroitu zuen. Bat-batean bere gauzarik preziatuenak galdu ote zituen pentsatu zuen. Brusan zeukan barneko poltsiko batean amaren orrazia eta aitaren labana txikia zeuzkala baieztatu zuen. Lasaitu ederra hartu zuen.

Nola edo hala arroparako kutxa handi baten kontra jarri zuen bizkarra. Dendaren sarreratik hurbil, kanpotik haragi errearen usaina zabaltzen ari zen. Han, zaindareiek eunuko batzuk pasatzen utzi zituzten. Janaria banatzen hasi zirenean hamar bat urteko neska batek, katilu bat hurbildu zion ur freskoa eskainiz. Erromantze arrotz batez, keinuekin lagunduta adierazi zion zerbait. Ulertu ez ziola konturatzean edateko keinu nabarmenagoa egin zion. Ziur asko neska hark lagunduko zion konorterik gabe izan zen egunetan. Neska, txikia, mehea eta alaia zen, oreztaz beteriko aurpegia zuena. Ura edan ondoren, haragi goxoa ekarri zion ogi zapal batean. Goseak eraginda presaka jaten ari zelarik, inoiz ikusi zuen emakumerik ederrenak lasaiago hartzeko aholkatu zion. Baskoieraz ulertzen ziola konturatzean, Auria zela, Badaranekoa eta neskatoa Ana zela esan zion. Azenarik bere izen-abizena eta Donemiliagakoa zela esanez agurtu zituen irribarre batekin eskerrak adierazi nahian. Beste katilu batean, berde argiaren gainean berde iluneko landareak marraztuta zituena, ozpinetan ondutako barazkiak utzi zizkioten. Janaria erabat ezezaguna egiten ez bazitzaion ere, ez zen arrunta, bitxia eta arrotza baizik. Jakiek zapore berezia zuten.

Pixka bat gehiago jan zuenean, lasaiago eta aseago, ingurura begiratu zuen. Emakume gehienak alde batean ziren elkar kontsolatzen edo eta beste bi emakume ume txiki batzuk zaintzen ari ziren. Ana eta Auria denen artetik pasatzen ari ziren eunukoek utzitako janaria banatzen. Emakume gazte eta neskatoez gain, ez zegoen mutil handiagorik, bera eta beste mutil mehe eta triste bat izan ezik. Komunera joateko gogoa izan zuenean, Anak dendako sarrera eta itxitura bat erakutsi zion. Bueltatu zenean beste mutila emakume baten atzean zegoen ezkutuan. Tristura putzu hartan apartekoena Auria zen. Hura emakume lirain, altua eta ederra zen. Aurpegi zuri-zurikoa eta ile luze gaztaintara, kriseilu baten azpitik pasatzen zenean gorritzat zuena. Buruko zapia lepo inguruan zuen.

Hurrengo goizean komunetik pasa ondoren, garbitu egiten ari zenean beste mutilaren ondoan suertatu zen. Mintzatzen ari zitzaioela, lelotuta eta beldurrez zegoela ikusi zuenez, bakean utzi zuen. Auria hurbildu zen. Mutila gaizki pasatzen ari zela esan zion, haren gurasoak hil zituztela ikusi baitzuen. Azenarik aprobetxatu zuen galdetzeko.

–Barka ezazu Auria. Esango didazu zer gertatzen ari den? –Auriak baietz buruarekin eginez irribarretsu galdetu zion:

–Zer da jakin nahi duzuna, zure egoera zein den?

–Egia esan, ez dakit zein den nire egoera eta kezkatuta nago –isildu egin zen momentu batez, eta jarraitu zuen–. Entzun dut Almanzor gaixorik dagoela. Ez dakit zer pentsatu. –Emakumeak eskua jarri zion beraren gainera.

–Begira, nik ez dakit dena, baina jakin behar duzu gu guztiok handikientzat gorde gaituztela. Oraindik ez gaituzte aukeratu. Denda zuri hura Almanzorrena da. Jakin izan dut gaixotasun larria duela eta horregatik gelditu dela azzeifa. Musulmanek ez dakite zer egin, Almanzorren egoerak larri eta bakarrik sentiarazten baititu. Bitartean, inguruak arpilatzen eta janari freskoa biltzen ari dira.

–Bai, baina gu Almanzorren esklaboak al gara?

–Ez dakit ziur. Hala ere, jauntxo batzuk pasa dira egun hauetan begirada bat botatzera. Oraindik... –mutilaren aurpegian ikusi zuen larritasunagatik isildu zen.

Dendaren sarreratik, beste denda handi haien arteko zelai ireki bat ikusten zen. Handikien dendak ziren haiek eta kanpamentuko gune edo plaza nagusiaren papera betetzen zuen lekua. Azenari sarreratik hurbil, gertatzen ari zenaz jabetu ahal izan zen. Almanzorren dendaren ingurua aparte samar zegoen, isiltasuna gorde nahi izan balute bezala. Zerbitzari bakar batzuek baino ez zuten sartu-ateraren bat egiten. Dendaren inguruan ez zen mugimendurik, urrutitik zaindari batzuek pasatzen galarazten zutelako. Beste bi dendetan, berriz, mugimendu handia zegoen, ahalik eta isilen pasatzen baziren ere. Ziur asko handiki haiek ziren agintzen zutenak, Almanzor gaixo zegoen bitartean. Handiki bat atera zen orduan denda zuritik eta pena handia nabaritu zitzaion, besteen aurrean tenteago eta aurpegi itxuratia jarri baino lehen. Abd al-Malik izena entzun zion denda kanpoko pertsona bati. Hura zen Almanzor handiaren seme nagusia, bere eskuineko eskua. Almanzorri zaharrieriaz aparte zerbait larria gertatzen ari zitzaion eta bere gerlariek beldurrak jota egon behar zuten.

Abd al-Malik pertsonaia batekin elkartu zen. Beste gizona altua zen, bonbatxo eta atorra zuri baten gainean metalezko koraza bat zeraman eta kapa eta blusoi beltzak. Hizketa azkarra gurutzatu zuten bi gizonen artean. Orduan gizon altuaren aurpegi kezkatua ikusi ahal izan zuen. Litan-a, berbereen buruko zapi urdin iluna, sorbalden inguruan erdi erorita zeraman. Harrapariaren begirada zorrotza nabarmentzen zen aurpegi beltzaren eta litanaren tintearekin. Begirada hark autoritatea adierazten zuen. Bi gizonak beste handiki batzuek inguratu zituzten. Agindu gutxi batzuk eman ondoren jaun haiek banatu ziren guztientzako agindu berriak ematera.

Goizetik hasita kanpamentua jaso eta handik mugituko zirela garbi zegoen. Azenari eta dendako guztiei, bereziki han ziren eunukoei, dena behar bezala biltzeko eta gurdietan sartzeko agindua eman zieten. Arratsaldean, Azenari alfonbrak biltzen laguntzen ari zenean, norbait dendan sartzen sentitu zuen eta bueltatzean gizon beltzarenaren begirada zorrotza beregan iltzatuta sentitu zuen. Eunukoen nagusiei galdera pare bat egin zion eta mutilari baieztatu zion eginez, bueltatu eta joan zen. Jarraian eunukoak esan zion ongi portatzeko jaunarekin. Beste batek esan zion Zawi ben Ziri, berbereen jeneral eta buruak noizbait bere menpe hartuko zuela. Mutila zer pentsatu jakin gabe geratu zen.

Auriak mutilaren ezinegona nabaritu zuenez, harengana hurbildu eta zer moduz zegoen galdetu zion. Azenarik, entzun gabe, galdetzeari ekin zion.

–Ni ere eunuko bihurtuko naute? –Auriak kezka ulertu zuen eta adorea ematea erabaki zuen. Aukera hori txarrena izan gabe, ez zen bakarra. Gainera, zerbait aditu zuen buruzagi berbere haietaz eta gizon hari buruz.

–Ez jarri txarreanean. Entzun dut gizon horiei ez zaizkiela mutilak edo eunukoak gustatzen. Beren emakumeentzat ere beste emakume batzuk nahiago dituzte zerbitzari bezala. Ez dakit zer lanetan jarriko zaituzten baina Zawi horrek ez zaitu adonu edo oherako nahi. Entzun dut ez duela ezta konkubinarik ere. Gainera, gaixorik zinen bitartean zabaldu zen zu Baskoniako leinu nagusi bateko kidea zinela eta horrek, ziur asko, bestelako interesak piztuko zituen gizon horrengan.

–Nork esan du ni leinu nagusi batekoa naizela? Ez dut inor ezagunik ikusi orain arte.

–Kanpamentuan, beste alde batean, Donemiliagako fraide batzuk hartu dituzte preso eta horiek eta beste batzuk galdekatu dituzte informazio eta ondasunen bila. Hemen gaude aukeratutako batzuk eta denok jakin genuen zu Baskoniako Azenari Enekones enekotarren leinuko premua zinela. Beraz, atera kontuak.

Zurumurrak zabaltzen ari ziren. Almanzorrek hirurogei urte baino gehiago zituen, adin dezente garaiarako. Diktadorearen egoera larria zen eta ez zen adinagatik, ezta momentuko makalaldi edo ondoezagatik, gaixotasun txar eta aspalditik okerrera zihoanagatik baizik. Erraten zutenez, karramarro deitzen zen gaixotasunak jaten zuen barnetik.

Iluntzerako gauza gehienak fardel handitan zeuden bilduta eta gurdietan, lo egiteko denda batzuk izan ezik. Goizean animaliak zamatzea baino ez zen falta. Baina Azenararentzat bitxiena berbereen buruzagiaren bisita izan zen. Zawi Ziri eta itzultzaile bat agertu ziren eta mutilari deitu zioten. Berehala bitartekariaren laguntzaz galdera batzuk zuzendu zizkion Zawik. Lehenengoa, ordea, Zawik berak egin zion zuzenean erromantzez, baina azentu hura, doinua hain zen berezia eta arrotza, ezen ez baitzion tutik ere ulertu eta Azenarik ederki erakutsi zion aurpegi eta jarrera bidez. Handik aurrera bitartekariari arabieratik latinera itzultzeko agindu zion, galdetzeari berriro ekinez.

–Orduan ez al duzu erromantzea ongi ulertzen?

–Ez... –Ez zuen jarraitzen asmatu. Zer esan? Denbora emanez gero, mintzaera horretara ere ohituko zela? Ez zen erromantzearekin trebea, baina jarraian entzunez gero, gehienetan ulertzen zituen mintzaera gehienak. Esan behar zion bere ahoskera arrotzegia zitzaiolako ez ziola ulertu? Isilik geratu zen. Galdera azkarrekin jarraitu zuen gizonak.

–Eta zein hizkuntza erabiltzen duzu? Zein hizkuntzatan mintzatzen zara zure kideekin?

–Baskoieraz eta latinez, baina... –Erromantzea ere zer edo zer erabiltzen zuela gaineratu baino lehen beste galdera bat bota zion.

–Zu fraidea al zara?

–Ez –Pixkana ausardiaz, bat ere beldurrik erakutsi gabe erantzuten asmatu zuen—. Fraideekin ikasten ari naiz, fraidegaia ere ez naiz –ez zion erran bere gogoz kontra ari zela eta ez zuela bere etorkizunez bat ere eskumenik, are gutxiago orduan preso edo esklabo hartuta.

–Zenbat urte dituzu?

–Hamar beteko ditut.

–Nongoa zara eta zein da zure familia?

–Iruñea, Banbiluna ondoko Uharteko jaunaren seme nagusia nauzu –bota zuen aita bizirik egon balitz bezala, bere premu eskubideak garbi egon balira bezala—. Enekotarren leinuko burua da gure aita.

–Zein da leinu hori? Baskoien errege-familiarena? –Zerbait zekiela nabari zen.

–Oraingo errege-familiarena ez. Enekotarrena Baskoniako lehenengo errege-leinua da.

–Arabiera hizkuntza ikasteko eta ezkutari izateko prest al zaude?

–Zuekin esklabo izan behar badut, bai. Prest nago eginkizun horietarako.

–Armatan trebatzen eta zalditan ibiltzen hasi al zara?

–Bai. Aita eta bere kapitaina, gerlariekin batera, zalditan eta arku, ezpata, lantza eta xabalina erabiltzen erakusten aritu ziren.

–Niri eta Ziri, gure familia-leinuari, men egiteko arazorik al duzu?

–Ez. Nire egoera honetan bat ere ez, desohorez tratatzen ez nauzuen bitartean. –Berebarearen aurpegiari irri imintzio bat pasa zen, ezkutatu nahi izan balu bezala.

–Ongi da. Nire berri izango duzu. Oraingoz denda honetan jarraituko duzu. Medinacelin hitz egingo dugu pausatuago. Izan ongi. –Erantzunik espero gabe, agertu bezala atera zen ziztu bizian.

Neila erreka ondoko kanpamentua utzita, hegoaldeko bidea hartu zuten. Erraten zuten, Clunian geldituko ziren Almanzor sendatu arte. Bi eguneko bidaia zen eta gaua Hontorian pasatuko zuten. Hontorian armadaren parte bat kanpatuta zegoen alde aurretik inguru haiek zaintzeko eta erraztasunak izan zituzten kanpamentua azkar montatzeko. Bidaia ez zen oso zaila izan. Mendate baxu bat baino ez zuten pasatu behar eta Almanzorrek, litera batean ongi jarrita, martxa motela ezarri zuen. Zortzi beltz handik eramaten zuten kontu handiz. Besteek, oinez, astoz, mandoz, zaldiz eta gurdien gainean, ez zuten arazorik izango hamar ordutan berrogei kilometro, zortzi bat legoa, egiteko. Eguerdian Arlantza erreka ondoan geratu zirenean, zuhaitz batzuen itzalean etzan ziren gerlariengandik urrun. Zerbait jan eta edan ondoren, eunuko batek Almanzorri buruzko historia kontatzen hasi zen. Bera Errioxako Naiara inguru haietakoa zen jatorriz eta erromantze ulergarrian mintzatu zen. Poliki kontatu zuen gainera, denek jarraitzeko moduan. Almanzorren arabiar jatorria, ikasketak, zailtasunak eta administrazioan egindako lehenengo urteak kontatu ondoren animatu zen:

–Berehala diruzain ona zela erakutsita, al-Hakam kalifaren emazte kuttuna zen Subb baskoiaren eta printzeen diruzain izendatu zutenean, postu handiagoetara igoko zela esaten zuten. Aurreko

lanarekin jarraitu zuen eta kalifaren altxorraren diruzain izatetik habhid edo gobernu buru izatera heldu zen. Al-Hakam hil zenean, K.o. 976. urtean, al-Hisham kalifa umea zen orduan eta Almanzorrek etsaiak garaitu zituen. Administrazioa kontrolatu ez ezik, armadaren buru nagusia zen eta hogeita hiru urtetan berrogeita hamar kanpaina egin zituen kristauen aurka, beti garaile ateraz. Galib, erdiko markako mugako jeneral ahaltzuaren suhia bezala hasieran, eta gero harekin borrokatuz, botere osoa lortu zuen –etena egin bitartean orduko momentura salto egin zuen–. Inoizko administraririk onena eta garaiezina izan da. Al-Andalus aberastu eta bakean mantendu du. –Eunukoak momentu batez gelditu zuen azalpena. Gero, jendearen interesa ikusita, animatu zen eta esamesak ere kontatzeari ekin zion.

–Esaten dute Galib-ek ezpatarekin ziztatuz madarikatu zuela, duela hogeita urte botere osoa lortzeko egin zuten borroketan; baina al-Hakamek ere zerutik madarikatzen duela karramarroaren gaixotasunarekin eta horixe hazten ari dela bere barnean.

Denak isilik geratu zirenean Auriak berak galdetu zion Zawi ben Ziri-ri buruz. Eunukoak esan zuen oso gutxi zekiela hari buruz, baina jeneral berbera beste batek ezagutzen zuela bi urte lehenago agertu zenetik eta gauean edo hurrengo egunean haren istorioa kontatuko ziela. Arratsaldean Hontoriara heldu zirenean, nekeagatik, ez ziren taldean hizketan geratu. Zerbait afaldu eta lotara joan ziren denak biharamunean arin mugitu eta abiatu ahal izateko.

Hurrengo eguneko arratsean Cluniara iritsi ziren. Almanzorren gotorlekurik aurreratua zen Gaztela inguruan. Clunian bi gau pasa zituzten. Almanzorren gaixoaldiak deuseztatu zuen ordura arte garaitua ez izateak ematen zuen segurtasuna. Abd al-Malik-ek, gerlarien segurtasun faltak kutsaturik edo armada babestu arren, leku seguruago batean gorde nahi zuen. Jeneral batzuek, aldiz, Zawi-k besteak beste, ihesari edo horren itxuririk ez emateko eskatzen zioten Abd al-Maliki, zeren eta Almanzor ez baitzegoen ezertarako.

Cluniako gotorlekuaren itzalean lasaitasun momentu batean, Zawi ezagutzen zuen eunukoa eramane zuten haren-era, ordura arte beste esklaboengandik aparte. Esklavo kontalariak esan zien Zawiren zerbitzura jarri zutela, beste zerbitzari batzuekin batera. Garai hartan Kordobako kaliferriaren behar militarrik asetzeko kanpoko gerlariak, mertzenarioak, hartu zituzten. Haietako asko iparraldeko kristauak ziren; beste asko berberak. Berbere sanhayarrak ordura arte omeyatarren kontrakoak ziren, kalifa fatimien aldekoak zirelako. Sanhayarren errege-familian arazoak izan ziren eta haietako asko al-Andalusera gonbidatu zituen Almanzorrek. 1000. urteko udazkenean Zawi Ziri familia erdiarekin, bi mila gerlari eta jende gehiagorekin heldu zen Ifriqiyatik. Kontatu zuen bezala, berbere sanhayarrak, al-Rusafa ondoan kokatu zituzten, Kordobatik paseo batera, legoa erdi edo bi kilometrora. Alarifeak, egeltseroak alegia, etxeak egiten zituzten bitartean, gerlariak beren ariketak, mugimenduak eta arma praktikak egiten zituzten. Esan zuenez, gerlariak eta bestelako morroi, esklabo eta familiak, osotara ez ziren hiru mila berbere han bizi zirenak. Gerlarietan mila oinezko eta beste mila zaldun, ziren zaldunik onenak askoren ustez. Eunukoa gehiago animatu zen.

–Zawi Afrikako erregea izan zela zioten. Ziritar familia zen Afrikako emiratoan agintzen zuena, kalifa fatimitarren izenean. Zawi, familia horretako burua zen, gerlaririk handiena, baina familiako beste adar eta ahaide batzuekin gerrarik ez egiteko al-Andalusera etortzea erabaki zuen. Berarekin bi seme, Bulugin eta Osiris ekarri zituen eta Maksan bere anaiaren Salma alaba eta semeak, Habus eta Hubasa. Berbere sanhayar tribuen buruzagiak ziren –bat-batean tonua eta mintzatzeko modua aldatu zuen, orduko egoera kontatuz.

–Gerlari hauek apartak dira oso. Trebeak dira armekin, denbora asko ematen baitute ekin eta ekin praktikatzen, ezpata, lantza edo arkuekin, bereziki zaldi gainean mugimendu bateratuak eta azkarrak egiten. Ausartak dira, baina oso burutsuak, zeren eta, ez baitira borroketan larritzen, edo gehiegi ez larritzea lortzen dute. Anekdotak bereziekin jarraitu zuen. Azenariri interesgarrienak egin zitzaizkionak Zawiren pertsonalitatearen adibideak izan ziren. Gizon erlijiosuegia baino gehiago, zuzena eta baita zorrotza ere bazen, serioa eta familiako zaindaria eta babesle sutsua. Esklabo eta zerbitzariekin atsegina. Familiako giroa gustatzen zitzaion, eginkizun arruntetan haiekin lasai egonez. Otorduetan berbere musika eta kantuek entzun arren, arabiar kulturarekin eta idazkietan ere lortzen zuen atsegini handiena eta denbora librean irakurtzen edo zientziaz solasean aritzen zen, nahiz eta arabieraz ongi azaltzen arazoak izan. Nolanahi ere, arabiar kultura miresten zuen munduko kulturarik aurreratuen zelako, garaiko argitasun bakanetakoa.

Berriz atzera, Hontoriatik pasa ziren. San Leonardo eta Kalatañazorren izan ziren hurrengo geldialdiak. Kalatañazorren zeudelarik, jakin zuten gaztelar armada bat haiengana hurbiltzen ari zela. Armadako buru batzuek ez zioten garrantzirik eman nahi, baina beldurra zabaldu zen eta bide seguruenetik joatea erabaki zuten. Osman egin zuten hurrengo geldialdia, bidea zitu bizian egin ondoren, gehienek bost bat ordutan egin zituzten bost legoa edo hogeita bost kilometroak, kalifa omeiyatarren bandera zuri handiak mendixka gaineko gazteluan ikusi zituzten arte. Osman gaztelu handiaren babespean beste bi egun eman zituzten.

Bigarren egunean, Azenari lehenengoz atera ahal izan zen denda hartatik. Itogarria egiten zitzaion eunuko eta haur txikien giro urduri eta negarti hura. Zawik gerlari bat bidali zion, harekin nahi bazuen herrira eta ingurura joateko. Zaindaria ez zekien berarekin hitz egiteko berebera beste hizkuntzarik, baina keinuka ederki adierazi zion, nahi izanez gero, paseatzeko aukera zuela. Musa zuen izena. Kanpamentua, gazteluaren magaletik iparraldera hedatzen zen. Gazteluko gailurra bisitatzerik ez zegoenez, Uzero erreka zubi batetik pasa eta bestaldean herria, eta harresiaren atari nagusiaren ondoan, azoka zegoen. Hegoaldean, antzinako hiri erromatarra zegoen goian, harrizko gain batean. Azokan, bertako nekazari batzuek jarritako produktu gutxi batzuk ikusten ziren. Jakietan, barazkiak aparte, saltzen ziren animalia gehienak oilaskoak eta arkumeak ziren. Artisan gehienak ez ziren bertakoak, armadarekin mugitzen zirenak baizik. Herrian ehun bat etxe zeuden. Bertako gehienak mozarabeak ziren. Musulman eta judutar auzoak zubitik hurbil kokaturik, mozarabeak urrutiago zeuden. Leku hura, kristau konkistatu zuten ehun urte lehenago, baina Almanzorrek berreskuratu zuen eta meskitan bertako biztanle musulman gutxi batzuk eta gazteluko gerlari musulmanak biltzen ziren. Judutarren sinagoga, auzoa bezala, oso txikia zen, ez baitziren zortzi familia baino gehiago izango, denak merkatariak, oihal eta luxuzko bi postuetan ikus zitekeen bezala. Kristauen auzoko kale estuetatik sartu gabe ere ikus zitekeen etxeak buztinezko txabolak baino ez zirela. Kalekak eta plazak jende pobrez beteta ikustean, han sartzeko gogoia galduta, aurrera, maldan gora jo zuen zaindariaren aurretik.

Goian, harkaitzaren gainean, hiri erromatar baten aztarnak ikusten ziren. Harlauzez eginko kaleak eta harrizko oinarri sendoak zituzten etxe arrastoak nabari ziren. Tartean zutabe ederrak agertzen ziren. Gailur hura eta gaztelukoaren artean arroila edo zintzur estu batetik pasatzen zen erreka. Iparraldean, lautada hartan urrunago uztondoko zereal-soroak zeuden, ardi bazkatoki zabalak. Urrutiko hortz-mugan, mendi-hegiak, gertuago larre-toki batzuk eta basoak, edo zuhaitz gutxi landak ikusten ziren; herriaren ondoan, berriz, baratzeak eta artaldeak biltzeko artegi handiak. Gazteluan, soldadu gehiago sartzen ari ziren. Han normalean ez ziren ibiliko hirurehun gerlari baino gehiago; orduan, berriz, kanpoko harresien barnean, beste bostehun oinezko eta berrehun zaldun geldituko ziren, Gormaz gotorlekutik eta Berlanga pasata, Medinaceliraino joan zen armadaren erretiratzea babesteko.

Bere ondoan zen gerlaria, bera bezala inguruari begira. Hark, denbora guztian ezer esan gabe, mutila jarraitu zuen isilik. Gizon gaztea, garaia eta mehea zen, berbere gazte gehienak bezalako, gihartsua dena den, eta portaera lasaia erakusten zuen. Ez zitzaion korazarik ikusten eta atorra-bonbatxo zabalak eta litan beltza zeramatzan. Ikusten zitzaizkion arma bakarrak gerrikotik zintzilik zituen sable arin-luzea eta sastakai handia ziren. Berari begira ari zela konturatzean, Azenariri irribarre egin zion eta harrizko paisai lehorra seinalatuz “Ifriqiya” hitza ahoskatu zuen. Mutilak ulertu zuen Afrikakoa gogorarazten ziola esan nahi zuela. Baietz keinua egin zion. Berbereak bere burua aurkeztu zion Musa zela berriro aipatuz. Begirada zuzenari begira, lagunaren artean zegoela sentitu zuen eta bere izena ahoskatu zion. Musak modu berezian errepikatu zion: “Az-na-ri”.

Osmatik atera zirenean, seguruago eta babestuta egin zuten bidea. Bordecorex erreka jarraitu eta Medinacelira heldu zirenerako, hamasei egun pasatuak ziren norabide ezberdinetan eta seigarren geldialdia zen Neila utzi zutenetik. Medinaceli, hiri militarizatu bat zen. Handik egiten zuten azken txanpa gerra-armadek, Gaztela, Baskoniako Errioxa, Aragoi edo Bartzelonako konderriko lurretara joateko. Erdiko markako gotorlekua eta kanpamentu nagusia zen. Alkazarra eta kuartelak handiak ziren, armada osoa eta behar zituzten material-tresna guztiak biltzeko modukoa. Goi lautada batean zegoen, Jalon bailara eta Zaragusta-Tolaitula bideak babesten zituena. Iritsitakoan, Almanzor goiko alkazabara, gazteluko saloietara eraman zuten gortina beltzezko litera ezagun hartan. Bi egun pasa zituzten Almanzorren berri berdinekin. Oso gaixo jarraitzen zuen. Hirugarren egunean, esklabo hartutakoak banatuko zituztela zabaldu zen. Gaua betiko dendan pasa zuten. Kanpamentua ere betikoa ematen zuen; baina ez, bazekiten beraientzat elkarrekin emango zuten azkeneko eguna izanen zela.

Azken hamasei egunetan bidaian eginiko harremanak bereziak izan ziren. Ana, Auria eta Azenari, ahal izan zuten guztietan elkarrekin aritu izan ziren. Otorduak eta loaldiak ondo-ondoan eman zituzten, kezkak konpartitu zituzten, elkarri lagundu zioten gauza askotan eta bereziki maitasuna eman zioten elkarri. Batekin edo bestearekin, batzuetan talde txikietan pena sentimenduak eta adore solasak gurutzatu zituzten. Azenari, Ana eta Auriarekin egon zen arrats hartan azkeneko orduak aprobetxatzeko. Azenarik kontatu zien Zawirekin izandako solasa eta zekitenez neska eta emakumea Abd al-Maliken eskuetara pasatuko ziren, ziurrenez. Hamasei egunetan elkarrekin bizitzako momentu latzak konpartitu ondoren, Anak negar gogoari eutsiz esku bat jarri zion sorbalda gainean. Bere mintzairan poliki bota zion:

–Azenari, agurtu behar dugu elkar. Pozten naiz Zawi horrekin ongi izango zarela. Nik ez dakit nora eramango nauten, nor izango den nire nagusia. –Auriak hura entzutean, lasaitu nahi izan zuen.

–Ikusiko duzu Ana, jaun handi batek, Malikek edo bere familiako batek hartuko gaitu bere emazte baten zerbitzari edo neskame izateko. Musulmanen artean neskameak gure andereak bezain ongi bizi dira, oihal ederrez jantzita, jaki goxoak jaten eta lan astunik egin gabe –Azenarik hitz egin zuen orduan.

–Bai, baina zein izanen da gure etorkizuna? Ez zaituztet berriro ikusiko.

–Lasai maiteak. Familia ahaltsu batzuen zerbitzuan sartuko gaituzte hirurok. Elkarren berri izango dugu. Kordoban familia nagusiek herri batean bezala bizi dira. Elkarrekin festak eta bisitak izaten dituzte. –Auriak besoetan hartu zituen bi gaztetxoak, bularren kontra estutuz.

–Ez zaituztet ahaztuko –esan zuen Azenarik ahopeka. Lekutik mugitu gabe etzan ziren hirurak. Besarkatuta lotan gelditu ziren.

Biharamunean, Azenari aparte utzi zuten eta jaun handi haien mandatariek aukeratu egin zuten esklaboen artean. Oso dotore jantzitako idazkari batek Ana eta Auria aukeratu eta eraman zituen. Azenarik eunuko bati, zein jaunek aukeratu zituen galdetu zion eta honek espero bezala, Abd al-malikek egin zuela aipatu zion.

Beranduago, dendan emakume bat eta bi mutiko baino geratzen ez zirenean, Zawi itzultzailearekin agertu zen eta seriozki galdetu zion Azenariri:

–Egia al da zure etxetik bota zintuztela, zure erruz zure aita hil zelako? Ez al zinen zu zure leinuko premua? –Azenarik, malko bat eskapatzen zitzaiola eta zotin bat eginez, begiak itxi zituen eta ezetz adierazi zuen buruarekin. Isilik segundu batzuk pasa ondoren Zawiri zuzen begiratu eta honela erantzun zion:

–Ez nizun gezurrik esan. Agian zure galderei oso erantzun orokorrak eman dizkiet. Aitaren galera oraindik sentitzen dut, amarena bezala. Urte bat da hil zirela bata bestearen atzetik. Aita, zaldi batetik erori zen eta buruan kolpe handia hartuta hil zen handik bi egunera... –etena egin zuen—. Oraingoz gure etxeko nagusigoa hartu duen osaba Semenok gorroto nau. Gizon gaiztoa da. Maite duzun pertsonaren heriotzaren errudun egitea ere! Nik, leporatutakoaz haserretu nintzelarik, haren kontra hitzez eta ekintzez errebelatu nintzen eta gogorki erantzun niola aprobeztatuz Donemiliagara bidali ninduen beraren hitzetan onbideratzeko... Gezur galanta hori guztia. Enbarazu egiten nion eta baztertu ninduen. Niri dagokit premu izatea. Osaba horrek berarentzat edo nire anaia txikiarentzat nahi du leinuaren nagusigoa. Gainera, osaba Fortunez, mugako zerbitzuetan ibili denez, oraindik ez du ezer esan –berriro isildu zen eta jarraian hauxe bota zion:

–Ez dakit aukerarik dudan, baina ahal izango bazenu... Nahi baduzu mandataria bat bidaltzen ahal duzu Uhartera osabarena ez ezik beste guztien lekukotza izateko. Gure herritik erromesak pasatzen dira Donejakuera eta ziur erromantzez dakien morroirik izango duzula...

–Ongi da. Aski –Zawik ez zion jarraitzen utzi—. Zuk diozuna ere entzun dut Donemiliagako fraide eta morroien ahotik. Lasai zaitetz, sinesten dizut. Orain zin egin ezazu, ziritarron kontra inoiz ez duzula ezer egingo –Azenarik harrituta, zin egin zion. Zawik jarraitu zuen mintzatzen.

–Esan behar dizut nire iloba Habusen zerbitzuan ibiliko zarela. Bera da ziritarren beste buru nagusia. Beraren laguna izango zara. Berarekin batera arabiera eta kultura arabiarra ikasiko dituzu. Ez erabili berarekin erromantzerik. Gerlari izaten ikasiko duzu. Lagun ona izanez gero, egun batean libre izango zara –orduantxe arazo bat bururatu zitzaion Azenariri eta adierazi zuen.

–Barkatu Zawi jauna, baina hitz eman dizut ez dudala zure familiaren kontra eginen. Erran behar dizut ez dudala nire familia edo Baskoniako gerlariaren kontra ere borroka eginen. Ezin izanen nuke. Ez naiz orain arte konturatu –Hark gizon ahaltsu eta mutiko baten arteko solasa baino, bi pertsona helduena zirudien. Zawik irribarrea ezin eutsiz onartu zion.

–Aznari, lasai. Ulertu eta onartu egiten dizut zure eragozpena. Formalki ez zara pertsona libre. Hala ere, ez zaitut esklabo bezala hartuko, denbora batez gure zerbitzura izango den mutil ezkutari bat bezala baizik. Nobleen arteko hitzarmena da hau. Gure artean zaldun bihurtuko zara. Gu ere familia gorabeherak direla-eta, arazoak izan ditugu –elkarri begiratuta, Zawik eskuineko eskua luzatu eta buru gainean jarri zion, Azenari bere babespean hartuz. Mutikoa orduan konturatu zen ez ziotela musulman bihurtzeko eskatu.

–Zatoz, Aznari ben Enneg al-baskuni –Zawiren dendatik hurbil zegoen kanpadenda batera eramán zuten. Denda txiki hartan morroi asko biltzen ziren, denak espazio estuan. Zeuzkan arropa gutxiak kamaina baten buruan uzteko esan zioten eta sukaldariaren agindupean jarri zuten segidan.

Almanzor larri zegoen eta hiltzorian. Dena den, agintariaren faltaren aurrean istiluak eta arazoak izan zitezkeela pentsatuz, Almanzorrek berak semearekin hizketan egunak eman ondoren, Kordobara bidali zuen Abd al-Malik, Kordoba hiriko biztanleak eta Hisham kalifa bera kontrolatzera. Hurrengo egunean, abiatu ziren Toledora, Tulaitula arabieraz. Almanzorren seme nagusiarekin batera, bere ondorengoarekin, Zawi, bere berebereak eta beste mertzenario batzuk abiatu ziren, Almanzorren heriotzaren berria zabaldu aurretik. Bi mila zaldunek martxa bizian agertu behar zuten algarak eta istiluak sortu baino lehen. Abd al-Malikek boterea segurtatu nahi zuen ahal izanez gero odolik bota gabe, jassa, familia arabiar garrantzitsuek eta omeýatarrek botere aldaketa gauzatu eta bultzatu baino lehen.

Mila gerlari sinhayarrek zirrara handia sortzen zuten: arropa beltza airetara, durbante beltzek ere aurpegia estaltzen zieten. Defendatzeko, larru gogorreko korazak eta ezkutu borobilak zeramatzen eta ezpatez gain, arku bihurriak eta karkax-ak geziz beteta, eskura saifak, sableak eta xabalina pare banat. Armadako zalduneriako gerlaririk hoberenak eta beldurgarrienak ziren, bai berebereak baita armadura astuna zeramaten kristau taldeak ere. Beste zaldun taldea jatorri desberdinetako kristauena zen. Jakin zuenez gehienak galliki, galegoak eta frankoak, haietako batzuk kataluniarrak ziren; baina baziren leondar, gatzelau eta baskoi banaka batzuk ere bai. Azenariri debekatu zioten haiekin harremanak izatea.

Mendialde bat gurutzatuta, Henares erreka jarraitu zuten, Sigüenza, Guadalajara eta Alkala hirien bidetik Tajo ibairaino Toledora iristeko. Zaldi eta mandoetan hiru egunetan egin zuten bide hura. Azenarik Abdul sukaldariaren beste bi laguntzailerekin lana egin behar zuen janaria prestatzen laguntzeko. Haiek gutxienez hirurehun gerlarirentzat egin behar zuten lan. Beste bi sukadari taldeek egiten zuten lan Zawiren menpeko ia mila berebereentzat. Otordu bero bakarra eguneko ibilaldia bukatzean antolatzen zuten, normalean eskura zituzten elikagaiekin zopak eta haragi gisatua edo errea. Espezie asko erabiltzen zuten. Bukatzeko, frutak eta gailetak izaten zituzten. Gosaltzeko, gaueko eta aurreko eguneko otorduan sobratutakoa, orduan hotz hartzen zuten eta eguerdian edo atsedenean ur asko eta ogiarekin, keztatu edo gatzatutako haragia, normalean ardikia edo behikia, gazta eta nahi adina olibak. Jakiak armadako kuartel anitzetan lortzen zituzten. Urteroko espedizio handiek behar zituzten mota gutzietako gauzak hornitegi eta biltegi handietan pilatzen ziren.

Azenariren lan nagusia egurra bilatzea zen. Bidaia beste morroi batekin mando baten gainean egiten zuen eta beti zakuto bat edo beste eramán behar zuten. Gurdi bakanak txikiak eta arinak ziren bidaiaren abiadura ez oztopatzeko modukoak. Horietako batean, sukaldariarenean, tresneriak, denda eta jaki batzuk garraiatzen zituzten eta morroiak sukaldariaren atzetik mandoetan ibiltzen ziren. Azenarirekin zebilen beste mutila, Amin, handiagoa zen, langilea, baina inteligentziarik gabea eta onpuska. Denegatik egiten zuen barre, baina arazorik ere ez zuen inoiz sortzen. Zakur handi eta onkote bat bezalakoa zen. Mandoaren aurrean jartzen zen Azenari eta Amin ia mandoaren hanka gainean bere erromantze farfail isilean ia ez zuen molestatzen. Horrek denbora ematen zion Azenariri pentsatzeko. Azenarik ez zekien nolakoa izango zen bere bizi-tza, ez baitzuen musulmanen arteko harremanez ideia handirik. Bere adineko noble berebere batekin gerlariaren trebeziak eta arabiera ikasiko zituela bertzerik ez zekien. Ezkutariarena izango zen bere postua eta maila soziala, ez zela esklabo pentsatzeko modukoak. Bertze herri eta kultura batean ikasiko zuen, bere herri eta kulturatik urrun. Bertzela ez zitzaion desatsegina egiten, osaba Semenorekin pasatakoa eta fraidegaien bizitzarekin konparatuz.

Latina ere ez zuen erabat baztertuko. Arabieraz ez zekien, baina zizareen hizkiak eta ahoskerak erakutsi zizkioten Donemiliagako Scriptorium-ean, liburu artean eman zituen neguko arratsaldeetan. Hitz batzuk, agurrak, konplimentuak eta hainbat esamolde ere ikasiak zituen. Kristauen arteko kultura gizonen ikasten zuten kultura arabiarra.

Tulaitula, Toledo arabiarren hizkeran, Tajo ibaiak inguratzen zuen hiri handia zen. Guadalajara ere handia eta arrotza iruditu zitzaion, bere alminar eta muezinen deiekin; gizonen jantziak, beti zapiak buruan eta emakumerik gabeko zoko edo azokak zirela-eta. Hala ere, Toledok ez zuen konparaziorik, arrotzaz gain miragarria ere suertatu zitzaion Azenariri. Al-Andaluseko erdiko markako hiriburua zen. Jakin zuenez, 40.000 biztanle zituen hirugarren hiririk handienak. Tajo ibaia Ebro bezain boteretsua zen. Toledora heldu baino legoa batzuk lehenago al-munia edo nekazal etxalde eder asko ikusi zituzten, zuri-zuriak paisaia berde aberatsean. Al-munia haiek handikien atsedean tokiak ziren. Jauregien inguruan parke eta lorategi ederrak izaten zituzten. Horma altuek pribatutasuna gordetzeko inguratzen zuten. Bestela ere, lerro zuzenez jarritako mota guztietako fruitu arbolak, barazkiak eta bestelako soroak ikusten ziren. Horrenbeste aberastasunek ordu gutxitara hiria zegoela iragartzen zuten. Ipar-ekialdetik hiriaren harresi izugarriak ikusi zituzten. Azenarik, Tajo ibaia lehenago pasatua zuten handikiak ikusi zituen urrun, Abd al-Malik eta Zawi tartean, omeyatarren ikur erraldoi zuriak airean, bab al-Qantara, zubiaren ataria gurutzatzean eta al-Qazarrera sartu zirenean.

Haiek, beste guztiek, al-Shakra, La Bisagra erromantzez, ataritik hurbil jarri zuten kanpamentua. Berehala agertu ziren armadako hornitzaileak. Gauza arrunta eta azkarra zen operazioa, handik urtean bitan armada oso bat zaintzeko ohitura baitzuten, bai iparralderako bidean, baita bueltan kanpainak bukatutakoan. Sukaldari-k, hala deitzen baitzuten beti, Toledon barna, Alkazarraren ondoko hornitegietara bidali zituen Azenari eta beste bi morroi, falta zitzaizkion jaki batzuk gurdian ekartzeko. Bisagrako kontrolak eta nahasmenduak ordu bat galdarazi zieten. Atari erraldoia pasatu, kalerik zabalenetik joan behar bazuten ere, jende eta zamarien kopuruagatik estu eta itogarria gertatzen zen pasatzean. Jende-uholde koloretsua gertatzen zen hura. Musulmanen boneta eta txanotxo zuriek, judutarren txano horiek, kristauen txano ilunek eta berbereen durbanteek aniztasuna erakusten zuten, hizkuntzarena bezala. Toledo, al-Andaluseko hirugarren hiririk populatuena zen, Kordoba eta Isbilaren atzetik eta Zarakusta aurretik. Inguruan nekazari gehienak kristauak ziren, mozarabeak. Familia noble eta aberatsenak, ordea, arabiar jatorriko gutxi batzuk ziren, beraien inguruan jatorri hispanikoko musulman muladiak izaten zituztenak. Ondoren, hirian muladien pare, gutxiengo judutarra zegoen, merkataritzara emana. Azkenik, berberek zeuden, nekazari eta gerlariak ziren gehienak.

Alkazar aurreko plaza ikaragarriaraino joan behar zuten, Zokodober deitzen zutena. Animalia aukeratuen azoka zen, ziur asko penintsula osoko handiena eta ostegunetan ospatzen zena. Lurralde hartan abeltzaintza zen jarduera nagusia. Lisboatik Guadalajarraraino eta Gaztelako mugetatik Sierramorenaraino hedatzen zen merkatu horren eragina eta leku horietatik eta urrutiagotik agertzen ziren tratulariak. Zokodoberren jaki eta tresnak, gai arruntaz gain, luxuzkoak saltzen ziren: oihaletatik eta bitxi postu ikusgarriak. Osteguna ez bazen ere, plazan zaldi batzuk saltzen ari ziren. Luxuzko zaldiak ziren, ordea, asteko edozein egunetan aurki zitezkeenak. Lusitania eta Betikatik, baita Toledotik gertu iparraldeko mendizerretatik, Gredosetik bereziki, zaldi arabiarrek eta berberek, hispanikoak eta nahasiak ekartzen zituzten. Ez ziren kristauen artean erabiltzen ziren mendiko zaldi txiki gogorrek edo zaldun armaduradun astunak eramateko zaldi handikoteak. Jendarte musulmanean zaldi azkar eta arinak nahiago zituzten, lautadetan lasterketak egiteko, paseatzeko, ehizarako edo gerlarako. Zaldi dotore ederrak ikusten ziren. Azenari, zokoa zeharkatzean zaldi lirain ikusgarriei begira gelditu zen. Gurdia atzean zebilela, Azenarik pare bat alditan egin zuen estropezu jendearekin edo behin zeramika urdineko postu batean. Alkazarren barnean hornitegiko arduradunaren zain egon behar izan zuten. Agertu zenean, eskatutako jakiak eramateko baimena eman zien, olio, espezia, barazki eta fruituak. Jaki gehienak eta animalia bizirik batzuk beste momentu batean beraien kanpamentura

bidaliko zizkietela hitz eman zieten, hiritik kanpoko hornitegi eta itxituretatik zuzenean eramanda nonbait.

Kanpamentura bueltatzean musulmanen eguerdiko otoitzero deia entzun zuten. Musulmanak, zeuden lekuetan gelditu, alfonbra txiki batzuk zabaldu, eta hego-ekialdera begira, denak batera makurtu ziren. Musulmanak ez zirenak, lekuan bertan geratu ziren otoitzak bukatu arte, pasatzeko eragozpen handiak baitzituzten. Harrigarria zen jatorri edo erlijio desberdinetako jendeak zein lasai eta natural eramaten zuen elkarbizitza. Atariraino ibiltzean meskita nagusiaren minaretea ez ezik, beste meskita txiki batzuk, eliza pare bat eta bi sinagoga ikusi zituzten. Bi egun eman zituzten hirian. Ostegunean abiatu ziren hegoaldera aurreikusita bezala geldialdiak eginez. Azkar mugitu ziren eta lau egunetan Kordobara helduko ziren. Azenarik bizitza berri bat hasiko zuela pentsatu zuten.

## 17 - Kordoba hiria.

Korboba hiri paregabea ikusi zuten azken mendi-bortua pasa zutenean. Haranera jaitsi baino lehen, ur biltegi batetik pasatu ziren. Egun oskarbi hartan, urrunean, hiru legoara, wadi al-Qivir ibaiaren ondoan etxe multzo zurien artean plaza eta lorategietako zuhaitzen berdea nabari ziren, zilarrezko bitxietan esmeraldak bezala. Jauregiak ez zituzten desberdintzen, minareteak, aldiz, han altxatzen ziren ilunabarrean nabarmen. Kordobaren inguruan baratze eta sororik aberatsenak zeuden. Munduko nekazaritzarik aurreratuenen eta ederrenen ubideen bidez bizitasuna banatzen zuen urak.

Abd al-Malikek eta Zawik berehala kontrolatu zuten hiria. Hisham kalifa, Medina al-Zaharatik al-Zahirara eraman zuten, amiritarren jauregi-hirira. Kordobako madina edo hiriaren erdialdean gerlariak jarri zituzten, bai atarrietan, Alkazarrean eta Meskita nagusiaren inguruetan. Garaiz egin ere. Almanzorren gaixaldi larriaren berri izan zenetik ia hilabetea pasa baitzen eta diktadura eta erregimenaren kontrakoak mugitzen hasiak ziren. Elite arabiarrek, jassa deituek, omeyatarrek bereziki, jatorri eslaviarreko eunuko administrazio-lanak egiten zituzten Almanzorren fatak zirikatu eta konbentzitu nahi zituzten botere aldaketa gauzatzeko. Meskita nagusian ortodoxia eta botere tradizionalaren aldeko jarrerak adierazten ari ziren. Amiritarren oinordekoak, Abd al-Malikek, aitaren zerbitzarien men eta agintaritza lortu zituen arazorik gabe; elite arabiarrek, ordea, ez ziren hain erraz makurtu. Hishamen aurrean ahalegindu ziren boterera berreskuratzen eta ulemak, agintari erlijiosoak, ohitura ortodoxo eta aspaldiko estatusera itzultzeko deiak zabaltzen zituzten. Abd al-Malikek errotik moztu zituen mugimendu haiek, hiria hartuz eta kalifa eramanez. Meskitan hizlariak kontrolatu zituen, baita erraten zutena ere. Zawik eliteko gerlari eslaviarrek jarri zituen jauregi atarrietan musulman erreboltaiak beldurtzeko. Almanzorren heriotzaren berria heldu zenean, amiritar gazteak habhid-a, gobernuburu postuaren baieztapena lortu zuen Hisham kalifaren eskutik, Almanzorren eginkizun berdinekin. Hurrengo ostiralean meskitan ospatu zuten otoitzaldi nagusia beraren eta kalifaren izenean egin zuten. Dolu-aldia pasa zenean, gorte osoa, pertsonaia nagusi guztiak bildu zituzten al-Zahiran, Abd al-Malik publikoki eta ofizialki Al-Andaluseko gobernuburu izendatzeko. Aste oso bateko ospakizunak egin ziren aurreko amiriaren hogeita lau urteko Estatuko agintaldiaren omenez eta bere ondorengoarenean ere bai. Abd al-Malikek boterearen hariak kontrolatu zituen.

Azenarik, artean, ez zuen hiria ezagutzen. Al-Rusafan bizi zen, Zawi eta berbere sanhayarren bizitokian. Al-Rusafan jauregi eta lorategi ederrak aurki zitezkeen, handiki askoren almunien gune nagusia baitzen aspalditik. Sanhayarrak eta familia ziritarra Al-Andalusera gonbidatu zituztenean, bi urte lehenago, al-Rusafa hegoaldeko bide ondoan eraiki zuten berbere itxurako herri oso bat. Han harresiz itxi zuten hiru mila biztanlerentzako eremua, harresi ondoan leku libre zabalak, hiru atari eta ezkutuko irteerak zituena. Atari bat, ekialdekoa, al-Rusafako bidera ateratzekoa; hegoaldekoa zituzten labore lurretara heltzeko; eta mendebaldekoa zaldi eta beste animalientzako bazkatokietara eta ariketa eremura joateko, wadi al-Rusafaren ondoan, erreka baino erreka zena.

Etxe enkalatu eta lorategien artean ziritarren jauregia zegoen. Eraikin anitzen artean, biltoki, zalditegi eta familia eta zerbitzarien bizitokiak zeuden, palmondo, parterre eta uharka-lorategi baten inguruan. Jauregiko erdiko gunean, lorategiaren bukaeran, harrera gela eta egongela edo madjlis-a zeuden. Bi gela haietan igeltsuz irudi geometrikoen bidez dotorezia eta edertasuna ematen zizkioten lekuari. Beste eraikinetan soiltasuna zen nagusi, bi urteetan ez baitzuten gehiagorako astirik izan. Gelak eta biltegiak buztinez eginak ziren, gainean karez zuritasun garbia eta landare loreduen bidez

alaitasuna lortuz. Lekurik ezkutuenean, haren-a zegoen, ginezeoa. Bainu ederrak ere bazituzten handik hurbil. Azenariri leku on bat eman zioten madjlisetik hurbil, konfiantzazko zerbitzarien artean. Ohatze eta kutxa bat zituen berarentzat bakarrik, beste bi zerbitzari gazterekin konpartitzen zuen gela handi batean. Bi gazteak bereberek ziren, beti beren hizkuntzan ari zirenak. Bi urtetan, sinhayarrak ez ziren egokitu bertako bizitzara eta Afrikako herrietan bezala bizi ziren. Bestalde, bertakoek ez zituzten onartzen, sanhayarrak ez ezik berebere guztiak herri barbaro eta atzeratutzat hartzen baitzituzten.

Heldu eta hurrengo eguneko arratsaldean Azenariri deitu zioten madjlisera, saloi publikora. Ziri familiako Bulugin eta Osiris, Zawiren semeak eta Habus, Salma eta Hubasa Maksan, ilobak eserita ziren Zawiren aldeetan. Familiako maiordomoa, hakim-a eta katib-a ere han ziren zerbait jaten eta musika entzuten. Ali itzultzailearen laguntzaz Habus eta Azenariren arteko aurkezpena egin zuen Zawik. Azenariri buruz, Baskoniako leinu nagusi bateko kidea zela esan zuen. Gero, banan banan aurkeztu zizkion seme-ilobak eta konfiantzazko zerbitzariak. Azkenik, Habus aurkeztu zioten, ziritarren artean estatusetan Zawiren hurrengo balitz bezala. Maksan ben Ziriren seme nagusia zen, hamar bat urtekoa. Azenari bezain altua zen, baina familia hartan guztiak bezala oso mehar eta gihartsua. Beltzarana. Begi nabar argi interesatuak zituen, inteligentzia erakusten zutenak. Besteei bezala burua makurtuz agurra gurutzatu ondoren beraren eginkizuna zein izango zen entzun zuen: handik aurrera, hurrengo udara arte, Habusek eta berak hakim-arekin ikasiko zuten arabiera, Kordobako familia nobleko ikasleekin kultura arabiarreko ikasketetan aritzeko moduan. Ikasteko asmo haiek eguerditik gauera gauzatuko zituzten, eguneko sei bat orduz, asteako sei egunetan. Goizetan, zalditan eta gerlari trebakuntzetan ibiliko ziren. Zawik zuzenean debekatu zien haien artean erromantzez edo berebere mintzatzea. Argi eta garbi adierazi zien mutikoei harremanaren helburua: arabiera ongi ikasi behar zuen Habusek.

Hurrengo asteetan arnasarik hartzeko modurik ere ez zuten izan. Egunsentitik zalditan trebatzeko ariketa nekagarriak behin eta berriz egin behar zituzten eta ia deskantsurik egin gabe gerlariekin batera arma desberdinekin praktikatzen zuten, baita armarik gabe borrokatu ere. Kapitain baten agindupean beste mutil eta gaztetxoekin praktikatu behar zuten, hamar-hamalau urte zituztenak. Lehen astea pasatu zenean, Azenari ohitu zen ordutegi hartara, nahiz eta minduta eta kolpez beterik egon. Azenarik ez zuen aukerarik izan Habusekin mintzatzeko, ez nekaturik eta zer esan ez zuelako, haien arteko komunikatzeko modurik aurkitu ez zutelako baizik. Beraien artekoa irri, baiezko eta ezezko keinu eta lau hitzetara laburbiltzen zen. Ez zirudien, hala ere, gaizki konponduko zirenik. Biak oso antzekoak ziren, ilearen gaztainkara eta beltza edo larruazal zuria edo beltzaranaz aparte, oso begirada antzekoa zuten, gauza guztietarako interesa erakusten zutena, begien kolorea bezala, begi nabar argiak biera. Izaeraz ere, lasaiak, atseginak, lagunkoiak eta isilak ziren. Bazekiten –somatu zuten– lagun handiak izango zirela eta eguneroko zailtasunen aurrean elkarri konplizitate keinuak erakusten zizkieten aldiro. Behin makilez beste bi mutilekin ari ziren borrokan, denak denen kontra eta azkenean Azenari eta Habus gelditu ziren zutik errenditu gabe. Hurrengo kolpe txandarekin Azenari erori zen atzeraka estropezu egin zuenean. Habusek garaile geratu behar zuenean, nekearen nekez bera ere erori zen. Beraiek eta besteek kar-kar, barre-algaraka bukatu zuten saioa. Handik aurrera ahal bazuten elkarrekin egiten zuten borroka besteen kontra, konturatzen baitziren ongi konpontzen zirela, elkar ulertzen zutela eta ez zutela elkarren kontra gustura egiten. Gustura babesten zuten elkar.

Goizero, lehen argitan, garbitu eta gosalduta ondoren, ukuilura joaten ziren zaldiak zelatzera eta zelaira eramatera. Zaldien gaineko ariketak eta mugimendu bateratuak egiten bi orduz saiatu ondoren, ibilaldi luzea egiten zuten inguruetan. Bueltan zaldiak garbitu eta orraztu edo zarrastatu egiten zituzten karda bat erabiliz. Azenariri utzi zioten zaldia ruano gazte bat zen, urduria eta nekazina. Ez zen oso ederra eta burugogor samarra zen. Asto deitu zion lehen egunean. Gero, egunak pasa ahala konplizitate bat sortu zen bien artean. Astok gogorrarena egiten zuen, zela jartzen zion bitartean. Jokoa bukatzeko jaki goxo pixka bat ematen zion Azenarik eta handik aurrera ongi erantzuten zuen zaldiak. Adiskidetasun handia sortu zen pixkanaka zaldi eta mutilaren artean.

Azenari heldu zenetik lehenengo ostiralak, musulmanen festa egunetan, al-Rusafa bertako meskitan eta inguruan pasatu zituzten, Kordoban bitartean giro nahasia zegoelako. Baina behin botere aldaketa gauzatu zenean gauzak lasaitu ziren. Hurrengo ostiralean festa izan zutenean, ziritarrek Azenari eraman zuten Kordobako meskita aljama nagusira, nahiz eta musulmana ez izan. Ez zuten behartu eta mutila bisitari gisa joan zen. Muezinena eta fededunen talde-otoitz haiek lasaigarri gertatzen zitzaizkion, aurreko urtean fraideen kantuak izaten zitzaizkion bezala.

Kordobara joango ziren eguna pasatzera. Hiria, Europa eta Magreb osoko hiririk handiena zen une hartan. Milioi erdi biztanle bizi ziren Madina eta inguruko chanib edo auzoetan. Mendebaldeko kalifatoko hiriburua zen. Constantinopolis, al-Kaira eta Bagdad hiriak ziren konpara zitezkeen bakarrak. Kordobaren garrantzia ez zen biztanle kopuruagatik, ekonomikoki inguru zabal batean eragin handia izateagatik baizik: industriak, artisautza eta nekazaritza garatzen zituen Estatu eta administrazio baten hiriburua baitzen. Kultura eta artearen hiribua ere bazen. Zientzia, poesia, literatura eta filosofia inon baino gehiago lantzen zen eta orduko arkitekturarik ederrena zeukan. Apartekoa zen Medinat al-Zaharaz gainera, jauregiak, almuniak, zubiak eta bereziki meskitarik miresgarrienak Kordoban eta inguruan ziren.

Zaldi gainetan abiatu ziren al-Rusafatik. Bost ziritarrak eta hamar gerlari aurretik zihoazen, beste bost zerbitzari mandotan jarraitzen zituzten bitartean. Juduen atarira heldu zirenean, zaldiak morroiei utzi zizkieten eta oinez jarraitu zuten hiriko bide nagusitik. Bidea zabala izanik ere, jendez eta saltzailez beterik zegoen. Festa handia zen. Ez zieten ziritarrei kasu gehiegirik egin. Denak ziren musulman eta beraz berdinak Allah altuaren aurrean, baina kordobatarrek ez zituzten berebereak maite eta bakarrik beste berebereak eta mespretxatutako antzeko mertzenarioek agurtzen zituzten. Gainera, sanhaya tribuetako gizonak durbante urdin-ilun haiekin begiak izan ezik aurpegia ezkututzen zuten. Meskita ikusi baino lehen, dorre lirain zuzena eta arabeskoz beterikoa ikusi zuten zeruari seinalatuz. "Allaahuu aaakbaar! Allaahuu aaakbaar!" Meskitako minaretetik eta urrutiko meskitetatik ere muezinek otoitzerako deia zabaldu zuten: "Allahu akbar! La Ilaha il-la Allah!" –Alá handia da. Ala da Jainko bakarra.

Meskitaren sarrerara hurbiltzean gero eta jende gehiago biltzen ari zen eta orduantxe entzun zuen Azenarik otoitzerako deialdirik zirrargarriena, zeruko aingeru batek jainkoaren alde kantatu izan balu bezala. Ostiraleko eguerdiko otoitzaldia zen, asteko sakratuena. Gizonak, laranjondoen patio handian zeuden ur-putzu baxuetan, sinestunen poz eta zorion-adierazpen neurtuen artean garbitu zituzten aurpegiak eta ileak; oinak eta eskuak. Garbiketa errituala zen, Jainkoaren aurrean garbi agertzeko. Meskitaren sarreran trazeria ederrezko atari txiki anitz eta erdian handi bat ikusten ziren. Atari nagusia zeharkatu zuten. Barnean argi-itzalek nabarmenduta, arkuz eginiko baso batean, lerrokatutako zutabe hori-gorriak miretsi zituzten. Palmondo lerroen artean sartu zirela zirudien. Hegoaldeko argitasunera hurbildu ziren. Gizonak lerrotan jartzeko aurrera jo zuten bitartean, bi mutilak aparteko eta aldameneko pasabide batetik hurbildu ziren Kibla aldera. Zelosien atzetik gizonengandik aparte, emakumeek eta hurrek jarraitzen ahal zituzten otoitzaldiaren gorabeherak. Harrigarria zen, harri, marmol eta igeltsuzko zutabe eder haien artean gizonen makurtze eta goratze sinkronizatua jarraitzea, otoizgile eta sinestunen kantu eta erantzun armoniatsuekin batera. Otoitzaldiaren bukaeran iman nagusia zen mulla batek sermoi luze bat eta erregu berezia egin zuen. Azenarik, Hisham kalifaren izena eta Abd al-Malikenaren entzun zituen Alaren laguntzaz musulmanak gidatzeko. Batzuetan ulertzen zituen esaldien zentzua, aste haietan arabiera ikasteko momentuetan gehien egiten zuten ariketa Koranaren azorak erreplikatzeko zen, latinez itzulpena entzun eta gero.

Templutik ateratzean, musulmanen anaitasun preziatua ikusten ahal izan zuten, denak berdinduta Alaren aurrean, bakarrik berbereen durbante beltzek diferentziatzen zuten besteen txano eta kasketeetatik. Kordobako kaleetara atera ziren. Zawik bi mutilei beren kabuz joaten utzi zien, bi guardia atzetik eramanez gero. Mesquita inguruan kordobatarrek lagun-taldeetan solasten ari ziren. Jaki, goxoki, edari eta beste mota guztietako produktuak zeuden alde guztietan denen gutuziak asetzeko.

Bi mutilak alkazar aldera joan ziren, omeiyatarren bizitokia izan zena, jauregi eta lorategirik handienak. Atari handiaren ondoan marmol ederreko iturri ikusgarrian, edan zuten. Alkazarra Hishamen bizitokia izaten zen aspaldian, batzuetan Medina al-Zahran bizi bazen ere. Egun haietan, ordea, Medina al-Zahira-ra eraman zuten kalifa, amiritarraren eskuetan.

Hiriko hegoaldeko atari nagusitik al-Rasifera atera ziren. Han zen Bab al-Qantara famatua, Zubiaren ataria, Wadi al-Qivir ibaia gurutzatzen zuen hamasei arkuko zubi erromatarra eta bestaldean Saqunda edo al-Rabab, aspaldian suntsitutako auzoa. Ibaia zeharkatzen zuten ur-errota batzuk zeuden nolabaiteko presa-hormek lotzen zituztenak, Sudda zen. Atariaren gainean Amabirjinen edo jainkosa baten irudia zegoen denen ustez.

Jendeak hartu zuen bidea jarraitu zuten beraiek ere. Atari ondoan, al-Rasifa, harresi ondoko bidea eta ibaiko kaiek osatzen zuten paseatokia zen, botereak exekutaturiko gaizkileen erakustokia. Mendebaldera jo zuten. Rasifetik Alkazar-jauregi ondoko Musallera atera ziren, bestela ere Saria deitua, otoitzerako toki irekira. Han ere egiten ziren musulmanen bilera eta ospakizun erlijiosoak, ostiraleko meza nagusietan ez baitziren musulman guztiak mesquita nagusian sartzen. Hegoaldean Kibla eta Mihrab-a zeuden, islamaren jarraitzaileen erreferentzia, ustez Mekara begira, nahiz eta kasu hartan hegoaldean kokaturik egon. Handik hurbil, lautada zabal hartan festa giroan, jaki eta litxarrerria produktuak topatu zituzten, baita komikoak, ipuin kontalariak, ekilibristak eta abarreko artistak ere. Mutilek ikuskizunak jarraitu eta fruitu gozoak erosi zituzten. Baina, kirol edo gerlari probak hastekoak ziren eta eremu hartara hurbildu ziren. Leku aproposa bilatu behar zuten hastekotan ziren gazteen lasterketak ikusteko. Artifizialki egindako aldapa egiten zuen eremu zabalean aurkitu zuten lekua. Distantzia desberdinetako probak oso lehiatuak izan ziren. Mutilak, hamalau bat urtekoak ziren gaztetxoak eta hamaseitik aurrerakoak zaharrenak. Lehenago ospatu ziren gaztetxoak lasterketa laburrak eta luzeak eta bukaerarako utzi zuten helduagoen lasterketa luzea, probarik maitatuena. Hamar itzuli egin behar zuten koadro handi baten inguruan eta partaideek ezin zuten tranparik egin. Probak bukatu zirenean Abd al-Malikek banatu zituen sokatxo batekin eramaten ziren dominak.

Zaldi lasterketak izan ziren gero. Hamar bat gaztek, nobleziako familia onekoak, arraza garbiko zaldi arabiar dotore, ikusgarri eta apainduen gainean egin zuten lehia aurreko pistan. Borroka ziren hurrengoak. Armadako soldaduek, hiriko guardiakoek eta kalifaren guardiako gerlari eslaviarrek hartzen zuten parte. Falangeak eta ezkutuak erabiliz hasi ziren binaka borrokatzen. Hiru bikotek egin zuten batera. Falangearekin ziztatu baino alderik aldeko kolpeak eta erasoak egiten zituzten. Lehiatzen ari ziren gerlariak trebeak ziren, erreflexu, indarra, erresistentzia handikoak eta gehienetan denbora asko behar zuten bestea menperatzeko. Zauri batzuk jaso zituzten, baina irabazlea zein zen garbi zegoenean, gelditzen zen borroka eta izendatzen zuten garailea.

Bukatzeko zaldi gaineko borroka zegoen, Djerid-a, zaldi gaineko torneoa. Burdinazko armadura zuten zaldunak binaka lehiatu ziren. Zaldi handiagoak erabiltzen zituzten, kristauak egiten zuten bezala. Lantza handi eta luzeak erabiltzen zituzten. Bik biren kontra egin zuten, Al-Zahirako eslaviarrek armadako zaldunen kontra. Eslaviarrek lehenago bota zituzten arerioak lurrera, entrenamendu eta bitarteko hobeak baitzituzten. Azken bikoteak, ordea, ezpataz egin zuen borroka, zaldi arinak erabiliz.

Ez zuten indarra erabili, armaren trebezia eta zaldiarekikoa baizik. Zaldun bat berbere zanata zen eta bestea noble andaluziar bat, hiriko guardiakoa. Andaluziarrak peto dotore eta arina zuen eta zaldi arabiar ikusgarria; berberek, berriz, zaldi zakarragoa baina erresistentzia handikoa eta larru gogorreko koraza zeraman soinean. Elkarrengana jo zuten abiadura bizian, ondora heltzerakoan mugimendu berezia egiteko. Andaluziarrak zaldiaren norabidea aldatu gabe gorputza urrutiratzen zuen bitartean, ezpata ahalik eta gehien luzatu zuen besoari mugimendu horizontala emanaz. Berberek, ordea, kolpea espero izan balu bezala, ezkutua kontrajarri zion ezpatari eta zaldiari bat-bateko buelta emanaraziz, andaluziarraren gibelean jarri zen atzetik jarraituz. Andaluziarrari kosta zitzaion urrutiratzea. Hurrengo topaketan ere antzeko trebetasunak erakutsi zituzten. Andaluziarra gazte malgua zen eta bere zaldia azkarragoa, bitartean berbera oso trebea zaldiarekin eta hau erresistentzia handikoa. Nekearen nekeaz errenditu zen andaluziarra azkenean. Ikusle guztiak txaloka eta oihuka hasi ziren.

Abd al-Malikek sariak eman zituenean, Habusek eta Azenarik gehienbat keinuka adierazi zuten al-Rasifetik zubiko atarira itzuli behar zutela. Egun eguzkitsua bazen ere, aire freskoak jasangarria egiten zuen erreka inguruan ibiltzea. Haurrek igeri egiten zuten Sudda-n, ur errota mugiarazteko ibaia zeharkatzen zuen presan. Palak gelditurik zeudela, bi mutilek bainu hartzea erabaki zuten. Zaindarien arropa gorde zietenean, ibaian sartu ziren. Azenarik barnerago igeri egiteko adierazi zionean, Habusek igeri egiten ez zekielako keinuak egin zizkion. Hantxe bertan oina egiten zen lekuan erakutsi zion Azenarik ez zela hondoratuko lasai geldituz gero. Gustura ibili ziren jolasean ur azpian gauzak hartuz. Habusek igeriketan baino, uretan mantentzen ikasi zuen pixka batean. Igeriketaren ikasketa beste batean jarraitzekotan, atera ziren pixka batean lehertzeko, berandutzen ari baitziren eta familia-bazkaria ospatu behar zuten erreka bestaldean, Saqundan.

Hiriko atari nagusira helduta, zubia arazorik gabe zeharkatu ahal izan zuten, orduan jende gutxiago zebilelako. Bestaldean, zubitik hurbil, Maqburat al-Rabad al-Saqundan, Kordobako hilerririk handiena zegoen, baita beste Musalla handi bat, jende bilkura handiak ospatzeko. Ibaitek behera jarraitu zuten. Zubitik bostehun bat metrora nomaden denda zabal eta ireki bat ikusi zuten. Denda baino, estalki bat zen eta itzalean eserleku baxu eta akoltxatuak zituzten, kuxinez beteak. Azenarientzat lehenengo otordu-ospakizuna izan zen. Arabiar eta berberek basamortuan edo ibiltarien bizitza izaten zuten beren jatorrizko lurraldeetan eta noizean behin jaima haietako baten azpian ospakizunak egitea gustatzen zitzairen, nahiz eta hirietan bizi.

Gizonak zirkulu batean jarri ziren zangoak gurutzatuta, esklaboak izan ezik. Azenari Habusen ondoan eserita zegoen eta besteek egiten zutena egin zuen berak ere. Emakumeak aparte ziren beste denda txiki batean. Alari eskerrak eman ondoren, hasi ziren bazkaltzen. Txandaka, erdian zegoen plater zabal handietatik hartzen zuten janaria eskuineko esku hutsarekin, ahurra edota hatzekin. Asko zirenez, hamalau bat gizon eta mutil, lau leku desberdinetan jarri zituzten janari-azpilak. Janari espeziatua zen, mina. Piper, haragi eta ogi-mamiak edo migak bezalako plater bat hartu zuen Azenarik. Zer zen galdetu zuenean kus-kus zela esan zioten, zereal egosiarekin barazki eta arkume haragia, berberez umer deituta. Oilasko eta antzara haragi errea hartu zuten gero, eta pasteltxoak, frutak eta infusio gozo bat bukaeran. Ongi tratatu zuten mutila. Ez zen baztertuta sentitu eta hizkuntza berberekaren zentzua eta hitz solteak ezagutzen hasi zen. Bazkaria bukatu zenean zuhaitz batzuen itzalean gelditu ziren erdi lotan, laud antzeko musika tresna batzuen laguntzaz. Beranduago, arratsaldean zalditan ibili ziren mutilak. Trosta eta arrapalan Ecija bidetik egin zuten gazteenek, al-Rusafara itzuli arte. Mutilek beste baterako planak egin zituzten. Hurrengo ostiral batean zokoetara joango zirela komentatu zuten.

Aipatu bezala, goizean zaldiekin ariketak egiten zituzten. Ariketa zailak ziren. Berberek kontrol handiagok mugitzen ziren kristauak baino. Aho-uhalik edo bridarik erabili gabe, kristauen artean gutxi ezagutzen zen estribu baten laguntzaz, gorputz eta hankekin agindu guztiak ematen zituztelako. Eskuak

libre izaten zituzten arkuak edo ezpatak erabiltzeko. Azenariri ez zitzaion hain erraza egin, baina kosta ahala kosta, buru belarri saiatu zen, eta poliki, gero eta hobeki egiten zuen zaldia geldiarazteko, itzulia eginarazteko edo abiatzeko. Dena den, bazirudien beti bezala zerbait hobetu egin behar zuela. Armetan ere nekatu arte baina gustura ibiltzen zen.

Bestela gertatzen zen arabieraren ikasketetan, zeren eta penagarri aritzen baitzen azken aldian. Bi ariketa mota egiten zuten, irakurraraztea bat eta idaztea bestea. Lehenean, Hakim deitzen zuten maisuak irakurrarazten zion Azenariri eta hau urduritzen zen. Ez zuen abiadura onargarrian egiten, askotan etete edo huts egiteak aparte. Habusek hobeki egiten zuen, pasiboki bazen ere, ohitura gehiago baitzuen hizkuntzarekin. Azenarik idazten ere akatsak egiten zituen eta aldiro egindakoa zuzendu behar izaten zuen argizarizko taulan. Egun bereziki zail batean Zawik ikuskatu zuen Azenariren ibilera txar eta neketsua eta zerbait esan zion ahopeka Hakim irakasleari. Maisuak handik aurrera, irakurketa eta idazketa aldi berean egiteko eskatu zion mutilari, ozenki ahoskatuz. Hori bai, ongi egin behar zuen, bere erritmoan, baina ongi. Presaka eta gaizki egiteari utzi zion. Pixkana-pixkana, modu horretan, bere kabuz, bere erritmoan, irakurketa, ahoskera eta idazketa bateratu eta hobetzen hasi ziren. Hitzak edo esamoldeak ulertzen ez zituenean, maisuari galdetu eta latinez errepikatzen hasi zen, arabieraz ere ongi ulertu eta errepikatzeko moduan egin arte. Handik aste batzuetara, irakurketa eta idazketa ariketa haiei zentzua eta ulermena gaineratu zitzaizkien eta emaitzak dezente hobetu zituen.

Iluntze aldean, Azenari eta Habus jauregiaren lorategitik ibiltzen ziren gero eta hizketa ulergarriagoak eta naturalagoak egiten. Batzuetan jauregitik atera eta berbereen herribilduko kaleetatik edo harresietatik ibiltzen ziren. Al-Rusafa herri handiagoaren kanpoaldean zeuden. Inoiz ez ziren herriko jauregi-almunietara hurbiltzen eta Kordobara ostiraletan joaten ziren.

Aukera izan zutenean zokoetara joan ziren. Meskitatik ekialdera Axerquia deitzen zen mozarabeen auzoan zoko asko topatu zituzten. Lehenengo sarreratik harategien karrika topatu zuten, usain sarkorragatik laster pasatu zutena. Bitxikeriak bilatzen zituzten eta zintzilikatutako arkume eta oilokiz nahikoa zuten eguneroko bizitzan. Aurrerago baziren oihal eta arropa azokak, alcaiceria deituak, kolore, estilo eta kalitate guztietakoak. Zoko itxi desberdinak ziren, denda eta biltegiak kalifarenak ziren, alokairuen bidez utzita. Lehenengoz setazko oihal arin eta koloretsuak ukitu eta ikusi zituen Azenarik. Oihal urdin zerutiar distiratsu bat ukitu zuenean ezin izan zen gelditu, harritu baitzuen haren arintasunak. Saltzailearen oihuek uztera eta alde egitera behartu zituzten. Bitxien alcaiceria ere ikusi zuten, urrutitik, zeren eta ez baitzituzten pasatzen utzi. Postu dotore batzuetan oihal preziatu batzuen gainean urrezko eta zilarrezko lepoko, eratzun, eskumutur, buruko eta bestelakoak aurki zitezkeen, filigrana ederretan gehienak. Harri bitxiak kolore eta tonu guztietakoak ziren, argitara distiratsu. Habusi galdetu zion eta honek zekien gutxiak adierazi zizkion lagunari:

–Horiek korindoi dute izena, berde horiek esmeralda, urdinek zafiro, gorriek errubi, urdin argiek aguamarina eta ondoko haiek amatista. Preziatuenean kolore hobea dute eta ez dute zikinik. Salneurri garestiagoak dituzte.

Haruntzago beste plaza baten inguruan, salgai exotikoak ere aurki zitezkeen alhondiga izeneko zokoetan. Baziren al-Funduq deitutako ostatuak ere. Saltzeko dendak eta fonda haiek nahasmen handian aurkitzen ziren. Kanpotik joandako erosle eta saltzaileek jantoki eta lotarako tokiak aurkitzen zituzten han. Horrenbeste mugimenduk lapurrak eta aprobetxatuak erakartzen zituen. Hiriko segurtasuna, saib al-Surta al-Murta izeneko mandatariak kontrolatzen zuen. Auzo bakoitzean arif izeneko agintariak zaintza egiten zuen laguntzaile batzuen bidez. Axarkiakoa, hiriko arifik boteretsuena

zen, eta haren agindupean musulmanek, kristauak edo judutarrek nahasmendu osoan egiten zuten bizitza.

Aurrera egin zuten. Kale batzuen izenek adierazten zuten erabilera. Bazen sokagileen kalea, badanegileena, liburu-dendena, aulki-egileena, al-monak edo xaboi-dendak. Etxeen beheko solairuetan tailerretan artisauak ari ziren lanean, saldu nahi zituzten produktuak egiten. Erdigunetik urrun molestatzten zuten industriak aurkitzen ziren: alfayate edo kaldereroak, metal langileak, kurtidoreak, larrugileak,... Espezien zoko handienetako batean sartu zirela nabaritu zuten airean usain min sarkorragatik. Espezie koloretsuak imajina ezineko aniztasun eta ugaritasunez ikusten ahal zituzten postuetan. Zaku handi irekietatik espezie gorri sorta zabalak ikusten ziren, batzuk ezagunak: piper xehe mota asko, pimenton desberdinak, azafraiak, belar desberdinen berde kolore anitzak, beltzak eta marroiak. Kardamomo, silfio, eta lurringintzarako landareak saltzen zituzten alde batean. Salmenta haietarako oso pisu zehatz eta jakinak erabiltzen zituzten. Arifak, bere lanean, ikuskari bezala pisutan iruzurrik ez egiteko begiratzen zuen. Egun hartan Azenari eta Habus kontrol haietaz testigu izan ziren. Musulman bati tranpa egiten zuela leporatu ziotenean, arifak pisuak trukatuak zituela ikusita, al-cadi edo epailearengana eraman zuten isuna edo zegokion zigorra emateko. Dena errespetuz, eta inolako istilurik gabe egin zen. Nagusi iruzurgilea eraman zutenean, beraren senideek edo menpekoek salgaiak jaso eta alde egin behar izan zuten.

Zoko haien artean hornitegiak aurki zitezkeen, haietako batean, Khan deiturikoa, zakur erasokor handi batzuk ikusi zituzten kateatuta: haiek, gauetan eraikina ixten zutenean, zaintzen zuten beheko sarrera, patio eta pasabideetatik libre, inor lapurtzera ez sartzeko. Goiko pisuetan lotarako gelditzen ziren bidaiariak ezin ziren handik atera, zaindarien zakurrak lotu arte. Lotuta zeudela aprobetxatuz, mutil batzuek denbora-pasa polita zuten animalia haiekin. Baten batek janaria ematearen aitzakian erakarri egiten zituen bitartean, beste batzuk alde batetik bestera pasatzen ziren ziztu bizian huskeriaren bat hartzeko eta eramateko. Habusek eta Azenarik lortu zuten zaindariengandik libratzea eta Khanera itzuli ziren jokoan aritzeko asmoz. Beste mutilek ez zituzten gustura hartu eta janzkeragatik bata berbera eta bestea kristaua zirela susmatuta, burlaka aritu ziren. Azenari, zakutoan zeuzkan ogi puskek eskaintzera joan zenean, Habus prestatu zen makil bat hartzeko. Orduantxe begi handiak zituen mutil batek aprobetxatu zuen ailegatu berriak lotsatuta uzteko eta ausartu zen makila hartzen. Izango zen mutila nekatuta zegoelako edo zakurtzarrak orduan esperoan zirelako. Orduan zakur batek zangotik heldu zion eta beste zakurrak gaineratu ziren. Bi mutilak izan ziren zerbait egin zuten bakarrak. Harri batzuk botaz eta makila bana hartuta kolpatu egin zituzten animaliak eta haiek ezustea gainditzten zuten bitartean, bi lagunek aprobetxatu zuten eroritako mutila libratzeko, piztien letaginen kosketatik urrunduz. Begi handi negarrez zegoen urradura txikiengatik baino gehiago ikararik hartuta. Beste mutilek lagundu zioten etxeraino, isilik eta eskertu gabe. Bi lagunak pozik joan ziren handik, zalapartagatik jendetza hurbiltzen ari zela ikusita.

Handik egun batzuetara, goiz batean, zaldi gainean ezpataz borrokatzen ari zirenean, zaldiaren ezusteko mugimendu batek eraginda, Azenari kolpe bat gelditzearren desorekatu zen eta beste zaldiaren bultzadaz erori zen ezkerreko besoaren gainean. Besoa hautsi zuen. Erradioa. Puskatu garbia zen. Sendagileak hiru makiltxo eta hesgailu estu batekin eta zapi handi batekin lepotik zintzilikatuta utziz, hilabete batean ez erabiltzeko eskatu zion. Hasieran, Azenari sendatu bitartean beste mutilen ibilerak eta ariketak ikusten gelditzen zen. Hirugarren egunean, besteen atzetik berandutu zenean, ikasgelatik pasatzean, maisua filosofiaz ari zitzairen hiru mutil gazteri, hamalau bat urtekoei. Zawik nahi zuen bere zerbitzuko morroi gazte batzuk arabiar kulturaren jantzi, bere familiako gazteak trebatu nahi zituen bezala. Morroi gazte haiek txanbelan edo salako maisu eta laguntzaile izango ziren etorkizunean. Azenari nahi gabe entzuten gelditu zen. Aristotelesen ideiei buruz ari ziren maisu-ikasleak mintzatzen. Haien arteko solasa arabiera arruntean egiten zuten, ez kultu eta akademikoan eta harrigarriki Azenarik uste baino gehiago ulertu zien. Hantxe gelditu zen ikasgelako atearren ondoan entzuten. Zerbitzari batek

zerbait nahi zuen galdetu zionean, maisua konturatu egin zen gertatuaz. Beraiek ikasketak jarraitu bitartean nahi bazuen irakurtzera gonbidatu zuen. Mutilak lotsatuta eskertu zion eta liburu bat irakurtzen zuen artean irakasle eta ikasleen mintzagaiak jarraitzen zituen.

Lau asteetan medikuaren aholkuak jarraituz lortu zuen besoa nahikoa sendatzea. Hasierako egunetan belar-txaplata bat aldatzen zion maiz eta bi aste pasa ondoren berak agindutako ariketak egin zituen. Nolanahi ere, denbora gehiena ikasten ematen zuen. Goizean beste mutilekin denboratxo bat eman ondoren, ikasgelara joaten zen besteak entzuteko eta irakurtzeko. Arratsaldeetan, bazkaldu ondoren, Habusekin jarraitzen zuen arabiera klasikoko ikasketa. Hilabetea pasa ondoren, arabieraz hitz egiten hasi zen eta Habus ere mintzarazten ari zela ikusita, maisuak Zawiri eskatu zion Azenari beste bi astetan entzule eta partaide gisa jarraitzeko goizeko ikasketetan. Beste ikaskideekin ere laguntasunaz gain, arabierarako giro ona ere nabaritzen ari zen. Zawik, besoaren errekupeziarako ariketak egin ondoren, beste bi astez goizetan maisuarekin jarraitzeko baimena eman zion mutilari.

Neguaren hurbilean, egun euritsuetan, Habus eta Azenari ziren goizeko ikasketak jarraitzen zituztenak, beste hiru mutilekin batera. Denen artean laguntasun giro hartan arabieraz mintzatzeko ohitura naturalagoa sortu zen. Hiru morroiek arratsaldeetan etxeko lanetan aritzen baziren ere, aisialdian, arratseroko momentu libreetan eta bereziki ostiral arratsaldeetan bi gazteagoekin elkartzen ziren herrixka inguruetan. Denbora gutxian inguruko almunia eta jauregietako zerbitzari gazteekin elkartzen ziren abenturak izateko eta jolasetarako. Ez ziren jassakoak noski, jatorri hispanikoko muladi eta mozarabeak ziren, morroi eta zerbitzari libreak. Beraien familietan erromantzez mintzatu arren, arabieraz egin behar zuten baladien etxeetan eta arrotzekin. Sozialki erromantzez egitea gaizki ikusita zegoenez, mutilen artean arabe herrikoian aritzen ziren. Nolabait ere, Habus eta Azenari jatorri hispanikoko mutil haiekin ongi konpontzen ziren. Omar zen mutil-koadrila hartan Azenari eta Habusekin hobekien konpontzen zena. Beste mutilak hamabi-hamabost urtekoak ziren eta bi mutilak errespetatu arren, ez zituzten aintzat hartzen hainbat gauzatarako. Laburrean, umetzat hartzen zituzten. Omar, aldiz, hamahiru urteko mutil mehar eta txikia zen, oso argia, gauza intelektualetarako interesa zuena eta... oso mutil ona. Egun batean, neguaren bukaeran, Azenari Omarrekin mintzatu zen bazterketa sozialei buruz. Azenarik gaztearen laguntasuna aprobeixatu zuen galdetzeko.

–Ez dut ulertzen muladiak zergatik baztertzen dituzten berbereak; jassako aristokrata baladiak muladiak baztertzen dituzten bitartean. Sozietate honetan erlijio desberdinez gain, leku eta jatorri desberdinetako taldeak daude eta badirudi denak beste guztien kontra daudela.

–Ez da ulertezina. Baladiak, jatorri arabiarreko konkistatzaileak, muladi eta mozarabeak mespretxatzen dituzte, beraiek garaileak izan zirelako eta jatorri arabiar eta musulmana dutelako. Denek baztertzen zituzten berbereak garaileen artekoak izanda ere, pobreak eta kulturalki basati samarrak zirelako. Jassakoak, aipatu ditugun aristokraziakoak, denbora pasa ahala, gerlariak izatetik jauntxo izatera pasa dira. Hispanoak eta berbereak menpekotzat dituzte eta mertzenario kristauak eta eslaviarrak gorrotatzen dituzte. Orain, azken hamarkadetan, Almanzorrek eta bere semeak menpeko eslaviarrak jarri dituzte agintean, baladiak baztertu dituzte administratiboki eta armadako agintaritzatik, konpetentziarik ez izateko. –Mutilak interes handia erakusten zuela ikusita jarraitu zuen azalpenarekin.

–Orain, baladiak ezin dituzte ikusi azken aldian Zawi bezala agertu diren berbereak armadaren aginte postuetan. Judutarrak beste guztiek gorroto dituzte. Omeyatarrak baladien artean elitea izanda ere, boteretik aparte bizi dira jasotako lur eta aberastasun handiak disfrutatuz, ia beraien familien artean baino ez dira erlazionatzen. Errentak jaso, kultura denbora-pasak eta nobleziaren kirolak praktikatzeko dituzte. Poesia, xakea, mota desberdinetako ehiza, festak eta luxuzko artikuluen erosketa eta bildumak osatzea dute helburu. Bost axola zaie jendartea. Adibiderik onenak banu Hudayr eta banu

Futays dira Kordobako familia aristokratikoak, konkistatzaileen ondorengo zuzenak eta oso aberatsak. Garrantzian, gainean dituzten bakarrak marwandarrak dira, errege familiako Marwan ondorengo omeyatarrak.

## 18 - Kordoba inguruak.

Neguko azken egunetan, egun euritsuak izan zituzten jarraian. Zalditan ariketa konplexuak egitea zaila zenean, bestelako gauzak egiten zituzten. Batzuetan Azenarik eta Habusek zaldiak hartu eta paseo labur eta lasaia egiten zuten atertu egiten zuenean. Beste batzuetan bertan geratzen ziren beraien auzoko harresietan leku babestu batean xakean jolasean, jauregian jendearekin mintzatzen edo bestela bihurrikeriaren bat egiten. Garai hartan zulo batetik hamanean garbitzen ari ziren emakume biluziei so egoten ziren. Askorik ez zuten ikusten baina debekatuaren erakarria sentitzen zuten. Euriagatik lanik ez zuten morroi gazteen jokoetan parte hartu nahi zuten, baina hauek ez zituzten inguruan nahi. Gazte haien denbora-pasarik ohikoena kirol-jokoez gain, zakur edo oilar jokoa izaten zen. Bi animalia hartu eta xaxatzen zituzten borrokan hasteko. Mutilek une batez begiratzen zuten. Hala ere, ez zitzairen krudelkeria gustatzen eta beste edozein gauza bilatzen zuten.

Kordobatik bi legoara, al-Rusafatik ipar-ekialdera mendizerra bitartean lautada zabal batean biltzen zen udaberri guztietan Kordobako armada osoa urteroko azzeifa egin baino lehen. Lautada, Fhas al-Suradiq deitzen zuten, dendaren lautada. Abd al-Raman I Omeya, Kordobako lehen emir independentea, Abasi-tar kalifa berriengandik bizirik eskapatu zen omeyatar bakarrak lehenengoz gerrara joateko denda handia jarri zuelako. Han bilduko ziren armadako gerlariak, animaliak, hornitegiak, garraioak animalientzako janaria. Elikadura segurtatzea arazo ikaragarria zen tamaina hartako armada batentzat.

1003ko udaberrian, apirilaren bukaeratik hurrengo azzeifa prestatzen hasi ziren. Bartzelonako konderrira joateko ekaina bitartean prestakuntza handiak egin behar zituzten. Mota guztietako armak, sokak, oihalak, dendak, uhal eta burdinazko piezak, garraiorako gurdiak eta animaliak biltzen hasi ziren. Ez zen lan erraza. Bereziki zaila izaten zen idi, mando, gamelu eta zaldiak lortzea eta haientzako janaria biltzea. Abiatu bitartean egunero gauza berriak gertatzen ziren. Udaberriko egun euritsuetan, arrapalan edo trosta bizirik egiterik ez zutenez, beren zaldiekin ibilaldi lasaia egitearen aitzakian Azenari eta Habus Fhas al-Suradiq-era hurbiltzen ziren heldu berriak ezagutzera. Aurreko egunetan animaliak biltzeko kortetan konponketak egiten ari ziren, estalkiak, hesiak eta biltegietan beharrezko lanak burutuz. Biltegietan mugimendu handia zegoen Kordobatik armak eramanez eta inguru guztietatik janaria bidaliz. Egun hartan Guadalquivir bokaletik zaldi pila ekarri zuten. Zaldi gazteak ziren, zaldunek zituztenak galduz gero, ordezkotako zaldiak. Ez zeuden hezita eta haien gordetzeko itxitura guztiak ez zeuden behar bezala. Gainera, janaria falta zitzairen eta lehenengo aukeran, gaizki bukatutako hesiak saltatu eta belar goxoaren bila egin zuten hanka. Bi mutilek ehunka zaldiren ihesa ikusi ahal izan zuten eta beste batzuei bezala biltzera joateko eta ekartzeko agindu zieten.

Astelehena zen zaldiek ihes egin zuten eguna eta eguerdirako Zawik ehun bat zaldun bidali zituen zaldiak ekartzera. Mutilei janaria eta abisua bidali zieten. Habusen laguna zen Abdul al-Bakri kapitainak esan zien berarekin joateko. Taldeka banatu ziren leku eta alde guztietara zaldiak biltzera joateko. Hamar bat laguneko taldean mendebaldera zuzendu ziren, beste talde batzuekin batera. Urrunera joan behar izan zuten zaldi talde barreiatu batzuk aurkitzeko. Al-Madina al-Zahra ondotik pasa ziren. Harresi zuzen eta altu haien babesean jauregi eta lorategi erraldoiak lerrokatzen ziren terrazak batzuetan menditik lautadara. Abd al-Raman III.a kalifa omeyatarrak eraiki zuen, al-Zahara izen bereko bere emazte kutunarentzat almendrondoz inguratuta. Udaberriko egun hartan almendrondoen arteko harresi eta eraikin doratuak nabarmentzen ziren lorategi berdeetan. Hiri-jauregia zaintzeko eta mantentzeko milaka esklabo, morroi eta soldadu zeuden. Mutilek gogoz kontra jarraitu zuten bete beharreko eginkizunean, jauregi-hiria bisitatzeko beste baterako utzi beharrean.

Zaldiak barreiatuta zeuden leku guztietan. Batzuk momenturako ibaiaren bidetik hego-mendebaldera ihes eginak ziren; beste batzuek Kordobako mendizerra zeharkatu zuten. Hurrengo egunean joango ziren haien atzetik. Baina orduan lautada hartan barreiatutako zaldiak bueltan eraman behar zituzten urrutiratu baino lehen. Abdulek eguerdiko otordua arin hartzeko agindu zuen. Gero, beste hiru talderekin zaldiak inguratu, zaldunen artean distantzia bat mantenduz lerro luzean, arri-arri izutu gabe, lautadako eskortetara akuilatu zituzten. Arratsaldean zaldi gehienak bilduta zituzten hobe hesitutako itxituretan. Hurrengo goizean abiatu behar zuten falta zirenak ekartzera.

Zawiren berbereen lana zaldi basati eta gazteak heztea izan zen. Mutilek aukera izan zuten laguntzeko. Goizeroko lan bihurtu zen banan-banan zaldiak sokaz lotzea eta itzuliak emanaraztea, geldiaraztea, itzularaztea baita uhalerietara eta jenderekin ohitzea ere. Berbereen artean baziren zaldiak hezten ongi zekitenak, behartuz baino pazientzia handiz lortzen zutenak. Konfiantza irabazita, zaldira igotzen ziren poliki, behar zen denbora emanez, eta zaldian igota ariketa desberdin batzuk eginez hezten zituzten.

Maiatzaren hasieran are gehiago animatu zen lautada. Animalia gehienak biltzen ari ziren eta mugimendu handia zegoen haiei jana emateko. Zaila izaten zen gameluak zaintzea, ez animalia zailak izategatik, edo ez horregatik bakarrik, nahiz oso burugogorrak izan, haien kopuru handiak kanpamentuaren martxa oztopatzen zuelako. Hainbat egunetan milaka gameluri edaten emateko, al-Rusafa errekarra eramatean zelaia zeharkaezina zen. Gainera beste animaliak ur-biltegi batzuetara eramaten baziren ere, egun erdiko iskanbila sortzen zen. Eskerrak, hurrengo egunetan, gameluei astean behin edo bitan ematen zietela ura, eta txandaka, egunean bi mila animalia zalapartari baino ez zituztela mugitu behar edaten ematera. Egunak pasa ahala, asmatu zuten beste animalia batzuk momentu desberdinetan mugitzen eta mendizerrako beste erreka batzuetatik ur-asketan bildu zuten isuri preziatua.

Habusek eta Azenarik egunero egiten zuten bisita, etorri berriak ezagutzeko. Azenari lehenengo aldiz ibili zen abiadura handia hartzen zuen gamelu batean. Tratu txarra jasan behar izan zuen estreinakoz gamelu bat laztandu zuenean: koska egiten saiatu ondoren, ostikoka hasi eta mutila jo zuen. Ez zen larria izan, izan ere bularraldean zeharka eman baitzion. Hurrengo egunetan irmo eta ezustean tratatzen ikasi zuenean, ez zen arazorik sortu. Egun batean zakurtegietatik animalia batzuk ihes eginda, iskanbila sortu zuten oilategietan. Beste egun batean, maiatzaren bukaeran, sute bat piztu zen egurtegi batean. Egurra leku desberdin eta urrutiratuetan izateari esker ez zen neurri gabeko kaltea. Ondoren jakin zutenez bi mutil mozarabe harrapatu zituzten zaindarien. Galdekatu zituztenean Bartzelonako frankoek dirua eskaini zietela esan zuten. Oso pobreak izaki, gosez ez hiltzeko egin omen zuten. Azenarik lehenengoz entzun zuen lurralde musulmanetan jendeak gosea pasatzen zuela, uste baitzuen Kordobako lurretan denak aberatsak zirela. Zalantzak Omarrek argitu zizkion galdetu zionean.

–Gure lurralde hauetan, jendea gosez izaten da askotan. Denek, bereziki mozarabeek, zergak ordaintzen dizkiote Kordobako Kalifatoko Estatuari eta zuzenean duten jauntxoari. Uztak oso handiak ez direnean edo galtzen badira, ez zaie bizitzeko behar dutena geratzen eta gainera zorretan izaten dira maiz. –Azenarik eta beste mutil batek, batera ia galdera berdina egin zuten.

–Ez al dute eman behar ateratzen dutenaren hamarrena edo bostena?

–Nekazari morroi gehienek, ez diote portzentaje bat ematen jauntxoari, kopuru finko bat baizik. Gure nagusiaren menpeko familia batek adibidez, oso lur eta baliabide gutxi izanda ere, urtero hoge

arkume, berrogei oilasko, bost ezti-orraxe, fruitu eta barazki piloak eta berrogei neurri gari eman behar izaten dizkiote: urte on batean ateratzen dutenaren laurdena baino gehiago, gehienetan. Aurten ongi ibiliko dira emateko, baina aurreko urteko zorra ordaindu behar dute eta larri ibiliko dira neguan. – Azenarik bazuen artean zerbait galdetzeko eta ez zekien nola egin.

–Beti entzun dut jauntxo arabiarrek eskuzabalak direla. Ez al da hala?

–Aberatsak? Bai, badira; eskuzabalak, berriz, ez. Gure jauna, Sulaiman ben Kasim al-Farad al-Omeya, Abd al-Raman III.aren eta emazte baten biloba da, errege familian ez da oso inportantea. baina lurra eta beste jabetza batzuk ditu. Beraren menpean familia asko daude lurra lantzen. Beste hiri batzuetan ere badauzka denda eta tailerrak eta mehatze bat ere bai. Bera bezala beste ehunka omeiyatar daude, bakoitzak bere familia duena eta Jassako milaka gehiago daude berdin-berdinak. Denek jaso zituzten ondasun handiak beraien aitaren seme-alabak izategatik. Ez dute ezer egiten, ongi pasatzea ez bada eta nik bezala beste administratzaileek, gure nagusiak eta beraien familiak mantentzeko morroiak estutu behar ditugu. Horrelakoak dira jauntxo guztiak.

Ekainaren hasieran eguraldi ona hasi zelarik, Al-Andaluseko kora edo probintzia guztietatik gerlariak heltzen hasi ziren. Yihad, gerra santuaren deia egin ondoren boluntarioak biltzen ari ziren. Urte hartan uzta onak izango zirenez yihadista gutxiago aurkeztu zen. Urte txarretan familia muladietako gazte andana aurkezten ziren boluntario gerra saildurako, benetako arrazoa, jatea, eguneroko janaria lortzea zenean. Urte hartan Yihadista gutxi ziren, lau bat mila eta gaizki prestatuta zeuden. Koretatik, probintzietatik joandako gerlari profesionalak ere gutxi baina garrantzitsuagoak ziren. Jassako baladiek ez zuten zuzenean gerra egiten eta gehienetan dirutan ordezkatzeko zuten parte hartzea. Jatorri desberdinetako mertzenario kristauak eta berberek ziren gerlaririk onenak.

Ekainaren 17an, 13 shaban-ean, Azenari, Habus eta lagunak joan ziren armada eta sanhayarrak agurtzera. Kordobako biztanleek muino batetik ikusi zituzten soldaduak desfilatzen. Bartzelonako kondearen aurka joan ziren, bake-tratatua ez errespetatzeagatik. Lehenik Abd al-Malik Sayf al-Dawla, Estatuaren Ezpata, agertu zen. Arabiar arraza garbiko zaldi zuri eder baten gainean koraza distiratsu bat zeramala ikusi zuten guardia eslaviar handi eta nabarmenen aurrean. Gero, koretako oinezko gerlariak zetozen, herritarrek txaloka eta goraka hartu zituztenak. Boluntarioak ere hobeki hartuak izan ziren eta bukaeran bi ordu pasa ondoren jendea nekatuta zegoelarik eta joaten hasi zirenean, zalduneria berbere eta kristaua ere bai. Azken hauek ez ziren asko, lau mila zaldun inguru; haietatik mila, Zawiren sanhayarrak. Osotara hoge mila gerlari.

Gizon gehienak joan zirenean, al-Rusafako auzo hartako bizitza aldatu zen. Emakumeak ordura arte ginezoetan gordeta izan zirenak atera ziren etxeetatik. Gelditu ziren gizonak, edo kanpoan ziren goarnizio bezala hiri anitzetan, Kordoba inguruan, edo bestela beraien herribilduaren harresi, dorre eta kuarteletan ziren. Zawik ez zituen gerlari guztiak eraman. Oinezko bostehun gerlari geratu ziren bertan, beste hainbeste emakume eta ume zaintzeko. Herrixka hartako harresietatik urrun, soineko koloretan eta distiratsuak zeramatzen emakumeak ikusi ziren etxe batetik bestera eginkizun berri eta ageriagokoak eginez. Egia zen emakume berberek etxetik kanpo arabiarrek baino eginkizun gehiago zutela, askatasun gehiago ere bai.

Emakumeek momentu hartan zuten arazorik handiena zera zen: Afrikatik joandako gizon gehienak emazte eta emakumerik gabe joan ziren eta bakarrik berrehun bat emakume eta hirurehun haur zirela; gainerako bostehun morroi eta esklaboen artean beste ehun emakume zegoen. Beraz,

gizonak gerrara joan zirenean emakumeek lasaitu ederra hartu zuten gizonen beldurrik gabe, herrixkatik atera gabe eta harresi-kuartelen zaindarien gaitarduraz. Orduan Azenarik Salmarekin harreman handiagoa izan zuen. Bera zen ziritar familian emakumerik irekiena. Ziriren emaztearen ondoren Habusen arreba nagusi hura eragin eta garrantzi gehien zuena zen. Berari benetan interesa zitzaizkion Habus eta Azenaren bizitza eta beharrak, eta ahal zuelarik beraiekin pasatzen zuen arratseko eta afalondoko momentu bat edo beste. Kahina, Zawi ben Ziriren emaztea, bere gizoez arduratzen zen nagusiki. Hamabost urterekin Salma, jauregiko morroiekiko harremanak eta eguneroko prestaketek denbora uzten ziotenean mutilengana haietaz arduratzeko. Egun hartan, lorategiko iturri ondoan arratseko freskura dastatuz Salma ikusi zuenean, Azenari hurbildu eta solasean hasi zitzaion, errespetu handiz egin ere. Bere arabiar formalenean eta poliki galdetu zion.

–Kaixo Salma. Molestatu egiten al zaitut? –irri batekin erantzun zion prest zegoela berarekin mintzatzeko.

–Kaixo Aznari. Ez. Noski ezetz. Zer moduz pasa duzu eguna?

–Ongi. Baina..., ez dakit nola galdetu.

–Galdetu lasai. Habus utzi al duzu niri zerbait galdetzeko?

–Bai. Joan da sukaldera, jateko zerbait bilatzeko. Oraintxe heldu da.

–Galdetu lasai jakin nahi duzuna.

–Salma, emakume berbereok askatasun handiagoa duzue, ezta?

–Bai, gure herrietan, tamazight emakumea beti izan da etxe eta baita lurren agintari. Gizonak kanpoan ziren lanean edo gerran. Zuen emakumeak, emakume baskuni-ak, nola bizi dira, arabiar ala tamazight-ak bezala?

–Lehen aipatu duzu tamazight hitza. Zer da? Zuek al zarete tamazight?

–Bai. Berbere hitza barbarotik dator. Beste herriek horrela deitzen gaituzte. Amazigh izenak «gizon askea» esan nahi du; Tamazight emakumearena da eta denona guztiena imazighen da. Zuek zuen artean baskun hitza erabiltzen al duzue?

–Ez. Gu baskoi edo euskaldunak gara, baina kanpokoek baskun edo waskun deitzen digute eta gure lurralde Baskonia edo Gaskonia.

–Barkatu, baina zuen emakumeek galdetu dizut.

–Bai, barkatu. Euskal emakumeak, zuek bezala etxeko nagusiak dira. Horrelaxe deitzen diete beti, etxekoandre. Gizonak ere kanpora joaten dira lanera, abeltzain edo gerrara. Urteko hilabete ilunetan etxean aritzen dira eta udaberritik udazkenara asko joan egiten da. Zahartzean herrian geratzen dira laguntzera, baina benetan agintzen jarraitzen duena etxekoandrea da.

–Gurean berdintsu izaten da. Al-Rusafako auzo sanhayar honetan gertatzen dena da oso emakume gutxi gaudela. Gerlari gehienak gazte ezkongabe eta familia-gabeak dira eta ezkututzen gara horregatik. Garen gutxiak gizonak itotzen gaituzte. Ez dute gainera emazterik lortzen, inguruko muladiak gutxiesten gaituztelako. Hemendik gutxira, hala ere, mila emakume gazte ekarriko dituzte Ifriqiyatik eta gure bizitza hobetuko da.

–Ez dut ulertzen. Esklaboak ekarri behar al dituzte?

–Ez. Gazte sanhayarrak dira. Askeak. Batzuen emaztegaiak eta gure herrietatik ezkongaiak bidaliko dituzte. Zawik eta Kahinak antolatu zuten dena etorri ginenean baina ez da orain arte posible izan. Etorri ginenetik ia bi urte pasa direnean, aberastu gara eta gure herriko neskez gain mutil eta gizon sanhayar gehiago etorriko dira. Uda bukaeran edo udazkenean hona helduko dira. Horregatik dago hainbeste eremu hutsik gure harresi barnean. –Azenariri gero eta gehiago gustatzen zitzaion Salmarekin egotea.

Uda hartan mutilak Zawiren zaintza estuaren falta aprobetxatuz, hainbat egunetan ehizaldiak egiten aritu ziren. Zawiri hitz eman zioten bezala, normalean bazkari goiztiarra bitartean zalditan eta borrokan ahalegintzen ziren eta atsedenen ondoren hainbat orduz arabiera klasikoaren ikasketak egiten zituzten. Hala ere, zenbait alditan ezin izan zioten ehizarako deiari eutsi eta beharrezko gauzak hartuta, egun osorako ateratzen ziren. Haietako ibilaldi batean, uztaileko azken egunetan, beti bezala mendiko goi-larretara jo ondoren, ahuntza basati batzuk begiztatu zituzten, haiek ehizatzeke modua aztertu eta haizearen kontra hurbiltzen hasi ziren. Ehun metrora helduta, ordea, bi gezi bota zizkioten Habusi haietako batek ia eman ziona, mahuka zabala urratuz. Atzera begiratzean lau mutil ikusi zituzten arkuak prest zituztenak. Haietako bi Ali eta Muhammad ben Abd Allah banu Hudayr-tar aristokratik ziren. Habusek haserre bizian madarikatu zituen.

–Baladi madarikatua! Ia besoan jo nauzu. Zertan ari zinen pentsatzen?

–Hi haiz madarikatua, barbaro alaena! Ehiza kendu nahi al didak? Eman eskerrak hil ez haudanean! –erantzun zuen Muhammadek, hamalau urteko anaia zaharrenak. Habusek haren etsaigoa ezagututa, jarraitu zuen madarikatzen. Azenari egoeraren larritasunaz ohartuta, bere arabiera murrizta erabiliz ahalegindu zen besteak lasaitzen.

–Ia jo duzu gezi horrekin. Ez duzue eskubiderik horrela tratatzeko. Utzi bakean eta joango gara –Muhammadek, orduan barre-algara batean, lasaiago bukatu zuen erretolika.

–Mukizu halakoak! Zoazte hemendik. Ehiza izutu duzue. Eta zuk baskuni fedegabe horrek, ea ikasten duzun pertsonak bezala hitz egiten eta ez nekazari ezjakin bat bezala –Azenarik Habus besotik hartuta eta isilaraziz itzulbidera eraman zuen laguna. Beste mutilek bitartean bi mutilak hanka egiten ari zirela ikusita, barrez jarraitu zuten.

Handik aurrera ehizara joan nahi zutenean Hudayr etxeko mutil morroi ezagun bati galdetzen zioten Muhammadekin ez topatzeko, garbi baitzegoen ez zuela bat ere erreparatu edo beldurrik haien kontra egiteko. Azenarik egun hartatik aurrera gogo handiagorik ekin zion arabiera ikasteari. Goiz joaten zen bazkaltzera eta eguneko ordu beroenean lo-kuluxka azkarra egin ondoren, jo eta ke ekiten zion arabiera klasikoa ikasteari. Al-Coran eta liburu preziatu batzuk irakurtzen zituen eta ongi ulertu ondoren nola ahoskatu galdetzen zion Hakim-i. Maisuak, zer nahi zuen konturatu zenean lasai hartzeko aholkatu zion.

–Aznari, Kordoban inork ez du arabiar klasikoa egiten. Idazkiak ulertzen hasi zara baina irakurketa ongi egiteaz aparte, inork ez du ahozko hizkuntza zuk egin nahi duzun bezala egiten. Aski eta sobera duzu hemengo arabiera arrunta eginez.

–Baina Hakim, baladiek diote barbaro bat bezala mintzatzen naizela.

–Begira mutiko, duela urte bat hona etorri zinelarik, ez zenekien ezer eta orain nahiko ongi egiten duzu. Urte bat ez, hamaika hilabete hauetan mutu izatetik sei urteko mutiko baten hizkera duzu. Ulertu, askoz gehiago egiten duzu, ordea. Benetan ongi ari zarela sinetsi behar duzu.

–Hakim, hala ere ez nago prestatuta hurrengo hilabetean Kordobako madrasa nagusira ikastera joateko.

–Egon lasai Aznari. Zawi jaunak estutu nahi zintuen aipamen hura egin zuenean, ez zen bere asmoa prestatu izan gabe maisu handiengana bidaltzea. Orain dakizunarekin eta urte batean Habusek eta biok edozein arabiarrek bezain ongi erabiliko duzue hizkuntza. Jaunak beste urte bat emango digu ongi eta soberan prestatuta izateko. Eta zure ahoskera... hemendik hilabete gutxitara asko hobetuko duzu. Ikusiko duzu. –Azenarik baiezko keinua eginez, eskerrak eman zizkion Hakim-i eta jarraitu zuen lanean.

Egun batean, ikasketaz nekatuta Kordobako mendebaldeko auzoetara joatea erabaki zuten. Han ez zuten Hundayrtar hura topatuko. Hegoaldera jo zuten al-Rusafa erreka jarraituz. Bidexkatik, landa irekia ikusten zuten. Erreka ondoko zuhaitzek itzal txikia ematen zuten arren, jendearen atsedean tokiak suertatu zen. Hegoaldera jarraitu zuten eta Kordobara hurbildu ziren. Teileria eta alfar asko zegoen inguruan. Ondoren, Amirren hilerri handia zeharkatu zuten gelditu gabe, izen bereko hiri-atari aurretik pasatuz. Errekak ibilbide estu batetik jarraitzen zuten, Medina edo hiri zaharra eta mendebaldeko chanib edo auzoen artetik, bi aldetara harresiak izanda. Al-chanib al-Raqqaqin ondotik erreka Alkazarraren harresietan barneratzen zen, kobrezko ziri lodiz itxitako zulo batetik. Inguru hartan, Bab Isbiliya eta al-Attarin, espezien azoka topatu zuten. Azoka ikusgarrian ibiltzeko asmoz joan baziren ere, ezinezkoa izan zen. Jende asko zebilen eta Kordobako atari sonatu hartatik sartzen eta ateratzen zirenekin ezin zen gustura gelditu espezie koloretsu eta usaintsuen salerosketa ikusten. Mendebaldeko arrabalera sartu ziren.

Pergamineroen auzoan, al-Raqqaqin-en, sartu zirenean, larruaren usain ustel-higuingarria nabaritu zuten. Han artisauak bizi ziren, beren lantokien ondoan. Hirien erdigunetik urrun izaten ziren industria batzuk, haien artean larruena. Zarata, usain txarra sortu edo oso tinteena bezalakoak osasuntsuak ez ziren industriak hiri bazterrean kokatzen ziren. Larru landuak politak eta baita usain atseginetakoak izaten ziren; landugabeak, ordea, nazkagarriak. Auzoko kalerik zabalenean zihoazela, tailer handi eta dotore baten aurrean, mahai batean, pergamino eder batzuk ikusi zituzten, neurri eta kolore bereko sorta eder batzuk. Habusek ukitu nahi izatean, gizon batek gelditu zuen.

–Aizu mutil, ez ukitu nire pergaminoak, jassako handiki, printze eta visirrentzat dira soilik.

–Ni printzea naiz, sanhayarren Habus Maksan ben Ziri printzea. Pergaminoak behar ditugu mezu eta dokumentu garrantzitsuak idazteko. –Pergaminoegileak, haserre bizian eskua erretiraraziz eta bultzatuz joateko keinua eginda erantzun zion.

–Zoaz hemendik, ez dut alprojarik nahi nire pergaminoak zikintzen.

–Hor konpon bezeroak uxatu nahi badituzu. –esan zuen haserre Habusek, pergamino-egilearen begiradapean, beste denda batean, ziurrenez kalitate eskasagoko pergaminoak ikusi zituen. Hamar bat pergamino-sorta baten salneurriaz galdetuta, eskatutako hamalau dirham-ak ordaindu zituen eztabaidatu gabe. Aurreko pergamino-saltzailea ahoa bete hortz utziz.

Haruntzago bi meskita famatu pasatu zituzten. Maschid al-Shifa, txikia eta kolore anitzetako marmolez egindakoa. Emakume baladien maite zuten meskita zen eta maschid Masrur goi postuetako muladien biltokia. Mezkitek bazuten istorio bana. Al-Shifa, Abd al-Raman II.aren emazte kutuna zen, hil zenean emakume pobreenzat ondasunak utzi zituena eta Masrur, emir beraren fata zen. Handik gertu Balat al-Mugith jauregia zegoen etxe pobreen artean nabarmen. Kordoba osoan horrelako meskita, jauregi eta almuniak aurki zitezkeen, hirurehun urteko historian emir eta kalifen ingurukoek utzi zituzten arrastoak. Urrunean hammam al-Ilbiri ikusi zuten, bainuetxerik famatuena. Alkazarreko lorategiaren harresi ondoan kartzela zaharra pasa zuten. Inguruan, San Acisclo elizarik famatuena zen eta Azenarik bisitatu nahi zuen. Eliza ez zen oso dotorea, handia eta zaharra baizik. Kordobako bisigodoek musulmanen aurkako azken erresistentzia hantxe egin omen zuten. Sarrerara hurbiltzean, neska eta mutil batekin sartzen ari ziren gerlari batzuk ikusi zituzten,. Amazigh zanatak ziren, musulmanak izaki ez zuten elizaren santutasuna errespetatzen eta zirudienez, neska modu txarrez zirikatzen ari zirelarik, mutilak haren laguna edo familiakoa nonbait, neska babestu nahi izateagatik gerlariak bultzaka eta kolpeka hasi zitzaizkion. Habus, Azenarik laguntzen ziolarik, tartean sartu zen eta soldaduei amazigheraz leporatu zien jarrera koldarra.

–Ez duzue lotsarik, defendatzerik ez dutenekin sartzean. –Talde-buru zenak Habus jo nahi izan zuen. Honek kolpea saihestuta, ostiko bat eman zion. Orduan mintzatu zitzaion gerlari zanata.

–Hi. Nor haiz hi erdian sartzeko, mukizu sanhayar hori?

–Zure jarreraz lotsatzen den pertsona bat. Hori hasteko. Habus ben Maksan naiz, printze ziritarra. Eta zu nor zara? –Sarkinak atzera egiten zuela ikusita jarraitu zuen.

–Utz gaitzazu bakean eta zoazte hemendik. –Plantak eginez, alde egin zuen hitzik aipatu gabe, lagunek atzetik jarraitzen zuten bitartean. Neska babestu zuen mutila hurbildu zitzaien eskerrak ematera. Neska, artean beldurtuta, eliza ondoko etxera joan zen. Hemezortzi bat urteko fraide edo antzekoa zen, horrelako jantzia eta gurutzea baitzeramatzan. Bi mutilei begira honela esan zien:

–Mila esker laguntzeagatik –Habusek erantzun zion:

–Ez horregatik. Ongi al zaude? –baiezkoa entzun zuenean jarraitu zuen –. Nire lagun Azenari kristaua da eta eliza bisitatzeko eta otoitz egiteko gogoia zuen. Ikusitako bortizkeria gelditu besterik ez dugu egin. Ni Habus ben Maksan banu Ziri naiz. Sanhayarren printzea.

–Eskerrak berriro printze hori! Ongi etorri zu eta Azenari gure elizara. Hau da San Acisclo eta ni Isidoro ben Ali, meza-laguntzailea edo monagillo. Neska nire lehengusina da, Miriam. Gure elizan santuaren erlikiak ditugunez al-Andaluseko kristauak etortzen dira bisitatzera –jarraitu zuen–. Bibliako istorio famatu batzuen margoak ikusi ahal dituzue. Zatozte!

Eliza bisitatu zuten. Kanpoko beroarekin konparatuz barnea freskoa eta atsegina zen. Harrizko zutabeen gainetik, paretetan bibliako istorio koloretsuak ikusi zituzten. Margoek, denboraren poderioz indarra galduta eta ilunduta egonda ere, istorioen osotasuna mantentzen zuten. Han ikusten ziren Adan eta Eva paradisuari eta handik botatzeko gertatutako istorio guztia. Beste horma batean, Jesusen jaiotza magoen erdian, haren predikuen irudiak, gurutzatzea eta zeruratze istorioak ere ederki ikusten ziren. Aldare haren gainean, Jainkoa, santuz eta aingeruz inguratuta agertzen zen azken auzia ospatzen, onak zerura eta gaiztoak deabruz beteriko infernura bidaltzen. Azenarik margoen koloreak miresten zituen bitartean, Habus harrizta zegoen Jainkoaren eta pertsonen marrazkiekin. Musulmanek debekatuta zuten gizaki eta are gehiago Jainkoa marraztea. Bekatua egiten ari zela iruditzen zitzaion eta aldi berean liluratzen ari zen. Isidorok santuaren atsedentokia erakutsi nahi zien baina biei beldurra eman zien. Otoitz egin ondoren Azenarik beste baterako itzuliko zela esan zion Isidorori. Habus, joanda bezala aterata zen eguzkitara eta zorabiatu zen. Elizako giroa itogarria zen argizaria eta intsentsua erretzearen ondorioz. Ondoko etxe atarian eseri eta Isidorok ekarritako ura edan ondoren, onera itzulita joan ziren bi lagunak etxera.

## 19 - Kordobako jakinduria.

Joan zirenetik hiru hilabete pasata, irailean, armadaren berriak jaso zituzten; berri zaharrak, dena den. Toledora heldu zirenean, koretako soldatuak gelditu ziren markako defentsak indartzeko. Medinacelin Gaztelako Sancho Garcia elkartu zen Kordobako armadarekin, Wadih markako gobernadorea ere bai. Zaragoza eta Leridatik pasa ziren eta Mumaqasr eta Madanish deituriko gazteluak hartu zituzten Wadih-k eta Abd al-Malikek armada bitan banatu ondoren. Manresa eta Igualadara iritsi, ingurua arpilatu eta esklaboak hartu zituzten. Irailaren 5ean, 5 dhul-qada, Leridara bueltatu ziren, Ramon Borrell III.ak amana eskatuta, erreskateak ordaindu eta tratatu berri baterako enbaxada bidali zuenean.

Azkenik armada Kordobara heldu zenean, berriro desfile handia antolatu zuten. Egun haietan hiru enbaxada zeuden hirian etorrerari nolabaiteko oihartzun eman ziotenak. Fhas al-Suradiq-en gurdia eta animalia gehienak utzi zituzten eta Musallan antolatu zuten ikuskizuna. Frankoen lurraldeetatik bi errege edo dukeren enbaxada ziren agertutakoak, Borgoñakoa bat eta Aquitaniakoa bestea, bata bestearenetik aparte hogeina pertsonaia bitxiak osatzen zituztenak, kolore iluneko jantziak eta zilarra kiloka zeramatenak. Beste enbaxada Bizantziotik zetorren. Basileus-ek interes handia zuen Mediterraneoan komertzioa seguruagoa izaten eta mendebaldeko erresuma arabiarrekin komertzio bila ehun bat merkataria eta noble bidali zituen. Hauek urre asko eta jantzi koloretsuagoak zekartzaten.

Joatean bezala itzulian pasa ziren Islamaren gerlariak. Desfilatzen lehena zaldi gaineko atabal, danbor eta fanfarre musika konpainia izan zen. Erritmo motel samarrean zaldi dotore batean Abd al-Malik agertu zen, guardiak aurrean eta atzean izanez. Ezpata airean, urrezko koraza eta gorri koloreko tertziopelozko kapa jantzita, zilarrez apaindutako zaldi beltz baten gainean dantza pausotan ibili zen. Ondoren, koretako oinezko gerlariak ibili ziren jendearen ongi etorri zaratsuen artean eta azkenik, Yihadeko boluntarioak txaloka eta goraka hartu zituzten, jainkoari eskerrak eta gorak oihukatuz: "Allahu akbar! La Ilaha il-la Allah, Muhammad Rasul' Lah!" –Jainkoa handia da! Ez da jainkoa beste jainkorik eta Mahoma bere profeta da!

Gerlariak agertuta, aurreko bizimodura itzuli ziren berberean herrian. Emakumeak etxe barnera erretiratu ziren. Gizon gerlariak leku guztietatik zebiltzan berriro hornitegietan eta biltegietan gauzak uzten. Dendak, sokak eta beste tresna batzuk behar izanez gero konpondu ondoren gordetzen zituzten beste baterako, armak eta gerrarako materiala ere beren biltokietara itzuliz. Azken aldiko lasaitasuna hautsiz, jendetzaren zalapartak eta joan-etorriek betetzen eta apurtzen zuten bakea.

Mutilek berriro heldu zioten eguneroko lanari. Atzean gelditu behar ziren inguruko ibilaldiak eta abenturak. Horien orde zaldi eta arma praktikak are gogorragoak eta zailagoak iruditu zitzaizkien. Zawik berak arku praktika batzuk eginarazi zitzen. Helduentzako arkuak erabiltzerik ez zuten, txikiagoak zeuzkaten. Arku laburrak ziren, hezur eta egur desberdinez egindako bi bihurturakoak. Gezia botatzeko ekintzaren hasieran asko kostatzen zen tenkatzea. Ezinezkoa iruditu zitzaien horrenbeste indar egitea. Giharrak behar ziren eta gainera momentuan bildu behar zuten indarra. Sokari eusteko praktikak ere zauritzen zitzen hatz puntak, odola egin eta gogordura izan arte. Ezinezkoa zirudiena lortu zuten asteetara. Hasierako indarra bilduz geziarekin apuntatzea lortu zuten azkenik. Ehun bat metrora asmatzea zen helburua, baina orduko hirurogeian egitea eskatu zieten. Beste baterako utziko zuten praktika haiek zaldi gainean egitea. Ahalegintze guzti haien arrazoia azaldu zien Zawik berak:

–Frankoen zalduneria astunarekin ezin izango dugu kontra egin urrutitik geziak botatzen trebatzen ez bagara. Horregatik gure armarik hoberena zaldietatik arkuak erabiltzea da. Gure arkuak,

gainera, nahiko indarra ematen diete gezi astunei burdinazko korazak zeharkatzeko. Beste armekin geldiarazi ahal ditugu, baina zaldi gaineko arkularitza da garaitzeko modu bakarra. Gu sanhayarrak gara Kordobak duen defentsa bakarra. Zaldiekin hurbildu eta urrutiratzen ahal gara benetako mina eginez. Defentsa eta erasorako funtsa bakarra gara, beraien zaldi eta zaldun korazatuena aurka. –Habusek adierazi zion orduan Azenariri musulmanek munduko zalduneriaren hoberena zutela, paradetako jassaren zaldunak ikustea baino ez zegoela. Zawik, ordea, oker zegoela adierazi zuen.

–Jassak zaldi eta zaldun ikusgarriak baino ez ditu ematen. Desfile batean ongi gelditzen dira; borrokan, ordea, bakarrik garaileak atera daitezkeenean ausartzen dira. Egoera larrietan ez dira ausartzen. Inoiz ez dute Kristauen zalduneria astunaren aurka egiten. Franko horiek, indarra, adorea eta beldur gutxi daukate. Gehienetan etxeko bigarrenak dira eta beste erremediorik ez dute armak hartu eta garaile atera ala zoro moduan borrokatuz hil. Haien aurka zuzen-zuzenean ezin da ezer egin. Mendiko lubizi geldiezin bezalakoa da. Bakarrik guk, gure zalduneriaren mugimendu azkar eta arkuekin egin ahal dugu zerbait.

## 20 - Emakume tamazigak.

1003ko urriaren hasieran emakume tamazigak heldu ziren Almeriara. Itsasontziak portura sartu bezain pronto uso mezulari batzuen bidez berria bidali zuten al-Rusafako al-Sanhayara. Prest zeudenez, bi egunetan Zawi, familia eta gerlari batzuk mugitu ziren haiengana laguntzeko eta bizitoki berrira eramateko. Azenari ere haiekin joan zen. Almeriako Elvirako ataritik ez oso urrun baina ongi gordetako leku batean kanpamentu bat antolatu zuten emakume haiek babesteko. Horrenbeste emakume horrela agertzea ezohikoa zenez, Zawik alde aurretik gerlari eta zerbitzari talde handia bidali zuen haien etorrera prestatzeko. Hori zela eta, Azenarik nabarmenki zaindutako kanpamentua ikusi zuen arratsalde hartan. Heldu baino lehen, hiri atari ondotik kanpamentura iristeko bi zaindari-talderen aurretik pasa behar izan zuten. Kanpamentuak ongi zaindutako hesiak zituen. Atariko zaingo handiek pasatzen utzi zituztenean antolamendu handiko tokia topatu zuten. Kanpaleku handi hura, sanhayarrek egin ohi zituzten kanpamentu militarrek bezalakoa zen. Ehunka denda inguruetan, kolore biziko jantziak zeramatzaten emakume gazte eta zerbitzariak ikusten ziren. Kale zabal batetik erdiguneko plazara eta beraientzat prestatutako denda handira heldu ziren. Garbitu ondoren, Zawik eta familiakoek emakume taldeak agurtu zituzten, baita gerlariak eta morroiak ere. Sanhayar tribu eta leinu askotarikoak ziren. Mila bostehunen bat emakume gazte etorri ziren senar eta etorkizun hobe baten bila, zortziehun bat gerlari eta beste hainbeste zerbitzari, gizon eta emakume. Bi urte haietan talde txikitan etorritakoekin jendetza izango zen al-Sanhaya al-Rusafako auzoan.

Bi egun eman zituzten handik karabana handian Kordobara abiatzeko eta lau egun kostatuz al-Rusafako Sanhaya auzora heltzea. Herrian bikoiztu zen populazioa. Zazpi mila biztanle baino gehiago ziren orduan auzoan, haietako erdiak gerlariak. Ezteia batzuk ospatu ziren handik hilabete batzuetara eta udaberrian beste batzuk antolatuko ziren ezagutu berriko bikoteekin. Habus eta Azenari ia haurrak izaki, ez ziren zeremoniaz gehiegi jabetu. Festa bai, besteekin ospatu zuten.

Negu hasieran, egunik labur eta ilunenetan, kristauen eguberri eguna zela-eta, Azenariri baimena eman zioten San Aciscloko elizan, Kordobako famatuenean eta handienean goizeko mezara joateko. Gerlari baten laguntzaz Kordobako mendebaldeko atari ondoko elizara hurbildu zenean, Gaztelako noble batzuk ikusi zituen haserre bizian elizatik abiatzen ari zirenean. Hantxe zebilen Isidoro meza-laguntzaileari galdetu zion zer gertatu zen. Honek kontatu zion guztia.

Sancho Garcia Gaztelako kondearen enbaxada heldu zen Kordobara. Leongo Alfonso V erregea haurra zenez, kondeak eskatu zuen haren tutoretza. Aitzakia zen ume-erregearen ama, Elvira erregina alarguntsa, Gaztelako kondearen beraren arreba izaki, gertutasunez Kordobaren baimena eta aldeko laguntza nahi zuen Sancho Garciak beste nobleen aurrean erregeordetza hartzeko. Abenduaren 23an Galiziako kondea zen Menendo Gonzalez agertu zen Medina al-Zahiran gauza bera eskatzera. Momentura arte, Galiziako kondea zen haurraren tutorea, Leongo gorteko kuriak jarrita. Bien eskaerak kontuan izanda, Abd al-Malikek Kordobako mozarabeen kadi edo jueza, Asbag ben Abd allah ben Nabil, auzian sartzea erabaki zuen. Eguberri bezperan abenduaren 24an Asbag juezak bi delegazioak hartu zituen bata goizean eta bestea arratsaldean. Medina-Zahiran juezak aipatutako gauza guztiak amiritarrari adierazi ondoren, Abd al-Malikek Gaztelako konde boteretsuegia izango zela iritzita, tutoretza Menendo Gonzalez ematea erabaki zuen eta Asbagi erabakia aurrera eramateko modurik hoberena bilatzeko agindu zion. Honek kondeen ordezkari San Aciscloren elizan gabon gaua otoitzean pasatzeko agindu zion, hurrengo egunean erantzuna emango ziela erranda. Hurrengo egunean erabakia adierazi zienean, Gaztelako kondearen ordezkari nagusia haserre bizian atera zen lehenbailehen

kondeari errateko. Garbi zegoen arazoak izango zirela. Hurrengo urtean, 1004. urte hartako azzeifa Gaztelaren kontra izango zen. Sancho Garciaren lurren kontrako azzeifa prestatzen hasi zen.

San Acisclo eguberriko meza ospatu bitartean, Azenarik ingurura begiratu zuen bere herrikoarekin diferentziak bilatuz. Erritua berdina zen. Latinez otoitz berdina egiten zituzten. Pinturak eta eraikina ez ziren oso desberdinak. Hala ere, jendearen jarrera eta janzkerak bestelakoak ziren: jantziak emakumeenak bereziki, koloretsuagoak ziren. Gizonak kolore argiak erabiltzen zituzten, maiz zuriak eta denak, emakume, gizon eta haurrak, izaeraz alaiagoak eta berritsuagoak ziren iparraldeko kristauak baino.

Elizkizuna bukatu zenean, ate ondotik Miriam ikusi zuen, Isidororen lehengusina. Isidororen ondora joan zen Azenari eta agurtu zituen. Neska oso polita eta isila zen. Apezak Isidorori deitu zionean, neskekin hizketan geratu zen mutila, hizketan edo bakarrizketan. Azenari gustura aritu zen bere esperientziak eta sentipenak kontatzen. Aurreko beste igande batzuetan ere gertatu ziren solasak, elizkizunak bukatutakoan. Azenariri gustatzen zitzaion neska, nahiz eta honek silaba bakar batzuk besterik ez erantzun.

Euria ari zuen etengabe. Negu bukaera hark hiru urte lehenagokoa ekarri zion gogora, ama hil zenekoa eta aitaren istripuarena ere bai. Arratsalde hartan Azenarik ez zuen ezertarako gogorik eta zalditegira joan zen. Asto urduri ibiltzen zen aspaldian, azkeneko egunetan ia atera gabe egoten baitzen. Goizetan buelta batzuk baino ez baitzizkion eginarazten ondoko patioan. Azenario bat eman eta orrazten hasi zen Azenari. Animaliak eskertu zion. Horretan ari zela, Habus agertu zen isilka eta galdetu zion zer zuen. Azenarik ezer ez zuela erantzun zion hasieran, baina gero bere tristeziaren arrazoia kontatu zion. Orduan, Habusek beste gauza bat galdetu zion.

–Azenari, barkatu baina inoiz ez didazu azaldu fraide izateko bidaltzearen arrazoia. –Orduantxe, ia gogoz, bere osaba gaiztoaren ibilerak kontatzen hasi zen etengabeko isuri mantsoan. Ondorioztatzen hasi zen:

–Donemiliagan nengoela, momentu batzuetan izeba edo beste osabak askatzera etorriko zirela pentsatu nuen. Hala ere, ez nuen gehiegizko esperantzarik, Semenoren maltzurkeria eta gaiztakeria izugarriak ongi ezagunak baintuen. Jakin banekien denbora luze baino luzeagoaren kontua izango zela ataka hartatik ateratzea. Orain ere gauzak ez dira aldatu. Egun batean familia kontuak argitu behar izango ditut. –Azenarik orduan bere familiaren historia aipatu zion, osaba horren usteak, leinua nagusitzeko gogoia eta berari egin ziona ere bai. Habusek ere beren historia kontatu zion lagunari.

–Gure historia ez da oso desberdina. Azken batean premu izatearen auzia da kontua. Inoiz ez dizut esan gure aita eta gure anaia nagusia nola hil zituzten. Duela lau urte bigarren aldiz gure leinuaren nagusigoa eztabaidatu zen eta horren ondorioz hil zituzten aita eta anaia. Hala ere, geroxeago azalduko dizut gertaturikoa. Aurretik, abiapuntua, lehenengo nagusigoarena argitu behar dizut. Gu beti izan gara sanhayarren leinu nagusia. Gure menpeko tribuak Arjetik Rif-eraino eta Kostatik Senegal eta Niger ibaieraino neurri handi batean menperatzen genituen. Kairuan eta al-Mahdiko Fatimiekin aliatu ginen, Ifriqiya-n gelditu ginelarik. Manad-ek, gure berraitona, al-Muizz kalifa babestu zuen Jariyi-tarrak garaituz. Ordutik, lehen Manad eta gero bere seme Ziri fatimitarren jeneralak ziren eta Achir eta Arjel sortu ondoren, Ifriqiyen geratu ginen. Al-Muizz kalifa al-Cairora joan zenean, Ziri hil ondoren, gure osaba Jusuf Buluginek Ifriqiyako emirra zen orain dela hogeita hamar urte. Al-Magreb osoan agintzen zuen, omeyatarrak behin baino gehiagotan garaituz. Duela hogeita urte Bulugin hil zenean, Zawik, leinuko zaharrena izaki, onartu egin zuen Mansur, Buluginen seme txikia emirtzat. Zawik iloba babesteaz gain, Ifriqiya gobernatu eta defendatu zuen. Garbi dago Zawik antzinako legeen arabera Mansurren oinordetza errespetatu zuela. Duela zazpi urte Mansur hil zenean, berriro leinuaren eta Ifriqiyaren

oinordetza zalantzan jarri zen. Zawik berriro defendatu zuen adar nagusia, Badis txikia babestuz. –Habus etena egin zuen orduan zirrara batek jota. Ziritarren tragedia eta beren historiaren mamia kontatzera zihoan.

–Kairuaneko ulemek eta Zidane Kazar-rek, Badis-en amaren aita arabiarra eta gorteko interesak defendatzen zituena, imazighen legeen eta interesen kontrako politika jarraitu zuten. Fatimiek, burgesek eta gorteko administratzaileek botere ahula nahi zuten, baina era berean nomaden aurkako neurriak hartu zituzten, sanhaya eta beste tribu imazighem kontrakoak hain zuzen ere. Abeltzainen ur eta pasabideko antzinako lege-arauak estutu eta zailgotu zituzten. Bestetik, ziritarren hiru printze nagusiak elkarren aurka jarri nahi zituzten. Hamud ben Bulugin, Maksan ben Ziri eta Zawi. Osaba Zawik borroka odoltsuak ez sortzeko Hamud bahitu eta mendebalera bidali zuen, baina ez zuen Maksan, gure aita, konbentzitu eta honek Medea bere jabegoa utzi, Argel hartu eta tribuei deitu zien Kairuaneko botere ustelaren kontra. Zidanek fatimien armada batekin inguratu zuen Achir, Zawiren hiria, eta gau batean gure aita Maksan eta anaia erail zituen – berriro gelditu zen Habus. Indarrak bildu zituenean jarraitu zuen.

–Zawik, al-Manzorren eskaintza aprobetxatuz, ahal izan zuenean sanhayar tribuko gerlariei deia egin zien, bere eta gure familia hartu eta al-Andalusera ekarri gintuen duela hiru urte. Gure lehengusu Hamud Argelen dago, sanhayar tribu batzuen buru eta Badis Kairuanen emirra da. Zuek, Baskoniako errege leinuen artean gerra odoltsurik ez izatean zorionekoak zarete. Ez dakizu zer den ahaideak horrelako egoeran izatea. Azenari, gomendio bat ematen uzten badidazu, zure lasaitasuna oinordetza baino garrantzitsuagoa dela esango nizuke. Zer egin behar duzu, zure osaba eta anaia hil? Hobe zaude gurekin gerlari on bat bihurtu artean. Ni zure laguna nauzu. Badakizu. –Beren istorioen gertaera latz eta larriak zirela-eta, bi mutikoak hunkituta, besarkada handia eman zioten elkarri.

## 21 - Salma, Zana eta Miriam.

Salma Azenariren amodio platonikoa zen. Adin diferentziaz aparte, ezinezkoa zen kristau batentzat emakume musulman batekin ibiltzea eta horretaz gain printzesa izaki, noble boteretsu batekin ezkondu nahi zuten. Lagunak ziren eta kito. Bestela gertatu zen Zanarekin. Bera ere musulmana zen, baina zerbitzaria eta adin beretsukoa. Elkarrekin aritzen ziren askotan. Zana, Salmaren zerbitzaria zen, Ifriqiyatik etorri berria. Bihurria, alaia, ederra eta berritsua zen. Zanak askotan zirikatzen zuen Azenari. Lagunak izatera heldu ziren. Habus gaixotu zen garaian gertatu zen. Denbora luzez egon zen ohean indarrik gabe, sukar handiz. Habusek ez zuen neska gustuko eta Azenarik lagunari bisita egin ondoren, harekin elkartzen zen arratsetan besteei bromak egiteko. Joko bat bezalakoa zen arratsetan elkartu eta jauregian edo inguruetan jendea ikuskatzea. Ahal bazuten ziri ederra sartzen zieten petralenei. Egun batean jakiren bat lapurtzen zioten sukaldariari, hurrengoan zerbait ezkutatzeko zioten mayordomoari edo bestela haren laguntzaileari... Ondoriorik gabeko bihurrikeriak ziren gehienak. Pixkana konturatu gabe, ordea, elkarrekiko harremana beste gauza bat bihurtu zen. Gau batean, gauerdia baino lehen, garbitokian Hasam mayordomoaren laguntzailearen arropa garbia ezkutatu zuten kostata aurkituko zuen leku batean. Arropa artean, pertsona ezagunen jantziak probatzen ari zirela, Zanak barreari eutsi ezinik, Azenarik ahoa estali eta konturatu gabe estutu zuen haren gorputz mehea. Neska barretik borrokara pasa zenean, lurretik arropa gainean bueltaka bata bestearen gainean ibili ziren, ahoan musu luze batekin elkar harritzen zuten bitartean. Momentuan izutu baziren, berehala ekin zioten laztantzeari. Zanak moztu zuen, korrika bere gelara joan zenean. Azenarik amets batean bezala pasa zuen hurrengo egun osoa. Zana baino ez zuen buruan. Gauean neskak bilatu zuen mutila eta hornitegi batera eramanda jarraitu zuten musuka eta laztanka. Denbora luzez elkartzen ziren besteak oheratzen zirenean. Bi gaztetxoak, artean ez zituzten hamabi urte eta jolasak baino ez ziren haiek. Bestalde, Habusek bien istorioa jakin zuenean, sartu gabe, harreman mota hura uzteko aholkatu zion Azenariri. Nolabait ere, isilean eraman zuten haien artekoa eta oso noizean behin elkartzen ziren ezkutuan. Arazo handiak izan ahal zituztela konturatu ziren nonbait.

Udaberri hasiera hartan jakin zutenez, Kordobako armada Gaztelako lautadetara bidaliko zuten. Carrioneko kondearen laguntza izanen zuten. Beni Gomez-ak Sancho Garciaren etsairik handienak ziren betidanik eta Menendo Gonzalez Galiziako kondeak ere gerlariak bidaliko zituen Kordobakoekin batera Dueroko herriak eta gazteluak birrintzeko.

Udaberri hartan, Habus eta Azenari Sevillara bidali zituzten banu Hayyay familiakoekin arabiar hizkuntzan, filosofian eta matematikan trebatzeko. Apiriletik abuztura Abu Umar Ahmad ben Muhammad ben Hayyay-k, Sevillako aristokrata eta geoponoa, bi mutilak gonbidatu zituen Zawiren zorduna sentitzen zelako. Aurreko udan Zawik bere seme bat salbatu zuen Iguadalako borroka batean eta honek ordainetan bere laguntasuna eskaini zion. Banu Hayyay familia Sevillako boteretsuena zen. Garai batean banu Jaldunekin batera arabiar aristokraten interesen alde borrokan ibili ziren banu Angelino eta Sabarico muladien kontra. Ehun urte lehenago muladiak eta banu Jaldunak garaituta, Kordobatik autonomia lortu zuten eta ordutik Sevillako gobernua kontrolatzen zuten. Hayyay familiak ez zuen inolako interesik Kordobako gobernuan eta Zawiri esker onez, Abu Umarrek lagunduko zion mutilen heziketan. Mutilak kultura arabiarrean sakontzeko zailtasunak jakinda, gustura gonbidatu zituen bere etxera. Mutilak eta beste bi morroi gazte Sevillako hayyaytarren jauregian maisu espezializatu batzuekin, arabiera, poesia, filosofia eta matematika ikasten arituko ziren. Hura, benetako eskola bat zen. Morroiek ez ezik, muladi eta arabiar jatorriko gazteek ere ikasten zuten. Lau "sanhayarrak" aparte, beste lau kanpotar ari ziren ikasten, Kordobako muladi bat, beste bat Alakantekoa, Zarakustako mozarabe bat eta Toledoko judutar bat ziren. Sevillakoak bi baladi, bost

muladi, mozarabe bat eta beste judutar bat. Beraien artean taldeak egiteko arrazoia, erlijio edo jatorri soziala baino bertakoak ala kanpotarrak izatea izan zen. Sevillako jaldundarra eta hayyaytarra bost morroi muladiekin eta beste erlijioekoen elkartzen ziren edozeren gainetik sevillatarrak sentitzen zirelako. Bestaldetik kanpotarrek beste erremediorik gabe bat egin behar zuten defendatzeko. Baina kompetentzia hori kirol eta jokoetarako mugatzen zen, ikasketetan zirikatzea debekatu baitzieten, zigor gogorak jasotzeko mehatxupean.

Mutilek, programa bat jarraituz, egunero ariketa fisikoak, garbiketa eta gosariaren ondoren ordu batzuk ematen zituzten jakintsu haiekin. Matematika eta aritmetikaren ondoren, filosofia ikasten zuten eta arabieraren ikasketa gogorak izaten zituzten beranduago. Arratsaldean otordua eta atseden txikiaren ondoren jarraitzen zuten arabiera eta poesiarekin. Korana erabiltzen zuten askotan. Arabiera garbian hitz egin behar zuten eta akatsak zuzentzeko lan gogorra eginarazten zieten. Noizean behin, larunbat gehienetan, ikasketa bereziak izaten zituzten janzkerari buruz edo zaldun eta noble batek jakin beharrekoaz. Abu Umar Ahmad, hayyay-tar buruak berak nekazaritzaz eta abeltzaintzaz irakatsi zien:

–Bihar eta etzi gure almunia ikusiko duzue. Guk, lurraren jauntxook ere –esan zuen ironia eta umore ona zuela erakutsiz–, lurraren produkzioa, administrazioa eta nekazarien ongizatea bilatu behar dugu. Aurreko saioretan laborerako garaiak, lurraren prestaketa, ongarritze, ureztatze sistemak, jorraketa, inausketa, txertatze eta uzta biltzeko elkarlanaren banaketaz hitz egin nizuen eta idazkiak irakurri dituzue. Orain, almuniako nekazarien bizitza, baldintzak eta lan banaketa onak zein diren aztertuko ditugu. Alaren nahia eta justiziaz gain, hobe da lan egileak osasuntsu eta prestuak izatea – hala mintzatu zitzaizen jaun handi hura.

Hurrengo egunean bi legoara zegoen almuniarik aberatsena ikusi ahal izan zuten. Laboreak zainduta ikusten ziren, biltegiak ordenatuta eta animaliak osasuntsu. Etxe handiaren ondoan langile eta morroien etxeetara joan ziren. Pertsona zaharrek eta ume txikiak jantzi egokiak eramaten zituzten. Emakumeek etxe garbiak mantendu, janaria prestatu eta bertan langintza batzuk burutzen zituzten. Gazteek lanbideak ikasten zituzten. Administrazioaile nagusi eta zerbitzu-buruarengana joan ziren. Abu Umar Hayyay-k azaldu zien haien funtzioa:

–Administrazioaileak funtzionamendua zuzentzen du. Nik nahi dudanean etxaldearen martxaz galdetzen diot eta aldaketak agintzen dizkiot, baina Madmudek ez dit esan behar dena, gauzak zuzentzeko. Abdula, Madmuden agindupean dago; baina, egin beharrekoa garbi izan ondoren, berak daki lana nork eta nola egingo duen, materialak eta denborak kontuan izanda. Edonola ere, jendea, nekazariak zaindu behar ditugu. Ezinezkoa ezin da eskatu.

Bi mutilek asko eta gustura ikasi zuten. Arratsaldeetan jolasten ziren jauregi handi hartan. Neskari edo emakumerik ez zuten ikusten, baina ez ziren aspertu. Xakean ikasi zuten, joko eta pilota kirolak jokatu zuten taldeka. Beti Sevillakoek kanpotarren kontra jokatzen zuten ia araurik gabe, buru baten tamainako pilota beste taldekoen atarian sartu behar zuten, gehienetan esku-besoez hartuta eta kideen laguntzaz. Bultza, traba eta kolpe txikiak onartu arren, ez zuten borroka zuzena eta buruan kolpatzea onartzen. Egun batzuetan zalditan ateratzen ziren paseatzera. Giro ona zuten gehien artean. Bazen gaizki tratatzen zituena, baina berdin jokatzen zuen beste batzuekin. Uda aurreratu ahala gero eta gusturago zeuden ikasketetan. Arabieraz aurrerapen handia egin zuten. Habusek honela adierazi zion Azenariri:

–Azenari, arabiar jatorriko aitonen seme ematen duzu. Arabiera baino ez dakienaren ahoskera duzu.

–Ez adarrik jo. Barregarri ez gelditzearekin konformatzen naiz. Zuk bai aurreratu duzula! Poesia ederrak egiten dituzu.

–Egia da poesia gustatzen zaidala. Txikitatik Zawirekin arabiar poesia entzun dugu eta orain nik neuk egiten asmatzen dut, nonbait. Baina zuk izugarri aurreratu duzu. Benetan. Nekatuta ez zaudenean arabiar jatorrikoa ematen duzu.

–Zuk esan duzu. Nekatuta ez nagoenean.

Solasaldian Habusek eta Azenarik aipatzen zuten bezala, bi mutilak, gauero afaldu ondoren eta lotara joan aurretik, poesia eta istorioak entzuteko elkartzen ziren besteekin. Eguraldi txarra zenean ikasteko erabiltzen zuten gelan edo maiz gau epel eta izartsuetan terrazan elkartzen ziren infusio bat hartzeko. Azenarik gustura entzuten zituen Arabiar jatorrizko istorioak, elezaharrak eta ipuinak. Siria, Mesopotamia edo Arabian lekututa, hango hiri, herri, oasi edo basamortuetan gertatzen ziren borrokak, abenturak eta amodiozko istorioak. Beti, noble arabiarra zen protagonista. Afrikan eta al-Andaluzen ere gertatzen ziren narrazio haietako batzuk. Hasieran, Azenarik entzun baino ez zuen egiten; denborarekin Euskal Herriko sorgin, basajaun, lamia eta mutil ausarten istorioak etorri zitzaizkion gogora. Behin basamortuan eta oasi batean girotutako abentura gogoan, isiltasunean, artean istorioaz gozatzen ari zirenean, Azenarik nahi gabe aipatu zuen bere herriko istorioak, erreka, mendi, baso eta leizetan gertatzen zirela eta beste mutilek zerbait kontatzera behartu zuten. Kostata hasieran, poliki giro eta pertsonaia desberdinez jantzitako kontakizuna gogoratzen hasi zen. Mariren istorio bat zen. Paisaia miragarrian, istorioaren edertasunak eta ontasunak sorginduta zituzten entzuleak. Momentu batean gelditu zenean, beste mutilen begiradek eta etxeko Amin ben Hayyayk jarraitza animatu zutenean, beste erremediorik ez zuen izan. Oso ongi kontatu ez bazuen ere, istorio desberdina zenez, denek gustatu zitzaizela esan zioten bukatu zuenean. Horrela, gauero zerbait kontatzera animatzen zuten eta poliki, asko aurreratu zuen arabiar hizkuntza praktikoan, besteak entzunez eta bera mintzatuz.

Habus, ordea, poesia errezitaldietan zen gustura. Ia istorioetan izaten ziren gai berdinak oinarri, poesia arabiar klasikoak irakurri edota buruz errezititzen zituzten. Gazte sanhayarrak parte hartu zuen entzunaldi eta irakurketetan, baita poesia bat edo beste prestatu eta besteentzat aletu.

Amin ben Hayyayk ongi hartu zituen Habus eta Azenari. Bera zen Abu Umar Ahmad, hayyay-tar buruaren laugarren semea eta gainera orduko emazte kutunarena. Ez zen batere harroa. Kirolak, zaldiak, ehiza eta zetreria gustatzen bazitzaizkion ere, kultura eta jakindurian interesa handia zuen eta sentibera zen. Berari esker taldean ez zen giro txarrik. Bestela, oroitu behar da hayyaytarrak borrokalariak izateaz gain, jassako askok bezala, edozeren gainetik kultura interesak zituztela. Umar aita bezala, Amin ez zen nolana hikoia. Amin bi mutilengana hurbildu zen. Berari gehien gustatzen zitzaiona istorioen kontaketa zenez, Azenariren hurbiltasuna bilatu zuen. Gaueko bileraz gain, edozein momentutan izaten zen “baskuni”-arekin, berak deitzen zuen bezala. Maiz galdetzen zion Baskoniaz, edo frankoen lurraldeaz.

–Al-Baskuni, Aznarri, esadazu nolakoak diren Pirinioetatik iparraldera dauden lurraldeak. Dena baso handi bat al da?

–Nik ez ditut lurralde guztiak ezagutzen. Gure lurretan mendialdea pasata, Garuna ibairaino Waskonia dago eta gure herrikoak dira. Barcelonako markatik iparraldera, Langedoc, Okzitania eta Akitania daude. Azken horietan eta Frantziako erresuma handian frankoak bizi dira. Hiri txikiak dituzte, nekazal lurrak herrien inguruan daude eta arrazoi duzu lur gehienak basoz beteta daudela aipatzean. Batzuetan egunak pasatzen dira basoak zeharkatzeko eta herri batera heltzeko.

–Eta frankoak hain gerlari onak al dira? Armada handiak al dituzte?

–Nik ez dakit oso ongi. Gure aitak esaten zuen garaiezinak direla zaldi handien gainean armadura astunak eta zeharkaezinak janzten dituztelako –Azenarik ulertu zuen Aminek jakin-mina zeukala iparralde urruneko herri eta bizitzaz eta pentsatu zuen berak, bitartean, al-Andaluseko jendarteaz jakin-min berdina zuela. Solasaldia bukatuko zelakoan, ausartu zen galdetzeraz.

–Barkatu Amin, ez bazaizu inporta nik jakin nahi nuke zuek jassakoon baloreak zein diren –adi begiratzen ziola eta baiezko keinu batekin kontatzera animatzen ari zela konturatuta jarraitu zuen–. Ez dut ulertzen al-Andalusen talde desberdinen artean duzuen etsaigoa.

–Hayyaytarrok ohorea dugu balorerik gorentzat. Gure aitak familia du bere helburu nagusia. Islama da gure erlijioa, Ala gure jainkoa eta Muhammad da gure profeta. Balore horietaz landa edertasuna eta bizitzaz gozatzea da gure eguneroko jarrera eta ez ditugu nahi zabarkeria eta gaiztakeria.

–Bai, ulertzen ditut balore horiek nobleenak baitira. Hala ere, ez dut ulertzen eslaviarrekin duzuen etsaigoa eta muladietako ezinikusia; eta bestetik, ez dituzue beste erlijioak gaizki tratatzen, kristauok egiten dugun bezala.

–Oso gai korapilatsua da hau. Nik esango nuke oso lehiakorrek garelako eta proba da duela ehun urte baladion artean eta muladien aurka izandako borroka. Ordutik garbi gelditu zen zein ziren agintariak. Gu hemen gara agintariak eta Kordoban omeyatarrak. Edo ginen...

–Baina zergatik duzue eslaviarrekin halako etsaigoa?

–Kontatu behar nizun Almanzorrek Kordoban gauzak aldatu zirela. Almanzor gutako bat zen, jatorrizko arabiarra, baina botere osoa kontrolatzeko bere fata eslaviar batzuei eman zien administrazioko postu gorenak. Horregatik gorrotatzen ditugu. Berdin zaizkigu jendarteko maila baxuagoan dauden merkatari muladiak eta mozarabeak. Horiek ez dute garrantzirik. Judutarrak merkatari handienak, bankari, zientzialari eta jakintsuak dira, jendartean arriskurik sortuko ez dutenak. Musulmanak gara eta dinmiak, liburuko erlijio kristaukoak eta judutarrak errespetatzen ditugu. Eta berbereak, gerlariak baino ez dira. Boterea hartu duten eslaviarren kontra, horra hor gure oraingo borroka.

–Bai, ulertu dizut. Eskerrik asko. Sozietateko baladietako agintari eslaviarrek, muladietako mozarabeek eta berbereek elkar mesprezatzen dute eta elkarren kontra egiten dute borroka. Horra hor al-Andaluseko arazoa.

–Baliteke arrazoi izatea.

Beste arabiarra, jaldundarra, ez zen haiengana hurbiltzen. Bakarrik hayyaytarrarekin zituen harremanak. Beste mutilek, muladi sabaricotarra barne, ez zieten kasu gehiegirik egiten, ez hurbiltzeko

ezta kontran jartzeko ere. Mozarabeak eta judutarrak, dena den, aparte ibiltzen ziren ahal zuten guztietan. Zorionez, jaldundarrarekin izan ezik, Habusek eta Azenarik ez zuten inorekin arazorik izan eta udaberri eta uda zoragarriak pasa zituzten. Ostiraletan meskitatik pasa eta gero, gehienak hurbiltzen ziren ibai ondora arratsalde beroetan zuhaitzen freskura bilatzera eta uretan jolastera.

Handik gutxira, irailaren erdialdean itzuli ziren Kordobara. Garai hartan Azenarik izan zuen Auria eta Anaren berri. Al-Rusafako morroien artean galdetu zuen ordura arte emaitzarik gabe. Egun batean morroi-lagun batek haien berri eman zion. Banu Hudayr familiako baten konkubinak ziren. Umeak izan ondoren izenak aldatu zizkieten. Etxeko andreak ez baziren ere, ongi bizi ziren harenean. Haietzako mezu bat bidaltzea lortu zuen eta erantzun gisa beste bat jaso zuen. Pozik hartu zuen lagunak izandakoen berri. Hala ere, oharrak triste utzi zuen: “Kaixo, Azenari. Gu ere pozten gara gauzak ongi atera zaizkizulako. Gure bizitzan umeak baino ez dira inportanteak. Sentitzen dut adieraztea, baina ezin dugu harremanetan jarraitu, ezta eskutitz edo oharren bidez. Gure senarra oso jeloskorra denez gero, gure eta umeen onerako utzi behar diogu harremanak izateari. Hoberena nahi dugu zuretzat, baina agurtu behar zaitugu betiko. Maitasunez, Auria eta Ana.”

1004ko udazkenean Zawi eta gerlariak itzuli zirenean bi gaztetxoak Kordobako madrasa nagusira bidali zituzten ikastera. Edonola ere, arabierarekin ikasketak jarraitzeko gramatikari on batengana zuzendu ziren. Asteazken eta ostegunetan zenbait orduz ikasten zuten. Yehuda ben David, Hayyuy deitzen zutena zen beren maisua. Hayyuy, Menahem ben Saruq gramatikari handiaren ikaslea izan zen. Judutarra izanda ere, arabiar kulturaz eta hizkuntzaz Kordobako eta al-Andaluseko irakaslerik onenetarikoa izango zen, onena ez esateagatik. Jassak ezin zuen onartu, baina beste hizkuntzalariek askotan galdetzen zioten zalantzak zituztenean. Hayyuy-k ikasle gutxi batzuk zituen, onak edota interes handia erakusten zutenak. Azenarik eta Habusek beste gai batzuk ikasten zituzten: matematika, geografia eta astronomia Arum al-Basrranik erakusten zien larunbat eta igandeetan eta filosofia eta dialektika Hammud ben Jariyak erakusten zien astelehen eta astearteetan.

Hayyuyren irakaspenak meskita nagusiaren ondoko madrasan izaten ziren. Hala ere, udazken hartan meskita nagusian biltzen ziren maisua eta ikasleak. Bazkaldu eta deskantsatu ondoren limoiondoen itzalpean, patio nagusian esertzen ziren potin edo botijo batzuen inguruan beraiek eramaten zituzten kuxin batzuen gainean. Maisuak galderak egiten zizkien eta zekitena eta ez zekitena jakin ondoren, zalantzak argitzen zituen zenbaitetan idazki batzuk irakurraraziz. Oso gizon apala zen eta ongi ulertzen zitzaion. Berarekin gustura ziren ikasleak eta ez ziren gaizki sentitzen galdetzean eta erantzutean. Ikasleak ez ziren asko eta parte hartu ahal izaten zuten arazorik gabe. Berehalaxe ezagutu zuten elkar. Irakaslerik aurreratuenak baladi bat eta judutar bat ziren. Lehena, ibn Hazm ministroaren semea zen, Abu Muhammad Ali ben Said ben Hazm, mutil argia, polemikazale eta haserrekorra zen; bestea, Semuel ben Nagrela, argia bazen ere, lasaia eta atsegina.

Batzuetan, Hayyuy maisuak esapide edo hitz baten jatorria ematen zien hebraieraren adibide bat emanez eta Hazm-ek eztabaidatzen zion edo dudatan jartzen zuen hebraieraren erabilpena, arabiera aparta eta hizkuntza nagusia zela uste zuelako. Semuelek, berriz, maisuarekin ados, arabiera ezagutzeko hebraieraren balioa defendatzen zuen. Habusek eta Azenarik arabieraren ezagutza sakondu zuten eztabaidetan parte hartu gabe.

Hazmek interes handia zuen gai desberdinetan eta edozein momentutan aprobetxatzen zuen gai haietan aritzeko. Teologiaz mintzatzen zen askotan Semuelekin. Beste baladiekin arabiar leinuez aritzen zen eta edonorekin eztabaidatzen zuen filosofiaz, Aristotelesen razionalismoa defendatuz. Zioenez, egia eta faltsua ezagutu zitekeen zentzu ona erabiliz. Edozein modutan, bestetik, Alarengan fedea jartzen zuen edozeren gainera eta besteen arrazoiak Koranaren aipamenekin isildu nahi zituen. Azkenik, berarengan bitxiena, uste zuen gizakiaren helburua bere atsegina bilatzea zela. Aldi berean

bere helburuaren arabera arrazoi nagusi asko eta desberdin erabiltzen zituen baladi argi hark. Bi mutilek asko ikasi zuten giro eta pertsonalitate haiekin. Bazen noizean behin agertzen zen gazte helduago bat. Ibn Hayyan, Abu Marwan Hayyan ben Jalaf ben Hayyan, gazte baladiak beste ikasleek baino lauzpabost urte gehiago zituen eta katib baten laguntzailea zen. Bere aitak Abd al-Maliken vali bat zen eta politika eta historia interesatzen zitzaizkion. Heziera onekoa zen, besteekin errespetu handikoa eta iritziak asko pentsatzen zituen. Hazmekin elkartzen zen klaseak bukatutakoan, gustuko gaiez mintzatzeko. Gehienetan, omeiyatarren dinastiaren zuzeneko agintearen aldeko argudioak defendatzen zituzten.

Habusek harreman ona egin zuen Semuel Nagrelarekin. Askotan klaseak hasi aurretik, maisuaren zain zeudenean eta Hazm bere eztabaidetatik libre uzten zituenean, Habusek eta Semuelek judutar herriari buruz hitz egiten zuten, Habusek amona bat judutarra baitzuen eta gezurra bazirudien ere sentimenduez mintzaten ziren. Azenari Hayyanekin mintzaten zen al-Andalus eta iparraldeko erresumei buruz, Hazm agertu eta bere iritzia jarri arte.

Harrigarriena Hayyuy maisuaren obsesio bat zen: ikasle guztiak, kristau edo judutar izanda ere, hafiz bihurtu nahi zituen. Hafiz-a al-Koran memoriaz dakitenean titulua zen eta arabiera ongi ezagutzeko korana ongi ezagutu behar zutela uste zuen.

Hurrengo urteetan mutilak gerlari bezala trebatu eta kultura arabiarrean murgiltzen ziren bitartean, Zawi Zirik gero eta garrantzi gehiago hartu zuen Abd al-Maliken ondoan. Hiriko agintaritzaren kontrola hartu zuen, nahiz eta sahib al-Surta eta arifak arabiarrek izan. Ordura arte berbereek ez zuten hainbesteko garrantzirik izan. Al-Andalusen mendeetan joandakoak, jendartearen behe maila osatzen zuten. Konkistatzaileen artekoak izanda ere, gehienak nomada pobre eta kulturagabeak izateagatik, mendialdeko eta barnealdeko lurralde lehor eta pobreetara bidali zituzten. Orduan, Almanzorrek administrazioan izendatutako eslaviarrak neurri batean baztertuz, berbere buruak Abd al-Malikekin postu militar gorenetera heldu ziren, Zawi, diktadorearen eskuin eskua izanik. Zawi pisu handia hartu zuen Kordoba hiriko administrazioan eta baita bizitza sozialean. Berbereak ongi etorriak izaten ziren Medinat al-Zahiran. Azenari eta Habus gonbidatzen zituzten festa eta bilera askotara. Han topo egiten zuten boterearen inguruan mugitzen ziren pertsonak eta taldeek. Azenarik pertsona bitxiekin hitz egiten zuen. Behin hamasei bat urteko mutil eunuko eslaviar bat ezagutu eta al-Hisham kalifaren ingurua ezagutzeko aukera izan zuen.

–Barkatu baina nolako da zuen bizitza?

–Normala. Gure lana, fata nagusiek agintzen digutena betetzea da. Lasai, ulertu dizut eta badakit zer jakin nahi duzu. Guk kalifaren etxeko beharrak betetzen ditugu. Hareneko konkubinak eta printzesak zaintzen ditugu, baina gure nagusiak al-Andaluseko Altxorraren administratzaileak dira eta paper garrantzitsua dugu Estatuaren martxan. Abd al-Maliken etxean ere guk antolatzen dugu dena.

–Emakume horiekin harreman onak al dituzue?

–Dimni, nire gustukoa zarenez esango dizut gu morroiak baino lagunak garela beraientzat. Batzuetan lagun-lagunak gara eta agerian ez den bitartean ez dugu arazorik. Ez gorritu. Zure aurpegiagatik dakit zer pentsatzen duzun. Gu eunuko gara. Ezin dugu umerik sortu, baina zakila dugu eta gozatu ere gozatzen dugu. Nik harremana izan dut printzesa batekin baino gehiagorekin, baina nahiago ditut mutilak, zu bezalakoak... –Orduan bai lotsagorritu zela Azenari. Dena den, gauzak argi utziz, jakin-minez galdetzen jarraitu nahi zuen.

–Nik mutilekin ez dut bat ere..., ezer egiteko gogorik... Mesedez, esadazu eslaviarrok nola konpontzen zareten arabiar jatorriko agintariekin.

–Eguneroko lanak egiten ditugu. Nolanahi ere, baladiek mesprezatzen gaituzte eta ez dute eslaviar bat ikusi nahi. Administrazioako postuetarako borrokatzen gara, baina amiritarrek nahiago gaituzte, fidelagoak garelako. Ez dugu ondorengorik boterea pasatzeko eta gure etorkizuna gure nagusien esku dago. Hala ere, zuek sanhayarrak ere bazarete etsai handiak. Zawik gure esparru batzuk kendu dizkigu. Kontuz ibili zaitetze boterearekin, zuen aurka buelta daiteke eta. Egun batean kalifak boterea berreskuratuko du, Madinat al-Zahrara joango gara eta zuek kuartel ziztrineta itzuliko zarete.

–Badakizu ni ez naizela sanhayarra eta kristaua naizela ezta?

–Bai badakit. Azenari ben Enneg al-baskuni zara, Habusen laguna. Baina sanhayarrekin zaude eta zure jatorriak ez du garrantzirik. Ni neu ez naiz eslaviarra, germaniarra baizik. Kalifaren guardia ere eslaviarra deitzen badute ere, gerlari gehienak frankoak eta germaniarrak dira. Egia da fata buruak jatorri eslaviarrekoak direla, baina kalifaren guardian eta eunuko gehienak germaniarrak gara. Orain, ez bazaizu inporta mutil eder baten bila ibiliko naiz. –Horrela agurtu zuen eta festaz gozaten jarraitu zuen Azenarik.

Beste batzuetan baladiek eta baita omeyatarrekin izan zuten tratua. Lehenengo hauek erabat baztertuta sentitzen ziren, baina beren gorrotoa eta haserrea eslaviarrentzat gordetzen zuten, berbereen garrantzia pasatuko zelakoan. Festak, urtebetetzeak eta erlijio festa nagusiak ospatzen zituzten. Hala ere, janari goxoak eta ardo kilikagarriak hartu ondoren, asko mozkortzen ziren eta festa gehienak musika eta dantza lagun, bakanal eta orgia bihurtzen ziren. Gutxitan izaten ziren literatur eta hitzaldi gauak, baina mutilei azken hauek gustatzen zitzaizkien.

Urtero azzeifa bat edo gehiago egiten zuten kristauen lurretan. 1005. urtean Galiziara bidali zuten armada. 1006an Oska eta Barbastrotik pasata, Pirinioetako hiriak hartu zituztela zabaldu zen. Azenarik, Abinyunash birrindu eta Shant Yuanisch mehatxatu zutela entzun zuenean, pentsatu zuen San Juan hori Baskoniako Aragoi aldeko Peñako San Joanes santutegia izango zela. Kapitain sanhayar bati galdetu zion eta lasaitu ederra hartu zuen. Armada musulmana ez zen Baskoniako lurretan ibili. Gero, Zawik berak kontatu zion nahiz eta ez birrindu, Roda eta Ribagorza Behea konkistatu zutela, herri haietan baziren bi leku San Juan izena zutenak. Iruñeko erresumakoak ez baziren ere, han baskoiak bizi zirela entzuna zuen Azenarik. Horrek tristetu zuen mutila.

## 22 - Abd al-Maliken kontrako altxamendua.

Tarafa, Almanzorren fata edo konfiantzazko esklaboa, al-Zahirako maiordomoa zen bere nagusia hil zenean. Beste fata amiri garrantzitsu batzuk ziren: Wadih, erdiko markako agintari militarra eta Zuhair, Jairan eta Muchahid administrazioan. Denek osatzen zuten Kordobako aristokrazia eslaviarra, arabiar aristokraziako Jassarekin lehian postu administratibo edo militar garrantzitsuenak lortzeko borroka bizian arituz. Tarafak, hadhib-a, lehen mandatariaren postua lortu zuen. Tarafa bera, Abd al-Malik ben Idris ben al-Chaziri, gorteko idazkari edo katibarekin eta Isa ben Said al-Qatta visirrarekin elkartu zen konspiratzeko, azpijoan aritzeko, denak Almanzorren babespean igo zirenak. Isa ben Saidek, banu Hudayr eta banu Futays-ekin bat egin zuen, baladiak armadako postuetan sartzeko, Abd al-Malik eta Hisham II.aren kontra egiteko eta Abd al-Ramman III al-Nasirren biloba zen Hisham ben al-Chabbar boterean jartzeko. Abd al-Maliken amak, al-Dhalfa, konjuraren jakitun, horren berri eman zion semeari. Honek ez zuen sinetsi nahi, Isa ben Said eta Tarafa bere aitaren babespean goratu baitziren eta ordura arte konfiantza osokoak baitziren. Dena den, al-Dhalfaren probak baieztatu zituen eta exekutatu behar izan zituen. Ben al-Chabbar eta ben Idris al-Chaziri kartzelan sartu zituzten. Banu Hudayr eta banu Futays-eko buruak probarik gabe libre gelditu ziren.

1007an egin zuten azzeifa Gaztelaren aurkakoa izan zen. Sancho Garciak beste agintari kristau batzuekin Kordobaren kontra egin zuen berriro. Orduan Habus eta Azenari joan ziren mandatari lanetan aritzeko. Hamabost urterekin biak altuak eta gihartsuak ziren, arma-ariketetan trebeak baina borroketan esperientziarik gabeak. Bidaia hartan agintarien mezulari eta zerbitzuetan ibiliko ziren. Mutilei egunak pasa zitzaizkien konturatu gabe. Nagusien mandatuak bete bitartean, ez ziren konturatu bestelako prestaketez. Ekainean Guadiana pasatu eta Talavira aldera abiatu ziren. Lautada lehorrak zeharkatu zituzten. Zereal soroak horizatzen ari ziren. Uztak berehala izango ziren.

Tietar bailaran sartu ziren. Almendrondoak loretan ikuskizun zoragarria zen. Lautada lehorretan hainbat astetan aritu ondoren, mendi alderako inguru berdeak ematen zuen atsedena ez zen gutxi. Gredoseko mendateak eta maldak pasatu zituztenean belardi goxo berdeetan, ardiak, behiak eta zaldi taldeak ikusten ziren. Toledoko kora osoko jauntxoak animaliak ziren. Zaldiak ehiza eta gerrarako aproposenak ziren, azkarrak, eta erresistentzia handikoak. Zaldi talde gehienak arabiar-berbereak ziren. Azenari, armadaren atzealdean mandatu bat egin ondoren, zaldi taldeei begira gelditu zen. Behor-talde handiak ikusten ziren, hainbat familiatan elkartuta, moxalak eta zaldikoak ondoan zituztenak. Talde batzuk tordoak; besteak zuriak; bayo eta beltz banaka batzuekin nahasita zeuden. Zaldi berbereak arinak, gogorak, erresistentzia handikoak ziren eta arabiar osoak baino lasaiagoak. Azenarik ez zuen armada-burutzara itzultzeko premiarik eta zaindariengana hurbildu zen hitz egiteko. Haietako bi, goialde batetik zaldi banatan armadaren azken konboiei begira zeuden. Erromantzez agurtu eta galdetu zien:

–Egunon jainkoak. Azenari naiz, jaun berbere baten mezulari lanetan. Norenak dira zaldi talde hauek?

–Baita zuri ere. Ni Alonso naiz, morroien nagusia eta hau semea duzu. Hor ikusten dituzunak banu Yaisen behor-taldeak dira. Yaistarrak dira Toledoko zaldi saltzailerik handienak –bota zuen morroi nagusiak harro baino harroago, bereak balira bezala–. Behortegi batzuk dituzte, odol hari desberdinak mantentzeko. Gredoseko bailara hauetan bost behor-talde ditugu. Bakoitzak ehun bat behorrez osatua. Ikusten duzun taldea, berbere arrazako behorrek eta al-Mundir izeneko zaldiaren odol harikoak dira. Urtero bostehun moxal hazten ditugu, erdiak salmentarako. Ardiak eta behiak ere baditugu –gizonaren jarioa ez zen eteten. Nabari zen jarraitu behar zuela. Azenarik moztu nahian edo, galdetu zien.

–Zuen lana astuna al da?

–Ez asko. Moxalen jaiotze-laguntzetan ia bukatuta, zaindu baino ez dugu egiten. Hogeita bat gizonekin egiten dut lan eta udazkena bitartean hemen ibiliko gara begirale, lapurretarik ez izateko. Beno, gaztagintzan ari dira mutilak gelditu gabe.

–Gaztarik salduko al didazue?

–Saldu ez. Ezin dugu. Trukean zer emango zenuke? –aldean zuena begiratu zuen.

–Labana ezin dizuet eman, bakarra dut-eta. Zapia nahi baduzue.

–Bost gazta biengatik.

–Zapia bi gazta horien truke. Bat bakarra aski dut, baina.

–Labanaren truke emango dizkizut.

–Ezin dut. Oparia da eta dudan on bakarra. Ez dago traturik.

–Ongi da. Zapiaren truke –trukea egin, agurtu eta armadaren azken gurdi eta gerlarien atzetik abiatu zen poliki, talde ederren artetik animalia zoragarriei begira.

Tormes haran eta errekatik behera jarraitu zuten. Muga-lurralde hura biztanle gutxikoa zen. Errege, konde edo emirren agindurik gabe, artzain eta nekazari libreen tokia zen alde batetik, segurtasunik gabekoa bestetik. Baso askoren artean noizean behin belardiak izaten ziren. Han arituko ziren ardiak eta artzainak alde eginda, ez zuten inorekin topo egin. Salmantika erromatar hiri zaharraren hondarren ondotik pasa ziren. Ez zuten zuzenean Gaztelara joko. Zamora bidean, Leongo armada, ordura arte Dueroko ekialdean aliatuekin batera, Gaztelako armadatik apartatu zen bere lurraldea defendatzeko. Zamora eta barneragoko gazteluetan errefortzuak jarri zituzten eta enbaxada bidali zioten Abd al-Maliki. Amana, bakea eskatu zioten, animalia-saldoak eman zizkieten mairuei eta gerlari talde handia Gaztelakoen kontra borrokatzera bidali zuten. Duerotik gora jarraitu zuten oztoporik gabe. Herriak defentsarik gabe zeuden. Peñafielen eta Roan gelditu ziren atseden hartzeko eta gazteluak inguratzeko, zaldun talde batzuk barnealdera razziak egiten zituzten bitartean.

Habus kanpalekuan geratu zen sanhayarren janari eta hornitegiko arduradunaren laguntzaile. Azenari sanhayarren talde nagusiarekin iparraldera abiatu zen, baina ez zuen parte hartuko borroketan hala agindu zioten eta. Zawi eta bere kapitainekin ibili zen mandatuak egiten eta mezuak bidaltzen. Pisuergara zuzendu ziren lehenengo. Herriak hutsik zeuden eta aurkitzen zituzten animaliak elkartu, elikagaiak gurdietan sartu eta zaingo txikiekin bidaltzen zituzten kanpalekura. Gidari batzuen laguntzaz mendiko bideetatik Pisuerga, Arlanzón eta Arlanzón erreken elkargunearen inguruko herrietara heldu ziren. Torquemadan gerlari batzuek geziak bota zizkieten gazteluko harresi eta dorretik. Zawik herriko etxe batzuk erretzeko agindu ondoren, herria eta gerlariak bakean uzteko agindu zien bere gerlariei. Aurrera jarraitu zuten. Hurrengo herrixketan ez zuten ezer, ezta inor topatu. Quintana herri handiagoa zen. Ez zuten arazorik izan inor ez zegoelako. Herriarrak mendialdera joan omen ziren, baina gari eta garagarra asko aurkitu zuten eta berdintsu gertatu zen Palenzuela izeneko herrian. Begirale batzuek aurreragoko egoera adierazi zioten Zawiri. Hitz egin zuenak arnasestuka kontatu zion ikusitakoa.

–Gure atzetik zalduneria gaztelarra heldu da. Burgos lau-bost legoara dago. Asko dira, laurehun bat eta haserre daude beren herriak erretzen ari garela uste dutelako.

–Ongi da. Ez dugu aurrerago egingo, ez du merezi eta. Itzuliko gara kanpalekura, baina lehenago erakutsiko diegu nor garen. Torquemada ondoko pasabidean eginen diegu eraso. Ikasiko dute kontu gehiagoz jokatzeko.

Zaldun gaztelarrei ezustekoa eman ondoren, erretirarazi eta sanhayarrak itzuli ziren kanpalekura. Burgos eta gazteluren bat izan ezik, beste herriak musulmanen nahiera uzi zituzten bertako agintariek. Sanhayarrak, animaliak eta uztak eramanez eta esklabo batzuk egin ondoren, Clunia berriro konkistatzera abiatu ziren. Hirurehun bat gerlarik defendatzen zuten, inguratu baino ez zuten egin, zuzeneko erasoak hildako asko sortuko baitzuen. Sancho Garciak ere amana eskatu zuen, garantian aristokrata batzuk eskainiz. Ondasunik ez zuten eman musulmanek orduko hartuak zituztelako. Uda bukaeran berriro ziren Kordoban. Harrera handia antolatu zioten Almanzorren seme nagusiari. Mesquita nagusian ulemek eta Hisham-ek, al-Muzafar bi-Allah izendatu zuten Abd al-Malik.

Hurrengo urtean, 1008an, berriro egin zuten azzeifa bat Gaztelaren kontra, baina ez zitzaion ongi atera al-Muzafarri. Bi alditan eraso egin zieten gaztelauek musulmanei, batean gauez eta bestean espero ez zutenean. Gaztelarrek mendi-portuetatik alde egin zuten, kontraerasorako aukerarik eman gabe. Amiritarra ondoezak zegoen. Eguna botaka pasatzen zuen eta beherakoak ere jo zuen. Hilabete oso bat pasa zuten Medinacelin egoera zuzenduko zelakoan. Boluntarioengatik gertatuak ziren ezustekoak. Gerlarien animo falta zela, eta gaixo sentitzeagatik ere, Abd al-Malik al-Muzafarrek azkar bukatu zuen azzeifa eta irailerako itzuli behar izan zuten Kordobara. Abd al-Malik berriro atera zen Kordobatik azaro hasieran Sancho Garcia zigortu nahian. Hala ere, handik egun gutxitara larri sentitu zen, lehengo ondoezak eta bular aldean min sakona sentituz. Arraroa izan zen denbora gutxian amiritarra gaixotzea. Eztul itsusia zuen eta odoletan bustitzen zituen zapiak. Abd al-Ramman Sanchuelok, bere anaia, bertan gelditzeko eskatu zien kapitainei eta hurrengo gauean al-Muzafar hil zen. Artean azaroaren bukaera zelarik, Sanchuelok zuzendu zuen bueltan armada. Bera zen amiritarren ondorengoa.

## 23 - Fitna.

Abd al-Malik al-Muzafar hil zenean egoera okerragotu egin zen al-Andaluseren. Abdul Mutarrif Abd al-Rahman ben Abi Amirrek hogeita bost urte zituen boterera heldu zenean. Sanchul edo Sanchuelo deitzen zioten, Aba amaren aldetik Antso Abarka, Baskoniako erregea baitzen bere aitona. Harroa eta libertinoa zen eta ez oso argia. Hisham II.aren laguna zen. Biek ama baskoiak zituzten eta ume mimatuak izan ziren txikitatik. Handitan ere, egiten zekiten gauza bakarra jolastea eta ongi pasatzea zen. Sanchuelok askotan gonbidatzen zuen kalifa Madinat al-Zahirara. Gau aldean zuriz jantzita eta aurpegia estalita emakume talde handi bat algaraka Kordoban zehar pasatzen zenean, denek zekiten Hisham haren osoarekin Sanchueloren festara joaten ari zela, aurretik eta atzetik zaintzaileak zituztela ikusita. Kantariak, dantzariak, bufoiak, dudazko artistak eta trabestiak izaten ziren beraien festetan. Mozkorraldiak sonatuak ziren. Sanchuelok, boterera heltzean, Nasir al-Dawla eta al-Mamun titulu handigarriak hartu zituen. Ez zen horretan gelditu, ordea. Handik aste gutxitara Hishamek semerik ez zuenez, Sanchuelo izendatu zuen kalifatoko oinordeko; marwandarrak, hau da, omeyatarrak kontuan izan gabe. Alfakiak eta Estatuko boteretsuak konbentzitura, Kordobako kadiak, Ahmad ben Abd Allah ben Dhakwan, eta Ahmad ben Burd katibak prestatu zuten izendapenaren akta. 1008ko azaroan ( Rabi I 339 Hegira ondoan ) aktak adierazten zuen bezala, Marwanen ondorengoen artean eta Abd al-Rahman III al-Nasirrenetan, Abd al-Rahman ben Abi Amir, Qahtan arabiar leinukoa baino hobetik aurkitu gabe, profezien tradizioaren arabera kalifatora eskubidea zuenez, aukeratu zuen oinordeko.

Kordobako biztanleek ez zuten begi onez ikusi izendapena. Marwandarrek ez zuten onartu, Abd al-Rahman III.a al-Nasirren ondorengo zuzen asko bizirik zegoela kontuan izanda. Hauek bultzatu zuten Estatu-kolpea. Gainera, 1009ko urtarrilaren 14an (4, chumada 399) Sanchuelok audientziara deitu zien gorteko handikiei. Egun haietan Kristauek udazkenean mugak eraso zituztelako berriak heldu ziren eta Sanchuelok armada eraman nahi zuen mugara, Sancho Garciaren kontra. Arraroena eta larriena izan zen Sanchuelok behartu zituela handikiak durbanteak eramatera bereberean antzera. Agindu bitxia, iraintzat hartu zuten aristokratek, Zawi emir sanhayarrari ideia leporatuz. Errealitatean Sanchueloren ideia izan zen berebereak bereganatu nahian. Fata eslaviar amiritarrek erokeriatzat hartu zuten urtarrilean espedizio hura egitea, baina aurrera eraman zuten.

## 24 - 1009ko urtarrilatik ekainera Sanchul eta al-Mahdi.

Gizon gazte eder bat ari zen gelan zehar paseatzen. Durbantetik ile txima beltzak eskapatzen zitzaizkion eta aurpegia ezkututzen zioten. Durbantean sartu zituenean begi nabar argiek distiratu zuten arranodun sudurraren ondoan. Habus idaz-taularen gainean jarri zen idazten. Madjilis ondoko gela txiki batean zen, buruzagi sanhayar batzuentzako aginduak idazten ari zen. Ikasketak bukatu zituzten berak eta bere lagun Azenarik. Une hartan gerlari gazteen eginkizunak betetzen zituzten. Ofizialki Habus kapitaina zen eta Azenari bere ezkutaria. Azken aldian Zawiren laguntzailerik hurbilena zen Habus eta idazkari aritzen zen askotan. Hamazazpi urterekin printze sanhayar gaztea gero eta erantzukizun gehiago hartzen ari zen. Orduantxe sartu zen beste gazte bat. Altua bezain indartsua zen eta Habusen antzeko begi kolorekoa, baina honek ile luze gaztinkara zuen aurpegi zuri samar batean. Azenari zen eta amazigheraz azken berriak gurutzatu zituen lagunarekin. Gero, arabieraz jarraitu zuen zer moduz zegoen galdetzen.

–Labas?

–Bejair. Sukran.

–Ongi bazaude, zergatik ez didazu ezta abisurik bidali ere. Egun osoan aritu naiz harresietako guardiak ikuskatzen, Zawik agindu bezala, eta ez nekien zer gertatzen ari zen.

–Badakizu Kordobako giroa ez dela oso lasaia eta biok aritu gara hori dela eta lan desberdinetan. Goizetik ez dut astirik izan ezertarako. Kanpoko gerlarientzako mezuak idazten eta bidaltzen aritu naiz Zawiren aginduz. Orain bidali behar nuen morroi bat zure bila. Berehala naiz libre. Gero sukaldera joango gara mokadu bat hartzera. Gosaritik, ez dut ezer ahoratu. Zu aurreratzen bazara, eskatu zeozer tripak engainatzeko, mesedez. Heldu naiz santiamen batean, kristauok esaten duzuen bezala. –Baiezko keinua eginez joan zen Azenari.

Azenarik pentsatu zuen Zana orduan harenean izango zela bere lanak egiten. Ezin zuen burutik kendu, al-Sanhaya herrixkan zen bitartean. Dena den, gauean elkartuko ziren ezkutuan eta gorputz liraina eta musu sutsuak sentituko zituen berriro. Bazekiten beren harremana ezinezkoa zela, baina bitartean beren gorputzak ezin ziren bestea gabe bizi. Sukaldean afariaren prestaketak egiten ari ziren eta sukaldariari Habusen eskaera pasa zion. Honek ohitura zuen bi gazte haien ibilerekin eta ez zitzaion inporta askari arin bat prestatzea bestelako arazoak sortzen ez zituztelako. Gainera Habus nagusi txikia zen. Beno, ez hain txikia. Handik gutxira agertu zen Habus.

–Dena ongi antolatuta utzi behar dugu, gehienak azzeifara joaten garen bitartean...

–Egia al da, atzo Sanchuelok durbanteak eramateko agindu ziela agintariei eta baita marwandarrei ere? –galdetu zion Azenarik.

–Bai, burutik eginda dago. Txarrena da denek uste dutela guk agindu txoro hori eskatu dugula. Oso giro txarra sortu da gure kontra eta gainera armada txiki honetan geu gara indarririk handiena. Bihar aterako gara prestatu gabeko gerrara. Ez dugu boluntarioen trabarik izango, baina gu, mertzenario kristau batzuk eta zanatak, ez gara bost mila gerlari baino gehiago izango. Koretako soldaduak falta dira oraindik.

–Nik ere ez diot itxura onik hartzen honi. Jan dezagun mokadu hau eta goazen zalditan itzuli txiki bat egitera.

–Ideia ona. Hala ere, zaingo bat eraman behar dugu badaezpada. Aprobetxatuko dugu gure herria ongi zainduta dagoen egiaztatzeko. Uste dut ongi babestu behar dugula geure burua.

Behin armada erregularra abiatu zenean, al-Dhalfak, al-Muzafarren ama aberatsa, Sanchuelok bere semea pozoindu zuela sinesten zuenez, Bushra eslaviar amiritarraren bitartez laguntza ekonomikoa bidali zion marwandarren buru zen Muhammad ben Hisham ben Abd al-Chabbar-i, Abd al-Rahman III-aren biloba, bi urte lehenago hil zutenaren semea. Muhammadek plebeio lotsagabe baten itxura zuen eta herritar arruntenek maite zuten. Dirua herritarren artean soldaduak hartzen gastatu zuen.

Madinat al-Zahiran Sanchuelok hiru agintari utzi zituen: Ahmad ben Said ben Hazm, Azenari eta Habusen ikaskidearen anaia zahar bat, Ahmad ben Burd idazkaria eta Abd Allah ben Maslama jauregiko prefektoa. Muhammad-ek ez zuen al-Zahira eraso, kalifen alkazarra baizik, han Hisham kalifa zegoelako. Otsailaren 15ean herria altxatuta, kartzetako presoak askatu eta soldadu sartu zituzten. Denek, miliziekin batera egurrezko eskailerak erabiliz alkazarren harresiak eraso zituzten. Hishamek jauregiko leiho batetik geldiarazi nahi zituen baina herriak arbuiatzen zuela ikusita, guardiei odol isuririk ez sortzeko agindua eman zien. Muhammad-i mezu batean haren-a babesteko eskatu zion, oinordeko izendatuko zuela eta marwandarrak gorteko botere postuetara deituko zituela hitz emanez. Ondoren, Otoitz-gelara sartu zen, erasotzaileen kontra neurririk hartu gabe.

Hasieran, Muhammadek alkazarra arpilatzeko agindu bazuen ere, gero herritarrei erretiratzeko eta haren-a babesteko agindu zien. Gauean, alfaki, handiki eta funtzionario garrantzitsuenei deitu zien botere aldaketa gauatzeko. Bi katib-ek jaso zuten Hishamen abdikazioa eta Muhammeden kalifa izendapen ortodoxoa, al-Mahdi bi-llah izena hartuz.

Ben Maslama prest zegoen Al-Zahira defendatzeko. Al-Mahdik, alkazarra hartzen lagundu zioten herritarrak soldadu sartu zituen, berez lanbide gabekoak izanda ere. Abd al-Chabbar ben al-Mugira bere lehengusua hadjib izendatu zuenean al-Zahira erasotzera bidali zuen. Al-Mahdik amirien aberastasunak eta urrea behar zituen boterean mantentzeko. Jauregiko agintari eta guardiei libreki ateratzea eskaini zien biziaren truke. Dena arpilatu zuten baita haren-a ere, bakarrik arabiar libre jatorriko sayidak errespetatu zituzten, besteak beste al-Dhalfa. Al-Mahdiren konfiantzazko morroiek denetarik eraman zuten: urrezko eta zilarrezko txanponak, harribitxiak, tapizak eta luxuzko oihalak. Behin ondasun haiek eramanda, herritarrei arpilatzen utzi zieten, baita eraikinetako material nobleak ere: marmolezko zutabeak, landutako harriak, harlauza finak, artistikoki landutako iturri, eserleku eta marrazki artistikozko moldura eta mokarabeak. Al-Mahdik al-Zahira suntsitzeko agindu zuen amiritarren arrastoak deuseztatzeko. Lortutako aberastasunei esker Sanchuelok ezarritako zergak momentuz kendu ahal izan zituen.

Hala eta guztiz ere, Sanchuelo bizirik zegoen Toledon eta armada bat zuen. Amiritarrak Kordobako gertaerak entzun zituenean Kalatrabara mugitu zen eta egunak eman zituen han tropen leialtasuna eskatzeko. Denbora alferrik xahutu zuen. Muhammad ben Yaala-k, zanata, Kordoban bere familiak herritarren menpe zeudela gogoratu zuen eta gauean desagertu zen bere gerlariekin. Ben Dhakwan kadiak, bestalde, adierazi zuen Sanchuelok ezin zuela Kordobako herritar gizajoen kontra

armada bidali eta alfakiek, Sachuelo musulman txarra zela, mozkorti hutsa eta erlijioaz trufa egiten zuela zabaldu zuten soldaduen artean. 1009ko otsailaren 28an (Chumada II 399) Manzil Hami-ko ostatura heldu ziren, Kordobatik bi egunera. Gauean berbere guztiak desertatu ziren. Bere alde zuen bakarrenetakoa Wadih zen, baina jenerala Toledon zegoen. Beni Gomez Carrioneko kondeak Sanchuelori Wadih-rekin elkartzea aholkatu zion arren, honek ez zion kasurik egin. Guardiako soldadu bakar batzuekin Armilat-era heldu zenean, Estatuko almunian hirurogeita hamar konkubina utzi eta monasterio mozarabeen eskatu zuen ostatu. Martxoaren 3an Madih-k bidalitako tropek preso hartu zuten Sanchuelo, Carrioneko kondearekin batera. Ihes egiteko saiakera egitean hil zituzten bi mandatariak. Hurrengo egunean gorpuak alkazarreko atarian jarri zituzten.

Al-Madihk boterea lortu eta hilabetea pasa zen. Egunak pasa ahala, alkazarreko guardiek okerrago tratatzen zituzten beste herritarrak, burgesak eta auziak konpontzera joaten ziren aristokratak, baina bereziki berbereak, zeren eta jauregian sartu baino lehen, armak uztera behartzen baitzituzten. Hirian ere berbereen aurka jokatzeko hasi ziren. Zawi bera behin saiatu zen jendetza artetik alkazarrean sartzen, atarian guardiek are okerrago tratatzeko. Sanhayarren bizitokia ere, al-Rusafako al-Sanhaya deitutako auzoa erasotzen saiatu ziren kordobatarak. Al-Mahdi ia ez zen desenkusatu. Gero eta okerrago jokatzeko kalifa berriak. Eslaviar amiritarak ere gaizki tratatzen zituen. Wadih erdiko markako vali edo gobernadore izendatu zuen arren, 1009ko martxoaren bukaeran Mahdik erabaki ergelak hartu zituen, Almanzorren fata batzuk beharrik gabe deserriratu zituen Levantera, etsai bihurtuta, handik haren kontra kanpaina ederra egiten zutela kontuan izan gabe.

Hisham II.a konkubina bakarrarekin eta bi neskamerekin hiriko etxe batean itxi eta ezkutatu zuten. Bitartean Dhakwaren testigantzaz haren itxurako zerraldoarekin kalifari zegokion lurperatze ekitaldia antzeztu zuten. Marwandarrek ez zuten sinetsi eta batzuk espetxeratu zituzten, haien artean dekanoa, Sulayman al-Nasirren semea, Sulayman momentura arte Mahdi beraren oinordeko izendatua. Hisham, Sulayman honen semea, Mahdiren aurka altxatu zen. Fahs al-Suradiq-en bere kanpamentua jarri zuen, beste marwandarrak, berbereak eta berriki lizentziatutako Kordobako milizianoak erakarrit. Dhakwan kadia eta Abu Umar ben Hazm saiatu ziren akordioen bidez bakea lortzen, alferrik. Tamalez, Hisham ben Sulayman ben Abd al-Raman al-Rashidek alkazarren erasoan akabatu zuten eta ondorioz berbereak legez kanpo deklaratu zituzten beste alderdikoek.

## 25 - Sanhayarrek eraso aurrikusi eta auzoa utzi.

Berbereak Guadalmellatora erretiratzean, beren familiak erasotuak izan ziren, bortxaketak eta hilketak tartean. Sanhayarrek alde zurretik aurreikusi zuten erasotuak izango zirela eta egoera okerragotuko zela pentsatuz, egun eta gau bakar batean auzoa osoki hustu eta denak, emakumeak eta haurrak barne Guadalmellatetik hurbileko herri baten ondoan antolatu zuten kanpamentu gotortu bat. Erasotuak eta hildakoak beste talde berbere batzuetakoak izan ziren. Hala ere, Kordobako milaka herritarrek al-Rusafako al-Sanhaya auzoa hartu eta txikitu zuten.

1009ko ekainean berberek Kordoba hartu nahi zuten. Omeiyatarrek beren kanpamentuan Sulayman ben al-Hakam ben Sulayman, al-Nasirren berbiloba eta Hisham al-Rashiden iloba aukeratu zuten. Berrogeita hamar bat urteko kalifa-gairik aiposena zen. Kalatrabara iritsi zirenean al-Mahdik egindakoengatik barkamena eskatuta ere, Sulaymanek eta berberek ez zuten onartu. Orduantxe musulmanen hiru enbaxada iritsi zitzaizkion Sancho Garcia Gaztelako kondeari, beren alde jartzeko. Batetik al-Mahdik bidalia, bestetik Wadih-rena eta azkenik Sulaymanek eta berberek ere eskatu zioten laguntza. Sanchok Sulayman eta berberei eman zien laguntza, etorkizunean mugako hainbat gaztelu ematearen truke. Janaria bidali zien, abere bizi asko eta ehun galdi irin eta jaki besteak beste. Wadih, al-Mahdirekin batu zen.

Al-Mahdirekin bat eginez, berbereen eta gazteluen kontra Jaraman egin zuen borroka Wadih-  
k, armada erregularra eta Kordobako milizianoen laguntzaz eta 1009ko abuztuan berriro Henaresko Alkala ondoan. Oso borroka latzak izan ziren. Batetik berberek, Gaztelako gerlariak eta omeiyatarren menpeko tropa gutxi batzuk, hamar bat mila gerlari, erdia zalduneria eta haietatik bi mila sanhayar; Bestetik hogeita mila soldadu eta miliziano, haietatik bakarrik hiru mila zaldun. Habusek bostehun bat zaldun sanhayar gidatu zuen borroka hartan. Azenarik bere ezkutari eta laguntzaile bezala aginduak pasatzen zizkien zaldun taldeko buruei. Borroka hasi zenean sanhayarrek jo eta ke eraso zituzten al-Mahdiren ezker aldeko zaldunak. Zaldi-taldeak bidali zituzten bata bestearen atzean, eten gabe eraso egitera. Koretako zalduneria txikiagoa eta kaxkarragoa zenez, berehalaxe menperatu zituzten gezi andanak jaurtikiz eta azkenik, zuzenean eraso zituzten ezpataz. Wadih-ren zaldunak ihesari eman ziotenean, berbereen zalduneriak etsaien oinezkoak inguratzen ari zirenean, baso baten babesean ezkutuan zegoen arkulari talde handi batek geziz zartatu zituzten Habusen agindupean zeuden zaldunak. Azenarik bizia salbatu zion zaurituta zegoen lagunari ezkutuarekin gordez eta bere bizia arriskuan jarritz. Erasoa pixka batean gelditu zenean, mutilak momentuz atzera egiteko agindu zuen eta laguna leku babestu batera bidalita, berriro erakutsi zuen ausardia handia zaldun taldea basoaren bestaldera gidatuz, arkulariak inguratuz eta gaudituz. Horri esker, edo horren eraginez garaitu zuten Wadih. Honek ihes egin zuen Kordobara.

Borroka bukatuta, zaurituei laguntza eman zieten eta hildakoak lurperatu zituzten. Habus ez zegoen hain gaizki. Azenarik ikusi zuenean ipurmasailetik gezia kenduta zuen zaurituak eta harekin mintzatu zen.

–Ongi ikusten zaitut. Badirudi lotarako prestatzen ari zarela.

–Zorte onekoa naiz eta ez dut gauza handirik zuri esker. Egun pare batean oinez ibiliko naiz. Baina konta iezadazu zenbat gizon galdu dugun.

–Lasai zaitetz. Bi hildakoeta beste hainbeste zauritu larriak dira; baina, beste zauritu gehienak sendatuko dira eta hilabete batean ez dute nabarituriko. Gizonak pozik daude. Osotara sanhayar gutxi galdu dugu. Beste batzuek galera gehiago izan dute.

–Zuri esker gure zaldun-taldea salbu da. –Azenari lotsatu zen. Kosta zitzaion laudorioak onartzea. Lagunari ongi zaintzeko esan ondoren joan zen.

Arratsean, pixka batean deskantsatu ondoren, gaztelau eta musulmanen agintariak elkartzu ziren Sulaymanen denda handian. Han judutar talde bat zegoen. Gaztelako Sancho Garcia eta kalifagaiaren aurrean Zawik Azenariri deitu zion. Gazte altu eta galanta aurreratu zen harrিতuta. Zawi, sanhayarren emirra eta Sulaymanen konfiantzazko jenerala, denen aurrean borrokan egindakoagatik goraiatzaren hasi zen:

–Gazte honi esker etsaiak lehenago garaitzeaz gain, bizia arriskuan jarritz, gerlari asko salbatu dira, gure iloba Habus besteak beste. Hori dela-eta une honetan zuen testigantza aprobetxatuz, aske deklaratu dut, gerra-esklaboa izan baitzen, guretzat etxekoa izanda ere. Berritri diotsuet pertsona askea eta imazighen gerlarion kapitain izendatzen dugula. Hemendik aurrera Azenari ben Enneg ben Sanshio Baskoniako beni Enneg-tarren leinukoa denak askatasuna berreskuratu du eta nik neuk Zawi ben Ziri sanhayarren emirrak zaldun eta kapitain izendatzen dut. Jaunok mesedez ohorea litzateke zuen testigantza sinatzen baduzue –mutil harrituari hurbildu zitzaion, belaunarazi eta ezpataren alde lauarekin sorbaldetan bi kolpe eman zizkion. Segidan Zawik eta beste ziritarrek, Habus lotan zegoen, besarkatu zuten. Kondeak, kalifa-gaiak, handikiek eta judutarrek zoriondu eta lekuko gisa sinatu zituzten askatasun eta izendatze agiriak.

Sulaiman garaile gertatu bazen ere, Wadih-k markako hiri gehienak bere menpe mantendu zituen. Ongi babestutako hiriak ziren Medinaceli, Guadalajara, Magerit eta nola ez Toledo, markako eta korako hiriburua, al-Andaluseko hirugarren hiria. 1009ko azaroaren 3an, Guadalmellatora heldu ziren berbereak eta gaztelauak. Al-Mahdik lubaki batez inguratu zituen Kordobako auzo guztiak eta herritarrak berritri sartu zituen milizian. Azaroaren 5ean Qantishen, Alkoleatik hurbil ipar-ekialdean, borroka latzaren ondorioz hamar mila kordobatar hilik suertatu ziren borrokan edo ibaian itota. Al-Mahdik aterarazi zuen Hisham II.a eta bera ezkutatu zen. Azaroaren 8an, Zawi sartu zen Kordoban eta alkazarrean, Sulaymanen aurretik. Hurrengo ostiralean, meskita nagusian Sulayman Omeya kalifa izendatu zuten handikio, al-Mustain bi-llah izenez (Jainkoaren laguntza bilatzen duena). Hasiera batean zentzuzko neurriak hartu zituen. Sanchuelo urkamenditik erretiratu eta behar bezala lurperatu zuen. Sancho Garciak plazak eskatu zituen, nahiz eta jakin haiek Wadih-ren eskuetan zirela eta momentuz ezinezkoa zela. Behin-behineko emate-atzerapena onartu zuen eta ehun gerlari almunia batean utziz, gainerako gerlariekin itzuli zen Gaztelara. Hegoaldeko korek baino ez zuten Sulayman al-Mustain onartu. Kordobako herria haserre zen berbereekin eta bakarrik ibiltzen zirenean erasotzen zituzten. Medinat al-Zahran sartu zituzten berbereak, Kordobatik aparte, eta ez zieten utzi zokoetatik eta auzoetatik ibiltzen. Urte bukaeran ezkutuan zegoen Mahdik ihes egin zuen Toledora. Erdiko marka alde zuen, bereziki Wadih-ren laguntzagatik.

1010eko urtarrilaren bukaeran al-Mustain Tajora zuzendu zen. Elur eta eurite artean nekez ibili zen eta Toledo eta Medinaceli inguratu bazituen ere, ez zuen ezer lortu. Apirilaren 14an bueltatu zen Kordobara. Bitartean Wadih Tortosara joan zen eta Barcelonako Ramon Borrell III.a eta Ermengol Urgel-eko kondeen laguntza lortu zuen, ez dohainik ala ere. Konde bakoitzari ehun dinar ordaindu behar

zizkion egunero eta dinar bat gerlari bakoitzari, janaria, ardoa eta berbereen harrapakina eskainiz. Zaragoza eta Medinacelitik Toledora heldu zirenean berrogei milako armada osatu zuten, haietatik laurdena "franko"ak izanik. Hauei bakarrik berbereek egin zieten aurre, kordobatarrek parte hartu gabe gelditu baitziren. Maiatzaren 22an al-Baqar-en Kordobatik zuzenean hogeik kilometrora borroka latza egin zuten. Berbereen kargei eta gezi jaurtiketei esker frankoak galtzen ari ziren. Baina, erretiratzea moztuta zegoelakoan, al-Mustainek ihesari eman zion. Erretiratzen hasi ziren berbere talde batzuk eta azkenean denek alde egin behar izan zuten.

Zawi bere sanhayarrekin eta zanatarrek ere, Aljezira ondora joan ziren, behar izanez gero beraiek eta familiak Afrikara pasatzeko. 1010eko ekainaren 21ean Guadairoko goi-bailaran, Ronda ondoan, berbereek al-Mahdi eta frankoak garaitu zituzten, triskantza ikaragarria eginez. Hiru mila gerlari franko gertatu ziren hilik. Denek urre eta zilar pila zeramaten gainean. Arerio asko, Ramon Borrell-en diruzaina besteak beste, preso hartu zituzten. Haiengatik diru dezente eskatu zuten. Kordobara bueltatuta, al-Mahdik frankoei berbereen kontra berriro ateratzeko eskatu zien. Ezezko borobila eman ondoren, alde egin zuten frankoek.

Borroketan garaile atera ondoren, Zawik goraiatu zion Azenariri borrokan izan zuen portaera eta kontatu zion bere familiaren berri zuela, aurreko udan bere askatasuna ematearen testigu izan ziren merkatari judutarrek Zawiren beraren mezu bana utzi zuten Naxeran, Iruñean eta Faltzesko bere senideen eskuetan eta Uhartetik pasatzean informazioa jasotzeko edo galdetzeko agindua zuten. Mezulari horien bitartez Zawik Jakin zuenez, kuriako eskriptoreak, osaba Belasko Belaskones, eta Faltzesko Fortun Santxez beste osabak mandatari batzuk bidali zituzten Donemiliagako suntsiketa eta Azenariren desagertzearen ondoren mutilaren berri izateko eta eramateko. Lekuko baten informazioaren arabera, preso eramane zutela jakin zutenean, merkatari batzuk bidali zituzten Kordobara Azenari askatzeko. Merkatari haiek esklabo merkatuetan eta Estatuko agintari batzuekin hitz egin ondoren, esan zieten ez zutela arrastorik aurkitu. Handik urte batera berriro beste mandatari batzuk bidali zituzten inolako berririk jaso gabe. Momentu hartan Zawik, eskuizkribu batzuk hartuta jarraitu zuen:

–Duela urte bete geuk zure berri eman genienean, zure ahade hauek, baita Naxerako Fortun Santxez jaunak ere, berehala eskaini zuten dirua erreskatea emateko. Berehala, erantzuna eta argibideak bidali genizkien. Ordurako zure askatasun agiria egina nuenez, kopia bat erakusteko esan nien judutarrei, beraz, nahi duzunean joan zaitezke Baskoniara. Gaur agertu dira mezulariak eta hemen dituzu erantzun-mezuak –eskuizkribuak eman eta gero, zalantza izan ondoren, jarraitu zuen.

–Ez al duzu Uharteko berririk nahi?

–Bai, noski. Baina, badakit osaba Semenok ez duela ezer egingo.

–Arrazoi duzu. Zure osaba horrek agintzen du Uhartean, zure anaia Xemeñoren izenean. Herrian galdetu dutenean herritar askok maitasuna adierazi dute zurekiko. Arbuiatzen dute zure osabaren jokaera, krudela eta gogorra delako eta herritar pobreak gaizki tratatzen dituelako. Zure arreba Enekari, Uharteko kapitainari eta zure lagun Otsoari zure askatasun egoeraren berri emateko arazorik ez zegoela ikustean, esan diete eta beraien mezua ere jaso dute. Hor duzu beraien erantzun mezua beste izkribuen artean.

Azenari leku lasai batera joan zen mezuak irakurtzera. Kanpalekutik ondoko muinora hurbildu zen. Zuhaitz-enbor baten kontra eserita, mezuak zabaltzen hasi zen. Laburrak ziren eta latinez zeuden

idatzita, ohitura zenez. Ireki zuen lehen mezua osaba Fortunena zen, honek egoera onean izateagatik poztasuna adierazi zion eta harengana joateko eskatzen zion. Osaba Belaskok eta izeba Santxak antzera adierazi zuten beste izkribu batean eta berekin bizitzera joateko gonbita egin zioten. Hirugarren mezua ireki zuen. Eneka ezkondata zegoen Uharteko zaldun batekin eta maitasuna adierazi ondoren berriz ikusteko gogoaz azaldu zion. Eskutitz berean, azkeneko lerroetan, Gartzia kapitainak eta Otsoak poza adierazteaz gainera, Semenoren jokaera zuzengabea adierazi zuten. Haiek ez zekiten ongi idazten eta arrebak egin zuen beraien partez, dena den, Otsoak bi hitz adierazi zituen euskaraz: "etorri laguna". Azkenik, pergamino dotore batean, Antso Gartzes, aspaldiko laguna eta Baskoniako errege gaztearen mezua irakurri zuen. Goraintziak bidali zizkion bere eta Fortun lehengusu txikiaren partez, eskerrak eman zituen onik egoteagatik eta herrira bueltatzean berarengana joateko eskatu zion. Mezuak bildu zituen denak batera eta gerri ondoko poltsiko batean sartu zituen.

Azenari pentsatzen geratu zen. Herrira itzuliko zen bere nahia segituz gero. Hala ere, lagun imazighen haiek ezin zituen horrela utzi. Eskua luzatu eta pergaminoak laztandu zituen. Izkribu haiek gordeta, Zawi eta Habusekin momentuz geratuko zela erabaki zuen, egoera larria pasa arte behintzat. Ziritarrek, Zawik eta Habusek, esklabo baino lagun bezala hartu zuten bera, eta momentu hartan beraien herria arriskuan zen bitartean lagundu behar zien. Habus, gainera, ezin zuen nolana utzi, hain zen lagun handia!

## 26 - Lubakia.

Wadih ezin zen al-Mahdi-z fidatu. Berak, Jairan eta Anbar, Almanzorren beste fata handiei dei egin zien Jativatik Kordobara heltzeko. Levanteko eslaviar amiritarren babesa eskatuta, alderdi eslaviarra berrindartu nahi zuen. 1010eko uztailaren 23an buru eslaviarrek Mahdi erail eta Hishamen bigarren erregealdia hasi zen Wadih-ren eskutik. Berbereen alderdiak, Elvira probintzia eskuratzen joateaz gain, Kordobako setioa jarraitu zuen. Wadih inguratze horretarako prestatu zen, egindako lubakiak edo fosak handituz eta hesi handiak paratuz.

Sulayman al-Mustainek eta bere aliatu berbereek udaberria bitartean Kordoba blokeatu zuten. Sanhayarrek gotorleku bat behar zuten inoren erasoren beldurrik ez izateko, Kordobako herritarrek al-Rusafan egin zieten kontuan izanda. Madinat al-Zahrako harresi hirukoitza oso aproposa zitzairen sanhayarrei atzea babesteko, gerlariak eta baita familiak salbu izateko. Goarnizioa erresistitu zen. Lagun batek atea irekita ere, barnekoek ez zuten etsi eta erasotzaileek borrokatu behar izan zuten jauregi-hiria hartzeko. Odoltsua izan zen borroka eta defendatzaile asko hil behar izan zuten, azkenek ihesari eman zioten arte. 1010ko azaroaren 4an, (Rabi I 401) Zawiren berbere sanhayarrek Madinat al-Zahra hartu zuten.

Azenari borroka bukatutakoan agertu zen Madinat al-Zahran. Kordoba aldean izan zen zaldun talde handi batekin, bitartean milizien erasorik ez izateko. Iparraldeko ataritik sartu zen, Alkazaretik, eta nabarmenak ziren borrokaren arrastoak eta sarraskia. Mendebaldeko bizitokiak eta Erregeren Etxea bere eskuinean utziz, Dar al-Yund edo kuartel nagusira sartu zen. Bere zazpi arkuek jauregi itxura ematen zioten. Erdiko arku handitik gerlariak harrapakina ateratzen ari ziren. Atzean ekialdeko portiko handia utzita, plaza zeharkatu zuen Saloi Aberats-era joateko. Zawi bilatzera zihoan. Gelditu nahi zuen arpilatze hura. Kapitain batzuei aginduak ematen ari zitzairen Zawi. Harekin konfiantza gehiegirik ez bazuen ere, txikizioa gelditzeko eskatu behar zion, Habus Kordoba aurrean zaintzan zen-eta. Beharbada zuzenega izan zen.

–Zergatik hartu duzue al-Zahra? Goarnizioa garaituta, den-dena txikitu behar al duzue?

–Leku babestu bat behar genuen. Al-Rusafako auzoa suntsitu ziguten. Gizonek asko sufritu dute eta lau gauzarengatik ez da txikizioa izango.

–Baina artelanak eta liburuak suntsitzen ari dira –erran zuen nahi baino ozenkiago.

–Geldieraz itzazu zuk ahal baduzu. Liburuak salbatu nahi badituzu, konbentzitu –erantzun zion haserre, borrokaren larriaz eta eroritakoengatik.

Azenari, Abd al-Ramman al-Nasirren liburutegira joan zen zuzen zuzenean. Al-Hakam-ek ere milaka liburu bildu zituen, bere aitaren bilduma aberastuz. Gerlari batzuk ari ziren liburuak ateratzen, gurdi handi batean botaz. Eskerrak taldekoak ongi ezagutzen zituen; bestela, ezin izango zituen liburuak salbatu. Sutarako erabiliko zituzten. Tartean erlijio liburuak eta Koranak zirela konbentzitu zituen eta egurra eramango ziela hitz emanda, gurdi hura eta beste batzuk betetzeko konbentzitu zituen. Dena den, beste soldadu batzuk ari ziren arpilaketarekin eta arriskua zegoen dena sutara emateko. Liburuak aukeratzen hasi zen. Koranez gain, historia, astronomia, zientzia, botanika eta literatura liburu asko salbatu zituen. Gurdi bat ez, hiru gurdi handi eraman ahal izan zituen. Bera agertu baino lehenago

eraman zituzten liburuak, galdutzat hartu behar izan zituen. Bere menpeko gerlariei agindu zien liburuak biltegi batera eramateko eta zaintzeko. Beste gerlari batzuekin mendi aldera joanez egurra bilatu eta agindutakoei eraman behar izan zien. Milaka liburu libratu zituen sutatik. Habus poztu zen beranduago heldu zenean. Azenarik hurrengo egunetan gustuko idazki eta izkribu berezi asko antolatu zituen eta liburu aukeratu pilak gorde zituen ongi babestuta, oihal argizarituetan lotu eta gorde ere.

Azkenean, ordu batzuk pasata gehiegi zelakoan, Zawik berak geldiarazi zuen suntsiketa. Kalifaren bizitokia izandakoa, Errege Etxea, salbatu zuten; baita Saloi Aberatsa, Yafarren etxea, meskita-aljama, jauregiak eta administraziorako erabiliko zituzten eraikinak ere. Hegoaldean zegoen hiriko gunen zabalenean, etxeetan, familiak sartu zituzten eta lorategietan kanpamentu handi bat antolatu zuten. Alkazarrean goarnizioa jarri zuten. Denbora luzez al-Andaluseko jauregi-hiririk miragarrienean, Medinat al-Zahra ederrean bizi izan ziren sanhayarrak. Imazighenek, sanhayarrek eta zanatek kora batzuetako gerlariekin batera kordoba inguruko lubakiak eta hesiak behatzeko taldeak antolatu zituzten. Berbereek inguratu zuten Kordoba eta iparralde, ekialde eta hegoaldeko korak al-Mustainen menpera jartzera eta ziurtatzera joan ziren. Calatrava, Jaen, Elvira, Malaga, Ronda, Cadiz eta Aljeciraseko korak edo probintziak menperatu zituzten.

## 27 - Gaztelauak.

Azenariri Gaztelako gudariekin harremanaz arduratzea agindu zioten. Zerbait naturala izan zen haiekin ibiltzea. Nagusi gaztelauek ez zekiten oso ongi arabieraz eta berberek gaizki egiten zuten erromantzez. Azenarik latinez zekienez arabieratik latinera edo erromantzerara eta alderantziz itzultzen lagundu zien momentu batean. Gero, bi taldeetako konfiantza lortu zuenez, askotan ahal zutenenean berari deitzen zioten edozertarako. Garai hartan gaztea Zawiren kapitaina eta laguntzaileetako bat zen. Bestela ere, gaztelauekin ibiltzen zen eginkizun desberdinetan. Sancho Garciak utzitako ehun zaldun korazatuak oso probetxugarriak gertatu zitzaizkion al-Mustainen armadari. Hala eta guztiz ere, zaldun gaztelau haien funtzio nagusia, agindutako gotorlekuak eman behar zizkietela gogoratzea zen. Kapitaina, Lain Gonzalez zen Larako noblea eta Gaztelako kondearen familiakoa. Baina, Azenarik harremanik handiena Tello Joanizekin zuen, Burgos ondoko Ibaias-ekoa, maila apaleko zaldun gaztea eta euskalduna. Harekin berriro mintzatu zen euskaraz, urteetan erabili ez zuena.

Habus, Jaen eta Elvirako koretan zebilen, probintziak segurtatzen. Azenari, Tellorekin hasi zen denbora asko pasatzen. Askotan al-Mustainen eta Zawiren aginduak gaztelarren nagusiei adierazi ondoren, harekin gelditzen zen hizketan. Gaztelako euskaldunak galdetu zion.

–Asko al dira kondearen menpeko lurretan bizi diren euskaldunak?

–Asko ez dakit. Gaztelako ekialdeko lurretan bizi gara euskaldunak. –Azenariren jakin-mina handitu zen.

–Eta zein lurraldetan egiten da baskoieraz?

–Ekialdean eta Ipar-ekialdean. Esan dizut.

–Kontatuko al didazu ekialdeko lur horiek zein diren? Nik dakidana eta entzun dudana da Baskoniako mendebaldean Araba eta Bizkai lurrak daudela. Zein dira Gaztelako ekialdeko lurrak orduan?

–Nik ez dakit ziur. Bureba, Oka, Mena eta Karrantza euskaldunak dira. Burgos ondoan ere, Urbel, Ubierna eta Arlantzzoneko bailarako herri batzuk euskaldunak dira.

Gaztelako Sancho Garcia agertu zen Kordoban 1010eko azaroaren bukaeran bere neutraltasunaren ordaina jasotzera, nolabait. Mugako gazteluak eskuratu nahi zituen. Al-Mustain eta Zawirekin hitz egin zuen Sancho Garciak. Emandako laguntzaren truke, Clunia, San Esteban, Osma eta Gormazeko plazak eskatu zizkien. Al-Mustainek, Kordobara, Wadih-rengana bidali zuen, plazak haren esku zeudelako. Gaztelako gerlarien mehatxupear, Sanchok nahi zuena lortu zuen bere neutraltasunaren ordainetan, bere gerlariak erretiratzearen truke. Gaztelako kondea bere lurretara itzuli baino lehen Zawirekin elkartu eta hizketan gelditu zen. Han, bi taldekoen bitartekari zebilen Azenariri zuzendu zitzaion momentu batean.

–Zure askatasun eta kapitain izendatze ekitaldian izan nintzen. Gogoratu didate Baskoniako enekotar bat zarela, lehengo errege leinukoa. –Azenari harritu zen aipamen hori egiteagatik eta argitze aldera edo jakin-minez erantzun zion.

–Batzuek “fortundar” deitu egiten digute.

–Gure familiak ahaidetuta daude. Nik ximenotarrekin familia-harreman zuzenak ditut eta badut zuen leinuen berri. Kontatu didatenez zure osaba batek San Millanera sartu zintuen eta Almanzorrek esklabo hartu. Orain askea eta berbereen gerra-kapitain bat zara. Oroitzen dut zure ausardiagatik lortu zenuela. Nola lortu zenuen gerlari horiek onar zintzaten?

–Nire jatorri eta noblea izateagatik, Habusen zerbitzura jarri ninduten. Baina, morroi baino Habusen ikaskide eta laguna izan naiz, arabiar letretan eta gerrarako trebatzen ibili gara biok. Inoiz ez naute esklabotzat hartu. Alkalan Habusen ezkutaria nintzen eta laguna defendatu eta etsaien kontra jotzea besterik ez nuen egin.

–Nahi baduzu gurekin etortzen ahal zara Gaztelara. Lain Gonzalez kapitainak hemen emandako denboran gure gerlariekin izan duzun tratu eta lan ona goraiatu dit.

–Mila esker konde jauna, baina Guadalabiarreko borroka izan zenetik nire familiakoen berri izan dut eta nahi izanez gero haiengana joaten ahal naiz. Dena den, eskertzen dizut eta kontuan izango dut zure eskaintza.

–Zu bezalako nobleak eta gerlari prestuak ongi etorriak dira gurera. Banekien familiako batzuekin arazoak zenituela eta aukera eman nahi nizun.

–Estimatuta dago eskaintza. Hala ere, nire familiako beste osaba nobleek eta tenenteek ere eskaini didate babes, baita gure erregeak ere.

–Haren berri izango duzu berehala. Baskoniako enbaxada bat agertzeko zorian dago gure antzera. Plaza batzuk eskatzera etorriko dira aurki –esan zuen ironia eta txantxa doinu batez.

## 28 - Baskoniako enbaxada eta Almeriara egindako bidaia.

Sancho Garcia joan eta egun gutxitara Baskoniako enbaxada agertu zen. Antso Fortuniones maestresalaren agindupean beste jauntxo batzuk, morroiak eta hirurogei bat gerlari agertu ziren. Berbereek Kordobara pasatzen utzi zieten, Wadih-rekin negoziatu ahal zezaten. Haiek ere, Wadih-rengana joan behar izan zuten eskaerak egitera. Beste batzuek bezala al-Andaluseko egoera nahasia aprobetxatuz abantailaren bat atera nahi zuten. Ez zuten Gaztelauk lortu zuten bezainbeste, azken hauek parte hartze zuzena egin baitzuten alderdien borroketan. Baskoniakoek mugetako egonkortasunaren aitzakiaz abantailaren bat eta defentsa postu aurreratu batzuk lortu nahi zituzten. Gainera, Gaztelako mugak populazio gutxiak baziren, Baskoniakoak populatuak, lur aberatsak ziren, ongi defendatutako gotorleku larroen kontra. Unkasto berrit eskuratu nahi zuten eta Kalagorri inguruko mugak defendagarriagoak izatea. Handik egun batzuetara nahi zutena neurri batean lortuta, al-Mustain eta Zawirengana zuzendu ziren haiengandik ere segurtasuna izateko.

Medinat al-Zahran agertu ziren baskoiak. Azenariri deitu zioten enbaxadakoekin elkartzeko. Bi egun lehenago agertu zirenean Sevillako bidean zen Azenari eta ez zituen ikusi. Bazekien Antso Fortuniones, aritzarra, enekotarra bera bezala, urruneko ahaidea eta Gorteko salako maisua buru zela. Ezuste batean, osaba Belasko Belaskones botilarioa eta Fortun Santxez lehengusu txikia aurkitu zituen enbaxadoreen artean. Besarkada azkar bana eman zioten elkarri eta enbaxada eginkizunetan hasi ziren, solasa berandurako utziz. Azenarik aurkezpenak eginda, arabiera-euskara itzulpena egin zien, azkar egin ere, Wadih-rekin lortutakoa, al-Mustainen oniritzia azkarra izan baitzuten. Kalifa bere jauregira itzuli zenean, Antso Fortunionesek, bere leinu-kidea eta osaba Belaskok iloba agurtu zuten gaztea. Santxo Fortunionesek Kordobatik premiazko abisu bat jaso ondoren, joan behar izan zuenean, aurkezpen pertsonalak egin behar izan zituen Azenarik. Zawi eta Habus alde batetik eta Belasko eta Fortun bestetik jarrera lagunkoia hartuz hizketan hasi ziren. Zawi hasi zen lehenengoa.

–Ongi etorri gurera. Azenari, seme bat da guretzat. Ahaidetzat hartzen zaituztet, edozein gauza pertsonala dela, gure laguntza izango duzue. Jakin behar duzue Azenarik lehenengo momentutik eskatu zigula baskoien kontrako borrokarik izanez gero, parte ez hartzeko. Mutil aparta da Azenari: argia, ona, langilea eta gerlari ausarta. –Gorritu egin zen gaztea. Osabak ilobari begira eta sorbaldatik hartuz erantzun zion Zawiri.

–Bai, hala dela dirudi. Edozeren aurretik, hala ere, eskerrak eman behar dizkizuegu berarekin izan duzuen jarreragatik. Gure laguntza ere eskaintzen dizuet gogo onez. –Solasa ospakizun bihurtu zen. Zawik Al-Zahran egun batzuetan gelditzeko gonbidapena egin zien, enbaxadako guztiei zabalduz.

Egun haietan Azenarik une zoragarriak pasa zituen osabarekin, baina bereziki Fortunekin, denbora eskasean lagun onak izan baitziren txikitari eta orduan hamar urte pasata, gauza asko zuten kontatzeko. Jauregi-hirian ibili ziren eta zalditan atera ziren ingurura ehizatze aitzakiaz. Habus eta Fortun lagunak egin ziren. Beste ezusteko bat, Arrano Erroko gaztea gerlarien artean aurkitzea izan zen. Behin topatu baziren ere, Arranok gogorarazi zion Uhartan izan zuten topaketa. Azenarik Balz kapitaina ere ezagutzeko aukera izan zuen gainera. Kordobako mendizerrara egin zuten itzulian, Azenari, Habus, Fortun, Arrano eta Balz aritu ziren ehizan, gerlari imazighen eta baskoi batzuen laguntzaz. Eguna gustura pasa ondoren arratsean elkartu ziren suaren inguruan ehizatutako orein errearen puska goxo batzuk afaltzeko eta kontu kontari aritzeko. Habusek haiekin denbora gehiagoz gelditzeko gonbidapena egin zirenean Fortunek kontatu zion zergatik itzuli behar zuten Baskoniara.

–Agudo itzuli behar dugu. Azagra, Sartaguda eta Mendabiako herriak gureak ziren eta akordioen arabera gureak izanen dira, baina segurtatu behar ditugu. Kalagorriko alkaideak, ordea, Tuter eta Zaragozako Tuyibien menpekoea denak eraso etengabeak egiten ditu Ebroko mugan. Muga hori finkatzea eta baketzea da orain beharrezko helburua. –Denek zekiten Ebroko musulman gerlariak borrokalariak zirela. Onartuko al zuten Tuyibiek, borrokatu gabe, herri eta dorre haien nagusigoa aldatzea? Ez zuten gaiarekin jarraitu. Berehala, Antso Gartzes errege gaztearen gaia atera zen. Fortunek goraintziak eman zizkion Azenariri haren partez, eta berriro gogoratu zion—. Zu gurekin eramateko eskatu digu. –Bazekiten lagun sanhayarrak goera egonkorrean izan arte, Azenarik laguntza agindu ziela. Fortunek Jarraitu zuen errege gazteari buruzkoak kontatzen—. Bera oso okupatuta dago. Borrokan ez du parerik, horregatik deitzen diote Laubeso. Aibarko Santxarekin Ramiro semea izan zuen duela bi urte eta Muniadona Gaztelako Sancho kondearen alabarekin ezkondu berria da –erran zuen txantxetan. Denek zekiten hori. Aste bat lehenago jakin zuten Gaztelako kondeak seme bat izan zuela eta orduan bai, alaba Munia Baskoniako erregearekin ezkondu zuela.

Hurrengo egunean, goizean goiz, Habusek eta Azenarik zalditan nola egiten zuten ikustek txundituta utzi zituen Fortun, Arrano eta Balz gazteak. Baskoiak trebeak ziren zaldi gainean, baina inoiz ez zuten halako abileziarik ikusi. Jakin bazekiten berbereak zaldunik onenak zirela; hala ere, zaldia hain ongi eramatea, eta horren gainean xabalinak eta geziak hainbesteko abileziaz botatzea ez zuten inoiz espero izango. Habusek eta Azenarik trosta bizian jaurtiketa onak egin ondoren ezpatekin egin zuten borroka, imajina ezinezko trebezia erakutsiz. Bukatu zutenean Fortunek Azenarirekin hitz egin zuen.

–Harrigarria nola egiten duzuen borroka!

–Harrigarriagoa ehunka zaldunek nola egiten duten!

–Ez nuke etsaia izan nahi. Hala ere, estribu on horiekin armak errazago erabiltzen ahal direla nabaritu dut. Imajinatzen dut nolako borroka izan dituzuen.

–Ez dakizu zenbat eta zenbat praktikatu dugun eta zenbat ordu sartu dugun! Gure gerlariak baino askoz denbora gehiago ematen dute praktikatzen. Gerrarako prestaketa baino ez dute egiten. Baina... Barkatu, zu eta Antsoren azken urteez galdetzeko gogoia ez zait oraindik agortu. Zer egiten duzue eguneroko bizitzan?

–Beno, Antsok, duela bi urte Errege izendatu genuenetik, beti izaten du zer egin edo auziren bat erabakitzeke. Bestela ere, zuek bezala borrokarako trebaketan eta herrien zaintza eta kudeaketan ematen dugu denbora. Ni neu Erregeren guardiako kapitaina nauzu. Kapitain batzuk aritzen gara langintza horietan eta batzuetan larrialdietan mugako herrietara edo Naiarara joan behar izaten dugu. Azkenetan Ebroko islamiarren kontra borroka txikiak eta bi kanpaina izan ditugu. Latza izan da borroka.

Arratsalde hartan, erreka baten ondoan animalien aztarnak jarraitzean, gizonezko batzuen oin arrastoak ikusi zituzten. Arrano eta Balz begirale onak ziren eta aztarnetan informazioa ateratzen oso trebeak. Aztarnak erakusten zuten ezkutuan aritu ziren gizonak al-Zahra behatzen aritu zirela. Hiri-jaregira abiatu ziren eta abisua pasatu zuten. Jarraian eraso baterako prestatu ziren. Hurrengo goizaldean Kordobako milizianoen erasoa ekidin zuten.

Azkenean joan ziren baskoiak. Azenari erdibituta sentitu zen, baina artean sanhayarrak ez zeuden salbu. Egun haietan Almeriara joateko esan zioten Azenariri inguru haiek al-Mustainen agindupean jartzeko. Gustura egin zuen mandatu hura maitasun kontuetatik urrundu nahi zuelako. Zanarekin zeukan harremana zaila egiten zitzaion. Ehun gerlari, Azenari, Buna eta Umar buru zirela abiatu ziren, Jali Almeriako alkaidearekin, fata eslaviarrekin hitz egitera. Handik hiru egunetara hiriaren ondoan kanpamentua jarrita, agintariarekin mintzatzeko eskaera egin zuten heldu aurretik. Espero baino lehen, handik ordu betera, arratsaldean bertan eraman zituzten alkaidearen aurrera. Jali beste agintari eslaviar asko bezala, handia, zuri samarra eta ile-bizar horiduna zen. Berarekin aulki batean merkatari zahar itxurako gizon bat zegoen. Gazteluko gela handi hartan Jalik eta beste agintari hark eskaera-eskaintzak entzun zituztenean, bakarrik uzteko eskatu zieten. Patioan geratu ziren zain. Handik ordu erdira deitu zietenean Alkaideak eta beste gizonak, hiriko kadia zenak, jakinarazi zieten men egingo zutela, autonomia mantentzearen truke. Negoziatu ondoren, Wadihren taldekoa izanda ere, adostasuna lortu zuten. Gudari batzuk utzi zituzten, bere momentuan zergak Medina al-Zahrara eramateko. Itzuli baino lehen portu aldera joan ziren Buna, Umar eta Azenari behin lana eginda ardo batzuk edatera. Itsasontziak begirutzen begiak alaitu eta gero, kaiaren ondoko ostatu handi eta ilun samar batean sartu ziren.

Taberna, itsasgizonez beteta zegoen. Mahai inguruetan ez zen aulki librerik ikusten, barran justu leku bat egin ahal izan zuten eskatutako ardo pitxer eta hiru edalontzien aurrean. Egindako lana bukatu izana ospatzen ari zirenean, marinela batzuk hasi ziren zirikatzen. Berehala nabaritu zuten borroka bilatzen ari zirela. Soldadutxo deitu zituzten. Batek ozenki esan zuen leku hura ez zela jauntxoentzat. Oihuka hasi ziren eta bi marinela handik bultzatu zituzten lekutik mugitzeko. Hiru lagunek, harrituta, marinela labanak ateratzen ikusi zituzten. Bat-batean gizon txiki baina indartsu batek erasotzaileak bota zituen lurrera eta itsas-txakur deituta ostikoka bidali zituen kanpora. Ez ziren berriro agertu. Gizonak errespetu handia sortzen zuen ingurukoengan. Hiru gazteei barkamena eskatu zien tratuatik, marinela aspaldian lanik gabe zeudela eta haserrea kanpotarrekin kaleratzen zutela esan zien gertatutakoa azalduz. Gizona ardo pote bat hartzera gonbidatu zuten gerlariek.

Ali, berbere masmuda tribuko pilotua ezagutu zuten. Bere lanaz mintzatzen aritu zen. Bere nagusiek bi itsasontzi zituzten eta Almeria eta Afrikako iparraldeko portuen artean egiten zuten lan bidaietan produktuak garraiatuz. Neguan atsedean egiten zuten garraiatu beharreko merkantzia-eskaeren esperoan. Dena den, azken urteetan ez zegoen mugimendu handirik, ez garraio, ezta merkataritzarik bi aldean artean, basamortuan gerra zegoelako eta oso bidaia gutxi eta eskasak egiten zituzten. Alik kontatu zien bi urte lehenago egiten zutena:

—Gu aritzen ginen al-Andaluseko luxuzko eskulanak ipar-Afrikara eramaten eta hango portuetatik esklaboak, produktuak eta urrea ekartzen. Orain ez da merkantzia erdirik mugitzen. Merkatari eta marinela lanik gabe izateagatik familiak gosetuta daude. —Bunak galdetu zion nongoa zen. Alik Souira Guedimako zela esan zien. Masmuda tribuko Atlantikoko porturik handiena zen Souira.

Alik gonbidatu zituen kaian paseatzera. Ehunka unti zeuden han. Aliren enpresako itsasontziak ikustera joan ziren. Bi itsasontziak ikusgarriak ziren, txukun eta garbiak. Alik zioenez bi galera ziren, bata handi samarra zen bostehun bat tona garraiatzen zuena eta berrogeita hamar bat metro luze, hiru masta zituena; Bestea, bi mastakoa, txikiagoa zen, berrogei metro luze eta zortzi zabal, berrehun bat tona garraiatzen eta hirurogei bidaiari ere eramaten ahal zituena. Gertuko itsasontzi txikiagora igo ziren. Sotora sartzeko sarrera itxita zegoen. Txopa osoan itxitura bat zegoen bi ate zituena, bi kamarote omen zirenak. Eskailera batetik kamaroteen gainean atzealdean lema eta lemazainaren tokia zegoen, maila altu baten gainean. Aliren lantokia zen, handik norabidea markatzen zuen eta aginduak ematen zituen belak igotzeko edo modu desberdinetan jartzeko. Branka aldean beste itxitura batean tresnak,

sokak, belak, arraunak, koipea, bikea eta bestelako materialak gordetzen ahal ziren. Kanpoaldean metalezko xafla batzuen gainean eta haizetik babestuta sutegia zegoen, janaria prestatzeko tokia. Mastetan bi haga gurutzatuak zeuden, bela triangelu handiak kenduta zeuden, bilduta. Masta nagusira sokazko eskailera batetik igo zitekeen ikuspegia edo zeruertza alturatik ikusteko. Alik ontziaren bertuteak eta pasatutakoak kontatzen hasi zen. Ontzi harekin sakonera gutxiko uretan ere sartzen ahal zen, bi metro eskaseko sakoneran ibil zitekeen-eta. Azenari amesten hasi zen itsasoan barna kosta haietatik urruntzen ari zela.

Mutila Kordobara itzuli zenean, eguneroko bizitza konplikatu zitzaion. Zanarekin zuen harreman ezkutua, susmo bihurtu zen zerbitzarien artean. Ia behin edo bitan harrapatu zituzten laztantzen. Zerbitzari batek ozenki galdetu zion Zanari Azenarirekin zituen solas eta keinuen arrazoa. Are kontu gehiagoz ibilita ere, Azenarirentzat obsesio bihurtu zen Zanarekin egotea.

## 29 - Afrika.

Neguko egun hotz batean, blokeoaren asperrean, ongi babestutako barneko saloi batean ikatz berogailu baxu baten inguruan Ifriqiya-ren egoeraz mintzatzen ari ziren Zawi, Habus, Bulugin, Hubasa eta Osiris, Afrikako basamortu handitik etorritako gerlari batzuekin. Azenari ere han zen. Kanpotarrek sanhayar tribu batzuen arteko gerra sortu eta luzatzen ari zela adierazi zuten. Ahaggar-ek eta ajjer-ek esklabo eta urrearen merkaturia eta merkatal bideak kontrolatu, kendu nahi zizkioten elkarri, momentura arte basamortua zonaldeka konpartitzen zuten artean. Azken bi urteetan gerra sortu zen. Lamtuna haiek nahiago izan zuten al-Andaluseko anaiekin edo ekialdekoekin elkartu, arrotzen aurka borrokatzeko eta ez iznagen, sanhayarren artean. Komertzioa geldituta zegoen eta gerlari bezala ez bazen ez zuten lanik.

Afrikako iparraldean berbere herrien bizitoki zabala zegoen. Atlantiko eta Mediterraneoaren ondoan, Magraba eta Zanata tribu handiak zeuden al-Andalusetik hurbilenak. Sanhayar tribuak, aldiz, ekialde eta hegoaldean bizi ziren, Senegal eta Niger ibairaino nagusi. Tribu asko eta txikiak ziren lurralde zabalean, basamortua gehiena. Barnealdeko tribuak abeltzainak izateaz aparte, Afrikako komertzioa kontrolatzen zuten. Niger eta Senegaleko luxuzko produktuak iparraldera eramaten zituzten; hegoaldera, ordea, iparralde eta al-Andaluseko eskulan produktuak. Sanhayar tribuak, Ahaggar-ak eta Ajjer-ak bereziki, basamortu hiltzaile hura zeharkatzen zekiten bakarrak ziren. Bi mila kilometro zeharkatzeko ur putzuak eta bideak ongi ezagutu behar ziren, eta ezagututa ere, euri gutxiren arabera batzuetan karabana erraldoiak galdu eta bidaiariak hiltzen ziren jarduera hartan. Negualdean ehunka gamelutako karabanen bidez luxuzko oihal, bitxi, zeramika eta beirazko produktuak garraiatzen zituzten hegoaldera eta esklaboak, gatza eta urrea eramaten zituzten iparraldera. Lamtunak Senegal ibaiaren ondoan Sahelean bizi ziren abeltzaintzaz, Tukror eta Ghana erresuma boteretsuen ondoan, foutake eta soninke herri beltzen ondoan. Ghanak agintzen zuen Saharatik hegoalde zabal hartan eta Ahaggar-ek eta Ajjer-ek ordura arte basamortuko garraioa konpartitzen zutenek borroken ondorioz moztu zuten komertzio guztia.

Lamtunek basamortuko sanhayar tribu eta Ghanakoen artean bitartekari lana egiten zuten. Bi urte baino gehiagotan merkataritzarik gabe ekonomia geldituta zegoen Afrikako eremu zabal hartan. Hegoaldeko herriek ez zituzten iparraldeko eskulanak eta iparraldekoek, aldiz, gatza, harribitxi, esklabo eta urrea falta zitzairen. Lamtuna bat, Idir izenekoa bere herriaren sufrimenduaren berri eman zien.

–Ajjerrek beren nagusitasuna inposatzeko ezintasuna ikusita, gure herrien laguntza eskatu digute Ahaggarren aurka. Guk ez dugu iznagen anaien artean hilketetan parte hartu nahi. Ehunka gazte abiatu ginen Tunisia eta Argelera eta zuen fama entzunda, beni ziri handien armadan sartzen uztea eskatzen dizuegu. Senegal ondoan ez dago bizitzerik, komertzioa berritzen ez den bitartean. –Azenarik, Almeriako esperientzia oroituz pentsatzen ari zena ezin isilduz, bere ideia bota zien:

–Basamortutik ezin bada, itsasontziz Afrikako kostaldea jarraituz Senegalera heldu daiteke, artisautza saldu eta pilatutako urrea ekarri ahal dugu. Almerian, Atlantikoko hiriekin komertzio egiten duten itsasontziak badaude. Egin ahal duguna da bidea hegoaldera luzatzea pixka bat gehiago. Ghanako agintariek baimenduko digute salerosketa, hemengo produktuen behar handia dutelako. –Denek begiratu zioten harrিতuta. Zawik baiezkoko keinua egin ondoren Idir lamtunari galdetu zion:

–Azenariren ideia oso ona da. Guk eginkizun hori eginez gero, aberastuko ginateke. Zuek uste al duzue Ghanako erregeak onartuko duela beste batzuek itsasontziz eskulanak garraiatu eta saltzen badizkiete? –Gizonak hasieran dudatan, bere iritzia eman zion.

–Orain arte adostutako komertzioa baino ez zuten onartuko, baina gure anaien burugabekeria ikusita, ziur asko onartuko dutela komertzio bide berria. Ongi pentsatuta, Ghanako merkataria larri dabilta eta nik neuk hango merkatariei eta erregearen mandatariei entzun diet galdetzen basamortuko beste biderik ez ote zegoen hemengo produktuak eramateko. Nik uste dut baietz, ideia ona dela. Takrur eta Ghanako agintariei etekina segurtatzen badiezue baimena emango dizuete. Senegaletik urtero gutxienez hogeita hamar tona urre ateratzen ziren eta bi urte hauetan ez da urrerik atera, beraz kopuru ederra atera daiteke, beharrezko zergak eta opariak jauntxo sarakole eta takrur agintariei utziz gero. – Ideia eztabaidatu ondoren denek oniritzia eman zuten eta ideia gauzatzeko gelditu ziren.

Hurrengo eguneko arratsaldean Habus eta Zawi, ahaideekin ideia borobildu ondoren, elkartu ziren berriro Idir lamtuna eta Azenarirekin. Ontzat eman zuten Senegalera itsasontziz produktuak eramateko eta urrea ekartzeko ideia. Hori bai, isilean antolatuko zuten espedizioa eta isilean gordeko zuten ziritarrek urre-altxor hura, hartuko zituzten herrien agintaritzak gehiagi estutu gabe gauzatu ahal izateko. Gainera, irabaziak handiagoak izateko ideia borobildu zuten. Artisau batzuk eramanez gero, garraiatutakoaz aparte, hantxe landu ahal izango zuten gehiago, salmentarako produktuak biderkatuz. Idirri galdetu zioten zein produktu izango ziren aproposak eramateko. Zeramika, beira, bitxiak, oihalak eta lurrinak omen ziren Idirren ustez komenigarrienak. Maisu artisauak bilatuko zituzten, lurralde haietako gaiak erabiliz gauza gutxiago eraman behar izateko. Itsasontzietan mintzatzen hasi zirenean Azenarik Almerian gertatutakoaz hitz egin zien:

–Afrikako iparraldearekin merkataritzan aritzen zen pilotua ezagutu nuen Almerian. Udaberrian Bujia, Ceuta eta Atlantikoko hirietatik hegoaldera joaten dira eta gehiago luzatuz gero Senegalera helduko lirake. Esperientzia handia dute eta oraingo komertzio faltagatik erraz lortzen ahal dugu ontzi eder bat prezio onean. Kontatu zidatenez ibai gora sartzen ahal den ontzi arin eta handixkoa daukate, berrehun bat tona garraia dezakeena eta hirurogei pasaiari eraman ere bai.

Denek onartu zuten Azenariren ideia. Ontzia eta tripulazio haiek erabiliko zituzten Senegalera heltzeko. Habus eta Azenari bidaliko zituzten espedizioaren burutzan. Udaberria baino lehen ontzia, tripulazioa, artisauak eta beharrezko gaiak lortu behar zituzten eta lanean hasi. Berehala, inbertsio horretarako dirua behar zutela garbi zegoen. Artisautzako luxuzko produktu batzuk erosi behar zituzten, oihalak eta bitxiak bereziki, eta artisauak soldada alde aurretik eman behar izango zieten, arriskutsua zelako. Gutxienez ehun mila dinar behar zituzten, gehienak luxuzko produktuak erosteko, Komertzioaren gelditzearekin merkeago lortuko zituzten arren. Ziritarrek zuten diruarekin hasteko baino ez zuten. Hala ere, gehiago behar zuten eta konfiantzazko lagunen dirua beharrezkoa zen ekintza sekretupean mantentzeko.

Azenariri ere dirua sartzeko aukera eman zioten. Beraren ideia izan zen bidaia hura. Habusekin bigarrenaren paperean, kapitain lanean joateagatik lortuko zuten urrearen milarena izango zuen soldata gisa, baina gainera inbertsio bezala sartuko zuen dirua ehun aldiz biderkatuko zuela esan zioten. Azenarik bazituen ehun bat dinar, frankoen kontrako borrokan lortutakoak. Bakarrik Abd al-Rahman al-Nasir eta al-Hakamen liburu miragarri batzuk saldata lortu ahal izango zuen diru gehiago. Almerian itsasontzia eta tripulazioak ziurtatutakoan hasi zen al-Mustainen aldeko jassako kulturazaleen artean liburuak eskaintzen. Banu Hudayr batek liburu aukeratu batzuk erosi zizkion eta beste batzuek banakako libururen bat ere bai. Dena den saiatu zen dohainik ez ematen eta beste hirurehun dinar lortu

ondoren Sevillara joatea erabaki zuen. Hango aristokratek, bereziki Abu Umar Ahmad, Hayyay-tar buruak interesa izango zuen eta halaxe izan zen, egun gutxi batzuetan beste zortziehun eta berrogeita hamar dinar eta ehunka dirham lortu zituen.

Neguan zehar eskulan preziatuak erosi eta Almeriako biltegi batean gorde zituzten. Ali pilotua eta Ibrahim kapitainarekin prestaketa batzuk egin zituzten, behar izango zituzten gauzak eta jakiak momentuan prest izateko. Maisu artisauak ere bilatu zituzten. Berehala, beira, zeramika eta xaboi-lurrinak lantzeko artisautza Afrikan bertan egiteko plana egin zuten. Idirrek garbi utzi zuen etekinak ateratzeko kalitatezko eskulanak eramatea ez zela nahikoa, Takrur eta Ghanako mugazainak lapur hutsak ziren eta maltzurki behar baino gehiago eskatzen zuten merkantziak sartzeko eta ateratzeko. Are gehiago, askotan beste mugazain batzuek berriro eskatzen zuten zerga, gerlarien mehatxupean. Idirrek eta bereziki bere lagun Jonayk, bera berbere masmuda, esperientzia zuten funtzionario gaiztoekin eta beraien laguntza eskaintzeaz gain, saltzaile on batzuen beharra aurreikusi zuten. Mustafa, Faruq eta Abdul ben al-Bujia anaiak aurkitu zituzten. Arabiar-berbereak ziren eta Senegal iparraldeko hirien arteko garraio eta salmentetan eskarmentu zutenak, elefante bat salduko zioten basamortuko ajjer bati.

Artisauetan, Muhammad eta Ismail semea, zeramika on eta desberdinak egiteko gai ziren. Faisal, beira lantzeko maisua zen eta Jalil bere laguntzailea berrikuntzetarako gauza zen. Jusuf maisuak kalitate handiko lurrin eta xaboiak egiten zituen eta Hasan bere ikasle aurreratua zen. Artisau guztiek eramango zituzten eskulanak aukeratu edo egin zituzten. Saltzaileek bitxiak, larruzko lanak, jantzi, zapi, oihal eta bestelako eskulanak aukeratu zituzten, berrogeita hamar bat tona artikulutan. Lehengaiak ere eramango zituzten. Zeramika egileek kalitatezko buztin desberdinak eraman nahi zituzten, baita beren lana egiteko metal oxidoak eta bi labe eraikitze materialak ere. Beira egileek, silize, kalitatezko harea aurkituko bazuten ere, Sosa kaustikoa eta kare pixka bat behar izango zuten, baita bero handia lortzeko laborako adreilu bereziak eta tresnak ere. Azkenik, xaboigintza eta lurrinak egiteko metalezko galdarak, tresnak eta sosa gehiago.

1011. urteko udaberrian abiatuko ziren. Lamtunek ongi zekitenez Senegal ibaia itsasontziz igotzeko uda hasiera garairik onena zen. Maiatzetik urrira euriteen eraginez hiru-lau metro gehiago igotzen ziren. Txalupa handiak ez ezik, bi metroko kalatua zutenak ere, ibai gora sartu ahal izaten ziren.

Bitartean, azkeneko prestaketak egin behar zituzten. Bidaiara berrogeita hamabost gizon eta mutil joango ziren: kapitaina, pilotua eta zortzi marinel trebe; bederatzi artisau eta merkatari; hogeita lau gerlari, arraunean ere egiten ahal zutenak; bi gidari, Idir lamtuna eta masmudar bat; lau morroi, sukaldaria eta bere hiru laguntzaile. Habus agintaria izango zen eta Azeneri bigarrena. Maiatzean dena prest zegoen bidaia egiteko. Materialak, janaria, itsasontziak behar zituen gauzak eta tresnak ontziratuak ziren. Ontzia bera ere prest zegoen. Zawi, artisauak bilatzen aritu zena, egun bateko proba-ibilaldira agertu zen. Ontzia eta gidari aproposak zirela ikusitakoan, bost egunen buruan konfiantzazko gerlari iznagen-ak aukeratuta abiatuko ziren Senegalera.

Madinat al-Zahratik atera ziren egunean bertan sekulako euritea egin zuen. Mendian bi eguneko kanpamentu batean itxoin behar izan zuten eta beste bi pasatu ziren bideetatik ibili ahal izateko. Jakin zutenez Kordoban uholdeak 2.000 etxe bota zituen eta hildako pila utzi. Euriteak harresiak desegin zituen, jakiak galarazi eta gaixotasunak zabaldu ziren. Eskerrak Almerian euri gutxi egin zuen eta abiatu ahal izan ziren.

Maiatzaren hasierako bidaia oso ona izan zen Gibraltar pasatu arte. Egun eguzkitsiak, haize freskoa eta gau izartsuak izan zituzten. Urrunean herri zuriak eta kosta berdeak ikusten zituzten eta itsaso urdin iluna. Ontziaren bizitzara ohitu ziren. Marinelak ez molestatzen ikasi zuten. Hamaketan lo egiten, espazio txikian bizitzen ohitu eta denbora-pasak bilatzen aritu ziren. Diru-jokoetan, apustueta eta xakean aritzen ziren. Azenarik eta Habusek irakurri egiten zuten. Haizerik ez zenean, gizonak arraunean aritzen ziren, erreleboetan. Afrikako kostatik hegoaldera bigarren eguna egin zutenean, ipar-haizeak gogorrago jo zuen eta ekaitza izan zuten. Zorabioak jota, gizonak kareletik botaka aritu ziren, marinela lasai ibiltzen ziren bitartean. Ez zuten kosta bistatik galdu eta abiadura handian egin zuten bidaiaren lehenengo zatia. Egun batean haizeak itsas barnera bultzatu bazituen ere, kapitainak utzi egin zuen itsasoan barneratzen. Berak zioenez handik irlak zeudelako. Eta halaxe gertatu zen. Irla batean lehorreratu ziren atsedean eta ur freskoa hartzeko. Bertako biztanleak berbereak ziren eta ongi hartu zituzten. Hala ere, haizeak hego-ekialdera beraien bidera eramaten zituenez tinko baina leun, itsasoratu ziren berriro ere, justu frutaz hornitu eta hustutako ur-upelak beritutakoan.

Handik egun gutxitara, kosta bistan, haizerik gabe arraunean egiteari ekin zioten egunetan zehar, noizean behin erreleboak eginez. Lanean hamabi arraunlari aritzen ziren batera, danbor baten erritmora mugituz eta berbere kantuen laguntzaz. Habusek eta Azenarik ere parte hartu zuten gaixotutako bi gerlarien partez. Zirudienez janarian izandako aldaketengatik gizon batzuk tripako minez ari ziren. Horretaz gain, ahal zutenean kanpo aldean eta kamaroteetan tartekatzen zuten denbora. Bi lagunek zorte handiagoa zuten gela txikia bakarrik sei pertsonekin partekatu behar baitzuten, binaka manpara batzuen bidez intimitate gehiago lortuz. Beste gelakideak kapitaina, pilotua, hiru artisau nagusiak eta Mustafa merkataria ziren. Gazteak, Ali eta Mustafarekin ari ziren hizketan, pilotua lema nagusian zen bitartean. Mustafa gizon alaia eta atsegina izan arren, pentsatzen ere bazekiela erakutsi zuen Habusek egindako galderekin.

–Ali, orain arte ez da istilu handirik izan. Normala al da hau?

–Ez, noski. Egunak pasa ahala eta bidaia espero baino gehiago luzatzen bada, arazo handiak sor daitezke.

–Gure artean zaila iruditzen zait, baina zergatik izaten dira borrokak?

–Begira, guk marinela ongi kontrolatzen ditugu, gerlariak ere... –Bi mutilei begira esanda–. Zuek kontrolatzen dituzue eta artisauak eta merkatariok oso lagunkoiak dira. Arazoak, diziplina faltak eta injustiziek sortzen dituzte. Artean badugu janaria eta ur nahikorik gainera. Espero dezagun horrela jarraitzea, bitartean gutxienez beste bost bat egun emango ditugu Senegal ibaia ikusi baino lehen. Eskerrak haizerik ez denean itsas korronteek ere hegoaldera eramaten gaituzten. –Azenarik galdera bat egin behar izan zuen jakin-minak jota.

–Orduan nola bueltatzen da iparraldera? Aurreko egunean esan zenuen haizeak bakarrik iparraldetik jotzen duela.

–Bai, halaxe da. Arraunak erabiltzen dira iparraldera jotzeko. Horregatik ez da bide hau egiten, iparraldera itzultzeko zailtasunagatik. Arraunez gutxienez hiru hilabete behar izango genituzke Giblaltarreraino. Beste aukera bat da ipar-mendebaldera sartzea kostatik urrutiko ipar-ekialderako korronteak edota haizeak izan arte.

–Baina itsasoa bukatzen da mendebaldean. Hori diote liburuek.

–Marinelok badakigu egun askotan, bi mila itsas-miliatan gutxienez joan daitekeela barnera. Ekaitzak izugarriak izan daitezke, hala ere, eta arrisku handia dago hondoratzeko. –Denak isilik geratu ziren itzultzeko momentuan pentsatzen.

Hemeretzi urteko gazteek adin beretsuko Ismail, Jalil artisauarekin eta Abdul merkatiarekin egin zuten harreman handia. Arratsaldero elkartzen ziren afaltzeko eta oheratu baino lehen izaten ziren mintzatzen. Beren ametsak eta gogoak adierazten zituzten. Ismail eta Abdul ziren ameslarienak.

–Nik entzun dut buztina bilatzen duzunean, ukabilaren tamainako urre harriak aurkitzen direla –zioen zeramista gazteak. Abdulek ere baieztatzen zuen berak horrelakorik ikusi izan balu bezala, berak entzundakoa gaineratuz.

–Niri esan zidaten Sigilmensan, basamortuaren erdian, eramaten dituzten luxuzko produktuak pisatzen zituztela eta pisu bereko urre kopuruarekin ordaintzen zituztela trukean. Daramatzagun hirurogei tona merkantzia, urre bihurtuko dugu eta oraindik zeramikak, beirak eta lurrinak egin eta salduko ditugu. –Denek jakin bazekiten ez zela hain erraza izango, baina amets hura imajinatzen ari ziren. Jalilek komentatu zuen beirazko lanak garraioan askotan hausten zirela eta horregatik izaten zirela hain preziatuak. Jarraitu zuen kontatzen—. Eskaera handia dago. Gainera, koloretako beirak egiteko teknika berriak daude, oxido berde, urdin eta gorriak; argiak edo ilunak erabiliz. Bestalde, eroslearen gustuen arabera egin daitezkeela kontuan izanda, salmenta ederrak egin behar ditugu.

Habus eta Azenari, Kenan, Buna, Ekade eta Miguan, batzuetan beste gazteekin elkartzen ziren, solas-jolasetan berdina ziren-eta. Solasgaiak askotan aberastasun ametsak ziren; gerlari gazteen gogoetan, ordea, kezka nagusiak emakumeak, abenturak eta borrokak ziren. Miguanek emakumeekikoa baino ez zuen buruan eta nabari zen.

–Nik ikusi ditut Senegaleko emakumeak. Politik dira, titi eta ipurdi ederreko emakume pusak –bota zuen, eskuekin gehiegizko neurriak deskribatzen zituen bitartean. Denek barre-algaran ospatu zuten gaztearen ateraldia. Bidaiariek, beste talde, beste kuadrilla batzuk osatzen zituzten, adina, estatusa eta gustuen arabera gehienetan.

Brankako itxuran ongi antolatuta, tresnak, iltzeak, sokak, egurrak, bikea, hagak, belak eta arraunak gordetzen ziren, baita denbora baterako eskura izateko ura, fruta eta bestelako janaria eta sutarako egurra. Gainerako hornidura eta janaria sotoan gordetzen zen, gutxitan irekitzen zena. Askotan baten bat estalian edo kamaroteetan sartu eta ezkutitzen zen jendetza eta zaratatik urruntzeko. Brankako itxurako txokora ere joaten ziren lo egitera edo lasaiago egon ahal izateko.

## 30 - Takrur erresuma.

Egun gehienetan ez zuten arraunean egin behar haizeak eta itsas korronteak lagunduta. Horrela, Almeriatik atera zirenetik hogeita hamalau egun pasa ondoren, Senegal ibaiaren bokalera heldu ziren arratsalde batean. Ordura arte itsasoaren haizeari esker ez zuten bero gehiegi sentitu. Egun hartan ez zebilen haizerik eta bero sapa sentitu zuten. Bazekiten lurralde haietan beroak egongo zirela, baina ez hainbeste eta urte guztian. Okerrena hezetasuna zen.

Harea-barrera luzearen atzean omen zegoen ibaia Jonay lamtunaren arabera. Gidari horrek gogorarazi zien aurreko hilabeteen adierazitakoa: Takrur erresuma zegoela Senegal ibaiaren amaieran, Takrur zela erregeen titulua eta Podor hirian ordaindu beharko zutela merkataritzarako eskubidea. Barreran sarrera bilatu zuten Ibrahim kapitainak eta Alik. Badia zabalaren barne-aldera iparraldera Diamguene edo beste izenez, Sene hiria zegoen. Zaingoko ontzi batek geldiarazi egin zuen itsasontzia. Jonayk eta Idirrek azaldu zieten espedizioaren asmoa eta helburua. Hiriko arrantzaleen herria eta txalupaz betetako ibaiertza pasatuta, gaztelu baten aurreko kaira hurbiltzeko eskatu zieten. Hiriko gobernadorearengana eraman zituzten.

Gazteluaren aurreko plaza handian haiei begira agertu ziren herritarrak. Beltzak izaki, harrigarriki oso itxura eta lurrazal ilun maila desberdinetakoak ziren. Idirrek kontatu zenez, serer herriko jendearekin, lamtunak, bere herrikoak nahasi ziren eta ondoren fulbeek menperatu zituzten aurrekoak. Foutake hizkuntza erabiltzen zuten, fulbe edo peula ere deitua, serer eta lamtuna hitz askorekin nahasiak. Urteetan nahasi ziren arrazak baina baziren oso itxura desberdinetakoak. Batzuk nahiko zuriak ziren, beste batzuk beltz-beltzak, baina gehienek sudur eta aurpegi luzekoak, fulbeen eraginez zirudienek.

Habus eta Azenari, Jonay lamtuna itzultzailearekin, Aberkan, sanhayar eskarmentuduna, Mustafa merkataria eta Buna gerlari-burua lagunduta gaztelura gonbidatu zituzten, saloi batean gobernadore eta gerlari batzuen aurrera eramanez. Sabaitik xafla edo paleta batzuen mugimenduari esker airea mugitzen zuten esklabo batzuek. Tally gobernadoreak, gizon beltz-beltza, luze eta mehea zena, serio, formala eta argia zirudien. Hasierako agurrak egin ondoren, gobernadorearen baimenarekin Jonayk berriro azaldu zion beraien helburua. Noble hark ongi etorri eman ondoren, komertzioaren etenaldi luzearen bukaera goraipatu zuen luze eta zabal. Poztu zen komertzio bidea Takrurretik eta Senegal ibaitik aukeratzeagatik eta gogoratu zien Podorren merkantzien hamarrena utzi beharko zutela joatean eta beste hainbeste bueltan. Beraiek kontrolatu behar zituzten merkantziak eta bi soldaduk lagunduko zituzten hiribururaino. Ghanako erresumak zergetan eskatuko zietena beste haien kontua zela zioen. Habusek ongi etorri eskertu eta Mustafa aurkeztu zion honek espedizioaren eskaera egiteko. Gizonak Idirren bitartez Takrur erresuma goraipatuta, berriro jarrera eskertu ondoren, zergen gehiegizkotasuna argudiatzen hasi zen, baita erretolika nahasgarria erabili ere .

–Zuek produktuak sartzeko eta urrea ateratzeko eskatzen duzuen bostena gehiegizkoa da. Proportzio hori da osotara zuei eta Ghanako erresumari batera ematen zitzaizuen. Zuek lehen mugetatik pasatzen ziren merkantzien hamarrena hartzen zenutenean, horren erdiarekin gelditzen zineten, beste erdia Ghanara eraman behar zenutelako. Baina bakarrik merkantzien zati bat pasatzen zen zuen mugetatik, gehienak Ghana beraren mugetatik pasatzen baitziren –jarraitu zuen eten txiki bat egin ondoren–. Hamarrena zen zerga guztia, merkantziak sartzean eta berdina zen ateratzean. Baina, Ghanak ez zuen berriro zergarik eskatzen. Orain esaten duzuenaren arabera, Ghanak berriro eskatuko digu berea. Horrela ezin dugu negoziarik egin eta agian –hitzak nabarmenduz jarraitu zuen–, komeniko litzaiguke Gambia ibaitik sartzea Bambukera joateko –berriro egin zuen etena–. Orain gure itsasontziaz

merkantzia guzti-guztiak sartu eta aterako lirateke Takrurretik eta gainera Ghanako eskaerari egin beharko genioke aurre. Guk ezin dugu gure produktuen ia erdia zergetan galdu, zuen eta Ghanakoentzat utziz. Gurea izango da dudarik gabe aurten sartuko den ia komertzio guztia eta beste bide batetik egingo bagenu, zergen erdia aurreztuko genuke. Ghanak ziur asko, zuek bezala hamarrena sartzeko eta beste hainbeste ateratzeko eskatuko digu –eten luzeagoa egin zuen berriro argudioetan jarraitzeko.

–Hala eta guztiz ere, komertzioa errazago litzateke Senegal bide honetatik. Seguruagoa. Zuek gutxiago eskatuko bazenute egingo genuke. Orain, bat-batean, komertzio zerga guztiak bi momentutan jasoko zenituzkete adostasun batera ailegatuko bagina. Hirurogei tona bitxikeria eta artelanetatik, orain hogeirena, luxuko artisautza ederreko hiru tona jasotzea ez litzateke gutxi. Oso artelan politak eta onak dira gainera... Bestalde, artisauek onak ekarri ditugu eta beira, zeramika eta lurrin piloak edo irabazien zerga galduko zenituzkete, beste bide batetik bueltatuz gero... –Isiltasuna erabatekoa egin zen. Minutu luze bat pasa zen Mustafak hitzak ia xuxurlatuz, azkeneko eskaintza egiteko–. Hiru tona altxor galdu ahal duzue orain eta itzuleran askoz gehiago. Gainera, zuei opari politak ere emango genizkizueke...

Gobernadoreak ez zuen aurpegia aldatu. Mustafari eta Habusi begirada sakonak eta luzeak bideratu ondoren, erabaki bat hartu omen zuen. Tally gobernadorea konturatu zen lamtuna eta sanhayar haiek ez zirela edonor. Habus, Ziri sanhayar guztien buru izan zenaren biloba zela atera zien, baita espedizioa Zawi ben Zirik antolatu zuela ere. Goraiatu zuen aspaldian Zirik basamortuko merkataritza zaindu zuela eta harreman onak izan zituela Takrur eta Ghanarekin.

–Jaunok, egia da komertzio falta honek baldintza eta egoera berrietara eraman gaituela. Gehiago eskatzen ari bagara ere, guk segurtasuna emango dizuegu. Dena den,... –berak ere luzatu zuen esaldia–. Egin duzuen eskaintzari nire oniritzia emango diot eta Podorrera bidaliko zaituztet gure erregearen erabakia izateko. Ez dut uste arazorik izango denik. Nik bidaliko diot guzti honen berri eta gure gudariren laguntzaz ez duzue arazorik izango hara heltzeko. Beraz, jan ezazue gure ogi eta gatza eta edan palmondo ardo hau, gure tratu hau ospatzeko.

Horrela, ospakizun harekin, hain abegi eta jarrera onak eskertzeko, artisautzako objektu batzuk eta lurralde haietan gehien preziatzen zituzten beirazko edalontzi-pitxerrak, jantzi eta oihal batzuk gobernadoreari oparitura, erretiratu ziren itsasontzira bi gerlariren laguntzaz. Ikuskaritza azkar bat egin zieten, Podorren erregeak zergak gutxitzearen aldeko erabakiaren zain.

Ur freskoa berritzeaz gain, arratsean janaria erosi ahal izan zuten Sene hirian eta aukera izan zuten lur gainean ibiltzeko. Hiria ez zen oso handia eta arrantzale herria zen azken batean, gazteluan komertzioa kontrolatzeaz aparte. Dena den, beraien etorrerak barne-aldeko jende gehiago erakarri zuen eta gaua pasatzeko zaintza handia jarri behar izan zuten, gobernadoreak osatu zuena, eraso eta lapurretak ez izateko. Hurrengo goizean, gerra-txalupa baten gidaritzapean, arazorik gabe igo ziren ibaian gora ekainaren bukaeran ibaiak ur maila handia izaten zuen-eta.

Buztinezko etxe borobilak, lastoz estalitako etxe multzoak eta herriak ikusten zituzten ibai ertzeetan. Ibai ondoko zuhaitzez gain, larreak eta zereal soroak ikusten zituzten baso txikien artean. Mugalariek, ibaian zehar izaten ziren kontrolak pasatzen utzi zizkieten, gerlariren txalupa eta ontziraturako bi ofizialei esker. Berrehun kilometro eta bost egun pasa zirenean Podor hiria ikusi ahal

izan zuten. Ibaian ekialdera joz, ibili ziren egunetan, eta bat-bateko hegoalderako errebolta batean, korrante nagusiaren indarretik babestuta mendebaldean, hiri txukuna ikusi zuten kaien ondoan txalupa eta ontzi asko biltzen zituen. Lehorreratu orduko, erregeak espero zituen eta jauregi ederrera eramana zuten. Hiria zeharkatu zuten kale zabal batetik. Mendixka batean harresiz inguratuta, dorre ederreko buztin koloreko jauregi garbira hurbildu ziren. Ataria pasatu eta patioaren hegoaldean erregearen estalkira hurbildu ziren. Erregea handikiz eta gerlariz inguratuz zegoen. Han ere esklaboek sabaiko xaflei eragiten zieten aire beroa mugitzeko. Habusek eta enparauek erregea agurtu ondoren, berriro Mustafak egin zuen egoeraren azalpena. Bukatutakoan, erregeak ongi etorri eman ondoren, Tallyk idatzitakoaren arabera azaldu zuen, beraren erabakia esan gabe. Nola ez, goraipatu zuen Ziri eta beraren agindupean bakean eta onean bizi izan zuten garaia. Berriro garai eta harreman onen esperantza aipatu zuen. Horretan zeudela, itsasontzia ikuskatzen ibiliak ziren funtzionarioek adierazi zuten informazioa. Erregeak orduan adierazi zuen bere erabakia. Produktuen hogeirena onartuko zuten, baina berrogei bat tona lehengaiengatik ere, sosa, oxido, kare eta buztinagatik, artelan produktuetan hiru tona ez, beste tona bat eskatu zuen, osotara lau tona luxuzko produktu lortu nahi zituen. Habusek besteei galdera isila eta antzetzua egin ondoren onartu zuen eta eskerrak emanaz. Gainera, eskulan guztien selekzio on eta eder bat oparitu zioten erregeari, beste berrehun bat objektu, gehienak txiki polit samarrak. Honek ukitu eta disfrutatu zituen oihal eta zeramikak, beirazko kopak eta ontziak, larruzko gauzak, metalezko edergailuak eta bitxiak. Bereziki ontzi txiki ederretako lurrinak usaintzen eman zuen denbora, mota bakoitzeko eskulan batzuk hurbiltzeko eskatu ondoren. Han gelditu zen denari so.

Hurrengo egunean Altxorreko funtzionarioak zerga bezala hartzen ari ziren produktuak eta proportzioak zaindu ondoren, eta janari horniketa eginda, abiatu ziren Kayesera, Senegal ibaian gora Ghana erresumako hiri komertzialera. Lurretik zaldiz hogeitaz gerlari takrurtar lagunduko zieten egonaldi osoan. Utzitako zergen ordez Takrurrek segurtasuna bermatuko zuen. Senon kapitainak agindua zuen berberean segurtasun pertsonala zaintzeko eta hala egingo zuten lehen momentutik egonaldi osoan, isilean bidaiariak gertutik zainduz, besterik gabe edo nondik ikusten zen erasoak saihestuz eta beraien interes ekonomikoak babestuz. Mezulariak bidali zituzten Ghanara eta Kayesera.

## 31 - Ghana.

Ghana edo Wagadu erresuma, beraiek deitzen zuten bezala, hirurehun urte lehenago sortu omen zuten soninkeek, sarakole elite batzuekin batera. Nekazariak ziren eta abeltzaintza garatu zuten estepetan. Merkataritzaren segurtasunak erresuma indartsuagoa izateko beharra sortu zuen. Erregeek beste errege txikiago batzuk menperatu zituzten, lurralde desberdinak bakean mantenduz. Esklabotza eta urrearen merkataritza kontrolatu zuten, iparrera, basamortura, produktu haiek eramanez eta handik berbereen bidez gatza, artisautza, oihalak eta beira-ontziak hegoaldera eramateko. Noble batzuek lurralde zabaletan agintzen zuten, lur eta animalia asko edukitzeaz aparte; beste handiki batzuek merkataritza handi horretan jarduten zuten. Segurtasuna bilatzeak batzuetan urrutiko leku desberdin askotara eraman zituen, Nigerrera ekialdean, Senegal ibaira hegoaldean eta mendebaldean, eta basamortuondoko sahelera iparraldean, Audagost, sanhayar lamtunen hiririk handiena konkistatuz. Takrur ere kontrolatzen zuten mendebaldean, menpeko erresuma horietakoa bat zen-eta.

Hamabi egun behar izan zituzten Kayeserako. Ibai ondoko lautada haietan etxe gehiago ikusten hasi ziren. Hirian sartu baino lehen hegoaldeko ertzean, gaztelu baten ondoan lehorreratu ziren. Kayes hiriko kanpoaldean eremu zabal bat utzi zieten kanpamentua eta tailerrak jarri ahal izateko. Idir, Kumbi Saleh-raino, Ghanako hiribururaino joan eta itzulia zen. Espediziokoen asmoak behinean onartu zituzten eta Wagadu edo Ghanako noble batek merkantziak ikuskatutakoan, zerga eta opariekin abiatu behar zuten erresumako hiriburura, besteek kanpamentua antolatzen eta hesitzen zuten bitartean. Beren bizitokia segurua, ahal zen neurrian freskoa eta eroso eraiki behar zuten. Kanpamentuaren erdian plaza zabal bat utziko zuten, eguzkiko berotasunetik babesteko etxe eta biltokien ondoan estalpeak izango zituen.

Erositako gurdi batzuetan zergak eta opariak garraiatu zituzten saheletik hiribururaino. Beste zortzi bat egun kostatu zitzaion heldzea. Senegal ibaitik iparraldera zereal soroak ikusi zituzten eta urrundu bitartean estepan abeltzaintzarako larreak aurkitu zituzten, behiak, ardiak eta ahuntzak milakako taldeetan. Hiriburuaren inguruan baratze eta baso handiak ikusten ziren. Sartu baino lehen, baso baten ondoan kanpatu zuten freskatzeko. Baso haietako bat sakratua zen eta han sartzan zituzten gaizkileak espetxe handi batean. Lapurrak esklabo sartzan zituzten. Kumbi Saleh bitan zegoen banatuta, hiri komertziala kanpotarrez beteta zegoen, inguruko erresuma eta herrietako merkatariek nagusi izanik eta harresiz inguratutako hiria bera, elite sarakole eta gehiengo soninkeen hiri ederra. Bertakoek harrizko eta egurrezko etxe handiak eta lorategiak zituzten. Kaleak zabalak ziren. Plazetan jendeak erosketak eta lanak egiten zituzten zuhaitzen itzalpean. Esan zientenez iparraldeko luxuzko produktuak aparte, aktibitate eta merkataritza handia mantentzen ari zen. Herritarrak beltzak ziren, altuak, itxura onekoak eta buru borobilak zituztenak. Soninkeak lagunkoiak eta alaiak ziren. Oso bizitza sozial handia zutela zirudien. Etorri berriak ikusi zituztenean ongi etorri zalapartatsua egin zieten. Ura eskaini zieten jauregi nagusiraino hurbiltzen ziren bitartean. Wagadu hitza sanhayarrek ulertzen zuten bakarra zen. Gogoratu behar da han inor ez zuela Ghana hitza onartzen, beraiek Wagadu deitzen baitzuten beren erresumari eta erregeari.

Erregearen bizitokia, jauregi eta kuarter multzo handi bat zen. Harrizkoa. Patioetan lorategi eta ur biltegiak ikusten ziren. Gerlari lerroak agertzen ziren hormen gainera, dena zainduz. Zaldi asko eta politak ikusi zituzten sarreran. Jauregi nagusian sartu zituzten. Gela handi eta fresko batean Wagaduko erregearen aurrean belaunikatu ziren. Erregearen atzean handikiak zeuden eta inguru guztian gerlariak. Esan zientenez hantxe egiten ziren epaketak. Idirrek aurkeztu zituenean erregearen partez ordezkari batek hitz egin zuen dotore eta handikiro, Habus ben Maksan ben Ziriri bere aitonaren garaia gogoratuz.

Noble ikuskariak eman zuen bere informea eta ekarri zituzten erregearentzako opariak. Erregearen laguntzaileek goraiatu eta miretsi egin zituzten artelanak eta tartean erregeari erakusten zioten pieza bat edo beste, edo berak baten bat hurbiltzeko eskatzen zuen. Berriro desio onak elkarri emanda, formalki agurtu egin zuten elkar. Bi urte osoz artisautza lantzeko eta merkatzeko baimena eman zieten, bost tona artisutza produktu eder haien truke. Joango zirenean hogeirenarekin konformatuko ziren, opari eder handiak emanez gero. Ez zuten zerga urretan nahi, artelan ederretan baizik. Zeramikak, koloretako beirak eta lurrinak izan ziren gehien estimatzen zituzten produktuak. Aipatu bezala beste bost tona produktu kendu zizkieten zerga gisa. Hala eta guztiz ere, pozik alde egin zuten merkatarien hirira. Merkatarien artean lamtuna eta beste imazighen batzuk baziren eta haiengana jo zuten ekarritako eskulanetan bitartekari izateko. Haien artean ajjerrak eta ahaggarak ez ziren gaizki konpontzen, beraien interesak ez baitziren aberastasunzalekeriaz jotako basamortuko tribuko nagusi batzuenak. Eguna, bitartekariak aukeratzen eta Kayesera gonbidatzen eman zuten eta merkantzia batzuk urre gutxiren truke baina propaganda bezala saldu ondoren, festa handi bat antolatu zuten kanpamentuan. Besteak beste, Azenzar masmuda, Afur ahaggarra eta Ubai lamtuna Kayesera joango ziren zubi lana egitera. Habusek Idirren bitartekaritzaz imazighen haiek ez ezik, soninke batzuk ere konbentzitu zituen sanhayarren intereseko merkataritzan sartzeko. Hizketan aritu ziren momentu batean Habus eta Ubai lamtuna.

–Ubai, uste al duzu soninkeak gure produktuekin negoziatzera etorriko direnik?

–Bai. Izan lasai. Aberastu nahi dute eta zuek zarete negozio egiteko aukera bakarra.

–Sinesten dizut, baina gelditzen ahal dira zuzeneko parte hartzerik gabe, salneurri baxuak izan arte.

–Ez izan kezkarik. Nik neuk entzun diet merkatari txiki batzuei zerbait irabazi nahi badute, Kayesera joan behar dutela. Berandu baino lehen ehunka merkatari ibiliko gara zuen kanpamentu ondoan gure biltegiak antolatzen. Imazighemez gain serereak ere guk nahi baino gehiago sartuko dira negozioan. –Habusek ahopez eskaintza egin zion.

–Laguntzen badiguzue, zuek eta gure herrikook, aberastuko zarete. Hasieran ez bada, gu joateko momentuan zuen aldeko baldintzak hobetuko ditugu. Dena den, kontuan izan ezin ditugula, hasieran behintzat, gure artelanak merke utzi. Gauza bat egingo dugu. Zuekin tratua egin ondoren, ezkutuan ehuneko hogeit hamar itzuliko dizuegu, egindako negozio kopuruaren arabera –horrelako jokaerekin kudeatzen zuen Habusek merkataritza.

Hurrengo egunean Senegal ibairantz joan ziren erregeak utzitako berrehun gerlariren laguntza izanik. Bakarrik leku batean gelditu ziren egun batez kobrea erosteko. Niarin meatzeak zeuden eta kobrea xaflatan erosi zuten gameluetan eramateko. Orduan gurdirik eraman beharrik gabe sei egun eskasetan egin zuten errekarako buelta.

Kayeseko kanpo aldean, gaztelu handiaren ondoko eremu zabalean, ibai ondoan, harrizko eta buztinezko hesi ederrez babestutako kanpamentua aurkitu zuten, hamasei egunetan eraikia. Hegoaldean gaztelua zuten. Sarrera nagusia iparraldean ibaira begira zegoen. Hiria ekialdean zegoen. Edonola ere, tartean leku dezente gelditzen zen, eremu ireki eta zabal bat, azoka eta beste eginkizunetarako. Hiri ondora etorriko ziren merkatariak beren etxe-biltegiak eraikitzeko toki aproposa zen hura.

kanpamentuaren barnera sartu zuten itsasontzia alde batean gorde zuten, mastak erretiratuz eta ongi estaliz. Ehunka pertsona sartzeko moduko plaza baten inguruan, ongi itxitako saltokiak eraiki zituzten bukaeran, hornitegiak, biltegiak, tailerrak eta espedizioen bizitokiak saltokien atzean utziz. Plazaren bi aldeetan, ezker eta eskuin, biltegi gehiago zegoen. Takrur eta Ghanako gerlarientzako kuartelak ere ikusi zituzten eraikita ekialdean.

Plazan zegoen eraikin handiena saltoki nagusia zen eta haren atzean hornitegiak eta tailerrak jarri zituzten. Zeramika tailer handian bi labe muntatu zituzten. Beira egiteko tailer bikoitzean ere, adreilu berezietz eginak, beste bi labe eta sutegei bat jarri zituzten ondoan burdindegia eta kobrea lantzeko eremu txikiagoa zuena. Hirugarren tailerrean, xaboi eta lurrinak egiteko su-toki handiak, alanbikak, pertz eta galdara batzuk zituzten.

Zaintzeko ardurarik gabe, imazighen gerlariak tailerretako laguntzaile bihurtu ziren eta berdin marinela. Kapitainak, Ali pilotuak eta gerlari-buruek gizonei agintzen zieten orduan ere, bestelako eginkizunetan izan arren. Hiru anaia saltzaileek ere laguntza izan zuten. Habus eta Azenarik denaren arduradun ibiliko ziren. Beste gerlarien ofizialekin harremanak zaindu behar zituzten eta horregatik Buna, Kenan, Aberkan, Jonay eta Idir mantendu zituzten beren ondoan, aginduak emateko eta besteekiko harremanak bideratzeko. Lamtunen itzultzaile lana behar-beharrezkoa zen. Aginte tokia ia kanpamentuaren sarrera ondoan jarri zuten. Bi solairuzko etxea zen eta dorre altu bat zuen atxikita. Beheko pisuan Habus eta Azenari elkartuko ziren hurbilekoekin egunerokoak burutzeko eta goikoan logelak zeuden, kapitain haientzako. Atzean gelditzen ziren sanhayarren eta masituden bizitokiak. Plaza handiaren bestaldean, saltoki handia, tailerrak eta jantoki-sukaldea zeuden.

Saltoki nagusia plazako eraikin handiena zen eta bertan ongi antolatuta, beirak, zeramikak, lurrin-xaboiak eta bestelako artisautzak ikusgai zeuden, ongi babestuta. Burdin sare baten atzean hiru merkatariek laguntzaileekin, salgaiak erakutsiko zizkieten bakanka erosleei. Saltoki zabalaren sarreran, harrera gela zegoen. Han laguntzaileek edariak eskainiko zizkieten erosleei itxoin bitartean eta burdinazko hesiaren bestaldean, salgaiak nabarmentzen ziren ongi argitutako gelan.

Jantokian hirurehun pertsonentzako lekua zegoen, bi txandatan eginez gero. Mahaiak handiak ziren, lerrokatuta zeuden eta bankuak zituzten aldeetan. Atzean, janaria banatzeko mahai luze bat, sukalde handia eta janari biltegia zeuden. Mahai-lerroen artean kale zabalak zeuden, banaketak erraz egin ahal izateko.

Berehala antolatu ziren eta abuztuaren lehenerako hasi ziren agertzen Kumbi Saleh-tik etorritako merkatarri sanhayarrak, soninkeak eta beste asko ere bai. Ubai, Azenzar eta Afurrekin batera merkatarri pila bat, bitartekari lanean arituko ziren, momentuz nahikoak zirenak. Batzuek luxuzko produktuak erosten eta saltzen zituzten; besteek bestelako gaiak, eta janaria. Harresietatik aparte, tartean plaza bat utziz, merkatariek antolatu zituzten beraien biltegi, dendak eta baita behin behineko bizitokiak. Hiri txiki bat, auzo bat antolatzen ari zen gotortutako kanpamentuaren ondoan. Kayeseko biztanleak ere ingurura hurbiltzen ziren produktuen fama zabaldu baitziren.

Artelanak saltzen hasi ziren eta urrea eskuratzen. Lau biltegitan banatu zituzten produktuak, nahasirik izan gabe. Balio handiko produktuak izaki, merkataria bakarka edo gehienez beste batekin sartzan zen saltzailearen eta sanhayar zaindariaren aurrera. Mustafak negoziatu egiten zuen gehienetan, merkatariek aukeratu egiten zuten nahi zutena eta adostu egiten zuten zenbat urre emango zuten gustuko produktuengatik. Bakar-bakarrik urrea onartzen zuten ordainsaritzat. Artean, berrogei tona artisautza lan baino gehiago zuten salmentarako. Merkatarri txikiek zeramikak erosten zituzten eta

handiek beirak, bitxiak, oihalak edo lurrinak, gehienetan azkeneko hauek espezializatuta zeuden. Urrea oso ongi babestutako eraikin nagusian gorde zuten.

Ikatza kopuru handitan lortu zutenean hasi ziren labeak eta ontziak berotzen. Zeramikak egiteko buztin beltza, zuria eta bi motatako gorrikoak ekarri zituzten al-Andalusetik. Egun gutxitan gorri argi biziko kalitatezko beste buztin bat aurkitu zuten, eta baita beste ilunago bat. Zeramika piezak egiten, egosten eta pintatzen hasi ziren Muhammad eta Ismail, bost ikasle-berriren laguntzaz. Lehenengo egunetan aproba asko egin zituzten eta ikasleak pieza onargarriak egiten hasi ziren, kantitateari baino kalitateari garrantzi gehiago emanez. Zeramika egile berriek askotan behin eta berriro moldatu behar izaten zuten pieza onargarri bat egiteko. Baina, pixkanaka asko lagundu zuten produktioa handiagotzen. Merkatari batzuek ikusi zituzten beraiek egindako lanak eta ezaugarri berezietako eskaerak egiten hasi ziren. Gehiago ordaintzen zuten eskaera berezi horientatik.

Beirekin antzeko zerbait gertatu zen. Kalitatezko hareak lortu zituzten. Ontzi handiagoak eta finagoak egiten hasi ziren, lurreko bidaia osorik pasatuko ez lituzketenak. Beiragile berriek ikasketa prozesu motelagoa izan zuten, baina poliki pieza berri on eta anitzak agertzen hasi ziren. Faisalek kobrea lantzen ere erakatsi zien. Miguan eta Ekade trebetasun handia lortu zuten kobrezko piezak lantzen. Lurrinetan eta xaboietan berdintsu gertatzen zen.

Ghanako Dyane eta Sacko kapitainek lortu zizkieten hamar bat morroi malinke taldekoak, ordura arte gehienak Kayeseko gazteluan lan egiten zutenak. Kayeseko biztanle asko malinkeak ziren, oso langileak. Tamin, Kane eta Traore beraien buruak ziren eta hirian izango zituzten eginkizunetan ibiliko ziren. Beraiekin etorritako morroiak laguntzaile pertsonal bihurtu ziren, kanpoko lanak malinkeek egingo zituzten bitartean. Malinkeak edozein lan zela-eta, baina talde lanean bereziki, berehala hasten ziren kantuan erritmoa eramateko. Gauetan ere, danborren erritmoarekin kantu eta dantza erakusketa ikusgarriak egiten zituzten.

Hirurehun pertsonentzako mantenua, eta langintzarako materialak segurtatu zituzten. Beste ardura handia segurtasuna zen. Behin harresi altuak altxatuta, kapitain soninkeak harresien zaingoez arduratu ziren eta Awane Takurreko kapitainak hartu zuen kanpamentuaren barneko zaintzaren ardura. Atariaren aurre-aurrean, saltokiaren ondoan eta Habusen aginte tokian mugimendu handia zegoen. Hantxe bertan jarri zituzten bankuak beteta izaten ziren. Beheko gela handitik pasatzen ziren gerlari buruak, beste arduradunak eta kanpotarrak, Habusekin egoteko eta kanpamentuko martxa mantentzeko. Azenari ari zen berari laguntzen beti. Bi gazteak ez zeudenean, Ibahim, Ali, Buna, Kenan edo Aberkani, haietako bati, uzten zioten ardura eta agintea.

Habus eta Azenariren arteko harremana beti bezain ona zen. Habusek agintzen zuen espedizioan eta langintza hartan baina Azenariren laguntza estua izaten zuen beti. Habus, diru kontuak zaintzeaz gainera, Aberkan eta Mustafaren laguntzarekin eta Ghanako eta Takurreko gerlariekin kanpamentuko defentsa segurtatzea zen bere kezka nagusia. Horretan Bunak, Awane eta Dyane kapitainek eta Jonay itzultzaileak laguntzen zioten. Segurtasunean arazo handi bakar bat izan zuten. Lekuan egun gutxi pasatu zituztelarik, merkatariak eta bertako herritarrek besterik gabe kanpamentua bisitatu nahi zuten ikusteko, negozio egiteko edo zer edo zer lapurtzeko. Habus gosaltzen ari zenean Jonay sanhayarrak eta Dyane soninkeak, haserretuko zelakoan, ez zioten behar bezala arazoa adierazi. Esan zioten jende askok sartu nahi zuela ataritik eta soldaduak bultzatzen ari zirela. Habusek erantzun zien sartzen ez uzteko, beste momentu batean itzultzeko. Ofiziala eta itzultzailea berriro itzuli ziren atarira, horrela ez zutela ezer lortuko pentsatuz. Baina lekura heldu ondoren, are egoera larriagoa zela

ikusita, soldaduei gogorrigo bultzatzeko esan zieten eta berriro Habusengana itzuli ziren egoera bere gordinean adierazteko. Bestela adierazi zion orduan Dyane Jonayren bitartez.

–Jauna, herritarrak gerlariak bultzatzen ari dira eta horrela sartuko dira –esan zuen larri.

–Orduan esaiezu gerlariei beraiek ere ezkutuekin bultzatzeko eta kolpeka erantzuteko. –Izan zen Habusen haserretzeko puntuko komentarioa. Momentu hartan are larriago adierazi zion gerlariak.

–Baina eskailera batzuk hartu dituzte eta harresiak eskalatzeko asmoa dute! –orduantxe konturatu zen Habus egoera zein punturaino zen larria.

–Ba, behar bada indarra erabili behar dute atarian eta harresietatik. Saiatu zaitezte ez hiltzen, baina gogor erantzun. Deitu zaintzaile gehiago. Garbi gelditu behar da hau ez dela azoka arrunta. Hau segurtasun handiko eremua da eta sartzeko gure baimena beharrezkoa da. Ea ba, makiladaka eta indarra erabiliz bota atzera; bestela erabili armak kolpeak emateko helburuarekin. Argi al dago? –erran zuen haserre, gosaria utzi eta istilua zegoen aldera hurbiltzen zen bitartean. Ez zen berriro horrelakorik gertatu. Garbi gelditu zen leku hartan aberastasunak zeudela eta ezin zela nolana sartu.

Kanpamentuko harresiak altuagoak eta gotorrigoak eraiki zituzten gazteluko soldaduen laguntzaz eta lur-ebaki zabalez inguratu ziren. Dorre batzuk ere jarri ziren izkinetan, aginte-etxeak gain. Gerlari soninke batzuek, Sacko, Dyane eta Silaren agindupean harresien segurtasuna zaintzen zuten eta prest egon behar zuten edozein ezustetarako; soninkeen beste bi herenak normalean atsedenean ziren beraien kuartelean. Gotorleku baten barnean zeuden, atari handia eta zaintza estua zuena. Sartzen ziren merkatariek eta nobleak zaingo batekin ibiltzen ziren. Bertako biztanleek al-Qala Yawahirun, bitxien gaztelua arabieraz, denbora gutxian Kalayawarijun, eta hilabetera Kalayawar deitu zioten lantegi-gotorlekuari. Han bizi ziren gehienak atera gabe, behar zituzten jakiak eta gaiak bertako morroiek Azenariren agindupean eramaten zizkieten. Morroi horien bitartez eguneroko tratuan gehiago ezagutu zuten lurraldea.

Tamin eta Kane malinkeak ziren, Ghanako soninke tribukoen ahaideak. Malinkeak Senegal ibaia eta Niger artean bizi ziren nekazaritza subtropikala landuz. Malinkeak ziren Bambuk eta Boure erresuma txikietan urrea lurretik ateratzen zutenak. Bambuken, Kayesetik bi egunetara, Faleme ibaiaren arro osoa zen erre-lurra. Negu hasieran, uztak bildu ondoren asko ziren buztin gorritik erre hareak ateratzen zituztenak. Hamar bat lagunetako talde batek erre kilo dezente ateratzen ahal zuen hilabete pare bateko lanaldian. Bouren ere, Ghanaren menpeko malinkeen beste erresuma txiki batean, erre-lur garrantzitsu batzuk zeuden.

Azenarik, bestalde, artisautza arazorik gabe egin ahal izateko hornitze lanak eta ardurak zituen. Beharrezko materialak, laguntzak eta bereziki kanpamentu osorako janaria lortzea zen bere eginkizun nagusia. Tamin malinkeak eta Idir itzultzaileak, morroi batzuekin laguntzen zioten afera haietan. Egunero bere lana hasteko, tailer eta sukalde handitik egiten zuen itzulia behar zituzten gauzak zein ziren jakiteko. Tailerretan egun batetik bestera behar zituztenak ere erosi behar zituzten: lanerako zapiak, larruzko gauzak, sokak, tresna txikiak, botikak eta bereziki, ikatza eta egurra. Kontsumo handikoak izaki, hirian bertan erosi ahal zituzten. Sukalderako hirurehun pertsonendako jakiak izatea zen taldekoei betebeharrak nagusia. Soldaduei ez zieten soldatarik eman behar, baina janaria prestatu behar zieten. Bizpahiru gurdirekin eta hamar bat soldadurekin abiatzen ziren, lapurren kontra morroiak nahikoak ez zirelako. Bertako bizilagunak gosete handia pasatzen ari ziren. Sukaldariak erraten zien

zalantza izatekotan zein produktu nahiago zuen. Horregatik espedizio txikia osatzen zuten eta zamatu orduko bidaltzen zituzten gurdiak.

Behin janaria erositakoan, urrunago joan behar izaten zuten beste zenbait gauzaren bila. Egun batean Kayesetik atera behar izan zuten adostutako ikatza betiko saltokira eraman ez zutelako. Eskasia zutelako hiri ondoko ikaztegiara hurbildu zirenean, bidearen alde guztietatik atera zitzaizkien lapurrak. Borrokatzen hasi ziren eta kanpamentuan abisua eman izanari eskerrak, uxatu ahal izan zituzten lapurrak, zauri eta hezur hautsi batzuk besterik ez zituzten sendatu behar. Urte hartan gosete handia zegoen inguruko herritarren artean eta arma hilkorak baino eskura zituzten tresnak, geziak eta matxeteak erabili zituzten gosetutako lapur haiek. Eraso zieten haiek ez ziren oso trebeak, azkar eta gaizki antolatutako jendetza baizik.

Hasieran, behin edo behin, arazoak sortzen ziren bertakoekin mozkortutako gerlariak zirela eta. Festa egun batean gaugiroan palmondo-ardo asko edan zuten guztiek. Kalayawar eta merkatarien etxeen artean zegoen plaza handian, mahaiak eta aulkiak jarri zituzten. Erdiko su handi batzuen inguruan musikaren erritmoan dantza egin zuten gonbidatutako bertako emakume dantzari batzuek. Dantzaren berotasunean denek behar baino gehiago edan zuten eta azkenean baita Habusek eta Azenarik ere. Mozkorraldi inozente bat besterik ez zelakoan erretiratzeko hasi ziren guztiak. Baina goizaldean deitu zioten Habusi, atarian hiritar batzuk iskanbila egiten ari ziren-eta. Habus, Azenari, Idir eta guardia batzuk atera ziren. Ehun bat herritar emakume eta gizon zeuden han oihuka, protestatzen. Haiek agertu zirenean, berehala adineko gizon batek oihuka azaldu zien bere haserrearen arrazoia.

–Zuen gudariak txikitu dizkigute gure tabernak. Ordaindu behar dituzue egindako txikizioak – emakume gazteago batek bere kexa bota zuen.

–Zuen gizonak jendea jipoitzen ibili dira gure dendetan nahi zutena apurtu eta lapurtzen zuten bitartean. –Habusek, lasaiago, banan-banan, gertatutakoak kontatzeko esan zien eta azkenean “zuen gizonak” Ghanako sei edo zazpi soldadu ziren. Errudunen bila hamarreko bi soldadu talde atera ziren orduantxe eta handik ordu gutxitara goizean goiz lehenengo orduan atarian bertan, Habusek kaltetuei behar zutena emango zirela eta errudunak auzipetuko zituztela hitz eman zien. Esan bezala egin zuten, kaltetuei erantzun ekonomikoa eta errudunei justizia egin zieten. Inor hilik edo larri zauriturik atera ez zenez, zigorrez jo zituzten kaltetuen aurrean. Sackok eta Dyanek agindutako zigorren bidez halako gauzak ez errepikatzea lortu zuten.

Zorionez, dena ez zen arazo. Orokorrean ongi konpontzen ziren bertakoekin. Idir hogeita hamabi urteko gizon heldua izanik ere, gaztetxo baten ilusioz aritzen zen itzultzaile lanean baita bestelako edozein eginkizunetan ere. Bere umore onarekin edozein ate irekitzea lortzen zuen eta pertsonarik zailenekin harremanak errazten zituen. Hala gertatu zen soldaduekiko harremanetan eta kanpoan izandako eginkizunetan janari eta materialetarako negoziatioetan. Janari horniketarako, bertako merkatari, nekazari eta abeltzainekin tratu onak eta errazak lortu zituen. Baina bereziki inguruko jendea ezagutzeko eta lagun bihurtzeko trebetasuna erakutsi zuen.

Azenari, goizeko lana bukatzen zuenean, Habusekin edo bakarrik tailerretara joaten zen langintzak jarraitzera. Zeramikak tornuan moldatzen eta margotzen ikasi zuen, lurrinak eta xaboiak egiten ere trebetasun pixka bat lortu zuen. Hala ere, gehien gustatzen zitzaiona beira gorria hartu eta tutu batetik putz eginez, orrikaz forma eman ontziari eta itxura desberdinetako beirak egitea zen.

Zailagoa zen behin hoztuta taila egitea. Horretan ez zen sartu. Nahikoa zuen edalontzi eta pitxer arruntekin.

Kanpamentuan langintza arruntaz aparte, denbora librean beste jarduera batzuk egiten zituzten. Azenarik imazighen-ekin beraien hizkuntzan ere aritzen zen. Bi lagunek, Buna, Kenan, Ekade eta Miguanekin harreman estua mantentzen zuten. Lana bukatutakoan, eguerdian haiekin bazkaltzen zuten eta bazkalondoan, atsedean baten ondoren, batzuetan armekin praktikak eta borrokak egiten zituzten. Dena den, sanhayarrek benetan maite zutena zalditan ibiltzea zen eta aukera izan zutenean zaldi on batzuk lortu zituzten. Handik aurrera zaldiak hezi eta praktikak egiteaz gain, noizean behin inguruetara ateratzen ziren taldean eta ibilaldiak antolatzen zituzten fisikoki ongi mantentzeko. Beste batzuetan trebetasun lehiaketak antolatzen zituzten, banaka edo taldekako jokoak eta borrokak eginez, Kayeseko kanpo aldean bertako biztanleen gozamenarako. Zanaga, zanaga, oihukatzen zuten gerlarien ikuskizuna eskertzeko, hala deitzen baitzieten sanhayarrei Senegaleko lurralde haietan. Zalditan xabalinak eta arkuz geziak botatzen zituzten urrunera arrapalada bizian. Patioan, behin, bi lagunek lauren kontra borrokatu egin zuten zalditan ezpatekin, beste laurak lurrean arnasestuka utziz.

Gauetan, lagunekin hizketan izan ondoren, batzuetan Azenarik eta Habusek itzulia egiten zuten harresien inguruan. Batetik soninkeek behar bezala zaintzen zutela ikusteko, baina maizago gaueko freskuraz gozatzeko eta arabieraz bakarka hitz egiteko. Gau izartsu batean Azenarik Habusi bere kezka aurpegiak galdetu zion. Habusek hasieran ez zuen onartu nahi.

–Ez dut ulertzen zergatik esaten didazun muturluze bat naizela.

–Ez zaitut horrela deitu. Ikusten dudana da, dena ongi doala eta zuri kezka bat nabari dizudala.

–Zera... Agian arrazoi duzu. Ez zintudan kezkatu nahi. Dena ongi doa bai, baina nire ahaideak eta al-Andaluseko giroa faltan izaten ditut.

–Eta norbait gehiagoren falta nire ustez. Zein duzu buruan? Ez didazu kontatu horri buruz.

–Bai. Jaeneko alkaidearen alaba ezagutu nuen eta ezin dut burutik kendu. Zora du izena, Zoraya, eta edertasuna eta graziaren pertsonifikazioa da. Uste nuen pasako zitzaidala, baina gogora etortzen zaizkit bararekin emandako orduak.

–Ezkondu behar duzu, laguna!

–Zuk ere bilatu behar duzu emakume bat. Miriamekin zer moduz?

–Ez dakit zer esan. Ez dut harekikoa oso garbi. –Buruan zeukan emakumea Zana bazen ere, berdin zen. Hori zen Habusekin gorde zuen sekretu bakarra. Laguna zerbait edatera gonbidatu zuen.

Ostegunetan merkatu egun handia ospatzen zen. Aste osorako erosketa bereziak egiten ziren, nahiz eta edozein egunetan janari mota guztietako azokak izan. Kasualitatea izango zen baina ostiralak ziren festa egunak, malinke, soninke, diola, banbara, uolof eta sereren artean. Egundako eguneroko lanak egin gabe, jendea joaten zen beren jainkoen tenpluetara edo meskitetara familia eta lagunekin. Gero, ospatzera joaten ziren kaleetan festa giroa zabalduz egunean zehar. Espediziokoak edo, adin eta eginkizunen arabera kuadrilletan ateratzen ziren hiriko festa-guneetara. Orduan pixka bat bananduak baina muladiak eta sanhayar gazteak talde handixkoan ibiltzen ziren, haiekin Ali pilotua

ibiliz. Festa egun batzuetan txalupan ibiltzen ziren Senegal ibaian, bi talde nahasian arraunketan aritzeko edo baita arrantzan ere. Berdintsu gertatzen zen kapitaina eta artisauekin, elkarrekin oso ongi konpontzen baitziren. Dantzak ikustea eta kantuak entzutea gustuko zuten guztiek eta festa egunetan kanpamentuan ere dantza eta kantu emanaldiak antolatzen zituzten gauetan.

Azaroan, gertaera bitxia bizi izan zuten Kalayawarren. Marinel masmuda bat desagertu zen eta ez zuten inon topatzen. Karimek, desagertutakoa, beste bi marinelekin eta hiru gudari imazighen-ekin merkatarietara laguntzen ziren beraien produktuak saltzen. Gainera, Karim Faruq-en oso laguna zen eta beti elkarrekin ibiltzen zirenez, Faruq ohartu zen lagunaren faltaz. Bi egun oso pasatu ondoren, Azenarik hartu zuen bilaketaren ardura eta ikerketa hasteko merkatari guztiei galdeketa batzuk egitea pentsatu zuen. Eguerdian, bazkaldu baino lehen, elkartu egin zituen saltzaileak eta galdetu zien Karim noiz ikusi zuten azkenekoz? –Faruq-ek berak erantzun zion.

–Ostiralean, festa egunean elkarrekin atera ginen Kayeseko kaleetara eta bat-batean desagertu zen. Orduetik inork ez du berriro ikusi –Azenarik beste galdera bat egin zien.

–Inork nabaritu zuen zerbait arraroa Karimekin erlazionatuta? –inork ez zuen erantzun. Isiltasuna erabatekoa zen. Atzealdean zegoen beste marinel batek, Isa izeneko mutil batek begiak itxita, mugimendu arraroak egiten zituen, oso nabarmenak ez baziren ere. Denek begiratu ziotenean eskuak igurtzi zituen. Azenarik zerbait ote zekien galdetu zion. Bere erantzuna berezia izan zen.

–Aspaldi honetan oso arraro zegoen. Ia ez zuen besteokin hitz egiten eta ihesean zebilen – Faruq-ek eta besteren batek baieztatu zuten hura.

–Zuetaz aparte beste inorekin ibili al da Karim? Pentsatu ongi, norekin ibili den. –Poliki galdetu egin zuen Azenarik pentsatzeko aukera eman nahian edo, Isak berak erantzun zion.

–Bai. Soninke batekin aritzen zen kanpora ateratzen zenean –Faruq-ek ere baieztatu zuen.

–Bai. Merkatari soninke batekin harreman onak zituen –Azenarik Isa-ri eta Faruq-i esan zien berarekin bazkaldoan elkartzeko. Besteei eskerrak eman zizkien.

Bazkaldutakoan, biekin gela lasai batean eseri zen Azenari. Berehala galdetu zien Karimek noiztik jokatzen zuen arraroago. Bien erantzuna izan zen hiru aste lehenagotik hasi zela jokaera iheskor harekin, kanpoko jendearekin harreman gehiago izaten hasi zenean. Azenarik baieztatu zuen buruarekin eta bere eguneroko jokaeraz eta lanaz galdetu zien. Faruq azaltzen hasi zen.

–Guk merkatariak banan-banan hartzen genituen biltegi bakoitzaren sarrera-saloian eta erosi nahi zituzten produktuak galdetuta, haiek biltegiko atzealdetik erakarri egiten genituen. Badakizu ni oihalak, zapiak eta luxuzko bitxiak saltzen ibiltzen naizela. Karimek produktuak ekartzen zizkigun hemengo merkatari-erosleei erakusteko. Gehienetan nik esaten nion, Isari bezala, zein motatako merkantzia eta zenbat ekarri behar zituen.

–Ez al zuen zerbait lapurtuko? –Faruq-en sorpresa eta Isaren lasaitua nabaritu zituen Azenarik.

–Orain arte ez nuen sinetsiko. Baina bere jokaera ikusita, izan daiteke –bota zion merkatariak. Isak ere baieztatu zuen. Marinelen logelara Karimen gauzak miaztera joan zirenean, ez zuten ezer aurkitu, ez ohatzean ezta zeukan bidaia-zakuan ere. Isa bera ohe azpian hasi zen zulo batetik lurra

ateratzen. Larruzko zakuto batean ongi tolestutako oihal eta zapi batzuk atera zituzten, baita zilarrezko bitxi eder pare bat. Garbi zegoen lapurtutako gauzak zirela.

Arratsaldean bertan merkatari soninkea eta haren saltokia bilatzera atera ziren. Bi masmudek kale zabal bateko denda seinalatu zuten. Denda barnean lanean edo, merkatari soninkar bat oihal pieza bat erakusten ari zitzaion adineko malinke aberats bati. Merkatariak modu atseginak eta lagunkoiak erakusten zizkion erosleari. Hura zen Karimen laguna. Joan ziren merkatariaren susmorik ez sortzeko. Azenarik erabaki zuen gizon haren ibilerak jarraitzea. Jonayri esan zion bertakoen artean merkataria jarraitu ahal izateko gizonak bilatzeko, tentuz ibiliko ziren behatzaileak.

Bi egunen buruan, merkatari soninkearen berri zehatzak zituzten. Silla Kono zen, Kumbi Saleh-tik berriki etorria eta denda gainean bizi zena. Azenarik, Sacko gerlari sarakole nagusiari hitz egin zion auziaz eta ikertzeko agindu zion. Bitartean Jonay-ri dirua eman zion merkatariaren zaintza estua eta tentu handikoa jarraitzeko. Ahal izanez gero, norbait ondoan bizitzen jartzeko. Hasieran ez zuten informazio gehiegirik jaso. Merkataria dendan aritzen zen lanean. Mutil batek lanak eta mandatuak egiten zizkion eta emakume batek garbiketak eta otorduak prestatu. Hala ere, astebetean informazio interesgarri gehiago atera zuten. Festa egunetan eta noizean behin ibai-portuaren ondoko etxe batera joaten zen. Tentuz joaten zen eta ongi pasatzeaz gain gizon susmagarri batzuekin aritzen zen hizketan itxurak eginez. Gizon haiek lapurrak, mugalariak, eta gaizkileak ziren. Ezkutuan egiten zuten lan. Haiei jarraiki, erdi eroritako txabola batean norbait gordeta zutela esan zioten Azenariri. Honek, Jonayk eta gerlari soninke batzuek jipoitutako Karim gixajoa askatzea lortu zuten. Silla Kono desagertu zen. Hurrengo egunean, Karim hobe zegoenean galdeketa egin zioten Habusek eta Azenarik.

–Zergatik lapurtu duzu? –galdetu zion Azenarik.

–Merkatariak, inor ez zela konturatuko konbentzitu ninduelako. Ez nuen nahi baina gizonak hasieran oso ongi portatu zen ezer eskatu gabe eta konturatzeko lapurtzen ari nintzen berarentzat.

–Ba al zen beste lapurrik? Erantzun, bestela... –Habusek zigor handiagoeekin mehatxatu zuen begiradaz.

–Ez. Nik dakidanez. Nik ez nuen gehiago lapurtu nahi, ezta lapurtzeko jende gehiago bilatu. Horregatik itxi ninduten eta aritu dira ni kolpatzen egun hauetan. Azkenean hil nahi ninduten.

Gizona festa egunean auzipetu zuten denen aurrean eta Habusek, kolpe nahikoak eta gehiegi zituela ikusita, epaile bezala poste batean lotuta egunak pasatzera zigortu zuen, lotsa pasaraztea aski izanzen zelakoan. Handik aurrera lanik desatseginenak egin beharko zituen. Ordutik, ez zen horrelako lapurreta gehiagorik izan. Kanpamentura bidaltzen zituzten jaki batzuk bai, bidean batzuk lapurtzen zituzten ezustean. Gehienetan gosetutako pobreek egiten zuten, askotan umeez. Hala ere, dena ez zen arazo.

Abenduan Senegaleko urak oso baxu zeuden. Urritik hasi ziren jaisten eta ordura arte ibai portuaren inguruko aktibitatea, barnealdeko bidegurutzearen ondoko zelaietara pasa zen, haien kanpamentua eta merkatarien auzo berriaren ondoan hain zuzen ere. Salgaiak txalupetan ez, gurdi handietan ekartzen zituzten.

Egun batean jendea nabarmen gaixotzen ari zela ikusi zuten. Sanhayar eta masituden logeletan gizon batzuk gelditu ziren ohean, ezin altxatuz. Habusek sendagilea zen masitudari galdetu zion zer gertatzen ari zen.

–Sukarrak hartu ditu, beherakoa dute eta mina sentitzen dute gorputz osoan. Gizon hauek zaintzeko laguntza behar dut.

–Zergatik gertatzen da gaixotasun hau? Zerbait txarra jan al dute?

–Ez dut uste. Besteok onik gaude. Esaten dute eltxoek gaixotasuna zabaltzen dutela. Guk ezin dugu ezer egin, ongi zaintzea ez bada –momentu hartan soninkeen burua agertu zen Ghanatarren artean gaixo gehiago zegoela esateko.

Habusek bertako sendagileei galdetzeko eta laguntza eskatzeko erabaki zuen. Malinkeen artean ez zen ia gaixorik. Sukar haiek ohikoak ziren inguru hartan eta ur gutxiko garaian. Hilabete luzeetan borrokatu ziren gaixotasun eta eltxoen kontra, euriak eta freskotasun pixka bat izan zen arte. Tamalez, gaixo batzuk hil ziren, hamabost bat, haien artean marinel masituda bat eta sanhayar bat.

Urtarrilean urre eremuetara bisita egitera joan ziren, Azenari, Habus, Idir, Keita malinkea eta Abdul, gerlari eta morroi batzuekin. Kanpamentuan, Mustafak, Banak eta Aberkanek elkarrekin bete zuten Habusen papera eta Faruq-ek eta Taminek Azenarirena. Helburua, batetik urre-biltzaile malinkeak ezagutzea zen eta bestetik artelan produktuen erakusketa eta propaganda egitea zen. Bidaiariak Senegal ibaitik gora zaldiz abiatu ziren, beren eskulan aukeratuak mando batzuetan eramanez. Senegal sorburutik ekialdean egun gutxitara Boure erresumako urre-soroetara heldu ziren. Handik atera eta sei egunera Niger ondoko Siguiriri hirian sartu ziren. Baimena eskatu eta opari batzuei esker, Kane errege malinkeak ongi etorri egin ondoren bere ordezkari baten laguntzaz urre eremuak bisitatzeko utzi zien. Bertako merkataria eta herrietako nagusiei artelanak erakutsi zizkieten urrearen trukaketa sustatzeko. Ez zieten buruzagiei ezer saldu, produktuen berezitasuna eta apartekotasuna azpimarratzeko. Keitak harremanetan laguntzen zien eta urre-biltzaileen soroetara gonbidatzea lortu zuen. Malinke urre-biltzaile talde-buruek urrea ateratzeko egiten ziren lanketak erakutsi zizkieten eta beraiek ordean beren artelanak. Mutur aurrean gozokiak bezala pasatzen zizkieten beraien gustuko zeramikak eta koloretako beira-ontzi ederrak. Urrea ateratzeko egiten zutena oso gauza sinplea zen. Urre-lurrak, buztin gorrikoak, harriz garbitzen zituzten eta gero urarekin desegiten zituzten. Sinple baina behin eta berriz lurra garbituta, pisu handiko urre-hareak gelditzen ziren ontzi berezien hondoan. Gutxika, kostata, urrea lortzen zuten.

Langintzako horretako nagusiek, eskuz egindako bitxiak eta artelan desberdinak eskuratzeko, sanhayarrei ordainez urre dexente eskaintzen bazieten ere, hauek ez zuten onartzen eta bakarrik asko erregututa objektu bakan bat, fabore berezi pertsonal bezala saltzen zieten urre-biltzaileen nagusiei. Ez zuten guztiekin egiten, atsegin eta harrera ona egin zietenekin baizik. Malinke lagunkoi noble batek, urre lurrean talde batzuen aurrean lohietan sartu eta urrea ateratzera gonbidatu zituen. Idir, Keita, Habus eta Azenari, arropa kenduta, lurra garbitzen hasi ziren jo eta ke. Ontzi zapal eta zabalekin urarekin desegiten zuten lurra. Hala ere, hiru ordu pasata urrezko harea-pikor txiki-txiki gutxi batzuk baino ez zuten ateratzea lortu. Goitik behera lohi gorritz zikinduta, nekatuta eta haserre zeuden. Orduan nobleak ohar batzuk adierazi, eta aginduak eman zizkien bere menpekoei:

–Begira nola distirutzen duten eguzkitan. Atera itzazue zulo horretatik, belardian oihal fin horren gainean garbitu itzazue ura gaintetik botaz –egin zutenean urre-harea pikor txiki batzuk, azken

batean harea finekoak, gelditu ziren belar gainean dir-dir, beren harriduratako. Harekin, hala ere, ez zen dena bukatu. Nobleak beste agindu bat eman zuen.

–Haiek garbitutako lurra berriro garbitu. –Denen aurrean denbora gutxian, lagunek ateratako urrea baino gehiago lortu zuten, baita harribitxi txiki batzuk. Ikaspen handia izan zen. Trebetasun handia behar zen langintza hartan. Eskukada txiki haren truke beira gorriko pitxar eder bat eta edalontzi jokoa eman zioten noble txantxazaleari. Orduan konturatu ziren urrearekin batera harribitxi politik ere ateratzen zituztela urre-lurretatik.

Niger ibaiaren goialdean izan ondoren ipar-mendebaldera jo zuten beste urre-lurren bila. Bambuk erresumatik ere ibili ziren, Senegal ibaira itzultzean, Faleme ibaiadarretik behera jaitsi zirenean. Han ere noble eta talde-buruei beren artisautza erakutsi zien eta harreman onak egin zituzten.

Otsailean lan gutxiago izan zuten. Tenperaturak baxuagoak ziren, hotzak izan gabe. Ez zuten ia ezer saltzen eta egindako artisautza piezak asko ziren. Goiz bukatzen zuten lana, eta arratsaldeetan bazkaldu eta atseden egin ondoren sanhayarrek zalditan ariketak egiten zituzten. Denbora gutxian lortu zuten maila handia, denak baitziren gerlari aukeratuak. Kalayawarretik urrun praktikatzen bazuten ere, laster inguruko jendea joaten zen mirestera.

Behin, egun batzuetako ibilaldia egitea erabaki zuten. Ibaia gurutzatu eta zalditan ipar-ekialdera joan ziren hogeit hamar, Habus, Azenari eta Idir: zauritutako bat, gaixorik zegoen beste bat eta Aberkan betearia kanpamentuaren arduradun geratuko zena kenduta, sanhayar guztiak. Habus eta Azenariren agindupean zazpi egunetarako janari eskasa eramanez, trosta eramangarrian legoa asko egin zituzten hiru egunetan, atseden gutxi egiten zutelako. Gauean ongi egiten zuten lo, ez eltxo eta mandeuliei esker, neke-neke eginda zeudelako baizik. Hasierako paisajea, mijo, sorgo eta kotoi laboreak baso txikien artean bazen, ibaitik urrutiratzean alorrak, soroak eta zuhaitzak desagertu ziren. Palmondo eta baobab erraldoi bakanak ere desagertzen hasi ziren sabana haietan, akaziak, aldiz, ez. Larreak ere lehorrakoak ziren eta estepan sartu ziren. Animaliak, antilope talde handiak, zebra zaldi marradun talde batzuk eta gazelak ziren nagusiki. Tarteka, elefanteak, jirafak, bufaloak, lehoi familiak eta lehoi nabarrak ikusten ziren. Dena den, intsektuak ziren molestagarrienak eta sugeak arriskutsuenak. Termitegi asko ikusi zuten.

Lehen gauean baobabetatik ogi-fruitu mamitsuak, azidoak eta freskagarriak hartu zituzten. Bigarren gaua Nioro hiriaren ondoan egin zuten eta hurrengo sabanaren erdian erreka lehor baten ondoan. Suak jarri zituzten kanpamentuaren inguruan lehoiak zeudelako. Sabana mugagabea zen eta hurrengo eguerdian bueltatzea erabaki zuten. Goizean ezkutuan zegoen lehoi eme batek gizon bat zauritu zuen “libratzen” ari zenean. Zauria ez zen oso sakona, baina zornatu zen. Eguerdian baobab erraldoi baten itzala bilatu zutenean hogeit hamar bat dromedarioko karabana bat topatu zuten. Merkatariak ifora batzuk ziren, sanhayarrak haiek ere. Mendebaldeko basamortua saihestuta Ifriqiyatik eta Sahara erdi-erditik eramanez zituzten artisautza produktu batzuk. Timbuktutik pasa ziren eta Niarin edo Kumbi Saleh-n saldu nahi zituzten zenbait produktu. Haiei konpetentzia egiten bazieten ere, anaiak izaki, gustura konpartitu zuten janaria eta solasa. Habusek hartu zuen hitza.

–Hobe duzue zuzen-zuzenean Ghanako nobleengana jotzen baduzue hiriburuan, guk bitartean soninke merkatariari saltzen baitiegu Kayesen.

–Mila esker, Habus ben Ziri, printze hori. Timbuktura ez jarraitzeko aholkatu behar dizuegu, Niger ibaiaren ondotik ez bada, urik aurkituko ez duzuelako.

–Eskerrik asko zuri ere. Hala ere, ez genuen jarraitzeko asmorik. Gizon baten zauriak garbitu ondoren itzuliko gara Senegalera.

–Zornatutako zaurietarako baobab hauen hosto freskoak dira hoberenak. Infusiotan ere lasaigarriak dira, bai gaizkitutako zauri edo hausturak, baita espirituz lasaitzeko ere.

–Ongi da. Mila esker. Zauritua zaindu ondoren itzuliko gara. Hala ere, merkataritzaren egoeraz galdetu behar dizuet. Zuek egin duzuen bezala ba al dago beste karabanarik basamortua zeharkatuko duenik? –Galdetutakoak segundo batzuk eman zituen etorkizuna nola ikusten zuen pentsatzeko. Gero segurtasunez erantzun zuen.

–Baten bat aterako da hemendik aurrera. Orain arte ajjertarrek eta ahaggararrek ez digute pasatzen utzi. Baina, badakizue iparraldean behar direla urrea eta esklaboak. Gure anaien arteko borroken zentzugabeak eta nekeak borroka bukatzera behartuko ditu eta ekialdetik pixkana berrituko dira merkataritza bideak.

–Bai espero dezagun egoera konpontzea. Sanhayarron hobe beharrez izango litzateke.

Anaia iforak agurtu eta Kayesera itzuli ziren. Beste lau egun kostatzen zitzaien heltzea, gehien bat suge batzuen zitzadak zirela-eta bi zaldik itzulera atzerarazteagatik. Sugeek ez omen zuten pozoi askorik bota, bestela zaldi haiek gabe geratuko ziren.

Neguan, lehor-aldia izaten zen eta hotzik izan gabe tenperatura pixka bat suabeagoak zituzten. Uztak jasoak zituzten, uzta ederrak urte hartan, eta gose garaia urrun gelditu zen. Gizonak erlaxatu ziren eta gehiago ateratzen ziren Kalayawarretik. Urruneko auzo pobreen buztinezko etxe txiki zirkularrak, lastoz estaliak ziren nagusi. Hiri erdiko plaza nagusien inguruan, aldiz, buztinezko etxe karratu, handi eta edertuen artean ibiltzen ziren. Etxeak garbitzen eta kanpoan edertzen zituzten. Bertako aberatsek ahal zutenean, etxeetako buztinen gainean irudi geometrikoak zizelkatzen zituzten edo kolore bizitan margotu, bai barnean eta gehienetan kanpoan.

Martxoan eta apirilean merkatarikari malikeak agertu ziren beren urrea saltzeko. Ehunka merkatarik, askotan talde batzuetako urrea pilatuta Kayesekoei saltzen zieten urrea, janari eta behar zituzten beste produktu batzuen truke. Normalean, merkatariek urrearekin zeramika, lurrinak, xaboiak, kobrezko piezak, beirak eta oihalak erosten zizkieten al-Andaluseko merkatariei, baina ez zuten urre askorik eman nahi eta merkatariek ez zuten merke saldu nahi. Eskerrak egindako lagun malinkeek zuzenean beraiekin tratatu asko egin zuten. Horrek salbatu zituen sanhayarrak urtea alferrik pasatetik. Merkatariek, Mustafak, Faruq-ek eta Abdulk lasaitu zituzten berandu baino lehen salmenta onak prezio onean lortuko zituztela esanez, malinkeen jarrera zabalduko zela baieztatuz.

1012ko maiatzean, agertu zirenetik bederatzik hilabete pasa zirenean, eskulan asko eta onak landu ondoren salmenta dezente eginak zituzten, baina askoz gehiago produzitu zuten eta milaka zeramika eta beira pieza salduta ere, beste hainbeste zituzten saldu gabe. Merkatariek gutxiago ordaindu nahi zuten beraien produktuengatik. Mustafak, berriro ere, aholkatu eta erregutu zien

gehiago itxoiteko nahiz eta momentuz salmenta batzuk galdu. Hala ere, edozein preziotan ez saltzeko erabaki zuten. Lortutako urrea ere ez zen gutxi, hamabost bat tona, baina bazekiten urte haietan askoz urre gehiago bildu zutela; merkatariek, inguruko herrietako agintariek eta Ghanako nobleek gordetzen zutena. Eskulanak, dena den, gustatzen zitzaizkien bertakoei. Aleak eta aleak egiten jarraitu zuten. Biltegietan ez zen gehiago sartzen eta beste biltegi batzuk, handiagoak, egin behar izan zituzten.

Urte osoan berdintsu jarraitu zuten. Poliki, salmentak egiten ibili ziren. Bigarren neguan arazo gutxi izan zuten, bereziki al-Andalusetik etorritakoen artean, tirabira eta eztabaida gehiago sortzen zen. Azenarik eta Habusek gizonek itzuli beharra zutela nabaritu zuten. Hurrengo udan itzuliko zirela zabaldu zuten, arazoei arreta gehiago jarri zieten eta garbi utzi zuten ez zutela bortizkeria onartuko. Soninkeek eman zuten lan gehien eta zigor batzuk jarri behar izan zituzten arazoak gelditzeko. Baina, hura egitea eta konpontzea beraien buruzagien kontua zen.

Neguaeren erdian, 1013ko otsailaren hasieran, hogeita hamar tona urre ere ez zuten bildu. Momentu hartan, ordea, al-Andaluseko merkataria eta artisau harrigarriak bere herrira itzuliko zirela zabaldu zenean, bai merkataria bai urre-biltzaileak, talde bakoitza bere aldetik pieza liluragarriak galduko zituztela pentsatu eta urre kopuru handiagoak eskaintzen hasi ziren artelan eder haiengatik. Martxoan malinkeek eskaintzak handiagotu zituzten. Denek nahi zuten urrea artelanetan bihurtuta eduki. Merkataria bildutako artelanak saltzen aritu ziren etengabe. Apirilean karea, sosa, oxidoak eta margo pigmentuak bukatzen ari zitzaizkien eta gehiago bilatzera eta lantzerara joan ziren talde batzuetan. Karea ekartzen ari zen taldea eraso zuten bidelapurrek eta sanhayar bat eta bi gerlari soninke hil zituzten, morroiek ihes egin zuten eta kanpamentuan agertu ziren. Habus eta gerlari batzuk agertu zirenean mandoak eta hildakoen gauza guztiak desagertuak ziren. Hildakoak lurperatu zituzten eta gurdiko kare-harria eraman zuten zaldiak gurdietan lotuz.

Martxoaren bukaeran Ghanako eta Takurreko erregeen ordezkariak, besteek bezala egonaldia bukatuko zutelakoan agertu ziren, lortutako urrea pisatu eta zergen ezarpena egiteko. Hirurogeita hamar bat tona urre pisatu zituzten. Saldu gabeko produktuetan tona gutxi batzuk baino ez zuten bilduta. Erabakitakoaren arabera biek batera hamarrena eskatu behar zuten bi erresumako erregeek eta zerga haiek artisautza produktuetan eskatuko zutenez, beraiek kalkulatuak zazpi tona errearen truke, hogeitona artelan ederrekin ordaindu behar zuten, hamabost Ghanari eta bost Takurri emateko. Oparietarako beste hamar tona nahikoak izango zirela uste zuten, haietako zazpi Ghanako erregearentzat. Gauzak horrela, artisautzako produktu pila bat egin behar zuten hilabete eskas batean, errege haietzako gustuko opariak egin ere. Hasieratik gordeak zituzten oihal eta Al-Andaluseko bitxi batzuk aparte, lan handia zuten egiteko.

Lamtunen berri jaso zuten. Ajjerrak gero eta erasokorrago ari ziren jartzen Tagant eskualdean. Aoudagost ez zuten erasotuko Wagaduko gerlariei beldurra zitelako, baina lamtuna libreekin ausartzen ziren. Ez zen txantxetako gauza, mezulariak Habusi kontatu zion bezala:

–Wadan hiria hartu dute. Gure tribu osoaren menpekotasuna eskatu dute.

–Horrek esan nahi du basamortua kontrolatzen ari direla ezta? –galdetu zion Habusek.

–Sijilmasako bideak eta oasiak bai gutxienez. Kontua da behingoz borroka irabazi nahi dutela eta orain ez dugula ihesbiderik. Men egiten ez badiegu akabatuko gaituzte eta egiten badiegu ahagarrei egin behar diegu gerra. Gure zaharrek laguntzeko eskatu nahi dizuete, Ziri, zure aitona oroimenez. Zuek bakarrik geldiarazi ahal dituzue. Ajjerrak Aoudagosteko kontseiluari ez diote kasurik egin. Modu batean edo bestean gure emakumeek eta hurrek ordainduko dute gose edota heriotzarekin. –Gizonak itxaropenik gabe hitz egin zuen eta Habusek laguntza ematea agindu zion.

–Ez dut uste gure ospe hutsez geldiaraziko ditugunik. Berrogei egunetan abiatuko gara hemendik. Beste hamar bat egunetan Podorren izango gara eta hamar egun gehiagotan Wadan-en izango gaituzue, bakarrik edo Wagadu eta Takurreko gerlariekin.

Hilabete batean tamaina handiko zeramika koloretsuak, lurrin eta xaboi usaintsuak, kobrezko objektu zizelatatuak eta kolore desberdinetako beira ikusgarriak egiteari ekin zioten, baita bi urte haietan, egindako lagunei ere azken momentuan zerbait oparitzeko moduan. Apirila bukatu zenean, prest ziren joateko eta Habusek esan zien marinel eta gerlariei handik aurrera egingo zituzten piezak edo lortuko zituzten negozioak beraientzat egiteko baimena emateko. Baldintza bakarra zuten, urretan ez kobratzeko. Urre guztia sanhayar estaturako izango zen. Apirila bukaeran zergak eta opariak bidali zizkieten Kumbi Saleh-ko agintariei. Aldi berean laguntza eskatu zieten lamtunak ajertarrendandik defendatzeko.

Azenarik azken momentuetan bere aldetik negozioetan ibili ahal izango zela zekienez, errubi ikusgarri piloak zituen trukerako. Beirazko pieza asko egin zituen eta orduantxe eskulan haiek eta bere kabuz ekarritako Almeriako errubiak negoziatzen aritu zen egun luze batzuetan. Merkatari-adiskideek lagunduta merkatariari eskaini zizkien, beste harribitxi batzuen truke. Berrehun dinarrekin erositako Almeriako milaka errubi harri ederrak eta beira pieza pilak, beste milaka harribitxi ikusgarri gehiago bihurtu zituen, askoz gehiago, onak eta handiak, zafiro eta esmeralda eder anitz tartean. Altxor bat.

Arratsalde batean Azenarik Habusekin zaldiz itzuli bat egin behar zuenean, honek erran zion gaizki zegoela. Janariak gaizki egin omen zion eta beheakoa zuen. Azenarik inori ezer erran gabe zaldia aho-uhaletik hartu, Kalayawarretik atera eta trosta bizian abiatu zen estepa batetik. Akazia eskaseko paisaia hartan erreferentzia handirik gabe, hegomendebaldera jo zuen. Arratsalde erdian, erreka txiki batean zaldia edaten zegoen bitartean, baobab bat ikusi zuen handik ez urrun. Ura edan ondoren, zaldia hartuta zuhaitz erraldoira hurbildu zen lore zuriak, fruituak eta hostoak hartzeko. Gora igo zen eta loreak aukeratzen ari zenean zaldiak ihes egin zuen Kayesera. Berehala ikusi zuen arrazoa: lehoi eme talde bat hurbiltzen ari zen. Ez zuen ihesbiderik eta animaliak helduko ez ziren adarretara igo zen, alde egingo zuten zain. Ez ziren joan. Baobabaren inguruan geratu ziren berari begira. Berandu egin zen eta baita gautu ere. Jateko bazuen baina ezin zuen lo egin, adarren elkartze batean leku ona izan arren. Ez zen beldurtu, baina ederki damutu zen bakarrik eta abisurik eman gabe joan izanaz. Goizean lehoi familia osoa gustura zegoen han eta egoerak iraungo zuela pentsatzen ari zenean, Habusek sanhayar eta soninke gerlari batzuekin uxatu zituen lehoiak eta zaldia hurbildu zioten. Habusek txantxa egin zion agur gisa.

–Gaupasa ederra egin duzu eme horiekin!

–Bai, ez dut begirik bildu gau osoan. Nola jakin duzue non nengoen?

–Ikusi zintuzten norabide honetan eta goizean zure zaldiak utzitako aztarnak oso garbi zeuden.  
–Loreen infusioak on egin zion Habusi erabat osatuz eta hostoak, fruituak eta azal puskek erabilgarriak izan ziren.

Garai hartan Azenari esna geratzen zen gauean, besterik ezean logalerik gabe. Hausnarketa egiten zuen aberastasun eta bizitzari buruz. Zertarako urrea, bizitzan zeregin eta gogo handirik ez bazuen? Sanhayarrek bai aberastasun haiekin erresuma bat antolatuko zuten. Herritarrek gehiegi

estutu gabe instituzioak eta defentsa sistema ezarri ahal izango zuten. Elvirako koran, Granatan, jatorrizko lurraldera itzuli ezean bizitoki bat, babestoki bat aurkituko zuten. Azenarik ere leku bat nahi zuen berarentzat haiekin? Baina itzuli nahi zuen Baskoniara, Uhartetik urrun egon nahi bazuen ere. Osaba Fortunekin bizi? Ez zekien artean zer egingen zuen, baina bere familiarekiko arazoa konpondu nahi zuen.

Maiatzean euriteekin batera urak handitzen hasi ziren. Abiatzeko azken prestaketak egin zituzten. Lehenik, itsasontziaren kroskoa edo kaskoa garbitu eta bikez babestu zuten, mastak beren lekuetan jarri eta aparejuak prest utzi zituzten. Harresi zati bat bota behar izan zuten itsasontzia gotorlekutik ateratzeko. Soka eta poleekin uretara jaitsi zuten ontzia eta berreraiki zuten botatako harresia, urrea salbu izateko.

Azken gauean lagunei agur-afaria eta festa egin zieten. Arratsaldean hasi ziren lagun merkatariei eskerrak ematen. Bi lagunak beren etxean elkartu ziren, Afur, Azenzar eta Ubai merkataria lagun handiekin azkeneko solasaldi lasaia izateko, nahiz eta gautu ondoren, denak berriro izanen ziren festan.

–Eskerrak eman behar dizkizuegu, lagundu diguzuen guztiagatik.

–Zuei, gu aberasteagatik –Ubaik ironiaz eta txantxetako itxuran esan zuen, baina pena nabari zitzaion. Habusek jarraitu zuen.

–Zuek ahalegindu izan ez bazinete, ez ginen hain ongi egongo. Bihar goizean azkeneko egingo dizuegu agur, zuei eta baita laguntza eman diguten beste merkatariei ere.

Beranduago, morroi malinkeei ere eskerrak emateaz gain, diru eta opariak ere eman zizkieten. Tamin, Kane eta Traore laguntza handikoak izan ziren eguneroko eginkizunetan eta tratu lagunak izan zuten haiekin, Tamin bereziki. Gauean jan eta edan zuten patioan, kanpamentuko guztiak eta gonbidatuak. Beranduago, ondoko zelaira atera ziren Kayeseko ezagun guztiekin festa partekatzeke. Kantuan eta dantzan aritu ziren su handi baten inguruan.

Azkenik, hurrengo goizean, ontzirako azkeneko horniketa guztiak egin eta gero, urrea larruzko zakuetan atera zuten ordu gutxi batzuetan ongi babestuta. Arratsaldean bazirudien Kayeseko herritar guztiek agurtu behar zituztela. Gautu baino lehen, ibaian behera abiatu ziren, berrehun eta hamabost gerlarik ondoko bideetatik jarraitzen zituzten bitartean. Podorren espero zuten Ghanako Kumbi Saleh-ko gerlariak agertzea. Senegaleko ur handituen abiaduraren laguntzaz, bost egunetan heldu ziren Podorrera. Mezuak bidali zituzten. Egun pare batean Ghanako erregearen erantzuna ere espero zuten. Aberkan, Buna, Kenan eta bi lagunak elkartu ziren espedizioa prestatzeko. Habusek bere asmoak adierazi zizkien besteei. Ez zen eztabaidarik, Habusen autoritatea handia baitzen. Bukatzean galdera bat besterik ez zuen egin.

–Plan hau da ziritarra naizenez gero pentsatzen dudana. Ados al zaudete? –denek adostasuna eman zuten.

Soninkeak ia mila zaldun ziren. Agertu zirenean agintariei egingo zutena aipatu zieten eta ados zeuden. Ez zuten eztabaidatu. Ziritarrei laguntzera agertu ziren. Zaldiz, bost egunetan Wadanen ziren eta atari nagusiaren aurrean hitz egin zuten ajjerren agintariekin. Harrituta zeuden Ghanako gerlariak ikusteagatik, baina are gehiago ziritar bat han ikusteagatik. Habusek argi adierazi zien lamtunak bakean utzi behar zituztela eta aurreko egoerara itzuli behar zutela. Ajjertarrek ordu batzuk eskatu zituzten haien artean hitz egiteko. Gautu baino lehen erantzuna eman zuten, hurrengo egunean joango zirela eta bake bidetik hasiko zirela hitz emanez. Hurrengo egunean ajjertarren erretiratzea gertatu zen denen harridurarako. Hiriko lamtunen agintariekin izan ondoren denak itzuli ziren Podorrera. Hantxe agurtu eta eskertu zieten takrurtar eta soninkei egindakoa. Berrito ere andikiro egin zuten. Senon, Sacko, Sila eta Dyane kapitainekin izan ziren aparte batean. Pertsonalki eskertu zieten zaintza eta beraiei eta beste gerlariei artisautza produktu eder batzuk oparitu zizkieten. Soninkeak itzuli ziren Kumbi Saleh-ra. Ziur aski bakea izango zen handik aurrera basamortuan eta sanhayarren artean. Merkataritza-bideak irekiko ziren berrito.

Podorren erregeari zergak eta dohaintzak utzita, Senera joan ziren itsasoratu baino lehen, janaria, ur bilketa eta frutak biltzera. Tally gobernadoreak zoriondu zituen espedizioaren asmoak gauzatu eta basamortuan bakea lortzeagatik. Beraiek Tallyri eskertu zioten hasierako jarrera harengatik, gero errazago izan zutelako egin beharrekoa. Opari on batzuk eman zizkieten eta azkeneko egunean afari on bat ospatu zuten, itsasoratu baino lehen. Bidaia luzea izango zen: hilabeteak pasatuko ziren berrito lurlean lasai izan arte. Abiatu baino lehen, hurrengo egunean, Tallyk azkeneko aholkua eman zien.

–Ez ahalegindu alferrik iparraldera joz. Arraunketan alferrik arituko zinatekete. Haizearen eta korronteen kontra onenean hilabeteak eta hilabeteak beharko zenituzkete eta ekaitzek itsaso barnera bidali ahalko zaituztete. Jarraitu ipar-mendebaldera hilabete batez hego-mendebaldeko haizeak eta korrontek aurkitu arte, agian denbora gehiagoz. Irla berdeak aurkituko dituzue hiruzpalau egunetan, han ur horniketa ahalik eta gehien osatzea gomendatzen dizuet. –Aholku hura Ibrahim eta Aliren esperientzia eta entzundakoekin erabat ados zegoen eta halaxe egingo zuten.

## 32 - Afrikatik al-Andaluserako itzulia.

Handik hirugarren egunera irla batera iritsi ziren. Takrurren herrikideak bizi ziren han. Aholkatu bezala ur gehiago jaso ondoren ipar-mendebaldera abiatu ziren itsaso beldurgarritik barna. Sei aste pasa ziren ipar-mendebaldera jo zutenetik. Beldur ziren. Kalkuluen arabera bi mila milia egin zituzten itsas barnera. Haize eta korronteen gorabeherak izan zituzten. Zenbaitetan arraunetan egiten zuten; beste batzuetan, haize gogor lehorrak izan zituzten, beti hegoaldera jotzen zutenak. Senegal ibaiaren bokala baino iparralderago zeuden. Aste bat pasa zenean, lehenengoz, hegoaldetiko haizea aprobetxatu zuten ipar-ekialdera jotzeko. Alirekin hitz egin zuten Habusek eta Azenarik. Azenarik zalantzak adierazi zizkion pilotuari.

–Hau al da espero genuen haizea? Bukatu dugu mendebalerako bidaia?

–Bai. Hala espero dut behintzat, zeren bidaia hau nahita inork gutxik ez du egin. Ekaitzetan galdu diren bidaiariek baino ez baitute egin.

–Eta zenbat falta zaigu itzultzeko? –galdetu zuen Habusek kezkatuta.

–Egin dugun bezainbeste, ipar-ekialdera.

–Saiatu gara ur gutxi gastatzen, baina nahiko izango den ez dakigu –ez zen galdera Habusek adierazi zuena baieztapena baizik.

–Badaezpada ere, arraunean laguntzea komeni zaigu. Gizon onak eta bulartsuak dira hauek –erran zuen pilotuak. Berrehun anfora ur baino gehiago gelditzen zitzaien. Beste bi hilabeteko bidaiarako ozta izango zutela uste zuten.

Bi astez hegoaldeko haizeak eraginda asko aurreratu zuten ipar-ekialdera. Gero haizerik gabe ibili ziren, baina korronte apropos motel batek bidean lagundu zien. Hiru hilabeteko bidaia zuten egina, ekaina hasieratik, eta ia irailean ziren. Arraunean eta korronte onekin jarraitu zuten beste bi astez. Suerteza izan zuten eta Azoreetako irla txiki batean lehorreratu ziren. Ez zuten inor topatu, baina ur freskoa berritzeko aukera izan zuten. Ibrahimen ustez al-Andalusetik mila eta bostehun miliatara zeuden, al-Garberen parean edo. Behar zuten haizea izango ote zuten jakin gabe mintzatzen ari ziren Habus eta Azenari. Habusek espedizioaren erantzukizuna sentitzen zuen.

–Gure abentura honen bukaera gertu delarik, beldur naiz azken momentuan ez ote den dena pikutara joango.

–Ez izan hain ezkor! Bidaia bukatzekotan, espedizioaren helburua betetzen ari da. Ez dut honetaz mintzatu nahi, baina ez duzu obsesionatu behar. Zuk, egin behar dena egin duzu eta ez duzu itxaropenik galdu behar.

–Arrazoi duzu. Lasaitasunez jokatzeari besterik ez dugu behar.

Aldeko haizeak izan zituzten hurrengo egunetan. Urriaren hasieran, lurra ikusi zuten azkenean. Txalupan lurrera joan ziren kapitaina eta marinel batzuk mezuak bidaltzeko. Sagres ondoan ziren, al-Garbe koran. Handik beren berri bidali zioten Zawiri. Gau argitsu batzuetan mugitu ziren kostako herrietako argien eta kapitan-pilotuen eskarmentuen gidaritzapean. Gibraltar pasatu zutenean, lasaiago ibili ziren. Kostaldea ikusi zutenetik bost egunetara, gauerdian al-Motril ondoan hondartza batera heldu zirenean, Zawi eta berrehun bat gerlari zituzten zain. Argirik piztu gabe, ilargitan, urrea deskargatu eta ezkutatu zuten inguruko koba batean.

Helvira hiritik hurbil sanhayarrek alkazar bat eraiki zuten Granata hiriaren ondoan. Han kokatu zuten beren hiriburua. Handik aginduko zuten Elvirako kora osoan. Al-Hamrra mendixkan eraikitako alkazarrean gorde zuten urrea. Espedizioko partaide bakoitzari adostutakoa eman zioten. Artisau eta kapitainei lortutakoaren milarena eman zieten; laguntzaile, marinel eta gerlariei horren laurdena. Aberatsak ziren eta ziritarrek altxor handia zuten erresuma arazorik gabe sortzeko.

Azenarik aberastasun handia lortu zuen. Hirurogeita hamalau kilo urre jasotzeaz gain, milaka harribitxi eder eta handi zituen eta are gehiago lortu zuen mila eta ehun dinarren truke ehun bider lortu baitzuen. Ehun eta hamar mila dinar berri emango zizkioten Madinat al-Zahrako zekatik pasatutako urreaz egina.

Al-Andalusen gauza asko gertatu zen haiek Senegalera joan zirenetik. Aurreko udaberrian, 1013ko maiatzaren 9an azkenik lortu zuten berberek eta Sulayman al-Mustainek Kordoba errenditzea. Baina kalifa hiriburuan sartu zenerako, gerlariak hartuta zuten, arpilatze eta mendekua gauzatuz. Alkazarrean Hisham II al-Muayyadek abdikatu zuen bigarren aldiz. Hainbat pertsonaia atzerriratu edo erail zuten. Ikaragarria zen Kordoban gertatua. Etsai batzuek birrindutako hiriburua zen.

### 33 - Sulayman al-Mustain-en bertuteak eta akatsak.

Erdiko Markak eta Levantek ez zuten al-Mustain onartu eta honen jarraitzaileek gainerako korak banatu zituzten, feudo moduan. Berbere magrawarrek Toledo eta al-Garbeko korak hartu zituzten, Banu Ifranek eta Banu Birzalek Jaeneko koraren ipar-mendebadea, Banu Dammarek eta Azdache Medina Sidonia eta Moron, Zaragozako kora handia Mundhir ben Yahya tuchibiari eman zioten eta Elvira kora aberatsa sanhayarrei eman zieten. Betiko kalifatoa desegina zegoen. Kalifak Kordoban eta inguruan baino ez zuen agintzen eta zerga gutxi heltzen zen Estatua mantentzeko. Fitna hasia zen. Praktikan korak independenteak ziren, agintari zibil eta militar batzuek teorikoki Suliman al-Mustainen autoritatea onartzen bazuten ere. Bestetik Sulayman al-Mustainek ez zuen agintzeko balio, momentu eta inguruko agintarien arabera aldatzen baitzituen erabakiak. Horregatik ahal izan zutenak urrutiratu ziren beren jabegoetara.

Azenarik erdi abandonatutako Madinat al-Zahratik zeuzkan liburu piloak hartu zituen eta Granadara joan zen bizitza aro berri bati ekiteko. Ez zuen oso garbi zer egingo zuen. Bere lagunak garaipena gauzatu bazen ere, al-Andalus pobreago bat ikusi zuen, miseriaz aparte, jendearen tristezia eta gorrotoa nabari zen. Granatan, ordea, giroa bestelakoa zen. Bertako judutar eta mozarabeak gehiago ziren eta pozik hartu zuten ziritarren agindupeko gobernua. Muladiak ere ez ziren gaizki tratatuak sentitzen eta segurtasun giroak lagundu zuen nekazaritza eta komertzio aktiboak mantentzen. Sanhayarrek koraren segurtasun eremuak banatu zituzten. Kapitainei eta beren gerlariei barrutiak banatu zizkieten eta mantentzeko, ondasunak eta jabegoak utzi zizkieten. Agudo erantzun behar zuten Zawik deituz gero; gerlariek prest egon behar zuten eta urtean behin elkartu behar ziren egun batzuetan maniobrak eta arma praktikak egiteko. Granadan Zawik gobernua eta zaingo handi bat mantentzen zuen. Habusi Jaengo kora barneko barruti bat eman zioten zaintzeko eta kadi baten ondoan agindu behar zuen. Berrehun gerlari zituen menpean eta Baezako alkaide bezala, gaztelutik Goi-Guadalquivirreko olibondo zonaldean segurtasuna mantendu behar zuen. Azenarik ondoko herri batean, Ubedan, gauza bera egin behar zuen bere lagunaren agindupean. Dorretxe batean biziko zen hogeitaz gerlariekin ingurua babesteko eta lur batzuk izango zituen kudeatzeko. Herrian errespetuz hartu zuten. Ingurua zaintzeko neurriak hartu zituen, armetan trebatzen aritzen zen zaintzan ez ziren gerlariekin eta noizbehinka joaten zen ehizatza Habusekin. Udazken ederra pasa zuten baina Azenari urduri zegoen. Zanakin oroitzen zen. Neska, Zawiren menpeko kapitain batekin zegoen ezkondua eta berak ezin zuen beste emakume batengan pentsatu. Okerrena, dena den, Baskonia eta bere familia faltan izatea zen. Ongi pentsatu ondoren Habusengana jo zuen goiz batean. Igandea zen eta ehiza egiteko geldituak ziren aurreko egunetan. Ubeda eta Baeza arteko mendialdean zeuden. Azenari zaldian eta mando gainean morroi baten laguntzaz abiatu zen goizerako ordu bat falta zenean. Inoren testigantzarik gabe hitz egin nahi zuen Azenarik. Ina hitzik egin gabe, morroiak bidali zituzten beste puntu batetik orein ederren bat haiengana bidaltzeko eta zain zeuden bitartean mintzatzeko hasi ziren. Habusek galdetu zion nahiko zakar.

–Zer duzu Azenari? Azken aldian burumakur ibiltzen zara –Azenarik espero zuen galdera eta argi eta garbi erantzun zion.

–Sentitzen dut, Habus. Ezin naiz hemen geratu. Baskoniara edo familiaren ondora joan behar dut. Zuei eskertu behar dizuet niregatik egin duzuen guztia, nola tratatu nauzuen... Zu anaia baino gehiago zara niretzat, inoiz izan dudana lagunik handiena. Baina, nire espiritua ez dago hemen.

–Espero nuen antzeko zerbait. Nire ondo-ondoan nahi zintudan, baina Zawik tenentzia propioa ematea aholkatu zidan. Ba al dago zu gurekin geratzeko egin ahal dudan zerbait? Ezin duzu Zana ahaztu?

–Ez. Ezin dut ahaztu. Eta arrazoi duzu. Ezin zara hobeki portatu, ezinezkoa baita. Habus, Baskoniara joan behar dut negua heldu baino lehen. Oso gogorra egingo zait zugandik aparte ibiltzea, baina mesedez, utzi joaten oztoporik jarri gabe.

–Aspaldi dakit joango zinela. Ez nuen nahi eta ahal duguna egin dugu alferrik. Esadazu zerbait behar baduzu. –Bi lagunek besarkatu zuten elkar eta momentu onak oroitzen aritu ziren denbora batean. Oreinaren etorrerarekin prestatu ziren arte. Bien geziek jo zuten orein ar zaharra. Zaldiz jarraitu behar izan zuten zaurituta eginda ere. Kilometro gutxitara harrapatu zuten beti begi-bistan izanik. Morroiak bueltan bidali zituzten eta bazkaltzera gelditu ziren haiek. Arratsaldea elkarrekin pasa zuten agurra aurreratuz.

Hurrengo egunetan eraman nahi zituen gauza guztiak prestatu eta Habusen laguntzarekin Granadara abiatu zen Zawirengandik despeditzeko. Granadan, lehen baino jende gehiago bizi zen, batzuk urrutitik joanak. Etxe berriak, dendak, elizak, meskitak eta sinagogak eraikitzen ari ziren. Al-Hamra-ko alkazarra kanpotik eraikita bazegoen ere, kuartelak, dorreak eta gobernu-jauregia orduko bukatu gabe zeuden. Azenarik, lehen al-Zahran eta orduan Granadan pilatuta zituen milaka liburu gordetzen jarraitzeko esan zien Zawi eta Habusi. Ez zekien aurrerantzean zerbait egingo zuen eta lagunari liburutegi eta ikastetxe batean erabiltzeko eskatu zion. Dena den, milaka batzuk argizaritutako paketeetan gorde zituen hornitegi batean, hurrengo batean hartzekotan. Balio handikoak ziren berez. Hala ere, Azenerik momentuz aski izango zuen filosofia, zientziak eta literaturako lan aukeratu gutxi batzuek, bostehun bat liburu eramatearekin. Gustukoak zituen arabiar letrak eta kultura eta horiek bere denbora-pasa ia pertsonalak bihurtuko ziren. Konpondu behar zuen beste arazo bat, zeukan urrea eramatea izango zen. Handik bi egunera Zaragoza eta goi-markara abiatuko zen karabanan joango zen beste merkatari bat bezala, mando batzuetan zamak eramanez. Eskolta bezala lau gerlari sanhayar eramango zituen morroien papera eginen zutenak. Baskoniara joan baino lehenago ospatu zuten afarian ziritarrek bromaz aparte beren adiskidetasuna erakutsi zioten.

–Ez duzu negozio txarra egingo. Pergaminozko eta paperezko liburuak utziko dizkiguzu eta urrezko txanponak eraman –aipatu zuen algaraka Osirisek. Habusek ez zuen alaitasun gehiegirik adierazi, bere buruan Azenerik laguntasuna eraman eta tristezia utziko baitzion. Azenarik ere, bitartean, bere lagunaren antzera baina aldrebes egingo zuela pentsatzen zuen. Madjlisean, saloi eta harrera gela handiko txoko batean musikari batzuk ari ziren txirimia, gaita eta danborrariekin musika apalki jotzen. Bitartean, afaldu ondoren, gizonak pastelak eta frutak dastatu eta ardo gozoa edaten ari ziren. Zawik seriotasun puntu bat sartu zuen solasaldian.

–Baduzu urrea zeramika piezetan disimulatuta, baita konfiantzazko gerlariak, Kenan buru izanik, seguru bidaiatzeko. Hala ere, Baskonian nola egongo zaren ez dakizu. Badakizu, gauzak gaizki ateraz gero, gure artean leku bat duzula.

–Bai badakit. Eta zuek badakizue behar banauzue etorriko naizela. Nire bizitokia jakin bezain pronto bidaliko dizuet mezua –Habusek galdetu zion orduan non biziko zen.

–Ez naiz ziur. Ez dakit Iruñean lekurik izango dudan. Uste dut Uhartetik hurbilegi dagoela. Faltzesen edo mugako gotorlekuren batean izango naiz ziur aski.

–Eskerrak Elvirako kora eta Baskonia urrun daudela eta ez dugula borrokarik egin beharko. Oso gerlari trebea eta kapitain bikaina baitzara Azenari –bota zuen umoretsu Jonay-k, gerra kapitaina zenak. Pixkana, edariaren laguntzaz gero eta animatuago kantatzen eta txaloka hasi ziren musikari kasu eginez.

Hurrengo egunean, abiatzekotan, lagunduko zioten sanhayarrak mandoekin eta ziritarrek beraiek hazitarako hiru zaldi ederrekin agertu ziren. Habusek aurretik ezer esan gabe oparitu egin zizkion Azenariri: zuri, beltz eta zaldi gaztainakara bana. Azenarik eskertu zion lagunari ziritarren zaldi alerik onenak oparitu izana. Zaldi haiekin beti gogoratuko zuen laguna. Azenarik bazekien zaldi zuri eder hura Habusek berak hezi zuela azken hilabetean. Bele ere hezita zegoen eta Gaztaina gazteegia zen horretarako. Hasieratik konturatu gabe jarri zizkien izenak: Tximista, Bele eta Gaztaina. Tximistak zilarrezko uhaleriak zituenez, haren gainera igo zen Azenari lagunaren azken keinuarengatik hunkituta. Dena prestatuta zegoenez, Azenarik azkar agurtu zituen Zawj, Salma eta Habus. Zana ez zen agertu. Besarkatu ondoren, negar malkotan urrutiratu zen Azenari, berdintsu ari ziren bi gazteengandik. Zawj Azenariren etorkizuna segurua ez zela pentsatu zuen. Honekin batera erremedioa balitz bezala luzatu zion azken abisua.

–Kontuz ibili. Nahi baduzu gerlari gehiago eraman ahal duzu –Azenarik ezin izan zuen erantzun. Burua itzuli gabe eskua gorantz altxatu zuen azken agur gisa.

## 34 - Al-Andalusetik etxera itzuli.

Merkatarien karabana bide onenetatik pasatzen zenez, gehien bat gurdiz osatuta zegoen. Kordoba ondotik, Toledo, Guadalajara eta Medinacelitik pasako ziren eta Zaragoza zuen helburua. Arazorik gabe egin zuten Guadalajararaino. Hogeita hamar bat gurdi, ehun mando baino gehiago eta berrogeita hamar gizon geratzen ziren gauero karabansarretan. Beste hogeitaz gizonak babesten zuten karabana. Guadalajarako karabansarrean ziren. Gaztea zeruari begira geratu zen besteak afaldu eta ohera joan zirenean. Kenan, loak hartzen ez zuenez, harengana hurbildu zen laguntzera.

–Ez al duzu logalerik ala? Kezkati ikusten zaitut.

–Bai, Kenan. Zenbat eta gehiago pentsatu, orduan eta arazo gehiago ikusten dut Baskonian bizitzeko. Maite ditudanekin egon nahi dut, baina ez dut osaba Semeno jasango. Badakit nire kontra egingo duela eta oraindik okerrago, badakit gutxiengatik lelokeriaren bat egingo dudala: akabatu nahi izango dudala. Uhartan nire anaia txikiak agintzen du orain, baina osaba hori agintari militarren artean dabil eta mugako gazteluetan, Naxera eta Iruñetik pasatzen da askotan. Hobe dut leku hurbil batean bizitzea.

–Kalahorran bizi nahi al duzu?

–Ez. Kalagorrian gure etsai musulmanak daude. Baskoniatik gertuko Gaztelako leku bat bilatuko nuke. Noizean behin senideak eta lagunak bisitatzen ahalko ditut.

–Orduan orain Gaztelara joango al gara?

–Bai. Esango dugu zeramika Atienzara eramane behar dugula. Karabanako buruari Jaloneraino joango ginela esan nion eta Atienzarako bidea erreka hori baino kilometro batzuk lehenago dago. Atienza aldean lurperatuko dugu urre gehiena eta ni agertuko naiz Gaztelako muga-gaztelu batean, bakarrik.

–Ez dut gaizki ikusten zure plana, baina ager zaitez gutako batzuekin. Jaun bat zara eta ez zaldun arrunt bat.

–Ikusiko dugu. Agian hobe da zu eta mutilen batekin agertzea, berehala itzuliko zarete, hala ere. Bizitza berri bat egingo duena ni neuz naiz. Bihar Siguenzara helduko gara. Etzi karabana utziko dugu eta Atienzaraino jarraituko dugu bakarrik.

–Ongi da. Logale naiz. Ondo lo egin.

Azenari, zaldiak, mandoak eta lau sanhayarrak Siguenzan geratu ziren beren negozioa mendialdeko inguru hartan egin behar izan balute bezala. Zeramika eskari hura Atienzara eramane behar zutela esana zuten. Mendialdera abiatu ziren hurrengo egunean. Egun osoan ibili ziren eta Atienzatik hurbil zirenean iparraldeko bidea hartu zuten Alcolea izeneko herri aldera. Iluntzean bide bazterrean kanpatu zuten surik piztu gabe. Hurrengo egunean mando guztiak lotu zituzten bata bestearen atzetik eta apoak, kaskoak, zapi batzuekin inguratu zituzten arrastorik ez uzteko. Azenarik animalien gorotzak jasoko zituzten zakuak paratu zizkien mando-zaldiei. Gerlariei zapi beltz bana ipini zien begiak estaltzeko zien. Azenarik gidatu zituen zaldiak, mandoak eta gerlariak mendixkaz inguratutako bailara berdintsu haietatik.

Lehenengo zuloa egingo zuten lekura helduta, zapiak kenarazi zizkien eta altxorraren zati bat lurperatu zuten, zaku batzuetan sobratutako lurra gordez. Berdin egin zuten beste bi lekutan, tartean begiak estalita eta mandotik helduta ibiliz. Egun iluna zen eta ezin izan zuten asmatu eguzkiagatik hartu zuten norabidea. Beranduago, euri asko egin zuenez arrasto asko ezabatuko zen. Neurri haiek mesfidantzaz baino prebentzioz hartu zituen Azenarik. Egun batean pixka bat edan ondoren haietako batek kontatzen ahal zuen altxorraren istorioa eta agian behartuko zuten altxorraren kokapena kontatzera. Horrela ez zuten arriskurik izango. Azkenik, Alcoleara hurbildu zirenean txanoak kendu zizkien. Merkatari batek bere morroiekin gaua pasatzeko eskatuko zuen ostatuan, mandoen gainean zeramikak, liburuak eta zaku batzuk zituztenak. Inork ez zuen sumatuko zakutan lurra baino ez zela izango. Euri asko bota zuen gauean eta goizean hegoaldera kilometro batzuk egin ondoren, leku ezkutuan kanpatu zuten, Azenarik utzitako arrastoren bat goizean goiz ezabatzeko. Hurrengo egunean bi sanhayar itzuliko zirela esan zienean ez zuten onartu. Laurek batera itzuli nahi zuten Granadara. Azenari, Kenan eta beste gerlari bat ezkutari bezala hiru zalditan eta beste biak morroi paperean mando gainean eta arrazako zaldietatik tiraka iparraldera bueltatu ziren muga aldera. Atienza hiri txikian ordu gutxitan saldu zituzten zeramikak .

Hurrengo egunean Gormaz ikusi zuten urrunean eta kilometro batzuk gehiago egin zituztenean Osman sartuko ziren. Sancho Garciak, Gaztelako kondea, Kordoban hiru urte lehenago Wadih eta al-Mahdirekin negoziatuz lortu zituen Osma muga-herria eta gaztelua, Clunia eta beste gaztelu batzuk ere bai. Azenarik, hamaika urte lehenago ezagutu zuen Osma, Donemiliagan esklabo hartu zutenean.

## Amaiera eta sinopsia

Lehenengo liburuak kontatzen du penintsulako erresumen historia XI. Mendearen hasieran. Azenari Enekones, mutiko eta gero gazte baten begietatik, baina ikuspegi zabalez Almanzor garaian eta ondoren Baskonian, al-Andalusen eta Gaztelan gertatu ziren gorabeherak kontatzen dira. Azenari Enekones noble baskoiak bere eta ingurukoen bizitza kontatuko digu. Pertsonaia historiokoak agertzen dira: Almanzor, Zawi ben Ziri, Abd al-Malik, Hisham II.a, al-Madih, Sulaiman al-Mustain, Gaztelako Sancho Garcia, Baskoniako Antso Gartzes Nagusia erregea, Naiarako Garzia eta pertsonaia pila bat, baina baita gehiago ere, zeren errege eta nobleez gain, herritarren bizitza ere agertzen da. Gerlari, merkatari, nekazari, artisau, konkubina, jakintsu, neskame, zerbitzari, esklabo eta abenturazaleen bizipenak agertuko zaizkigu. Lehenengo liburu honetan, Uharte, Iruñea eta Errioxatik ibili ondoren, besteak beste Kordoba, Afrika eta Granada ezagutuko ditugu, azkenik Gaztelara itzultzeko. Jendarte kristaua eta musulmanena ezagutzeko aukera izanen dugu, baita erlijio desberdinetako pentsaerak ere.

Hurrengo liburuetan Azenari heldu bat azalduko da beste pertsonaia askoren aurkezpena egiteko. Hala ere, hurrengo beste bi liburuetan luzatuko da garai hartako bizitzari buruzko kontakizuna. Gaztela, Leon eta Baskoniako historian murgildu nahi izan dugu Nafarroako historian hain garrantzitsuak izan diren Antso Gartzes Nagusiaren erregetza eta erresumaren banaketaren auzian murgildu nahian. Idazleak Naiarako Garzia eta Gaztelako Fernandoren arteko gatazka eta ondoren gertatu zena ulertu nahiak eramanda, garai hartako egoera eraikitzen saiatu da, Nafarroako erresumaren bilakaera ulertzeko helburuz.

## AURKIBIDEA

- 1 - Alfa eta omega.
- 2 - Aurrekariak. Razzia bat musulmanen lurretan.
- 3 - Mugako hiri batean elkartu ziren noble borrokazaleak.
- 4 - Garazi belar-sendagilea.
- 5 - Udako kanpainaren ondorioak.
- 6 - Uharteko jaun Enekoren egitekoak.
- 7 - Noblezia eta erregea.
- 8 - Uharteko bizimodua.
- 9 - Gerrarako prestaketak.
- 10 - Errotik Gaztelara.
- 11 - Ezkarai.
- 12 - Peñacervera.
- 13 - Peñacervera ondoren.
- 14 - Ekaitzaren ondoren... heriotza.
- 15 - Donemiliaga.
- 16 - Al-Andalus. Kordobara bidean.
- 17 - Kordoba hiria.
- 18 - Kordoba inguruak.
- 19 - Kordobako jakinduria.
- 20 - Emakume tamazigak.
- 21 - Salma, Zana eta Miriam.
- 22 - Abd al-Maliken kontrako altxamendua.
- 23 - Fitna.
- 24 - 1009ko urtarrilatik ekainera Sanchul eta al-Mahdi.
- 25 - Sanhayarrek eraso aurrakusi eta auzoa utzi.

26 - Lubakia.

27 - Gaztelauak.

28 - Baskoniako enbaxada eta Almeriara egindako bidaia.

29 - Afrika.

30 - Takrur erresuma.

31 - Ghana.

32 - Afrikatik al-Andaluserako itzulia.

33 - Sulayman al-Mustain-en bertuteak eta akatsak.

34 - Al-Andalusetik etxera itzuli.